

MIKEL ATXAGA
BIDEGILEA

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia:	1.a, 2009ko martxoa
Ale-kopurua:	2.600 ale
© testuena:	Egile bakoitza
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net/euskara21
Argitaraldiaren arduraduna:	Jorge Giménez Bech
Hautatzaileak:	Sergio Basurko eta Aritz Gorrotxategi
Azala:	Antton Olariaga
Maketazioa:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4-01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	978-84-457-2930-4
Lege gordailua:	

MIKEL ATXAGA

BIDEGILEA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	
MIREN AZKARATE, Kultura sailburua	11
Gure bidegile <i>partikularra</i>	
PATXI BAZTARRIKA, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	13
Mikel Atxaga. Senezko kontalaria, hitzez eta idatziz	
ELIXABETE GARMENDIA	19

IDAZLANEN ANTOLOGIA

I. EUSKARA

Euskararen Nazioarteko Eguna	49
Euskara ez erabiltzearen erantzukizuna	51
Españoltzarrok!	54
Beste hamar urte	56
Kultur gizonak eta politika	59
“Egan” eraberritua	61
Dena goibel euskararen zeruan	64
Euskara eta borroka	66
Euskarako aingeruak	69

Euskararen erruz desberdinak	71
Hizkuntza eredua	74
“Apustu merkea”	76
Amurrioko irakaslea	78
Euskara paradisuako hizkuntza	81
Irudipen bat	83
“Jalgi hadi plazara”	84
Unamunoren damua	87
“Revista euskara”	89
Baserritik unibertsitateraino	91
Hizkuntzentzat ez da museorik	93
Euskaltzaleen Biltzarra	95
Euskal prentsaren artizarra	96
Andereñoak	98
Elebitasun mota asko	99
Etorkinentzat euskaltegiak	101
Euskararen aurrerakada	102
Lana euskaraz	104

II. EUSKALTZALEAK

Lazkao-Txiki	107
Eusebio Erkiaga	110
Uzturre	112
“Umandi”	115
Pedro Zelaia	117
Antonio Maria Labaien	120
Jon Bilbao	122
Justo Garate	125
Pio Montoia	127
Josu Oregi	129

Xanti Onaindia	132
Gotzon Etxebarria	134
Jose Antonio Arkotxa Atxukale	136
Joseba Jaka	137
Xabier Azurmendi	139
Alfonso Irigoien	142
Anastasio Albisu	144
Maria Dolores Agirre	146
Balentin Zamora	147
Jon Etxaide	150
Federiko Krutwig	151
Felipe Lizaso	153
Iñaki Eizmendi <i>Basarri</i>	155
Manuel Matxain	157
Xalbador Zapirain <i>Ataño</i>	159
Jesus Lete <i>Ibai-ertz</i>	161
Asintxio Elustondo	162
Maria Arizmendi	164
Eli Etxeberria	165
Jesus Mari Alkain	167
Serafin Esnaola	168
Jose Mari Satrustegi	170
Etienne Salaberri	172
Sabino Arana	174
Augustin Zubikarai	175
Martin Ugalde	177
Jose Mari Larrarte	180
Sabin Unzurrunzaga	181
Joan San Martin	183
Lauaxeta	185
Arantxa Mendizabal	186

Joxemari Aranalde	188
Hitzik gabe utzi nauk, Joxemai	190
Joan Mari Lekuona	191
Lurdes Iriondo	194
Patxi Altuna	196
Plazido Muxika	197
Elbira Zipitria	199

III. BORTXAZ ETA BAKEAZ

“Garaiz gara oraindik”	201
Ezezagunen hiletara	206
ETAren aitzakian eta babesean	208
“Aparta, zipaio”	210
“Hilik gertatu zen”	212
“Zakurraren pare”	214
Zer da ETA?	216
Presoen ardura	218
Giza eskubideak eta euskaldunak	220
Herriगतik bizi	222
Ulster-erako konponbidea	223
Nahigabea	225
Tortura hots handiak	227
Erasotuak eta erasotzaileak	229
Eragozpenik handiena ETA da	230
Zer egin dut? Zer ez dut egin?	232
Neurriko txapela	233
Diskrezioa	235
Erreferendumak	236
Bakearen irrika	238
Damua patrikan	239

Amorragarria	241
Kalean zakar gatazkan goxo	242
Ni ere Gorka naiz	244
Bakearen zauriak	245
Hiru pailazo Aritxulegin	247

IV. OROTARIKOAK

Abertzaletasun ekologikoa	249
Bataio zibila	251
Bada beste eliza bat	252
Gurutzea ala ospea?	254
Karol Wojtyła, munduko argia	255
Jabeak eta maizterrak	257
Sermoi bera	258
Euskal zentzura	260
Euskal Herria eta Euskadi	261
Benetako grebalaria	263
Agur eta adio irakurle	264

Zigarro kearen albainuz	
Hainbat gogoeta, Mikel Atxaga bidegilearen omenez	
ANJEL LERTXUNDI	267

Hitzaurrea

Miren Azkarate
KULTURA SAILBURUA

EUSKARAK ESPARRU ETA FUNTZIO ASKO irabazi ditu azken hamarraldiotan. Etxearen eta lagunartearen mugak gainditzea eta gizartearen esparru gero eta zabalagoetara igarotzea lortu du.

Premiazkoa zuen urrats hori egitea, bizirik iraungo bazuen. Euskararen Aholku Batzordeak behin eta birritan azpimarratu du zer garrantzitsua den euskararentzat esparru funtzional berriak irabaztea, hau da, euskara ohizko hizkuntza izango duten arnasguneak eta funtzioak sendotzea.

Euskarak bere egin duen esparruotakoa dugu hedabideena. Euskara gaur hizkuntza funtzionala da prentsa idatzian, irratian, telebistan nahiz Internet bidezko komunikabideetan.

Baina esparru hori ez zaio euskarari zerutik jaitsi. Honetan ere urte latzetan, urte luzetan, katea eten ez zedin gogor saiatu direnei zor diegu gaur euskal hedabideek bizi duten egoera, Honaino urratutako bidean berebiziko garrantzia izan dute Mikel Atxaga bezalako aitzindari batzuek. Berrogei urte luze eman ditu kazetaritza euskaraz egiten Atxaga jaunak. Joan den mendeko hirurogeiko hamarraldian hasi eta euskararen langile nekazina eta

profesional bikaina izan da. Horregatik aitortu du haren maisutza belaunaldi gazteagoko kazetari askok eta askok.

Eta kazetari ez garen hainbatentzat ere maisu izan da. Izan ere, bera bezalako aitzindariak ekarpen eskerga egin diote euskararen modernizazioari. Euskara komunikabide-hizkuntza, prentsa alorrerako hizkuntza funtzional bihurtzeko bidean mugarri asko jarri ditu Mikel Atxagak. Euskara kultur hizkuntza modernoa izan daitekeela frogatu dute berak eta bera bezalako aitzindariak. Halatan, asko gara haren idazlanak irakurriz euskarazaletu ez ezik, neurri batean edo bestean euskaraz trebatu eta alfabetatu garenok. Euskara, besteak beste, gure gizartearen kronika idazteko hizkuntza aski gaitua eta heldua dela erakutsi digu, euskararen corpusa biziberritu eta sendotu egin du. Gaurko euskarazko kazetaritzak asko zor die bera bezalako aitzindariei.

Eta bera baino urte batzuk gazteago garenok, asko zor diogu haren izaera isil, irribarretsu eta gozoaren ereduari. Zalapartarik gabe, egunero-egunero, bere alea eskainiaz ez bakarrik euskal prentsari, baita ere, eta, bereziki, herrigintzari.

Eta horrexegatik, zordun garelako, zor horren zati bat behintzat kitatu nahi du liburu honek. Bide-urratzaile aitortua den aldetik, ongi merezia baitu Mikel Atxagak, “Bidegileak” bilduma ezin oparagoaren bultzatzaile nagusietakoa izan denak, bildumako alea berari eskaintzea.

Hark euskararen eta euskal kulturaren alde izan duen ibilbide profesional bikain eta eredugarriaren lekuko izatea nahi genuke, esker onez.

Gure bidegile *partikularra*

Patxi Baztarrika

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA

KONTU ZAHARRAK BERRITZEN. Mutil koxkorra nintzela –ez dakit hamar urte beterik izango nituen– izan nuen, gurasoek gomendatuta, Aizarnan apaiz omen zegoen Mikel Atxaga haren euskarazko idatzien lehenbiziko berria. Haiek izan nituen, *Xabiertxoren* hurrena, euskarazko nire lehen irakurketak. Urte haietako igande eguerdietan Ataun San Gregorioko elizaren aurrean jartzen ginen arreba eta biok orduko *Zeruko Argia* handi haiek besoan hartu eta meza nagusiaren ondoren saltzeko. Ordurako bazebilen Mikel Atxaga *Zeruko Argia* haiek ontzen ziren labea zaintzeko lanetan. Hura da gogoratzen dudan Mikelen bigarren erreferentzia. Hurrengoa, hirugarrena, zuzenean ezagutu nuenekoa. 70eko hamarkadaren hasieran, atrebentziarik falta ez eta, Ataungo berriemaile xume legez, *Zeruko Argian* idatzi ohi nuen, *Trikuharrieta* goitzenaren itzalpean babestuta. Hala, Donostiako Okendo 22ra bisitan eraman nindutelarik –hamalau urte nituen–, ezagutu nuen Mikel, Miren Jone Azurza eta Kaie-tano Ezeizarekin batera. Aspaldiko kontuak, bistan da. Lerroo-tara baldin badakartzat hauxe adierazteko da: aspaldikoa dela

–gu itzarri ginenerako bazela– euskararen sarea, eta aldez edo moldez euskararen sarean ari ginela elkar ezagutu genuenok euskararen sarean jarraitzen dugula, beste milaka euskaltzalerekin batera, gehiago egin asmoz eta bidelagun gehiagorekin bidea urratu gogoz. Bidea egon bai baitago; aurkitzea dagokigu, Mikelek aurkitu izan duen bezala. Bidea.

Hogei urte bete ditu BIDEGILEAK izeneko bildumak, Eusko Jaurlearitzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatzen eta gauzatzen duenak. Euskararen eta euskal kulturaren sustapenean bidegile, bide-erakusle, sortzaile eta ekintzaile fin eta amorratuak izan direnen ibilbidea eta lana modu errazean ezagutzera ematea du helburu aipatutako bildumak. Izan ere, izan garenari eta gure kultur oroimen historikoari bizkarra erakutsiz ezin baita etorkizuna eraiki. Honetan ere zabarkeria eta ezjakintasuna dira ororen gaintetik uxatu beharko genituzkeen etsaiak. Jaso ezean galtzear legokeen oroimen hori jasotzera, oroimen hori gordetzera, eta oroimen hori ondorengo belaunaldiei transmititzera dator, bere apaltasunean, BIDEGILEAK bilduma. Oroimena transmititu, euskaraz sortu den kultura maita dezaten, jakina baita, maitatuko bada, behar-beharrezkoa dela ezagutzea.

Hogei urteotan, 54 sorta kaleratu dira aipatu bildumaren barruan. Berrehunetik gora bidegileren bizitza eta lana, ehun baino idazle gehiagoren eskutik: horra emaitza; emaitza oparoa ikuspuntu guztietatik begiratuta. Bidegileei buruzko bildumak, nahitaez, bidegile bat behar hauspo emaile: Mikel Atxaga; bera izan da bilduma honen koordinazio eta zuzendaritzaz arduratu dena. 2008 urtean, 51. sorta kaleratzearekin batera, formatua berriro genuen, eta berrikuntza haren karian erabaki genuen bildumaren itzain Mikel Atxagari –bildumako sorta berriak jen-

daurrean aurkezteko egin ditugun ekitaldietan beti *Gure Bidegile Partikular* izendatu izan dudan Mikeli– bere lan bikaina aitortzeko liburu bat moldatu behar geniola. Jorge Giménez Bechekin erabaki genuen liburuaren nondik norakoa, eta berari enkargatu genion argitalpenaren koordinazioa. Gillermo Etxeberriaren laguntza izan dugu Mikelen idazlanak eskuratzerakoan. Aritz Gorrotxategik eta Sergio Basurkok osatu dute, Jorge Giménez Bechen ardurapean, Mikelen idazlanen antologia. Elixabete Garmendiaren erreportajeak eta Anjel Lertxundiren piezak bikaintasun osoz ematen diote hasiera eta bukaera Mikelen antologiari. Eskerrik asko, bihotzez, guztiei.

Kazetaria da Mikel, baina, horrekin batera, ezinezkoa da Mikelen ibilbideari beste honako *-tasun* eta *-gintza* hauek gabe begiratzea: euskaltzaletasuna eta, euskaltzaletasunaren indarrez euskalgintzari egindako ekarpena. Euskararekiko kezka eta identifikazioa bere-bereak eta berezkoak ditu Mikelek. Horregatik, beste hainbat esparrutan bezala hizkuntzarenean ere eskubideak aldarrikatzea eskubideak baliatzea eta norberak egin dezakeena egitea baino gogokoagoa eta modakoagoa den gizarte honetan, bidegile eta bide-erakusle dira Mikelen hainbat gogoeta; ondorengoak adibidez:

Nola lortu gazteria euskarari lotzea eta atxikitzea? Hor dago kokka. Guri, bere zailean, erraza suertatu zitzaigun euskara maitatzea. “Euskara zapaldua dago”, “euskara erasotua dago” esateak indar handia zuen euskaltzaleak berpizteko eta ugalteko. Baina gaur ez du balio erretolika horrek. Euskara hitz egiteagatik ez da inor zigortzen. Nahi duen guztiak ikas dezake. Zenbait lanpostutarako beharrezkoa bihurtu da. Ikasketetan aurrera egiteko gaintitu beharrezkoa da. Beste edozein gaiak

bezala ordu asko eskatzen dizkio gaurko haurrari eta gazteari. Ikasturtea galdu egin dezake nahiko euskararik ikasi ez duelako. Ikasi beharraren nekea jasaten duen gazteari barregura edo amorrua bakarrik eman diezaioke “euskara zapaldua dago” entzuteak. Beste heldulekuren bat beharko du gaurko gazteak euskarari lotzeko, euskararen aukera eta euskararen aldeko apustua egiteko. (1991)

Euskararen kontuan, ez hotz eta ez bero, ez alde eta ez kontra, dagoen %40ari esker onartu dira euskararen aldeko legeak, neurriak, baliabideak eta diruak. Multzo hau kontrakoan edo oso kontrakoan sailera lerratzen bada, galduak gara, jakina. Sail horretara eraman nahian xaxaka eta zirika ari denik agertu da, noski, besteak beste, botoak gehitzeko harrobia hor baitu. Multzo hori galtzen badugu, galdua dugu gure apustua. Eta erraz gal dezakegu, euskara bortizkeriarekin lotua eta inposaketa itxuraz jantzia eskaintzen badiogu. Ondasun, aberastasun, elkartasun lokarri eta askatasun aukera bezala eskainiz bakarrik geureganatuko dugu. Honela eskaintzen badiogu, kontra behintzat, nekez jarriko da, horretarako oso faxista eta inperialista izan behar baita. (1992)

Beharrezkoak dira legeak, egitasmoak, laguntzak, “ziurtagiriak”. Baina horiek ez dituzte gure zabarkeriak, ganoragabekeriak, erosokeriak eta ezinak konpontzen. Gurasoek bere hizkuntza irakatsi ohi diete beren seme-alabei. Ez denek, zoritxarrez. Eta izan dira kalea, eskola eta giroa erdaldunak izan arren, etxean euskara irakatsi dieten gurasoak. Debekuak debeku, euskara lantzen ahaleginduak ere badira. Ikastolan ikasitako lankide mordoxka izan dut inguruan. Nirekin euskaraz eta beraien artean erdaraz mintzatu ohi ziren. Borondate hutsa ez da aski, jakina, baina ezinbestekoa da. (2006)

Euskararen sarea aipatuz hasi gara, eta hala bukatu nahi dugu. Gure hizkuntzaren aldeko jardueran elkartzen gaituen sare berean gaude. *Zerbitzuko lana* deitu zion poetak, Xabier Letek. Eta zerbitzuko lan horretan, batek gehiago tiratuko du sarearen ertz batetik, besteak berriz bestetik; batek sare xeheagoa nahiko luke, beste batek larriagoa; batek orain jaso nahi du sarea eta beste batek nahiago luke itxoin, baina esango nuke kontu batean behintzat denok bat gatozela: ezin dugu sarea urratu eta eten. Horretarako, ezinbestekoa dugu hizkuntzarekiko leialtasuna. Gutariko bakoitzaren atxikimendu praktikoa izango da bitamina, eta gutariko bakoitzaren utzikeria izango litzateke hondamendia. Eta gutariko diodanean, guztiona esan nahi dut: euskaraz dakigunona eta gaur oraindik tutik ere ez dakitenena. Mikelen ibilbidea horixe da, ezbairik gabe: euskararekiko atxikimendu naturalaren bidegilea.

Mikel Atxaga
Senezko kontalaria, hitzez eta idatziz



ELIXABETE GARMENDIA

GIZON HONEK LEHENENGO BEGIRADAN transmititzen duena patxada da. Patxada hartu eta ematen dakienaren tankera. Badu patxada horrek zerbait baserritarren jitetik. Beste zerbait, garai bateko apaizen estilotik. Eta beste asko, jendartetasunetik. Berak dio ez dela plazagizona, baina mahai baten inguruan eseri eta laster bilakatuko da solasaldiaren ardatz. Kontu asko dakizki eta, batez ere, horiek kontatzen daki. Eta gozatu egiten du gainera jardunean. Aitortzen du tertulia zalea dela. Hori, hitzez. Idatziz ez da kamutsago geratzen.

Lenteen atzetik, begi urdin-urdinak. Urdintasun hori ez da, ordea, barea. Begirada fisikoa zorrotza du, barne begiradaren ispilu. Aita gozoa omen zuen, baita umore puntukoa ere. Ama, berriz, jenio bizikoa. Bietatik jasoko zuen herentzia.

Euskarazko kazetaritzaren dekanu titulua ematen zaio azkenaldian. Berrogei urte euskal munduari urdintasunetik begiratu eta paper zuria belzten. Hasieran *olivetti* gogor haien teklak zanpa eta zanpa, bi hatzez, eskulana maiteago duenaren indarrak.

Auzolanera ohitua, ez zuen beretzat gordetzen ofizioaren jakinduria. Bilduko zituen nor zirenen sinadura ilustreak. Animateko zituen idaztera herrietako berriemaile xumeak. Lagunduko zien hurrengo belaunaldikoei kazetaritzan lehen urratsak egiten. Eskarmentutik datorren zuhertasunarekin, haixerik eman gabe,

eta aldi berean bidea asmatzen utziz. Gaur egungo talaiatik aholku hau luzatzen die kazetari berriei: “Idazten ari zaren gauzarik xumeena ere interesgarria dela pentsatuz egin lan”. Hortxe lanbide horrekiko pasioaren aitorpena.

Beste ofizio baterako egin zituen ikasketak, apaizgintzarako. Eta hura ere pasioz bizi izan zuen: “Gu mundua jatera atera ginen. Mundua salbatu behar genuen. Batez ere, euskaldunak”. Eta zeregin horretan egin zuen erlijiotik herrigintzarako jauzia. Apaiz langile izan zen, kontzientzia soziala barneratuta. Giza eskubideak eta herri eskubideak defendatzeko ahaleaginean elizako hierarkiari eta agintari frankistei aurre egitea suertatu zitzaion behin baino gehiago. Eta beti zeraman euskara noranahiko eta zernahitarako gai egiteko misio horren zuzia piztuta.

Sendotzako sakramentua eman zion Lauzirika gotzain frankistak jotako masailekoa ezin ahaztu. “Eskuinera ala ezkerrera joan ez nekiela geratu nintzen. Eta bizitza osoa daramat, geroztik, ezkerrera ala eskuinera jo ez dakidala”. Hala ere, ahuldadea balitz bezala dio: “Erraz elkartzen naiz galtzaileekin. Beti. Baita frontoian ere”.

Izan ere, euskaldun petoaren estereotipoa borobiltze aldera bezala, bi zaletasunek betetzen diote jolaserako eta jokorako sena: pilotak eta bertsolaritzak.

Adiskide min izan zuen Joxe Mari Aranaldek bertsoan zirriborratu zion erretratua:

*Sendoa da gizona,
gorputz ta arima,
alde guztietara
ondotxo egina;*

*frontoiean abilak,
ezker ta eskuina,
badaki nola dantza
luma ta mihina.*

**“AMAK BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ESAN ZIDAN:
HI EZ HAIZ ATE ONDOAN BILATUA”**

Zortzi senidetan bosgarrena, ez zeru eta ez lur, erdi parean suertatzen den hori kontsolatu beharra.

Mikel jaio zenerako (1932ko abuztuaren 25ean), hiru mutil eta neska bat ziren aurretik. Gero etorriko ziren beste hiru neska, azken biak bikiak; haietako bat, Klarita, bi urterekin hil zen.

Etzabalzar baserria Urnietan, horixe Atxaga-Fernandeztarrren habia. Hala ere, “nik sustrai gutxi ditut Urnietan. Ama urnietarra nuen, baina amaren gurasoak hernaniarrak”. Atxagatarren aldetik berriz, aitona Zizurkilgoa, Amasara ezkondua. Handik, Zizurkilgo Lartin baserritik dator euskal letretako bi Atxagak, Mikel eta Bernardo, lotzen dituen haria.

Jazinto Atxaga eta Generosa Fernandez Amasako Mutio baserrira ezkondu ziren, baina hura utzi eta Urnietara aldatu ziren laster, Etzabalzar baserria erosita.

Urnietan bakarrik ez, Beterri aldean sustraiak. Amaren Fernandez horrek adierazten du ordea urrutiagoko jatorririk. “1825 inguruan Asturiasetik etorri omen zen Fernandez hori, Hilario, birraitonaren aita”. Jakin ez zergatik, ez zein lanbidetara.

Jazinto Atxaga baserritarra izateaz gain “gertatu zen ofizio gehiago ere bazituela; eskulanean trebea, igeltserotzan, arozingintzan... Txikiena zen eta ez zen baserrirako pentsatua nonbait.

Baina bere aurreko hiru anaia joan ziren Ameriketara eta bera baserrian geratu zen. Eskuareak egitea edo gurdiak egitea, edo etxea berritu ere bai, beste puska bat erantsi...”.

Errepublika garaian jaio zen Mikel, eta eskolatzera, Francoren erregimena indarrean zegoen. Oroitzapen lauso batzuk besterik ez gerra kontuetaz. Gerokoaz: “Nik esan behar dut ni naizela gerrarik egin gabeko irabazleen semea. Botoan nik uste dut aitak eman zuela karlista, eta amak, berriz, nazionalista. Baina irabazleen aldekoat jotzen izan dute gure familia beti. Hala ere, nik ez dut sekula etxean entzun ez nazionalisten kontra, ez inoren kontra ezer ere. Nik ez dut inongo gorrotorik jaso etxetik. Eta nik banekien abertzalea nintzela txikitatik. Eskolan bazen entziklopedia kaxkarren bat, eta euskaraz bazeukan testu bat, eta beti hara joaten nintzen. Ez dakit zer esaten zuen, e? Baina nik neukan neurea bezala”.

nik, jesuita. Eta hik? –niri, hurrengo galdera–. Nik, apaiza. Hari ez zion kasurik egin eta arotz ikastera bidali zuen, eta ni, seminariorako preparatu. Mirakontxara ekarri ninduen. Moja batzuek bazuten hor prezeptorio bat apaizgaiak prestatzeko, erdara pixka bat ikasteko eta –premia ederra banuen nik noski–”.

Berrito tren. Oraingoan Donostiara bidean.

Burubide oneko gizona izango zen, inondik ere, Jazinto Atxaga. Etorkizunera begiratzen zekiena. Mikelek hamarren bat urte zitueneko pasadizoa dakar.

“Amasatik gentozen –sanmartinetan dira festak Amasan–, aita, nire aurreko anaia eta hirurok. Tren ez etorri ginen, eta guk geltokitik zuzen genuen etxerako bidea, Adarra aldera. Halako batean, gure sailetara sartu baino bi-hiru metro lehenago, galdetzen dio aitak anaia-ri: hik zer izan behar duk gero? Anaia Eduardok:

“San Migel inguruan izango zen noski –Urnietan sanmi-geletan dira festak–, hurrengo igandean, Ama Birjinaren eguna; nik egun hartan jango nituen arrozkonletxeak ikaragarriak izango ziren. Eta ilun-bistan, hartu maleta, aitak koltxoia bizkarrean, trenean Donostiara. Geltokitik Mirakontxara oinez, ttapa-ttapa-ttapa... niri sartu zitzaidan tristura...”.

Baserritik hirirako leizea, hamabi urteko mutikoarentzat. Irudi batean zertzen zaio desolazio hura: kaleko argiak gasezkoak ziren artean, eta han ikusten zuen Mikelek iluntzetan faroleroa banan-banan farolak pizten.

Bakarrik eta arrotz. “Bigarren egunean eman zidan negar zotin batek... Jakin izan banu nik Mirakontxatik treneko geltokia non zegoen, alde egingo nuen, e?”.

Etsi zuen mutikoak halako batean. Eskolatu zen Villa Betania eta Villa Nazareth artean. Eta urtebete interno pasatuta, azterketa bat egin eta Saturrarango apaizgaitegian sartzeko prest zen.

**“SATURRARANEN EMAKUMEEN KARTZELA
EGONA ZENIK, EZTA ARRASTORIK ERE.
GERORA JAKIN NUEN NIK HORI”**

Eta hori kartzela itxi berria zenean, 1945ean. Saturraran, Mirakontxako prezeptoria ez bezala, toki atsegina gertatu zitzaion Atxagari. “Familia ere hantxe sortzen duzu, anaiak eta... Joxe Mari Aranalde, Imanol Aldaregia, Jexux Gaztañaga, Joxe (Agi-*rr*e) *Alkiza*, Lukas Dorronsoro... lagun laguna, Joxe Mari. Oso euskaldun girokoak ginen denak. Familia abertzalekoa nik uste Aldaregia bakarrik, baina gu euskaltzaleak ginen”.

Laguntza ere topatu zuten euskaltzaletasun hori garatzeko, bi irakasleren eskutik: Andoni Basterretxea ondarrutarra eta Anton Garro. Andoni Basterretxeak etxerako gutunak euskaraz idazten jarri zuen. “Garro, berriz, (Bernardo M^a Garro) Otxoluaren iloba

“Ikasle kaxkarra nintzen, batere afiziorik gabea. Niri eskulana ikaragarri gustatu zait, ikaragarri. Joan nintzaion behin hango arduradunetako bati: aizu, nik ikasteko ez dut batere gogorik, niri baserria gustatzen zait. Eta esaten dit: bueno, joan hadi besteak dauden leku horretara eta galdetu denei ea ikasteko gogoia zeinek daukan. Baten batek baldin badauka, hoa etxera! Horrela begiratu nion —zeharka— eta han geratu nintzen”.

zen. Aita, medikua, zigortuta zeukan Logroñon. Liburu asko zeuzkan eta banatu egiten zituen. Euskaraz lehenengo irakurri nuen liburua *Garoa* izango zen, hark emana”.

Saturraranen egindako latineko lau urteek Gasteizen izan zuten jarraipena. Han latineko bosgarrena eta filosofiako bi egin zituen. Kontakizunean, beti dator harira tokiaren euskaltasun neurria. “Kurtso bukaeran *Agur, Jesusen Ama* besterik ez euskaraz. Baina irakasle bakarra zen espainolista txar bat. Besteek ez zuten euskararen kontra ezer. Uzten ziguten euskaraz”. Eta irakasle haietako baten oroitzapen ona: “Gregorio Rodríguez Yurre. So-

ziologia eta filosofia irakasten zituen. Euskaraz ez zekien, baina ikusten zen abertzalea zela”.

“BETI APAIZ, DENENTZAT APAIZ, APAIZ SOILIK”

1953an, Donostiako apaizgaitegia estreinatzea suertatu zitzaion Atxaga eta bere ikaskideei. Ordurako, hiru urte lehenago, zatitua zen diozesia eta horren ondorio izan zen lurraldez lurraldeko semi-

narioak sortzea. Donostian, eraikina bai, baina artean osatu gabe zeuden kirolerako guneak. “Ondarretara jaisten ginen futbolera, sotanarekin. Hango neskak aztoratzen genituen...”. Hori, kronika arina. Gainerakoan “gezurra badirudi ere, askoz espainolistagoa zen Donostiako seminarioa Gasteizkoa baino. Espiritualitate zera bat bazegoen... *Txerri batek patata sailean baino oker gehiago* egiten zuela esaten zuen Serafin Esnaolak. “Beti apaiz, denentzat apaiz, apaiz soilik”. Gu espiritualitate horretan heziak gara. Gero ohartu ginen horrek bazeukala tranpa. Tranpa hutsa zela”.

Apaizgaiak, batzuk behintzat, ez ziren ordurako hain otxanak. “Irakasleak exkaxak. Sekulako informea egin genuen irakasle bakoitza aztertuz, zorrotza. Aldaregiari kezka sortu zitzaion eta Jose Luis Ansorenarengana jo zuen –ez zeukan kargu handirik, oso irekia zen–. Harengana, kezkarekin: aizu, hau egin dugu. Eta hark: motel, motel, motel!, puskatu ezazu segituan, bestela etxera zoazte denok”.

Irakasle exkak eta guzti, aurrera segitu zuten teologiako ikasketekin, harik eta, 1958an, apaizteko garaia iritsi zitzaion arte. Xahartutako liburuxka erlikia modura gordetzen du Mikelek. Han ageri dira zuri-beltzeko argazkietan apaiztera zihoazen berrogei ikaskideak, elizako jantzi dotoreenak soinean, meza ematen, orain bat, gero bestea, gainerakoak laguntzaile lanetan. Argazki oinak denak euskaraz. Belaunaldi berri bat zetorren apaizgintzara.

Lurdesko Ama Birjinaren mendeurrena zela-eta, hara eramán zituzten apaiztera, lurrazpiko eliza eraiki berrian. 1958ko ekainaren 1ean zen hori. Handik hiru egunera, Urnietan eman zuen meza berria Atxagak. Txistulariekin erretore-etxetik elizarako bidea; hitzaldia, Patxi Epeldek; bazkaria, Ereñozun. Dena den, bere meza berriko eguna adina gogoratzen du Atxagak

Joxe Mari Aranalterena Gaztelun. Hark ekainaren 8an eman zuen.

Eta hartan, gonbidapena iritsi zitzaien bi lagunei. Juantxo Arrizabalaga ikaskideak Aramaiora joateko eskatu zien, hama-bost egunerako, han apaiz zegoen Joxe Antonio anaiaren lekua betetzera. Praktikatako tarte hori laburra bezain gustukoa gertatu zitzaien. Aramaioko auzoetan batetik bestera, gazteren batek motoz eramaten zituela. “Pulpituan euskaraz egiteko hanka-sartzeen beldurrik ez, hango euskara ezberdina zelako”. Pozik geratuko omen ziren bertan. Baina beste destino bat zeukan Mikelek zain: Aizarna. 1958ko abuztuan hartu zuen harako bidea, arreba Iñaxi etxekoandre zuela.

“AIZARNAN, HAMA IKA URTE ERDARAZ HITZ EGITEKO AUKERARIK GABE”

Hor berriro ere neurria. Eta zeregina. “Kooparatiba bat osatu zuten lau-bost baserritarrek, eta han hasi nintzen lanean”. Ukuiluak berritu behar baziren, goldaketan egin, belarra bildu... “Traktoreko txofer ona nintzen ni”. Sasoi betean, hain gogoko zuen eskulanean, baserri giroan jarduteko aukera. Apaizgintza era berri batera bizitzeko egokiera. Herrian txertatuta, herritarren eguneroko bizimoduan, seminarioan irakatsi zitzaien espiritua-litate tranpati hartatik urruti.

*Goiko eskola berritu zenun
jarri ere bai zinea.
Urrutikuskin-telebisio
umetxoan poz-bidea,*

*geiagorentzat erreztu zenun
sakon ontan ikustea.
Lengo antzikan gabe daukagu
eliz-areto maitea.*

(*Zeruko Argia*, 354. zk., 1969,
Mire Arrosek sinatuta).

Don Migel apaiz ekintzailea zen inondik ere. Herriak bere zaletasunak lantzeko aukera eskaintzen zion, eta gogoan dauka nola eraman zituen behin bertsoak kantatzera Xabier Amuriza eta Joxe Alkiza, biak sotanaz. “Amurizak aitortzen du Gipuzkoako lehen plaza izan zuela hura”.

Baziren, ordea, ezkutuko lanak ere. 1968 inguruan izango zen, Gipuzkoan hamasei apaiz atxilotu zituztenean. Haien artean Zestoakoa. “Goizean goldean ari nintzela pentsatzen nuen iluntzean zer esan elizan atxiloketa haiek salatzeke. Eta nik orduan ETako bi neuzkan etxean gordeta, neska-mutilak. Eraman nituen urruti, hutsik zegoen baserri batera. Baina hara jana eramatera joan behar. Azkenean, ekarri nituen berriz etxera”.

Jarduera horiek herriko mugak gainditzen zituzten. 1968ko abenduan itxialdiak

egin ziren Donostiako Artzain Onaren katedralean. Gipuzkoa guztitik bildutako jendea zen, gazteak gehienbat, errepresioa salatzeke. “Don Jazinto Argia Donostiako gotzain izendatu zu-

“Pena bat daukat. Elbira Zipitriaren gutun bat jaso nuen behin, Aizarnan baserriarrekin egiten ari nintzen lanarengatik zorionduz”. Zipitriak bazuen nonbait sentsibilitate sozial bat, halako jarduerak estimarazten zizkiona. “Ba gutun hura ez nuen gorde, eta, orain, dokumentu bat litzateke. Pena daukat, hura galdu izana”.

Apaizen belaunaldi berri hura, zaharxeagoen babesean, hasita zegoen Elizako hierarkiari eta agintariei aurpegia ematen, 1960an 339 apaizek gotzainei eta nuntzioari zuzendu zieten gutun famatu hura lekuko. Euskal Herriaren eta herritarren eskubideak zanpatzea salatzen zuten. Don Serafin Esnaola izan zen ekintza haren antolatzaileetako bat. “Bilerak Barbotegin egiten genituen, Ulia azpian. Gero, motoz, firmak biltzera batetik bestera”. Ekintza hark erabat astindu zuen Gipuzkoa ez ezik, Euskal Herria. Apaiz batzuk zigortu egin zituzten elizako agintariak, herriz aldatuz.

tenean, entzierroak antolatu genizkion Artzain Onaren katedralean. Gabon gaueko meza Altzan eman behar zuela-eta, hara joan nintzen lau-bost gazterekin, zer eskatzen genuen azaltzera. Aldarean ari zen jantziak aldatzen, eta esan nion: Don Jazinto, hemen gazte batzuekin hola eta hala... ‘Nazkagarriak!’, lehenengo hitza”. Beraz, ez zegoen gotzainaren babesik. Hortik aurrera, poliziak zain katedralaren inguruan, “Quedan ustedes detenidos”. Azkenean, Artzain Oneko erretorearen bitartekaritzari esker, atxiloketarik gabe bukatu zen itxialdia. Baina Argaiak, harrezkero, Atxaga ikusten zuenero: “Hara, nere etsaia”.

USURBILA, “POR OPOSICIÓN Y CON OPOSICIÓN”

Atxagak tarteka besterik ez du jotzen gaztelaniara, eta batez ere adierazkortasuna azpimarratzeko. Kasu honetan, umore puntua dario Anizeto Zugastiri ikasitako “por oposición y con oposición” esaerari.

Bi lagunek tentatu zuten Usurbilera joateko. Pako Aizpitar-te Lasarten zegoen; Joxe Mari Aranalde, Añorgan. Jakin zuten Usurbilen hutsune bat geratu zela, koadjutore bati soldaduen

kapilau joatea suertatu zitzaiolako. “Eta haiek esan zidaten: Usurbilera etorri nahi al duk? Ni, Usurbilera? Aizarnan kooperatiban baserritarrekin eta nabilela, orain aldatzea ere... Bizi guztian han egon behar al duk? Hitz egin nuen Aizarnako baserritarrekin eta, guregatik ez geratu eta... orduan baiezkoa eman nien”.

Eliz hierarkiako batzorde batek erabaki behar zuen hirukote baten artetik nori eman destino hura. Eta nonbait ez zitzaien informe onik iristen Mikeli buruz. Usurbilen bertan, karlistak edo frankistak omen ziren agintea zuten apaizak, bestelakorik ere bazen arren. Kontua da maiatzerako behar zuen izendapena abendura arte ez zela iritsi. 1969ko abenduan aldatu zen Atxaga Usurbilera.

Usurbilen, lagunak topatu zituen Atxagak, baina baita aurkariak ere. “Hoztasun ikaragarria. Nik baditut Usurbilen sekula hitz egin gabekoak. Inork ez ninduen aurkezten... Batzuek, aurpegira begiratu ere ez”.

Laster omenaldi bat antolatu zien Atxagak bertan zeuden bi apaiz adinduei. Eta bide batez gotzainari eskatu, erretiratu zitzala. “Eta nola ez zituen erretiratu, ni erretiratu nintzen. Utzi egin nuen parrokia. Gogorra izan zen egin nuena. Orduan parroko izateko ere eskaini zidaten, baina ez nuen onartu”.

Hortaz, elizako kargurik gabe geratu zen azkenean han. Bazuen orde bestea eginkizunik. Nekazarien Sindikatuan hasi zen lanean. “Pentsu-almazena zen beste ezer baino gehiago. Lehenengo egunean, hamasei mila kilo garagar hustu behar izan nituen, bizkarrean hartu, eskailera batzuk igo eta tranpaldora”. Hori lan ofiziala, bizibidea ahalbidetzen ziona. Ze, elizgizon gisa zetorkion *soldata frankista* ikastolari eskaintzen zion oso-osorik. Buru-belarri sartu zen ikastola sortu berrian, antolaketan lagundu

eta babesa emanez. Gogoan dauka nola behin inspektorea etorri eta hari aurpegi ematera joan zitzaion, goitik behera zuri-zuri eginda pentsu-almazenetik. “Esto es catequesis”. Inspektoreak alde egin behar, muturra sartu gabe.

Gainerakoan ere, herriko bizitzan txertatua. Gogoan dauka Sakabi eta Egañazpiri omenaldia antolatu zietenekoa, eta trikitilari andana bildu hartarako. “Sartu ziren elizara burrundara batean, jendea kabitu ezinik... ongietorria egin nion elizan infernuko hauspoari, zeruko hauspo bihurtuz”.

“ALDAKETA HANDI ETA AZKARREKO GARAIAK”

Zeruko Argia 1963an berpiztu zenetik Atxagak idatzi ohi zuen bertan. Usurbila etorri zenean, Miren Jone Azurza joaten zitzaion editorialak idazteko eskatzera. Zer puntu tratatu behar ziren esan, Mikelek idatzi eta berriro Miren Jone bueltan jasotzera argitaratzeko. Handik laster, “hator *Zeruko Argiara*” esan zioten. Agustin Ezeiza kaputxinoa zen orduan zuzendaria, eta Miren Jone Azurza zeukan alboan, Aranalde eta Atxagak hara bideratutako kazetaria. 1970ean hasi zen Atxaga Okendo-22ko erredakzioan lanean. Agustin Ezeiza handik laster sekularizatu eta ezkondu zen, eta aldizkaritik alde egin. Hortaz, Atxaga eta Miren Jone Azurzaren eskuetan geratu zen astekaria.

Aldaketa handiagoa, dena den, hortik aurrera gertatuko zen Mikelen bizitzan. Neska koxkorra zenetik ezagutzen zuen M^a Angeles Lizarralde aizarnarra. Honen ama alargun geratu eta Aizarnako erretore xaharraren etxera aldatu zen, alabak hartuta,

hari laguntzera. Mikelek, Iñaxi arreba ezkondu zitzaionean, apaiz haren etxean egiten zituen otorduak.

1968ko udan Juantxo Arteaga, Lasarteko ikastolako sortzaileetarikoa, Mikeli joan zitzaion esanez: “Aizarnako bi neska behar ditut andereñotarako”. Atxagak ez zuen zalantzarik egin: Ziburuko *Arintasuna* hotelera bidali zuen, han zerbitzatzen zeuden bi neska aizarnarren bila. Arteaga bera eta Joxantonio Artze joan omen ziren. M^a Angeles Lizarralde eta Begoña Bergarak harritura baina baikor hartu zuten proposamena, Enbatako jabea zuen ostatu hartan Txillardegirekin eta batera ibiltzen zen Julen Madariagak animatuta, besteak beste. Kontua da, kurtsua hastearekin batera, Usurbilgo ikastolan sartu zirela praktikak egiten, eta han, Usurbilen, egin zuten topo berriro ere M^a Angeles Lizarralde eta Mikel Atxagak. Tarteka etxeko lanak egitera joaten zitzaiola M^a Angeles... “Amistadea gero eta handiagoa egiten joan zen” eta... bizitzan elkarrekin behar zutela erabaki zuten.

“NIRI, UKATU EGIN ZIDATEN SEKULARAZIOA”

“Jexux Altunarekin eta Joseba Ulaziarekin topo egin nuen sekularizazioa eskatzera joan nintzenean. Beste biei erantzuna iritsi zitzaien, eta niri ez. Erreklamatzera joan eta Argaiak, bai, korreoa gaizki dabil eta... ez zuten nahi nik uztea nonbait. Bolada bateko kontua ote zen pentsatzen zuten. Hausterre egunean (1974), goetzainarengana joan eta esan nion: Don Jazinto, ni ezkondu egingo naiz Pazko egunean. Nahi duzun bezala konpondu gauzak”.

Ordurako, Aieten erretore zegoen Juanito Aizpitarterekin hitz egina zen Mikel, ea Pazko egunean eliza libre ote zegoen, ezkondu egin behar zuela eta. “Paperak? Ez ba, baina ni ezkondu

egino naiz. Orduan hark: arrazoa duk, pertsonak ezkontzen dituk, ez paperak”.

Larunbat Santu egunean apaiz lagun bat joan zitzaion etxera ezin zirela ezkondu abisatuz, baina Mikelen erabakia atzera bueltarik gabekoa zen. “Ezkondu ginen, *boda sacrilega*, Errepublika Eguna, Aberri Eguna... apirilaren 14an”. Joxe Mari Aranaldek ezkondu zituen, eta elizkizunean baziren beste hiruzpalau apaiz. “Denak eskomulgatzeko motiboa. Baina ez zuten aplikatu”.

Ezkontza kontuak ez ziren hor bukatu. “Halako batean, Setien (Jose M^a, gotzain laguntzailea orduan) etorri zitzaidan *Zeruko Argiara*: gutun hau sinatu, eta baimena etortzen zaizunean, ekarri. Baimena iritsi zenean, Aieteko erretoreak: etorri duk baimena, baina berriz ezkondu beharra daukak. ‘Esaioek Argaiari, ni ezkonduko naizela berriz Aieten, baina banketea berak pagatu beharra daukala’”.

—Apaiz ezkonduak onartuta baleude, segituko ote zenuen apaiz izaten?

—Bai, bai. Nahiz eta ikusten nuen ni lehengo eliza zaharrerako apaiz egin nindutela: sakramentuak eman, meza... Nik ez nekien nola egin behar zen eliza berria eta banekien egin behar zela. Eliza pobre bat, askoz ere lotuagoa herriarekin, askoz ere askeagoa... Baina nik neronek ez nuen neure burua horretarako hain prestatua ikusten. Eta bueno, segituko nuen apaiz izaten. Ez nuen sekula konprenitu zergatik apaizek ez zuten ezkondu behar. Seminarioan hitz egiten genuen horretaz. Kontzilioan gaia atera baina gero moztu zuten eta... hor dago zintzilika arazo hori.

Banketerikez zen izan, baina bai afaria: 1975eko abenduaren 20an (Franco hil eta hilabetera), aurretik esanda bezala bildu ziren M^a Angeles eta Mikelen Lasarteko etxera Setien, Aranalde, Axintxio Elustondo, Pako Aizpitarte... Bertan ziren Ana Mari Lizarralde (M^a Angelen ahizpa) eta...

Garazi, lehen alaba, apirilean jaioa. Afalondoren, Setienek aginduzion Aranalderi ezkontzako formula errepikatzea. Hura berretsi eta bigarren aldiz ezkontuta geratu ziren M^a Angeles eta Mikel. Garaziren ondoren, beste alaba bat etorriko zen, Naroa.

“1976GARREN URTEA EUSKAL KAZETARITZAREN URTEA IZENDATU GENUEN”

Halaxe aldarrikatu zuen *Zeruko Argiak*, *Anaitasuna* eta *Goiz Argi* alboan zituela. *Zeruko Argiak* estreinatu zuen gainera formatu berria, *newsmagazine* itxurakoa. Lemoizko zentral nuklearreko obren argazkia azal betean, koloretan, izenburu honekin: *Euskal Herriak nuklear indarra salgai?* Azalaren goialdean, eskuinetara, tira hori baten gainean aldarri hori, 1976: *Euskal Kazetaritzaren Urtea*.

Ordurako Mikel *Zeruko Argiaren* faktotuma zen: errepor-taje-egile batetik bestera, argazkilaria besterik ez zenean, kolabo-ratzaileak koordinatzen zituen eta benetako zuzendaria, nahiz eta aldizkariaren fitxan ez hala agertu, besteak beste informazio orokorrerako baimen lortu berriak kazetari tituludunak eskatzen zituelako zuzendaritzarako.

Alboan zituen Kaietano Ezeiza, kaputxinoen ordezkaria, eta Donato Unanue, hau aldizkariaren administrazio lanetan, artikulugile izateaz gain. Erredakzioan bertan ez egon arren, kazetaritza aldetik Luis Alberto Aranberri *Amatiñok* zeukan pisu handia. “Hark salbatzen gintuen”. Kazetagintza berrirako mugarri izan ziren *Zenbat gara* eta *Bulebar irekia* atalez gain, *Amatiñok* erreportajelaritza lantzen zuen bete-betean. Eta hori

“txintxo-txintxo”, hutsik egin gabe bidaltzen zituela bere idatziak Eibartik Donostiako San Martin kaleko Margola tindategira.

Kolaboratzaileen zerrenda ugaria eta askotarikoa da. Atxagari bat-batean ahora datozkionak: Mikel Ugalde, Gurutz Ansola, Txomin Izagirre, Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Arantxa Urretabizkaia, Karlos Santamaria, Antton Ibarguren, Dionisio Amundarain *Amuntsa*, Joakin Arostegi, Joxe *Alkiza*... Xalbador Garmendia zuzentzaile lanetan. “Joxe Azurmendik Alemaniatik bidaltzen zizkigun azterketa sakonak; Txillardegik ere, kanpotik bere artikuluak... Alderdi artistikoan, Edorta Kortadi eta Juan Antonio Letamendia hasieran, hurrena Antton Olariaga eta Jon Zabaleta hurbildu ziren. Ez zegoen besterik-eta, jendea etorri egiten zen!”.

Bilgune eta ezinbesteko erreferentzia zen *Zeruko Argia* euskal munduan. Bazegoen batzorde bat aldizkariaren estrategia markatzen zuena nolabait. Gurutz Ansola, Leo Etxeberria, Txomin Izagirre eta Mikel Ugalde zeuden hor. Kaputxinoek aldizkaria utzi egin nahi zutela-eta, kooperatiba bat sortu zuten, berrogeiren bat lagunek dirua jarritz. Gerra aurreko *Argia* aldizkariaren mantxeta-aren jabe egin ziren, garai berrietarako prestatzeko asmotan.

“EZAUPIDE HANDIA LORTU GENUEN”

Atxagaren estiloa nabari da 1976ko lehen zenbaki hartako editorialean. Ikastolen ibilbidea deskribatu ondoren, sartzen da harian:

“Beste urrats bat egin behar dugu orain. Komunikabideetan sartu behar dugu euskara. (...) Zerbait baldin bada eta esker-

tzekoa baldin bada ere, hau ez dugu astean behingo teleaio edo egunkarietako orritxo batekin agertuko. Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu. Euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu. Euskal leihatilatik munduari so egingo dion kazetaritza. Munduko berriez gure kazetaritza hezetuko duen kazetaritza”.

Egitasmoak praktikan gauzatu behar direla erakutsiz:

“Aldatzeari eta berritzeari, ez diogu lehen alerik ere opa izan. Askotan aipatu izan dugun arazo batez ekin diogu: nuklear indarraren arazoaz. Bazterrak aztoratu eta jendea erne ipini duen arazoaz hasi nahi izan dugu aldi berri honetan.

”Jakina, guk ez dugu arazo honetan eta beste askotan erantzun beterik. Euskal Herriak behar luke izan bere hitza, iritzia eta erabakia baliarazteko biderik. Baina ez du, noski. Euskal Herriak ez baitu berari dagokion erakunderik.

”Guzti horren berri eman beharko luke euskal kazetari-tzak”.

Ezin da ahaztu 1976ko urtarrilaren 4an argitaratu zela editorial hau, Franco hil eta hilabete eta erdira. Ausardia horrekin berberarekin segitu zuen aldizkariak hurrengo hilabeteetan: udaberrian, Anparo Arangoaren tortura argazkiak argitaratu zituen, eta irailean berriz ikurrina azal betean, legeztatu baino lau hilabete lehenago. Aldizkaria sekula iritsi gabeko foro eta eskuetara heldu zen. Estuasunak estuasun. “Ezaupide handia lortu genuen orduan. Jendea etortzen zen Okendo-22ra aldizkaria erostera. Auskalo, tartean poliziak ere etorriko ziren. Tirada bikoiztu izan bagenu ere, dena salduko genuen”.

Ez da harritzekoa Mikel Atxagak zentsuraren mehatxua aipatzea behin eta berriz urte horietaz eta aurrekoetat aritzean.

Hartu aldizkariaren dozena erdi bat ale eta bera joaten zen alde z aurretiko zentsura pasatzera, Andia-13ko “Información y Turismo”ko bulegora. Zentsoreak ordu erdi zeukan erantzuna emateko. “Euskalduna zen oso. Behin joan nintzaion (Telesforo) Monzoni egindako elkarrizketaren zenbakiarekin, eta hura azalean ikusi bezain azkar: ‘Txotxolua!!’. Esan nion, ‘hau Blas Piñar bezala, mitinlari ona da eta’... ‘Blas Piñar, hori bai gizona!’. Hala salbatu zen zenbaki hura”.

“Amparo Arangoaren tortura argazkiak Patxi Zabaletaren bidez iritsi zitzaizkigun. Erabaki genuen aldizkariaren erdi-erdian sartzea, enkarte modura, eta koloretan. Antton Valverderi eskatu genion ea inprimatuko zituen. Gauez egin zuten lana. Kaleratu genuenean, bahituta zegoen hotsa iritsi zitzaigun, hurrena ezetz... Kaietano Ezeizari agindu nion bidaltzeko lehenbailehen etxeetara”. Aldizkaria ez zuten bahitu eta torturaren froga ziren argazki haiek sekulako zabalkundea izan zuten, baita Espainiatik kanpora ere.

1968tik 1974ra hamarren bat espediente ireki zizkion Ministerioak *Zeruko Argiari*. 1970ean, Burgoako Epaiketari buruz idatzitako editorialagatik deklaratzera joan behar izan zuen Atxagak epaitegira. Auzia ez zen aurrera joan, gotzainak ez zuelako baimenik eman. Isunak, behin baino gehiagotan jarri zizkieten, “baina hura ez zen txarra, 25.000 pezetakoak izaten ziren, eta jendea etortzen zitzaigun dirua eskaintzera, eta famatu ere bai horrela”.

Franco hil ondoren, “ez zekiten zer egin. Ez nork agintzen zuen, non zeuden mugak”. Egoera horretan eta Manuel Escudero diputatu fran-

kistaren bitartez, etorri izan zitzaaien agintari jendea informazio eske, giroa haztatu nahian. Behin, enbaxada amerikarrekoak. Beste behin, Hezkuntzako Ministeriotik. “Zeukan baino garrantzi

handiagoa ematen zioten *Zeruko Argiari*. Ez zegoen besterik eta!”.

Arazo eta atsekabeak ugari, baina ez zetozen denak alde beretik. 1976ak onena emanda zeukanean, azaroaren 8ko goizean, ez zen giro Okendo-22ko erredakzioan. Aurreko egunean, Xalbadorren omenaldia zen Urepelen, *Odo-laren mintzoa* liburu argitaratu berriaren aitzakian. Han izanak ziren Atxaga, Aranalde eta lagunak, euskal munduko beste asko bezala. Ilusio eta poz handienarekin joan eta saminaren saminez itzuli ziren denak. Xalbadorrek azken hantza eman zuen artean bertsolariak bere omenez kantatzen ari zirela. *Zeruko Argiaren* hurrengo zenbakiaren azala Xalbadorren argazkiak bete zuen, eta editorialistak, oraingoan, haren bertsoei heldu zien:

Bidean zen demokrazia, dena den. Eta hasi ziren alderdiak jendaurrera azaltzen. Egin dute deialdia PSOekoek Lintzirin hotelera, Felipe González idazkari nagusiaren prentsaurrekora. Han ziren, beste batzuen artean, Iñaxio Arregi Loiolako Irratikoak, Mariano Ferrer eta Jose Ramon Beloki Donostiako Herri Irratikoak, Donato Unanue eta Mikel Atxaga *Zeruko Argiatik*. Iritsi da galderen txanda eta hasten da euskaraz Mikel. Gonzálezek, modu edukatuan, “como supondrá usted, yo no hablo su idioma...”. Enrique Múgica-eta Belokiri: “Tradúcenos”. Beloki, isilik. Atxagak, ea zergatik ez zuten itzultzaile bat ekarri. “Zirt-zart bukatu zen prentsaurreko hura. Altxatu ginenean, hor etortzen zait Carmen Romero, Gonzálezen orduko emaztea, bi kopa ardo hartuta, eta bat niri eskainiz botatzen du: *Viva Euskadi nazi!*”.

Gertaerak oihartzun handia izan zuen kazetarien artean. Miguel Larreak, *La Voz de España* egunkariko zuzendaria orduan, idatzi zuen “un periodista no profesional” izan zela euskaraz aritu zen hura. Joan zitzaion Atxaga Larreari gauzak argitzera: “un periodista no titulado, pero profesional”.

“Euskal Herriaren alde lanean ari garenok, entzun dezagula Xalbadorren oihua: ez dezagula hil Euskal Herria.

*Hilobi huntan noizbait norbait balabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deiadar bipila:
Hemen dago ama bat bere hurrek hila!”*

“SALTO HANDIA IZAN ZEN ZERUKO ARGIATIK DEIARAKOA”

Abiada izugarriko garaiak ziren. Lapikoaren tapa azpian urtetan irakiten egondako saltsa-maltsak gainezka egiten zuen. Jarduera politikoak, aldarrikapen sozialak, kulturgintza pil-pilean... eta horrek bere isla izan zuen hedabideen mapan ere. Ordura arte Mugimenduko Prentsak eta erregimenaren menpeko beste talde batzuek monopolizatutako egunkarien eskaintza zabaltzen ari zen, eta Euskal Herrian bi proiektu azaldu ziren bata bestearen atzetik: *Egin* lehenengo eta *Deia* hurrena.

*Egin*en sorreran buru-belarri Donato Unanue ibili zen, artean *Zeruko Argiako* kudeatzailea zela, eta astekariko zenbait kolaboratzaile eraman zuen egunkari berrira.

“Niri *Zeruko Argian* geratzeko esan zidan Donatok. Eta hartan, Martin Ugalde etorri zitzaidan *Deiara* joateko eskatuz. *Amatiñok* baldintza jarri zuen: hi joaten bahaiz, ni ere joango nauk. Eta hala, baiezkoa eman genuen. Martin Ugaldek fitxatu eta (Jose M^a) Gorordok egin zidan kontratua. Asko iruditu zitzaidan eskaini zigutena, ordura arteko soldata bikoiztu egiten zuen. Eta esan zidan: ‘Aizu, erdaldunek baino gutxiago kobratu nahi al duzu?’. Salto handia izan zen *Zeruko Argiatik Deiarakoa*”.

Ez zuen berehalakoan egin Atxagak *Deiarako* jauzia. Erreparoa ematen zion *Zeruko Argia* uzteak. Hala dio Martin Ugaldek: “Mikel Atxaga (kosta zitzaion, baina erabakia hartu zuen, Donostian geratu zen)” (Joan Mari Torrealdai, 1998, *Martin Ugalde. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*). Ugalde zuzendariorde izan zen *Deian*, euskarazko orrien arduraduna, egunkaria sortu (1977) eta urtebetez.

Atxagarentzat, profesionalki, garrantzitsua izan zen jauzia: baliabide eta tresneria egokiekin jarduteko aukera, ofiziodunen artean eta zabalkunde handiko medioan. Larre motxean ohitutakoarentzat, kazetagitza normalizatuan aritzeko aukera. Ekin zion erreportajeak eta elkarrizketak idazteari, eta urteen buruan ezaugarri izan dituen iritzi artikuluak lantzeari.

Zailtasuna, ordea, egunkari elebidun batean euskaraz jardutearen aldetik zetorren. Iñaki Petxarromanek egindako galderei erantzunez (*Berria*, 2005-10-23), hauxe aitortzen zuen: “*Deia*. Bizibide gertatu da, eta sufritzeko bide ere bai. Euskal mundua arrotz zitzaaien arduradunei, espainiar kultura oso sartua zutelako. Beti borrokan ibili behar izan dut, baina bestetik ikasi eta lagun onak egin ditut bertan”.

Egunkari elebidunak asetzen ez, eta euskarazko egunkaria amets. “1982an, egunkari baten beharraz jabetu eta zerbait egin ote zitekeen begiratzen hasi nintzen. Horren zatiturik geunden horretan, ezinezkoa zirudien

“Zuretzat partidu polita, ESEI da”, esan zidan Mitxelenak. Eta bai, ESEIn aurkitu zuen Atxagak toki egokia demokrazia estreinatu berri hartan. ESEIk Euskadiko Ezkerrarekin batera aurkeztu zituen Senaturako zerrendetan ere azaldu zen Mikel. “Gero EAJkoei behin eta berriz esaten nien asko zirela eta nire beharrik ez zutela. Baina zatitu zenean, ahulduta, lau katu besterik ez, orduan sartu nintzen EAJn”.

egunkari bakarra egiterik zegoenik. Baina bakarra baino gehiago ezin zen izan. *Euskaldunon Egunkaria* sortu zenean, nik 1982an pentsatu nuena bezalako delakoa konturatu nintzen”. (Berria, 2005-10-23).

Egunkaria sortu aurretik, Jaurlaritzak bultzatu eta Jose Ramon Belokik zuzendu zuen azterketa taldean parte hartu zuen Atxagak. “Jose Ramon Belokik beste bidea aukeratu nahi bazuen ere, nik uste dut garai hartan gai ginela denok proiektu batean elkartzeko”. Baina azkenean, *Euskaldunon Egunkariaren* proiektuak egin zuen aurrera, eta Jaurlaritzak eskatutako azterketa bere hartan geratu zen.

“IDAZTEA BETI GUSTATU IZAN ZAIT”

Idaztea gogoko duela aitortzen du. Idazkera zuzena, zehatza eta zorrotza du, lehen irakurraldian jasotzen den horietakoa. Esaldi korapilatsurik ez, perpausa motzak, puntuazio ugaria. Ahozkotik hurbil, batez ere diskurtsoari zaporea eta kolorea eman nahi dizkionean. “Gaztelerarako joera zutenei erakutsi nahi nien euskaraz hobeto ulertu behar zutela”. Don Manuel Lekuonak behin esan omen zion: “Hik eskolastika daukak”. Hau da, argumentatzen abila zela. Eraginen bat aitortzekotan, Orixerena: “Nik *Euskaldunak* poemaren hitzaurrea buruz nenkien”. Eta gainerakoan, herritik jasotakoa, bertsolarien girotik asko.

Bere makinatik eta ordenagailutik atera diren albiste, elkarrizketa, erreportaje eta artikuluen kopurua ezin kalkulatu. 1963ko *Zeruko Argian* hasi eta gaur egunera arte, auskalo zenbat folio bete dituen. Bila abiatuz gero, kontuan izan behar da gainera *Zeruko Argiako* garaietan izenordeak erabili izan zituela, zenbaki

bakoitzean bere izena behin baino gehiagotan ez zedin agertu, eta gai polemikoetan askeago ibiltzeko ere bai.

Familiako abizenak hartu izan ditu izengoitizat: *Iraola*, *Irastortza*, *Oiarbide*. Azken hau Gipuzkoako Pilota Federazioari urrezko ezteietan (1975) idatzitako bertso batzuetan; bera ohartu ez, bazela bertsoaritzan *Oiarbide* sinatzen zuen beste bat, eta haren lepora geratu omen dira bertso haiek historiarako. *Fernandez* behin erabili omen zuen, gaztelaniaz idazteko, ETAk egindako hilketaren baten ondoren. *Mutiozabal* hartu zuen, *Zeruko Argian* herri kiroletako kronikak egiten hasi zenean, Basarrik *Goiz Argira* alde egitean. Elkarrizketa eta erreportajeetan, *Herrizale* erabili ohi zuen askotan.

Aspaldi hasi zen liburugintzan ere. Lehenengoak, apaiz gaztearen emaitza izan ziren: *Gaztetxo* (1963) eta *Ezkontza bidean* (1966), “garai hartako ikuspegi erlijioso estutik idatziak”. Tarte luze baten ondoren, *Deiadarrek* (1993) argitaratu zuen, *Deian* kaleratutako zenbait iritzi artikuluren bilduma, gehi *Zeruko Argiako* batzuk. Gerora, Sabino Arana Elkargoarekin lankidetzan, *EAJ eta euskara. Ehun urteko bide malkartsua* (1996) eta *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza* (1998).

Bi aldi horien artean itzulpengintzan ere jardun zuen; Margo Ederdun Entziklopediarako *Mundua guztioi erakutsia* (1968) itzuli zuen, Haurren Entziklopedia Orokorrerako *Ohiturak* (1976); *Tintin* komikia eta Euskal Herriko Atlasak –elkarlanean– dira berak egindako beste itzulpenetako batzuk.

Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratzen duen *Bidegileak* bildumaren zuzendaria da 1997tik, eta bertan argitaratuak ditu *Xalbador* (1993), *Euskal emakume idazleak, 1908-1936* (1997) eta *Sabino Arana* (1998).

Erretiratu eta gero ere liburugintzan jarraitu du, idazle ahaztu samarren lanak biltzen.

Hala Txomin Jakakortexarenaren *Bertsoak eta olerkiak* (Egan, 2006). Lasarten jaio eta Caracasen hil zen Andoni Arozenaren antzerki eta bestelako idatziak *Andoni Arozena, idazle eta kazetari* (Erroteta, 2007) izeneko liburuan kaleratu zituen P. Aizpitarterekin batera. Eta Joakin Arostegiren bi liburu apailatu ditu, haren bizitzako kontakizuna jasotzen duen *Oroitzapenak* (Erroteta, 2007), Gillermo Etxeberriarekin batera, eta *Zeruko Argian* argitaratutako artikuluak biltzen dituen *Elizaren leihoak zabaltzen* (Erroteta, 2007), P. Aizpitarterekin.

Euskarauta dauka Jose Antonio Pagolaren *Jesus, aproximación histórica*, argitaratzeko zain.

“HAMAIKA OGIBIDE NEKETSUAGOAK BADIRA”

Atxagari aitortzen zaio egungo euskarazko kazetaritzaren dekanotzaz gain, maisu izatea. Luis Alberto Aranberri *Amatiñok* honela dauka esanda: “1965etik aurrera kazetaritzan koskortu ginen gazteon maisurik maisuena izan zen”. Hamar urte geroago, fakultatetik irten berri, *Zeruko Argian* sartutako kazetariak maisutasun horren ikasle izan ziren. 1998an, Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zuen Andoainen, *Deian* argitaratutako iritzi artikuluengatik. Euskaltzain urgazle, 1975etik; Euskararen Aholku Batzordeko kide; EIZIERen ohorezko bazkide (2002)... euskalgintzaren foroe-tara eraman du kazetariaren ikuspegia.

Salan dauka *Argiak* 2008an emandako Merezimenduzko saria. Arrazoia, hauxe:

“Aldaketa, ilusio eta nahasmendu handiko garaiak egokitu zitzaizkion euskarazko kulturgintzari eta oro har euskarazko prentsari 1970eko hamarkadan.

”Ikurrina edukitzea bera delitu zen garaietan, Francoren diktadurak euskarazko izenak jartzea bera ezinezko egiten zue-
nean, ez partidu politikorik eta ez sindikaturik ez zenean, legezko hiru hitzengatik gobernuak bat espexera zezakeenean, edo aldiz-
kari bat itxi edo isun gogorrez zigortu, garai trumoitsu haietan kazetaritza egin zuen gizonak”.

Berak, erantzunean:

“Ez dakit merezi dudan. Baina sekulako poza eman didazue. Eta poz hau eta merezimendu hau beren artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, herrietako berriak eta abar, doan, musu truk, bidal-
tzen zizkiguten haien artean erdibanatu nahi nituzke. (...)

”Egia bat genuen argi garai hartan: euskal kazetaritza eus-
karaz egiten den kazetaritza da. Eta haietako batzuk kazetaritza euskaraz egiteko aukera eta zoria izan dugu”.

Merezimenduzko sari hori dela-eta, kazetariari erantzun dio, baietz, kazetaritza oso lanbide ederra dela: “Buruhauste eta haserreak haserre, poz handiak eta lagun handiak ematen dizkizu. Hamaika ogibide neketsuagoak badira, baina merezimenduzko saririk gabe geratzen dira”.

JOANDAKO LAGUNAK

Lagun-laguna, JOXE MARI ARANALDE (Gaztelu, 1933 - Ibarra, 2005) izan du Atxagak, gaztetxotatik hasita. Aipagarria da biek eta Jesus Mari Mujikak, 1967an, Urepelera egin zuten bidaia, Xalbador bisitatzera, honek Donostiako Astorian jasandako txistualdi famatu haren ondoren. Hor sortu zen Fernando Airerekin eta haren familiarekin izan zuten adiskidetasuna.

SERAFIN ESNAOLA (Errezil, 1915 - Donostia, 2002). 339 apaizek, 1960an, sinatu zuten gutun haren garaian ezagutu zuten elkar. Urteak pasatu eta gero, don Serafin Donostian erretiratuta bizi zela, *Deiako* bulegotik bertan, ia egunero biltzen ziren goizerdian kafe bat hartuz kontu-kontari aritzeko. Lagin modura, Atxagak, 2006an, *Deian* argitaratutako artikulu batean kontatzen duena: Joan zaizkio bi lagun Esnaolari, ikaskide izan zuen Jose Maria Arizmendiarieta santu egin nahi dutela-eta, laguntza eske. Don Serafinek erantzuna: “Horretarako bi gauza behar dira, dirua eta talde indartsua. Zuek biak daukazue eta lortuko duzue. Baina Joxemari ez zen ni baino santuagoa”.

NEMESIO ETXANIZ (Azkoitia, 1899 - Donostia, 1982). Sarritan joan ohi zitzaion Atxagari Okendo-22ra, bere sotana beltzarekin. “Zituen bekatu guztiak esaten zizkidan. Zalantza guztiak eta, fede kontutan. “Setieni galdetzen diot eta ez dit ezer esaten”... Askok sufritzen zuen gizajoak. Hark bai ez zuela konprenitzen apaizak ez ezkontzea eta”.

Idazlanan antologia



I EUSKARA

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA⁽¹⁾

Hasieran hizkuntza bakarra zen. Hala uste zen. Babelen sortu omen zen hizkuntza desberdinen nahas-mahasa, zeruraino igotzeko dorrea egiten ari ziren gizon-emakumeak zigortzeko. Hala sinesten zen.

Horren arabera, bakarra da Jainkoak gizakiari emandako hizkuntza. Beste guztiak gizakiaren harrokeriaren ondorio eta zigor dira. Ez da, beraz, harritzekoa bakoitzak bere hizkuntza Paradisuko hizkuntzatzat nahi izatea. Hasieran, ebraiera zen Jainkoak emandako hizkuntza. Gero grekoa eta latina. Azkenik, gaztelania bezalako hizkuntzak bilakatu ziren sakratu. Besterik gabe, hizkuntza ttikiak eta ofizialtasunik gabeak baztertu eta ezabatu egin behar ziren.

(1) 1999ko abenduaren 3an, Euskararen Eguna zela eta, Euskaldunak jauregian irakurria.

Orain ere hizkuntza batzuk besteak baino ederragoztat, baliotsuagoztat, nagusiagoztat, aurreratuagoztat eta beharrezkoagoztat jotzen dira, ttikien kontrako erdeinua eta gutxiespena sortzeraino. Badira mundu osorako hizkuntza bakar bat bakarrik nahiko luketenak ere.

Gure ustez, ordea, hizkuntza adimenaren eta sormenaren emaitza da. Hizkuntza askatasunaren eta aniztasunaren fruitu da. Hizkuntzak ez dira nahasteko eta elkarri ez ulertzeko Jainkoak ezarritako zigorrak. Alderantziz, gizakiak elkarrekin ulertzeko eta komunikatzeko sortuak dira hizkuntzak.

Hizkuntza bat galtzen denean aniztasunak puska bat galtzen du, hizkuntzen ortzadarrean argi bat, kolore bat, izar bat galtzen da. Euskara galtzen bada ez da euskaldunon lokarri, ezaugarri eta komunikabide bat bakarrik galduko, ziztu bizian murrizten ari diren aniztasuna eta edertasuna ere murriztuko eta txirotuko dira.

Horrelakorik nahi ez dugulako ospatzen dugu Euskararen Eguna. Horregatik biziberritu nahi dugu gure hizkuntza, guk galtzen badugu mundu osorako galduko baita.

Hori uste zuten gure aurreko askok ere. Eta hori uste zutelako egin zuten, gaur 50 urte, Euskararen Eguna mundu zabalean barreiatutako euskaldunek eta euskal jatorrikoek. Horregatik eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari Euskararen Eguna ospa zedila urtero gaurko egunez. Izan ere, inor bada eta, Xabier da euskaldun unibertsala, euskaldun izatea galdu eta ukatu gabe, tokian tokiko hizkuntzak ikasiz eta tokian tokiko kulturara eta bizimodura moldatuz ibili baitzen munduan zehar.

Baina egun hau ez dadila egun bateko su festa huts izan. Hango eta hemengo euskaldunon lokarriak sendotzeko eta euskararenganako maitasuna eta atxikimendua indartzeko balio dezala. Herri poza sentitzeko eta euskararen aldeko jarrera eta jokabideak indartzeko, alegia. Eguneroko bizitzan, lagunartean, familian, lantokian, kalean eta abarretan bizi gaitezen euskaraz, euskara bizi dadin gudan. Bakoitzak bere erara eta dezakeeneraino. Euskara guztiona baita. Euskarak guztion beharra baitu.

Hizkuntza bakar baterako edo bakar batzuetarako dagoen joeraren kontra, bakoitzak bereari eusteko eskubidea eta egin-kizuna ditu. Ingelesarekin, gaztelaniarekin, frantsesarekin eta abarrekin batera euskaldunok ere geureari eutsi behar diogu. Mendeak zehar gaur arte iraun duen hizkuntza zahar honek merezi du bizia, milurte berrian ere. Gure esku da.

(1999-XII-3)

EUSKARA EZ ERABILTZEAREN ERANTZUKIZUNA

Euskara ez erabiltzeko aitzakiak eta arrazoiak asko izan daitezke. Baina ez erabiltzearen erantzukizunik ere bada. Dakienaren erantzukizuna da, noski. Eta dakienetan hitz egiten ez duen asko da. Euskaraz eskolatu edo eskolan euskaldundu diren gazteena da erantzukizun hau, batez ere.

Belaunaldi bakoitzak berea egin behar du. Gure belaunaldiak bere haurrak euskaraz eskolatzeko eginkizunari erantzun dio. Ez zekien euskaraz eskolatutako haurrak behar zuen guztia ikasiko zuenik. Ez zekien euskarak irakaskuntzarako balioko zuenik ere. Jokoa irabazi badu ere galtzeko arrisku haundiarekin egin zuen apustua. Ikastolak sortu zituzten euskaltzale bipil haiei esker, beren haurrak euskaraz ikastea nahi dute gurasorik gehienek. Baita erdaldunek ere.

Euskaraz eskolatzeko edo eskolan euskalduntzeko aukera izan duen gazteriarri dagokio orain euskara leku eta arlo guztietan erabiltzea. Euskara erabiltzeko zailtasun haundiak dituela badakigu. Haundiagoak zituzten beren gurasoek ikastolak eta euskal eskolak sortzeko eta euskarak ikasteko ere balio zuela sinesteko. Ohitura, uste eta eraso guztien kontra aurrera egin zuten. Eta seme-alaba askok euskaraz jakitea lortu dute.

Baina seme-alabek egin behar dutenik ezin dute egin, hau da, beren umeek euskara erabiltzea. Egun asko ez dela sei ikasle, hiru mutil eta hiru neska, ari ziren elkarrekin afaltzen. Ez zuten hitz bat ere erdaraz egin denbora guztian. Euskaraz eskolatutako gehienak honelakoak balira, Kardaberazen ametsa egia bihurtuko litzateke: “euskarak jasoko du burua”.

Zoritxarrez, ordea, euskaraz eskolatutako gazte askok erdarara jotzen du errazkeriaz eta zabarkeriaz. Nola lortu gazteria euskarari lotzea eta atxikitzea? Hor dago koxka. Guri, bere zailean, erraza suertatu zitzaigun euskara maitatzea. Erdara nekez ikasten genuen hizkuntza arrotza gertatzen zitzaigun. Euskara, berriz, geure-geurea genuen, geure hezur eta mami. Euskararekin topo egitea geure buruarekin topo egitea

zen. Eta euskarari erasotzea geuri erasotzea zen. Eta erasoak maiteago eta geureago bihurtzen zigun euskara. Erdararen aldeko kanpaina bortitzak euskaltzaletu gintuen gu. “Euskara zapaldua dago”, “euskara erasotua dago” esateak indar haundia zuen euskaltzaleak berpizteko eta ugaltzeko.

Baina gaur ez du balio erretolika horrek. Euskara hitz egiteagatik ez da inor zigortzen. Nahi duen guztiak ikas dezake. Zenbait lanpostutarako beharrezkoa bihurtu da. Ikasketetan aurrera egiteko gaintitu beharrezkoa da. Beste edozein gaiek bezala ordu asko eskatzen dizkio gaurko haurrari eta gazteari. Ikasturtea galdu egin dezake nahiko euskararik ikasi ez duelako. Ikasi behararen nekea jasaten duen gazteari barregura edo amorrua bakarrik eman diezaioke “euskara zapaldua dago” entzuteak.

Beste heldulekuren bat beharko du gaurko gazteak euskarari lotzeko, euskararen aukera eta euskararen aldeko apustua egiteko. Lehenik, euskararen etorkizuna bere eskuetan dagoela jakin behar du. Bereganaino heldu den hizkuntza zaharra betiko galtzen uzten duen belaunaldia izan daitekeela ohartu behar du. Bigarrenik, aisia, solas, olgeta eta kirolaldietan, komunikabide, literatura eta abarretan euskaraz gozatzeko aukera eskaini behar zaio. Erantzukizun hau helduena da.

(1991-VI-12)

ESPAÑOLTZARROK!!

Euskal Herriari eta euskarari buruz zer nahi dugun garbi samar dago, noski. Edozein naziok bezala autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea baduela aitortu arren, eta euskara “geure” hizkuntzatzat jo arren, ez gabilta ohiko estatu egitura bat eskuratu eta gaztelania baztertu nahian. Hala ere, eskubide horri eta euskara “geurea” izateari uko egitea nahi du zenbaitek. Eta abertzale bati hori eskatzea, bere burua ukatzeko eskatzea da. Sozialismoak berdintasun utopiari edo liberalismoak jabego pribatuari uko egin diezazion eskatzea bezalaxe.

Beharbada, abertzaleok gehiegi aipatzen dugu, herri honen bilakaeran, agian, ez nahitaez, azken helmuga izan daitekeen hori. Estatutuaren ahalbide guztiak garatzen ez badira, herri honen bilakaera erabat bere buruaren jabe izateraino iritsi daitekeela gogoratzeak ere asaldatu egiten ditu ordea.

Telebistako elkarrizketaldi batean, “Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak oraingoz elebitasuna lortu nahi du, baina hori lortutakoan gaztelania baztertu eta ezabatuko du” baitetsi zuen batek. Hori ezjakin batek uste izan lezake. Baina telebistan azaltzen dena ezin daiteke horren ezjakina izan. Elebitasunera ez heltzeko aitzakia eta tranpa bezala erabiltzen du, beraz. Hego Euskadin inor ez dago gaztelania baztertzeke asmoz, norbaitek itxurarik egiten badu ere. Jakina, hemendik 200 urtetara Burgosen, Madrilen eta abarretan gaztelania utzi eta ingelesa hartzen badute, Euskal Herria ez da gaztelaniari eusten arituko, frantsesa eta ingelesa ahoko zuloan dituela. Baina euskara ez

da sekulan gaztelaniaren hiltzaile izango, beste hizkuntza indartsuago eta hedatuagoren bat baizik.

Eroak, ezjakinak edo gaiztoak bakarrik pentsa dezake euskaldunok gaztelania uxatzeko asmotan gabiltzala. Euskarari laguntzak ukatzeko, maltzurak edo gaiztoak jartzen duen tranpa besterik ez da hori, zenbaiten ahoberokeria guztiak, goiti-beheiti, euskaldunak ez baitu bere buruaz beste egingo, oso baliagarria ez ezik, beharrezkoa ere baduen hizkuntza bat baztertuz.

Euskara Euskal Herriaren hizkuntza dela eta hemen bakarrik hitz egiten den hizkuntza dela esateak ez du esan nahi beste hizkuntzarik egiten ez denik eta jakiterik nahi ez dugunik. Ikastoletan eta D ereduetan, gaztelania ere, beste ereduetan bezain ongi edo hobeto ikasten dela ikustea, ez al da gure asmoen eta borondatearen frogarik garbiena?

“Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntz artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtzeko behar adinako tokia” idatzi zuen Koldo Mitxelenak.

Horretan gabiltza gabiltzan gehienok, ari ere ez baikara asko ari, eta dihardugunok ere ez beti behar bezalako “berotasun suharrez”, norbaiten “gehiegikerien eta intentzio txarren” tranpaz, inork ahalegin guztiak zapuzteko eta laguntza guztiak ukatzeko.

Gaztelania ez beste hizkuntza guztiak erasotzen ziren garaiak gaintitu eta “gaztelaniaren eta euskararen arteko adiskidetetasuna” eskatu zuen Ardantza lehendakariak San Millan-en. Izan ere, gaztelaniari jaiotzen eta hazten lagundu zion euskara

ez da haren etsai. Hura bihurtu izan dute honen etsai erasokor. Batzuen erasoaz eta besteen utzikieriaz ahulagoa dagoen honen alde ez dute ezer egin nahi orain ere.

Autogobernu on batekin erraz etsiko genukeenok, eta euskara eta gaztelania, biak nahi ditugunok ere, gogor eutsi behar izaten diogu geure buruari honelako jendilajearen aurrean, “españoltzarrok”, “españoltzar alenok” oihu ez egiteko. Izan ere, edozein aitzakia aski dute beti tranpa berdina egiteko.

(1992-X-29)

BESTE HAMAR URTE

Euskalgintzan gauza asko egin da azken urteotan. Lehendik hasia zegoen lana sendotu eta zabaldu egin da erakunde, lege, diru eta baliabide berriei esker. Baina erein dugunak behar bezalako fruitu iraunkorrik ematerik nahi badugu, zenbait hutsune eta hutsegite zuzendu beharko dugu. Batetik, euskararen beraren eta euskarazko irakaskuntzaren eta komunikabideen kalitatea zaindu beharko dugu. Narraxkeria eta erdipurdikeriekin jai dugu. Bestetik, euskararen erabilpena eta gizarteratzea lortzeko nahitaezkoa da elkarlana.

Hasteko, Franco aspaldi hil zela ohartu behar dugu. Agintarien eta legearen debekuak eta erasoak, ondoriorik utzi badute ere, aldatuak direla, alegia. Orduan, kontra egiten

genuen eskubete lan. Orain, burubideak eta ekinbideak behar ditugu. Dena debekatua eta erasotua balego bezala ardailan jarduteak ez du balio. Gaurko egoerari dagokion mezua asmatu eta erabili behar dugu, beraz.

Dena egiteke dagoenean, dena balekoa da. Zerbait egina dagoenean, ordea, ez da dena balekoa. Burubiderik gabe jokatzen badugu alfer lan asko egin dezakegu hemendik aurrera. Euskara irakastea, euskal komunikabideak sortzea, administrazioa euskalduntzeko neurri batzuk hartzea, bere zailean ere, euskara gizarteratzea baino errazagoa da. Arma eta ikur bezala erabiltzea ere oso erraza da, jakina. Euskara gizarteratzeko zer egin behar den jakitea eta egitasmo bateratu bat burutzea eta elkarrekin lan egitea baino errazagoa.

“Euskararik ulertzen ez duenik bada hemen. Bietara egiten badugu, bilera asko luzatuko da. Erdara denek ulertzen dutenez, erdaraz mintzatuko natzaizue, beraz”. Alderdien, sindikatuen, ikastolen eta abarren bileretan gero eta zabalduagoa den jokabide horrekin ez dugu euskararik gizarteratuko.

Erdaraz bezain erraz eta ongi edo errazago eta hobeto euskaraz egiten duen jendea ugaltzen ez dugun bitartean, erdaraz mintzatuko gara. Euskara ulertzeko eta nola-hala hitz egiteko gai direnak ugaltzea behar dira, jakina, euskaraz hitz egin nahi duena erdaraz hitz egitera behartu ez dezaten. Baina erdaraz bezain erraz edo hobeto euskaraz egiten ez duten elebidunak erdarara joko du gehienetan. Eta erraztasuna eta gaitasuna hitz eginez, irakurriz, entzunaz eta idatziz lortzen da. Nola ugaltzea elebidun funtzional orekatuak eta euskal elebidun funtzionalak da ondoko urteotako gure apustua.

Euskararen kontuan, ez hotz eta ez bero, ez alde eta ez kontra, dagoen %40ari esker onartu dira euskararen aldeko legeak, neurriak, baliabideak eta diruak. Multzo hau kontrakoen edo oso kontrakoen sailera lerratzen bada, galduak gara, jakina. Sail horretara eraman nahian xaxaka eta zirika ari denik agertu da, noski, besteak beste, botoak gehitzeko harrobia hor baitu. Multzo hori galtzen badugu, galdua dugu gure apustua. Eta erraz gal dezakegu, euskara bortizkeriarekin lotua eta inposaketa itxuraz jantzia eskaintzen badiogu. Ondasun, aberastasun, elkartasun lokarri eta askatasun aukera bezala eskainiz bakarrik geureganatuko dugu. Honela eskaintzen badiogu, kontra behintzat, nekez jarriko da, horretarako oso faxista eta inperialista izan behar baita.

Aurrera egin, noski, legeak, diruak eta baliabideak egoki erabiliz eta agintari, erakunde, euskalgintzako talde eta elkarte eta euskaldun eta euskaltzale guztion elkarlanarekin egingo dugu aurrera. Hizkuntza bat gizarteratzeko behar beharrezkoa da gizarteko indar guztien elkarlana. Zaputz gehiegi dago, ordea, gure artean. Erakundeen kontrako eta bortizkeriaren aldeko jarrerak, bestalde, oso zaildurik du elkarlana.

(1992-XI-17)

KULTUR GIZONAK ETA POLITIKA

Belaunaldi ukatua da gure aurrekoa. Kanpokoen eta etzekoen aldetik ukatua. Gerra bat eta larderia luze bat tartean direnean zaila da ondorengoek beren aurrekoak ezagutzea. Are eta zailagoa, gazteek zaharrak ezabatu nahi dituztenean. Horixe egin da gure artean, ideologia berriaren, abertzaletasun berriaren, euskara berriaren izenean, batere begirunerik eta errukirik gabe. Belaunalditik belaunaldira honelako etena, luizia eta leizea egiten denean, berriz, zail da lan iraunkorra burutzea, lur mugikorrean dena kolokan, alderoka, zintzilik geratzen baita.

Hala ere, berandu bederen –ez al da beranduegi izango?– urteak aurrera ahala, hasiak gara gure gurasoak ezagutu eta aitortu nahian, guk geure aurrekoekin egin genuenik gure ondorengoek gurekin egin ez dezaten.

Aitzol, Lizardi, Antonio Labaien, Lauaxeta, Orixe eta abar berreskuratu nahian gabiltza orain, haien bizitzak eta lanak bilduz, argitaratuz eta aztertuz. Aste honetan, Augustin Zubikarai ohoratzen du Ondarroak. Euskarazko literatura, antzerkia, kazetaritza eta abar lantzen eta bultzatzen egin zituzten lanak ez dira makalak. Eta dena ezerezetik asmatzen eta sortzen ari ginela uste genuenok lehengoek bide bera egina zutela ohartu gara.

Idazleekin gertatu zaigun berbera gertatu zaigu politikoe-kin ere. Joan den astean, Joseba Rezolari buruzko liburua aurkeztu dute Ordizian. Espetxea, heriotza-zigorra eta atzerria jasan zituen Eusko Jaurlaritzako gudarosteen sailburua eta Erresis-

tentzi Batzordearen burua nork ezagutu zuen, nahiz eta 1971 arte, hil arte, etengabe batetik bestera ezkutuko eta agiriko lanean jardun, bizia behin eta berriz arriskatuz? Baina EBBn, Eusko Jaurlaritzan, gerratean, azpilanean egindako lanak ez ditut gaur nabarmendu nahi, bere euskal alderdia baizik.

Primo de Riveraren larderialdian erabat debekatu zen Eusko Alderdi Jeltzalea. *Euskaltzaleak* bazkuna sortu zuten orduan “euskal giroa suspertzeko”, literatur lehiaketan, antzerki-emanaldien eta abarren bidez. Joseba Rezola laster ohartu zen ekinbide horren garrantziaz. Gerra ondoan ere laster jabetu zen irratia beharraz. Isilka-misilka entzuten genuen *Radio Euzkadi* hartan parte haundia izan baitzuen. Baita Parisen egin zen Munduko Euskal Biltzarrean ere. Bestalde, *Sabindiar Batza*-ren sortzaile eta buru izan zen 50etik 65era. Eta Joseba Rezolak sortu zuen Euskal Kulturaren Alde (EKA) izeneko ekinbidea ere.

Kultur gizonak ez zioten muzinik egiten politikari. Lizardi eta Lauaxeta olerkari eta *Eguna* euskarazko egunkariaren bultzatzaileak EAJren buruzagi izan ziren. Labaien, antzerki idazlea, Tolosako alkate. Eta politikoez ere oso kontuan zituzten euskara eta euskal kultura. Gaurregun, bizialargudurik daude politikagintza eta euskalgintza, zoritxarrez. Piskana-piskana baztertu egin dira euskal kulturagileak politikaren buruzagitzatik. Ez dute politikagintzan eraginik. Politikoez, berriz, ez dute euskalgintza beren politikagintzan txertatu. Politikari arrotz zaion zerbait direla uste dute euskara eta euskal kultura.

Ez dugu euskalgintza eta euskal kultura agintaritzatik erabat kontrolatu behar direnik esan nahi. Are gutxiago, alderdien

arteko borroka tresna bihurtu behar ditugunik. Herrigintzaren eta politikagintzaren egitasmoan txertatu behar direla baizik. Ekonomia, industria, lan eta beste edozein sailek bere egitasmoan txertatu behar duela berari dagokion hizkuntza politika, alegia. Eta alde horretatik ikusten ditut gehiegi bananduak eta bizi-alargunduak politikagintza eta euskalgintza, politikoak eta euskaltzaleak, gure aurreko belaunaldiak ez bezala.

(1993-II-4)

“EGAN” ERABERRITUA

EGAN Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Buletinaren euskarazko gehigarri eraberritua aurkeztu zen atzo Gipuzkoako Diputazioaren jauregian. 1948ko urte zailtan sortu zen aldizkariaren txanda, Koldo Mitxelena eta Joan San Martinen ondotik, talde berri batek hartu du, Luis Mari Mujika eta Guillermo Etxeberriaren ardurapean: “Mitxelena haundiaren eta Irigarai eta Arrueren eskutik zintzotasunez irekitako ildoak ez dela baztertzea, ez ahaztekoa, ez eta galtzea kontutan izanik, *Egan* urtetsuari izerdi bat txertatzeko”.

Lehengoarekin loturak hautsi gabe eta lehengoari esker oneko izanaz eraberritu nahi dute “euskal alorrean baratze apartekoa” izan den aldizkaria, “bertan gaur ezagutzen du-

gun olerkari, prosalari eta beste idazle anitzek parte hartu duelako”.

Hauxe da talde berriaren helburua: “Bereziki, azterketa literarioen saila gotortu nahi genuke egungo idazle eta literatur ikertzaileen leiho zabal gerta dadin, bai herri literaturan, bai literatura landuaren eta bai egungoaren aportazioen ikuspegi sakon eta hurbilagoa dezagun. Sorkuntzaz gain, itzulpenen bitartez kanpotiko poesia eta prosaren aire berriak gureganatu nahi genituzke egungo literaturaren urratsak hurbilagoatik jarraitzearen. Liburuaren kritika eta erreseina zatiari ere gune aparta emanen diogu euskal liburugintzaren alderik urrienetakoa hau izan delako. *Egan*-ek, dena den, aspalditik ezagutu zuen Mitxelenaen maisutza arlo honetan, zorionez”.

Egan aldizkariak, maila bat, izen bat, ongi irabaziak zituen nolana hiltzen uzteko. Orain 4 urte, berrogeigarren urtea bete zuenean ere, birmoldatzeko eta indartzeko asmorik izan zuen. Eta iritsi zaio ordua. Ekin zaio lanari. Eta berri on bat eman digute urteberriaren hasieran, alor horretako aldizkari gehiago izanik ere, aukera desberdinen arteko lehiak hobetzen baititu batzuk eta besteak.

Orain baino urte zailagoetan, orain baino laguntza eta bitarteko urriagoz eta guk baino hileta gutxiago joz egin zuten lan gure aurrekoek. Aitzakia erosoetan eta eztabaida inozoetan denborarik galdu gabe lan egiteko garaia dugu. Nor garen eta zenbat garen erakusteko garaia. Apustu hori irabazi nahi luke talde berri honek. Besteak egiten ez duenaz eta besteak ezartzen dizkigun trabez hiletak jotzea alferra baita. Literatura ona egiteko gai garen neurrian izango dute etorkizuna euskarak eta

euskal literaturak. Besterenak beste, horixe da literaturagileen erantzukizuna.

Badakigu herri txiki bat garela, irakurle gutxi dituen hizkuntza dela. Aldamenetik trabak jartzen eta erdararen eremura alda gaitezen zirika ari denik ere bada. Sona pixka bat duenari euskaraz aritzea alferra dela erasotzen zaio. Ezaguna ez denari, berriz, bere lanak ez duela ezer balio, euskaraz delako bakarrik argitaratzen eta laguntzen dela, alegia.

Ez da guztia urre gorria, ezta, ordea, dena zaborra ere. Ezin-eramanez egiten zaizkigun erasoek ez gaituzte etsiarazi behar, irmoago eta txukunago lan egitera bultzatu baizik. Batez ere kritiko euskaldunen kritika zuzena eta jantzia behar du gure literaturak, mailaz maila hobetzea nahi badugu. Horretarako beharrezkoa da “azterketa literarioen saila”, talde berri honek dioen bezala, *Egan* “egungo idazle eta literatur ikertzaileen leiho zabal gerta dadin”.

Euskarak arlo eta bide berri asko urratu du urteotan, literaturan, irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan, itzulpengintzan eta abarretan. Kalitateari begiratzeko ordua dugu, bai mamiaren aldetik eta bai hizkuntzaren aldetik. Euskaraz egiten den guztiak ez digu balio. Euskaraz ari garelako ez dugu erdipurdikerietarako eta zabarkeriarako baimenik eta buldarik.

(1993-II-16)

DENA GOIBEL EUSKARAREN ZERUAN

Goibela bakarrik maite du zenbaitek. Bakarren batzuk Mediterraneo aldea bezain urdin bihurtu nahi badute ere, Euskal Herria goibela da, nagusiki. Baina ez da erabat goibela, jakina, urdin aldiak eta ostarreak ez ezik, urdin aldeak ere badituenez. Hala ere, zenbaitek ez du sekulan urdin izpirik inon ikusten. Hala esan zidan bertsolari batek behin bere lagunari buruz: “osasun ona balu, mutua”. Izan ere, bere gaitzak, ajeak eta ondoezak ziren bere hizpide bakarra.

Euskararen zerua ostarerik gabe, goibel, ikusten du zenbaitek. Ezertan aurreratu ez bagenu bezala. Euskara, hizkuntza bezala, edozein arlo eta gaitarako asko egokitu eta trebatu da. Oraindik ere eskubete lan baduela beste hizkuntza batzuen parrera heltzeko? Noski. Baina falta zaigunari begira, ez gaitzela aurrera egin dugun guztia ikusi gabe geratu.

“Jendea ari da euskara ikasten. Ez du hitzegiten, ordea”, entzuten da. Dakien guztiak ez duela hitzegiten nabarmena da. Askok eta askok ez baitute hitzegiteko aukerarik ere. Aita eta ama erdaldunak dituen umeak nola hitzgingo du bere gurasoekin euskaraz? Baina gurasoak eta lagunak euskaldunak dituzten oraingo ume edo gazteek ez al dute lehengo askok baino euskara gehiago hitzegiten?

Erdara nagusi zen herrietako guraso euskaldun eta euskaltzaleek etengabe gogoratu behar izaten zieten beren seme-alabei: “Etxean, euskaraz”. Sema-alaba euskaldunak nahi zituenak borroka latza jokatu behar izaten zuen etxean. Eta hori egiten ez zen etxeetako umeek, eskolara hasi orduko,

galtzen zuten euskara. Gaurko guraso euskaldunok ez dugu, lehengoek bezala, erritan jardun beharrik: “etxean, euskaraz”. Etxean, gurasoekin eta senideekin, beste hizkuntzarik egin dezaketenik bururatu ere ez baitzaie egiten.

Etxean erdaldunak dituenak, noski, eragozpen haundiak ditu euskaraz jarduteko. Horregatik da behar beharrezkoa eskolatik kanpoko iharduerak, kirolak, igeritza, dantza, musika, mendi ibilaldiak, akanpadak eta abar begirale, zaintzaile eta irakasle euskaldunekin antolatzea. Euskararen Aholku Bartzordeak garrantzi handia ematen dio arlo honi, “Euskararen Oinarrizko Irizpideak” finkatzerakoan.

Euskara hazita ikasi duenarentzat ez da erraza euskaraz hitzegiteko aukera izatea, zenbait leku eta girotan. Tartean izan dezakeen lagun euskaldunari ere oso gogorra gertatzen baitzaio, beti erdaraz aritu denarekin, batbatean, euskaraz hastea. Honelakoetan, biek behar izaten dute pazientzia eta ohiturari gogor egiteko gogoia. Izan ere, euskaraz hitzegiteko ahaleginik egiten ez badu, berehalaxe atzenduko zaio euskaltegian ikasi duena. Horixe gertatzen zaio ile izpiak mozten dizkidan gazteari. Oso poliki moldatzen zela jarri zen. Baina nagitzen ari zaio piska-piskana, beste inork gutxik egiten baitio euskaraz, dirudienez.

Norberak ere saiatu behar du, jakina. Behinola gazte bat hurbildu zitzaidan, “euskaraz ba al dakizu?” galdetzeko. “Euskara ikasten ari naiz eta zurekin joan al ninteke kontu-kontari?” Orain katalan batek idatzi dit. “Euskara ikasten ari naiz Bartzelonan, bakar-bakarrik, liburuen bitartez. Baina teoria ez da nahikoa. Praktikatu egin behar dut. Horretarako,

hizkuntzaren ezagutzaile onekin posta trukez aritu behar dut, idazkuntza praktikatzeko eta akatsak zuzentzeko, edozein gauzaz mintzatuz. Ilusioa eta astia badituzu, idatzi, mesedez”.

Nahi dituenak bilatzen ditu abaguneak eta lagunak. Eta euskaraz irakasten edo idazten ari denak ere, noiznahi eta nonahi aurkitzen du ereindako haziaren uzta.

(1994-II-12)

EUSKARA ETA BORROKA

Euskarari mirari haundiak eskatzen zaizkio beti. Kristautasuna modan denean beste hizkuntza guztiak baino kristauago, santuago eta garbiagoa izan behar du. Bestela ez du bizirik merezi. Iraultzaren sukarrak jo gintuenean borrokarako tresna izatera behartu nahi izan zuen batek baino gehiagok. Erdarari ez bezala iraultzaile izatea eskatzen zioten euskarari. Ikastolek, euskaltegiek, euskarazko aldizkariak, euskarazko liburuek, euskal jaiek iraultzaileak izan behar zuten.

Beste batzuk ginen, ez Mikel Azurmendi, jokabide horren kontra nabarmendu ginenak. Zorionez asko itzali da su maltzur hura. Errautsetan badira oraindik ere, agi denez, txinparta batzuk. Iñaki Martin etnografoak aurkitu omen dituen adinakoak ez, noski. Izan ere, Joxemiel Barandiaranek zioen bezala, etnografia hankekin egiteko orde, aurreiritziekin eta irudipenekin egiten bada, berebiziko bitxikeriak ikus daitezke edozein hus-

keriatan. Irudikor batek Jainkoa bezalaxe ikus dezake deabrua ere, edozein aztarna, keinu, itzal eta errainutan.

Guztia Iñaki Martinen irudipena denik ezin esango dugu, noski. Sumatu duena sumatzeko zerbaitek emango zion bidea. Bestela asto zuri baten beharrean da, gizajoa. Baina honelako zantzuak Unibertsitateko zenbait irakaslerengan ere aurkituko ditu, zoritxarrez. Baita “Bruño” bezalako argitaletxe formal itxurakoetan ere, agi denez. AEK batean, ikastola batean, eskola-liburu batean aurkitzea ez da harritzekoa. Nik neuk egin izan dut honelako aztarnekin topo.

Ustez iraultzaile diren komunikabideetan ETAko edo inguruko norbaiti egindako kritiken erantzunak irakurri besterik ez dago honelako jende itxia eta itsua badela ikusteko. “Honelako salaketa bat nola argitara daiteke Euskaldunon Egunkarian”, izan ohi da sumindutakoren bat. Bada Donostiako “Irutxulo” astekarian Odon Elorza alkateari elkarrizketa egitea gaizki iritzi dionik ere.

Harritzekoa al da? Mikel Azurmendik, behintzat, ez luke harritu beharko. Ongi da gaztetako bekatuez damutzea eta aldatzea. Baina ez du gaizki pentsatzeko eskubiderik, nahiz eta bekatari izan denak, zintzotuaren harrokeriaz, arrisku hori izan: berak ez beste guztiek jarraitzen dutela, alegia, bekatuan..

Iraultzaren sukarrik beroenean ere ez ginen bekatu horretan jausi. Beti nabarmendu gara euskara berena bakarrik balitz bezala jokutzen dutenen kontra, euskara borrokari eta bortizkeriari lotzearen kontra, euskara norbere interesetarako taldekeriaz eta alderdikieriaz erabiltzearen kontra, euskara armatzat hartzearen kontra. Horregatik salatu eta gaitzetsi izan

ditugu ikastolen eta euskararen jaietan sumatu izan ditugun alderdikeriak eta gehiegikeriak ere. Euskara guztiona dela pentsatu izan baitugu beti.

Edozein iritzitakoa delarik ere, lasai ibili behar du edo-nork, euskaltegi, barnetegi, ikastola eta euskararen alde egiten den edozein festetan. Eta ezin esango dugu bat baino gehiago larri ibilia ez denik.

Baserritarrentzat eta kaletarrentzat, eskuinentzat eta ezkerrentzat, fededunentzat eta fedegabeentzat, lanerako eta jolaserako, maitasunerako eta gorrotorako, eginkizun, iritzi eta sentimendu guztietarako balio behar du euskarak. Hala aldarrikatu izan dut beti, Mikel Azurmendik ez bezala.

Beste batzuek, ordea, eginkizun goitarragoak eta iraultzaileagoak eskatu dizkiote euskarari bere alde agertzekotan. Baldintza hori gabeko euskarari muzin egiten zioten. Eta lehen baldintza hori ezartzen jardun zuten berberak salatzen diote orain euskarari gaitz hori, aiekaz eta lepoz aldatu direnean. Euskara bera arbuiatzen dute, agian, orduan ere izen-laguntzailea bakarrik baitzuten maite.

(1994-IX-30)

EUSKARAKO AINGERUAK

Aingeruak izatera behartu nahi ditugu euskararen eta euskal kulturaren aldeko eginkizunen batean dabiltzan gizon-emakumeak. Garai bateko elizgizonak bezalaxe, “beti apaiz, denean apaiz, apaiz bakarrik” izatera, alegia. Alde batekoak eta bestekoak ez mintzearren eskatzen zitzairen, noski. Francoren eta bere larderiaren kontra eta euskararen eta Euskal Herriaren alde ez nabarmentzera ere behartu nahi izaten zen, ordea.

Orain, euskalgintzan eta kulturgintzan gertatzen da hone-lako zerbait: “beti euskaltzale, denean euskaltzale, euskaltzale bakarrik” erakusten baita. Euskararen eta euskal kulturaren ardura duena politikan sartzea kaltegarri dela dirudi. Zatikatzaila, zikina, eta hondatzailea da politika, nonbait. Apaiza bezalaxe, politika alde batera uztera beharturik dela, dirudi, euskalgintzan eta kulturgintzan diharduena ere. Inoren alde eta kontra ez jartzeagatik botorik ematen ez zuen Joxemiel Barandiaran da eredu askorentzat, agi denez. Euskararen eta kulturaren apaizak ere aingerua izan behar du, nonbait.

Iritzi hau azken urteotan zabaldu da, gehienbat. Gerra aurreko belaunaldi euskaltzaleak, behintzat, ez zuen hala uste. Lizardi eta Lauaxeta, Eusebio Erkiaga, Uzturre, Labaien eta abar buru-belarri sartu ziren politikagintzan eta alderdi bateko buruzagitzan. Herriz herri ere euskaltzale asko aurkituko genuke politikan murgildua.

Gerra ondoan ere ez ziren denak kokildu eta beren baitan kiribildu. Koldo Mitxelenak, ezagun eta miretsi bat aipatzeko, ez zion alderdiren baten eskuko politika zehatzari iskitxo egin.

Frankismoaren garaian ez ezik, demokraziaren hasieran ere adore haundiz jokatu zuen zenbait euskaltzalek politikagintzan. Edozein alderdi abertzalaren buruzagitzan eta zerrendetan buru-belarri sartu ziren bat baino gehiago. Jose Antonio Zaldua zena, adibidez, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakaria, EAJren parlamenturako zerrendetan agertu zen. Iñaxio Oliberi ere Ikastolen Elkarteko lehendakaritzatik heldu zen Hezkuntza Sailera.

Orain, sartzekotan ere, HB bezalako alderdi “euskaltzale sutsu eta bipil batean” sar daiteke ikastolen eta euskararen aldeko talde edo elkarteren baten ardura duena, antza denez. Eta hor sartu nahi ez duenak ezertara nabarmendu gabe jokatu behar du. Nabarmentzen bada, berriz, izenik gabeko saldukeria egiten duenez, kargua utzi behar du. EAJren alde nabarmendu bada, behintzat, izpiritu sainduaren kontrako bekatu barkaezina egin baitu.

Alderdi batera sartzeak ez du esan nahi bere eskuko elkarte, taldea, mugimendua edo dena delakoa alderdi horren zerbitzura jarri behar duenik. Horixe ez du egin behar. Dena delako elkarte horrek bere eginkizuna bete behar du, alderdikeriarik gabe. Zenbaitek ez du jakiten, jakina. Beste zenbaitek, ordea, ongi jakin izan dugu gauzak bereizten. Inork esan al dezake Koldo Mitxelenak Euskaltzaindia EAJren zerbitzura ezertan jarri zuenik. Ez da egokia neure burua edertzea, baina nork esan diezadake *Zeruko Argia* astekarian edo ikastolaren batean edo Federazioan bertan ardura izan dudanean, alderdi-
ren baten esanera eta zerbitzura jokatu dudala? Inon ez omen dagoena baino zabalagoa da askotan nonbait dagoena.

Guztiek politikari emanak izan behar dutenik ez dut esan nahi. Euskaingintzan diharduten guztiekin elkarlanean aritzeko ez dagoela politikari uko egin beharrik esan nahi dut. Eta horretan diharduten guztiek politikari iskintxo egitea ez dela mesedegarri, luzarora, ez euskararentzat eta ez politikarentzat. Kanpotik jardutea ez da ona.

(1994-X-26)

EUSKARAREN ERRUZ DESBERDINAK

Euskarak desberdinak egiten omen gaitu. Ez da abertzale batek esana, Javier Rojo sozialista gasteiztarrak baizik. Euskarak euskaldun egiten gaituela, bagenekien. Baita gure nortasunaren ezaugarrietako bat dela ere. Besteetatik bereizten gaituen ezaugarria da, beraz.

Baina Rojo beste desberdintasun motaz ari da. Maila desberdineko herritarrak sortzen dituela esan nahi du. Euskara zapaltzaile dela, alegia. Honelako zerbait adierazi nahiko du, noski. Hori gerta daitekeenik ez diot ukatuko. Baina hori beste edozein gairekin eta erdararekin are eta gehiago gertatzen da.

Jesus Egiguren euskara jakiteagatik izan zela Legebiltzarreko lehendakari usteko du Rojok, agian, eta bera horregatik ez dela sekulan izango ez Jaurlaritzako eta ez Legebiltzarreko lehendakari. Ez dio bere buruari egundaino galdetuko: Egi-

gurenek eta Jauregik erdararik ez balekite izango al lirateke lehendakarigai?

Jakina, zenbait postutarako euskara jakitea beharrezkoa izan daiteke. Ez dakiena baztertua geratuko da, beraz. Baina hori bakar batzuei bakarrik gertatuko zaie. Erdara, ordea, leku guztietarako eskatzen denez, gaztelaniarik ez dakiena kargu eta funtzionario postu guztietarako eta beste lanbide askotarako geratzen da bazterturik. Erdaraz ez dakiena dago hemen izorratua bazter guztietan: medikuetan, abokatuetan, notarioetan, auzitegietan eta edozein lekutan. Euskararik jakin gabe bapo bizi da jendea.

Euskara eta erdara beharrezkoak diren tokietarako erdaldun hutsak ateak itxiak dituela? Baita euskaldun hutsak ere. Euskarak eta erdarak –erdarak gehiago, noski– desberdinak egiten gaituztela? Jakina. Erdara dakienak ez dakienak baino aukera gehiago ditu gure artean. Erdara eta euskara, biak, badakizkienak, bakarra dakienak baino egiago. Ingelesa ere badakienak, gehiago. Zenbat eta hizkuntza gehiago dakizkien orduan eta aukera gehiago izango ditu zenbait lanpostutarako.

Jakina, hizkuntzek desberdintasun haundiak sortzen dituzte gaur egungo gizartean. Baina ez hizkuntzek bakarrik, baita edozein ikasketak ere. Zenbait karreratan beste zenbaitetan baino langabezia haundiagoa da. Injineru bat eskatzen dugun bakoitzean, medikuak, legegizonak, arkitektoak, pedagogoak, irakasleak eta abar baztertzen ari gara. Hizkuntzak baino gehiago baldintzatzen eta mugatzen dute ikasketek edozein lan aukera.

Txorakeriak eta ergelkeriak esan nahi baditugu, jarrai dezagun: “injinerutzak desberdinak egiten gaitu euskaldunok” edo “medikuntzak desberdinak egiten gaitu euskaldunok” edo dena delakoak. Segi dezagun ergelkerietan. Eta esan dezagun, “eskolak, prestakuntzak, ikasketek, desberdinak egiten gaituzte euskaldunok”.

Rojoren bidetik larrugorri geratu beharko genuke. Orduantxe bakarrik izango ginateke berdinak, luze-laburrean ez baitugu ezertan ere alde haundirik. Zenbat eta ezjakinago orduan eta berdinago. Eta zenbat eta burua eta gainontzeko gaitasunak gehiago lantzen ditugun, zenbat eta jantziago, orduan eta desberdinagoak.

Horixe da gizakiaren izaera. Bizitzan eta gizartean aurrera egin nahi izan duten euskaldunek ere, ofizioen bat ez ezik, erdara ere ikasi egin behar izan dute. Ala ezer kostatzen gabe ikasi dugula uste du Rojok? Donostiatik Gasteiza Gasteiztik Donostiara adina bide dago. Euskaratik erdarara ere ez da erdaratik euskararaino baino laburragoa. Erdaldunari zaila gertatuko zaio euskara ikastea. Euskaldunari ere halaxe gertatzen zaio erdara.

Hala ere, biak ikasi behar herri bat izan nahi badugu. Tokian tokiko hizkuntz egoera kontuan izanik egin behar direla hizkuntza egitasmoak? Eroak ere badaki. Egin ere halaxe egin dira. Aldioro egokitu behar direla neurrira? Noski.

(1994-XI-25)

HIZKUNTZ EREDUA

Hizkuntz eredu desberdinak daude edozein hizkuntzatan, arlo bakoitzean dagokion jitea hartzen baitu hizkuntzak. Euskarak, ordea, erabilia izan ez den arloetan ezin eredurik izan. Erabilia den arloetan ere ez du oraindik eredu finkorik, tokian tokiko jiteak desberdintzen baitu.

Euskal Herri osorako beharko genukeen euskara batu hori egiten saiatu gara azken urteotan. Aurreratu ere asko egin dugu. Baina hizkuntzari berari dagokion auzi bat sortu zaigu: zer-nolako euskara, euskararen jatortasuna.

Honela azaltzen zion kezka hori Antton Aranburuk Euskaltzaindiari, Gipuzkoako Diputazioak urrezko domina eman zion ekitaldian: “*Euskañola* deitu izan ohi den horretaz ari natzaizue. Dударik ez, euskararen arazorik larrienetako bat bere barne diglosian datzala, hau da, hiztunok erdararik gabe euskaraz ezin pentsatu horretan. Hori dela eta, bada gure artean ere txikanotze prozesuaz mintzatzen hasi denik, erdararen eragin suntsitzaileari aurre egin beharra aldarrikatuz”.

Eta batasunaren oinarriak finkatu samarrak daudenez, “Euskaltzaindiak euskararen kalitatea zaindu eta babesteko eginkizun nagusi bat” du, Antton Aranbururen ustez. Ez Euskaltzaindiak bakarrik. “Hasi euskal politikoetatik, administrazio-langile eta irakasleetatik pasa eta komunikabideetako azken idazle eta esatarienganaino, guztioi dagokigu, herrizale zein abertzale izateak berekin duen eskakizun legeaz, hizkuntza eredu egokiak erabiltzea”.

Kezka hau oso zaharra dugu batzuk. Berriagoa beste zenbaitek. Hala ere, pozgarri zaigu Ibon Sarasolak eta LUR entziklopediaren arduradunek horretaz agertu duten kezka. Bere irizpideak oso atseginak eta gustukoak gertatu zaizkigu, gainera.

Horretan ere egoki jardun zuen usurbildarrak: “Euskara soziolinguistikoki normaldu eta era berean kultur eta zientzi hizkuntza egiteko ahalegin horretan, martxan da jadanik gu-rean ere hizkuntzaren industria eta horrek ezinbestekoa egiten du Euskaltzaindiaren gidaritzza bere aholku eta batez ere erabakiekin: baina, jakina, hizkuntz industriren lehia komertzialetan nahasi gabe”.

Euskaltzainen, entziklopediagileen eta abarren ahaleginek ez dute ezer balioko, ordea, norberak arretarik ez badu. Erdararik zerbait itzuli behar duen bakoitzean, “hau euskaraz nola esaten da, nola esan daiteke?” bere buruari galdetzen ez badio, “mantatik tira” bezalako erdarakadak esan eta idatziko ditugu, mugaz betaldeko euskaldunen gupidarik gabe.

Orain dela urte batzuk “zio” bukaera guztiak “pena” bihurtzeko gaitzak jo gintuen. Orain, “tik” jarri zaigu modan. Ez diogu mantari tiratzen, mantatik tiratzen dugu. Orain ez gara mendian ibiltzen, menditik baizik. Trenak ez du harrapatutakoan inor aurrean eramaten, aurretik baizik, baita atzetik jota eraman badu ere. Gauza hauek, jakina, ez ditu “Xuxen”ek zuzentzen.

Badago erdarak aspalditik duen –eta politikoen hitzontzikeriaz gehitzen ari zaion– ponpoxokeria guztia, dotorezi eta edergarri den ustean, euskarari eman nahia. Kanean hilda

agertu denari buruz zeinen erraza litzatekeen honelaxe esatea: “ez dakigu etxeko leihotik erori den ala bere burua bota duen”. Bai zera! “Ez dakigu istripu naturalez ala bere burua leihotik botata hil den” esan behar da, kaletarragoa eta dotoreagoa omen denez. Zakurraren putza!

(1995-III-11)

“APUSTU MERKEA”

Ez dakit zein den lehenagokoa, *Irrintzi* deituaren lehen alea ala *Zutabe* deituaren 74garrena. Bietan ere Eusko Jaurlaritzak herri-ekimenei buruz izan duen aldaketaz oso uzkur agertzen da ezker abertzalea: “AEK eta Egunkariarekin apustu oso merkea egiten baitu Administrazioak”.

Bi paperak erabat erdaraz argitaratuak badaude ere, ezker abertzaleak bere burua bakarrik du euskararen aldeze eta babesle bakartzat. Eta bera bakarrik delako gidari, aitzindari eta babesle bakarra, bere hegapean nahi ditu herri-ekimen guztiak. Ez du sinesten, itsu delako edo hala komeni zaiolako, beste inork euskararen alde jardun dezakeenik. Jaurlaritza, gutxiago.

Gobernuaren oraingo jokabideari ez dio tankera onik hartzen, beraz. Desegitea lortu ez duenean, mugimendu hauek “etxekotzea” omen Jaurlaritzaren asmoa. Hala ere, AEK eta

Egunkaria “normalizazio” bidean sartzeko prest omen daude “itsu-itsuan”.

Irrintzi-ren ustez, irakasleen premiek eta irakasleen “nahi profesionalek” behartu omen dute AEK horretara. Hitzarmen horren arabera onartuak izan dira orain arteko irakasle guztiak, jakina, “baina hemendik aurrera hiru urteko karrera bat eta EGA eskuratu beharko dituzte”. Eta hori kezagarria da ezker abertzalearentzat.

“Administrazioak apustu oso merkea egin du. Galtzekorik ezer gutxi du. Baina herri-erakundeok beren nortasuna eta askatasuna galtzeko arriskua dute miseriako diru-laguntzaren truk. Are okerrago, Euskal Herria euskalduntzeko tresna bezala jaio zirela ahaztekoa; beren normalizazio bidean beren eginkizuna eta izaera ahaztekoa”. *Irritzi*-rentzat ere hauxe da arriskurik nagusiena: “lortutako hobekuntzek indartu egingo dituztela AEKren barruan joaera normalizatzaileak”.

Ezker Abertzalean nagusitu direnek bi gauza ez dituzte nahi: Herri-ekimenez, oro har, eta euskararen ingurukoek, bereziki, ez dezatela haien hegapatetik ihes egin, batetik; Espainiaren eta Euskadiren arteko gatazka konpondu arte ez dadila ezertan konponbiderik egin, bestetik.

Hori hain argi eta garbi ezin esan dutelako ateratzen dute gainerako erretolika guztia. Ezker abertzaleak badaki ongi aski hitzarmen hauekin AEK ez dela erdaltegi bihurtuko, ezta Egunkaria ere erdarazko periodiko. AEKren helburua euskarra gero eta hobeto eta azkarrago eta gero eta jende gehiagori irakastea da, noski. Eta bere egitekoa da, bestalde, horretarako

gai eta trebeak diren irakasleak kontratatzea eta beroriei zor zaizkien soldatak eta lan-baldintza egokiak eskaintzea.

Ezker abertzaleak, ordea, zerbait gehiagotarako ere nahi ditu, agi denez, herri-ekimen hauek. Bere dotrina irakasteko eta bere jarraitzaileak eta ekintzaileak lortzeko ere behar ditu, nonbait. Horregatik nahi ditu bere hegapean eta zerbitzurako AEK, Egunkaria eta gainontzekoak. Eta ezker abertzalearen alde nabarmen jokatzeko ez badute etsaitzat salatuko ditu.

Alderdikeria hori, ordea, euskararen kaltetan da. Euskara guztiona izatea nahi badugu, AEKra euskara ikastera edozein irizitikoa joatea nahi badugu, Egunkaria edozein euskal irakurlek irakurtzea nahi badugu, ezin da alderdikeriaz jokatu.

Euskalgintzak, besteak beste, bakea, elkartasuna eta elkarlana eskatzen ditu. Euskararen kaltetan da borroka. Zenbaitek, ordea, euskararen gainetik du gatazka osoaren konponbidea.

(1996-V-8)

AMURRIOKO IRAKASLEA

Amurrion egin dute bilera milaka euskaltzalek. Orain 10 urte baino bi halako gehiago bildu omen dira. Bertako euskaldunak, berriz, laukoiztu egin dira, agi denez. Eta dirutan ere mozkin polita atera dute Aresketa ikastolarentzat.

Norbaitek egin du lan euskara errautsetatik berpizteko. Buru-belarri egin da lan, gogotik eta burutsu, ez itsumustuan

eta arrapaladan. “Euskara guztiona eta guztiz ona” dela ohar-taraziz eta onar araziz. Emaitzak dira lekuko. Bidezko denez, omenaldirik ere eskaini zaie orain 20 urte berreuskalduntzeari ekin ziotenei.

Amurrioko berri hauek irakurtzen ari nintzela amurriar bati diodan zorraz gogoratu naiz. Ez dakit Amurrion jaioa zen ala Amurrion hazia. Izan ere, medikuaren seme-alabak batean eta bestean jaiok eta haziak izan ohi ziren. Dena den, nik ezagutu nuenean amurriartzat zuen bere burua Anton Garro irakasleak. Urrunago ere bizi behar izan zuen, jakina, jatorriz Mundakakoa zen familiak, Francok zigortu zuelako.

Bernardo Maria Garro “Otxolua” euskal idazlearen ilobak, behintzat, heldutakoan ikasi behar izan zuen euskara. Bere gisa ikasi zuen. Nola ikasi ere! Euskara ikasten ari zen urte haietan ezagutu nuen Saturraranen irakasle. Ez ziren euskararentzat urte erosoak 1945-46 ingurukoak. Baina han zebilen gure amurriarra bere euskararekin gora eta behera. Eta Anton Garrok emanda irakurri nituen euskarazko lehen liburuak, beste askok bezalaxe. Txomin Agirreren “Garoa” izan zela, uste dut, irakurri nuen lehen liburu.

Aspaldiko kontuak esaten ari naiz gaurko amurriarrentzat, eta beranduegi. Baina igandean omendu zituzten euskaltzaleen artean leku eta aipamen berezia merezi zuen Anton Garrok, ez bairik gabe, Amurriotik kanpora euskararen alde egin zuen lanagatik.

“Araba Euskaraz”eko albisteak irakurtzerakoan arabar gehiago ere izan ditudala maisu oroitu naiz. Raimundo Olabide gasteiztarrak euskaratutako *Itun Zâr eta Berria* izan zen eus-

karazko nire lehen Biblia. Euskarazko nire lehen gramatika, berriz, Andoni Urrestarazu “Umandi” araiarrak argitaratua.

Euskara Araban arrotza dela sinestarazi nahi digute batzuek. Baina arabarrek bere-beretzat dute gehienek. Beren historia, beren deiturak, beren jatorria, beren mendi, lur eta ibaiak euskaraz mintzo baitzaizkie. Askatasuna eta aukera duten guztian horregatik ekiten diote arabarrek euskal hizkuntzaz birjabetzeari. Beste herri askotan gertatzen denaren isla da Amurrio. “Araba Euskaraz” en gorakada eta garaipena da, besteak beste, gertatzen ari denaren ispilurik garbiena, nik uste.

Hizkuntza bat ez da gauetik goizera galtzen, pittinka-pittinka baizik. Berpiztu ere ez da goizetik gauera berpizten. Urteak eta belaunaldiak behar dira galdutako hizkuntzaz birjabetzeko. Eta eguneroko lan egokia, atsegina eta burutsua. Ez da zakarrean eta gogorrean egin daitekeen lana. Euskara ikastearen abantailak eta alde onak ikustarazi behar zaizkio jendeari, lehenik. Ikasteko gogoz dagoenari, berriz, ikasteko erraztasunak eta laguntzak eskaini.

Apustu latza da. Komunikabideek eta informatikak ere izugarrizko erronkak jotzen dizkiote eremu urriko hizkuntza bati. Baina garai batean ez genuen horrenbeste aurreratuko genuenik uste. Eragozpen eta erronka berriak ere gaitutuko ditugu argi jokatzeko badugu.

(1996-VI-18)

EUSKARA PARADISUKO HIZKUNTZA

Euskaldunok ez genuen ezer berririk asmatu. Hebreera zen garai batean Jainkoak gizakiari emandako hizkuntza. Gero, grekoari eta latinari aitortu zitzaaien ohore hori. Geroxeago, Estatuek berentzat hartutako hizkuntza ofizialei. Euskaldunok ere ezin, bada, gure hizkuntzari ohore hori aitortu gabe geratu.

Zaldibia Batxilerrak XIV. mendean dioenez, Tubal, Jafeten semea eta Noeren biloba eta beretarrak heldu ziren Pirinio mendietara. Ugaldu ahala sakanetara jaitsi ziren eta inguruko herri batzuk eta Nafarroa eta Euskal Herriak hartu zituzten. Zaldibiaren ustez, munduko probintzia eta erresumen artean herri honek bakarrik gordetzen ditu Jainkoak izadian ezarritako legeak eta herri honek bakarrik gorde du bere lehen hizkuntza ere.

Honelako iritzi eta usteei barre egiten diegu, jakina. Zenbaitek, berriz, amorrua ere hartzen du. Eta arrazistatzat jotzen du euskaldunon kaskezurreko edo odoleko berezitasunak aipatzen dituen. Aitor dezadan, badaezpada ere, beraz, mestizoa naizenez, nik neuk ez dudala euskaldunen odol preziatu horren aztarrenik.

Baina oraintxe bertan ikergai dira euskaldunak eta euskara. Genetikan jakintsua den René Herrera Floridako Unibertsitate Internazionalako irakasleak ez ezik Jorge Maria Ribero Bruselako Unibertsitateko hizkuntzalariak ere Zaldibia Batxilerraren ondorio bertsuak eskaini dizkigute.

Bibliak kontatzen digun eran politagoa eta ohoragarriagoa da gizakiaren sorrera, jakina. Baina inork arrazistatzat jo ez gaitzan Darwinen kontra onartuko dugu. Honen arabera,

euskaldunok izango baikinategi tximu gizaki bihurtuaren ondorengo zuzenenak, gutxien aldatuak eta ezaugarri horiek ondoen gorde ditugunak. Harrotzekorik ezer ez, beraz.

René Herrera Miamiko biologoaren iritziz, Afrika iparretik heldu ziren gizon-emakumeen ondorengoak gara euskaldunok. Mendiartean beste inorekin nahasi gabe gorde ditugu ezberdintasun genetikoak. Gure hizkuntzak ere horregatik ez du ezagutzen ditugunon artean bere antzekorik.

Jorge Maria Ribero hizkuntzalariarentzat, elkarrekin bizi ziren lehen gizon-emakume haiek hizkuntza bakarra zuten. Orain berrogei mila urte batera eta bestera sakabanatzen hasi zirenean sortu ziren hizkuntza berri desberdinak. Hizkuntzalari honen ustez, “lehen gizon-emakume haiek mintzo ziren lehen hizkuntza haren aztarnik onena euskara da”.

“Homo loquens” haren, hizketan ikasi zuen gizaki haren, hizkuntzaren aldaera da euskara, beraz. Hala dio Ribero: “Euskara ez da Gizadiak hitz egiten zuen lehen hizkuntzaren hurbilenekoa bakarrik. Are gehiago, hizkuntza guztietan daude euskararen jiteak eta egiturak: euskara ikertu gabe ezinezkoa da gizon-emakumeen lehen hizkuntza zein izan zitekeen sumatzea”. Are gehiago, bere iritziz, “gaztelaniak ere lokarri haundiak ditu euskararekin”.

Gizadiaren lehen hizkuntza, lehen gizakiaren kokagune geografikoa, gizakiaren sorrera eta gizon-emakumeon enbor bakarra zein den jakiteko balio dezakete, beraz, euskarak eta euskaldunak. Hala ere, zenbaitek ez digu ez euskaldunoi eta ez euskarari bizirik opa.

(1996-VI-20)

IRUDIPEN BAT

Euskal Herriari ez nuke Irlandarena gertatzerik nahi. Bere hizkuntza galdurik, ingelesa irakasten ari da europarrei. Euskal Herritik bertatik ere zenbat gazte joaten ote da Irlandara ingelesa ikastera? Hori da udako dirubideetako bat. Ez nuke Euskal Herriaren bizibidea eta eginkizuna gaztelania edo frantsesa irakastea izaterik nahi.

Errukia ematen dit Ipar Irlandak. Hainbeste odol, txikizio, gorroto, zertarako? Ingelesa irakasten aritzeko? Gure artean ere bada independentzia lortzea euskara sustatzearen aurretik jartzten duenik. Niri, berriz, bost axola independentzia kanpotarrei gaztelania edo frantsesa irakasten aritzeko baldin bada.

Ez dut ikerketa berezirik egin. Irudipen hutsa da, beraz. Alegia, euskaldunenek eta euskaltzaleen heldu ote zioten autonomi bideari gerra aurrean. Besteak beste, hor ditugu Lizardi eta Lauaxeta.

Zergatik ote? Arrazoi hau bururatzen zait. Independentzia eskuratzeak luze jo lezake. Euskara, berriz, ez dago luzarorako. Abertzale euskaltzale batek, beraz, euskarari biziraupena ziurtatu nahi dio lehenik. Horretarako politika pragmatikoa egin beste erremediorik ez du. Euskarari edo euskararen iraupenari garrantzi haundirik ematen ez dionak, berriz, erraz egiten dio uko politika pragmatikoari, autodeterminazio, independentzia eta iraultza bezalako amets liluragarrien distiraz.

Abertzale pragmatiko batek, eta euskaltzaleak, hiltzorian dagoen edozeinek bezalaxe, pragmatikoa izan beste erremediorik ez du; osatzeko, sendatzeko, suspertzeko ezinbestekoak

diren baliabide batzuk eskuratu nahi ditu lehenik. Herriaren zutabe nagusiak sendotu nahi ditu lehendabizi. Autodeterminazioa eta independentzia berez etorriko dira orduan, hormak eta zutabeak sendo dituen etxea berez ari baita teilatu eske.

Era askotako lan eta harremanekin bakarrik eraikiko dugu herri hau. Horretarako, berriz, dauden alderdiekin. Sindikatuekin, elkarteekin, erakundeekin, politikoeekin, jendearekin, baliabideekin eta aukerekin baliatu beharko dugu. Ez dago inori eta ezeri muzin egiterik.

(1996-VII-19)

“JALGI HADI PLAZARA”

Etxepare Bernartena irrintzia zen, erronka: “Euskara jalgi hadi plazara”. Izan ere, ez zen herriko kaleaz eta plazaz ari, herriko plazan euskaraz mintzo baitziren. Letren plazaz, liburuen plazaz, ari zen. Beste edozein hizkuntzaren pare ikusi nahi zuen euskara, jakintza mailan ere.

Xalbadorren plaza herrikoa da, pilotan jokatu ohi den plaza. Eta “gazteriari deiadar bat” egiten diola iruditzen zaio: “Ez nezazula berex euskararen ganik!”. Xalbadorren “jalgi hadi plazara” ez da irrintzia, ez da erronka, garrasi larria bai-zik. Arriskuan ikusten baitu. Hala ere, “baldin ez bazerauku erdalduntzen plaza,/ salbaturen garela badut esperantza”.

Gu, jakina, Etxepareren plazaz eta Xalbadorren plazaz gara kezkatu. Bata bestea gabe ezin baitaitezke bizi. Hegoa aldean Etxepareren plaza euskaldundu ahala, Xalbadorrena ere berreuskalduntzen ari gara. Ipar aldean, ordea, herriko plaza ari da erabat erdalduntzen, agi denez.

Euskarak urrun zuen frantsesa ipar Euskal Herrian, gaskoiez, biarnesez, girondarrez eta abarrez inguratua baitzegoen. Frantziak, beraz, ezarri egin dio urrutiko hizkuntza arrotz hori, legeen, administrazioaren, eskolaren, komunikabideen eta abarren bidez. Hego aldean euskararen ondoan jaioa da gaztelania. Horregatik du bere baitan euskararen eragina. Eta biak elkarren ondoan bizi zirelako hizkuntza gaztea hasi zitzaion zaharrari lurra jaten. Lur-jate hori arinago eta errazago gerta zedin izan zuen gaztelaniak, jakina, Estatuaren laguntzarik, indartsua eta bortitza gainera. Legeen, debekuen, administrazioen, eskolen eta abarren indarrez eta euskaldun askoren utzikieriaz eta ezjakintasunaz baliaturik murriztu baitzaizkio euskarari lurrak, arloak eta egitekoak.

Hego aldean, ezarian-ezarian, mende askoren buruan gertatu dena, ipar aldean ia bat-batean gertatu da. Bere mugetatik urrun zuen frantsesa agudo ezartzeko bezainbat azkar eta indartsu baita Frantziako estatua, Iraultzaz geroztik. Eta beste euskal lurraldeetan baino euskaldunagoak izan baditu ere ia oraintsu arte bi plazak, Xalbadorrena eta Etxeparena alegia, mendeetan euskaldun izan duen plazako euskara ez ezik sukaldekoa ere galtzar du.

Frantsesaren liluraz eta beharraz, euskararekiko gutxiespenez eta utzikieriaz eta eleaniztasunaren balioen ezjakinta-

sunaz, beren seme-alabei euskararik irakasten ez dieten guraso asko dira. Hego aldean ere badira oraindik banaka batzuk, baina lehen baino gutxiago. Ipar aldean, ordea, guraso askok ez diete beren haurrei etxean euskararik irakasten: %17k, nonbait irakurri dudanez. Telebistan euskaltzale agertzen den bat baino gehiago bada, agi denez, etxean bere haurrei euskararik irakatsi ez dienik. Baita telebistan euskaltzale agertzen den alkaterik ere herriko eskolan euskara debekatua duenik.

Euskarazko literaturan, kazetaritzan eta euskal jaien aitzindari izan den Ipar Euskal Herria ia erabat frantsesturik du Frantziak, oso denbora gutxian eta abiada bizian. Eta euskaldun xuriek eta gorriek, ezkerrek eta eskuinek, elkar harturik, euskararen aldeko egitasmo bat onartzen ez badute jai du euskarak.

Horretarako, bortizkeria eta iraultza ez nahasten ahalegin-
du beharko dute batzuek; beste askok, berriz, bortizkeriaren
eta iraultzakeriaren estakuruz beren jokabide uzkur eta epela
alde batera uzten. Egoera larriegia du euskarak ipar Euskal
Herrian egun bat bera ere galtzeko.

(1996-X-23)

UNAMUNOREN DAMUA

Unamuno gazte euskaltzaleak euskarari hileta on bat opaz amaitu zuen bere bizitza. Jakintzarako eta mundu berrirako zahartuegia eta ezinduegia jotzen zuen euskara. Hil-kanpaiak jo zizkion horietakoa dugu, beraz.

Bere garaiko asko bezalaxe eztabaidalaria eta eztenkaria da Unamuno. Jendea esnatu eta akuilatu nahi du. Berak zioen bezala, “atzaparkada gatz bota nahi diet begietara”.

Atzaparkada bat baino gehiago bota zuen, nonbait, Bilbon 1901ean egin zuen hitzaldi famatuan. Lau urte geroago ere badu damurik. Izan ere, “ahogado, más que por las protestas, por los aplausos” izan zen hitzaldi hartaz hala idazten du: “No me alaban lo que se llama patriotismo; no el decir serena y tranquilamente la verdad, no; les regocijó el ver que se sintió herido en vitales sentimientos un pueblo, mi pueblo vasco, al que aborrecen. Fui sin quererlo, un instrumento de sus mezquinas pasiones. Dije lo que creía, y sigo creyendo, ser verdad, y lo dije con cariño a mis paisanos; pero me aplaudieron por malquerencia hacia ellos”.

Egia da, euskararen alde bihozkeria, ahoberokeria eta badaezpadako kontu asko esaten da. Itomena eta larritasuna sortzen duten jokabideak ere badaude. Egia da, euskararen aldeko arrazoiek, jokabideek, jardunek, neurriek, erabakiek, arauk eta abarrek herritar gehienentzat konprenigarriak eta onargarriak izan behar dute. Euskalgintzak ere onartua eta demokratikoa izan behar du.

Baina abertzaletasunak egin zitzakeen eta egin ditzakeen gehiegikeriak bakarrik salatzea ez da zuzena. Abertzale-euskal-

tzalerik gabe iraungo al zuen euskarak bere kontrako hainbeste eraso eta larderia artean? Oraindik horien ondorioak jasaten ari bagara ere, ordea, ez gaude erasopean eta larderiapean, jakina, hala bageunde bezala jokatzeko jarrai dezagun. Euskararekiko gure mezua aldatu beharrean gaude, beraz.

Ongi etorri bitez mezu eta jokabide onargarriago, baiko-rrago, zabalago, erakargarriago eta eragingarriago guztiak. Ez dadila, ordea, euskaltzaleen hutsegiteen, estukerien eta larritasunen salaketa hutsa izan. Are gutxiago, erdaltzalerik ez balego bezala egindako salaketa maltzurra.

Zenbaitek oso gogoan izan beharko luke Unamunoren damua. Ez zizkioten txaloak egia esaten zuelako jo, ezta Espainiarekiko zuen maitasun sutsuagatik ere, gorrotatzen zuten Euskal Herria eztenkatzen eta zauritzen ari zelako baizik. Euskara eta Euskal Herria erasotu eta gorrotatu zutenen eta euskararen eta Euskadiren garapenaren kontra dihardutenen edo uzkur agertzen direnen txaloak ez ote da entzuten ari zenbait? Batek baino gehiagok ez ote luke pentsatu behar: “fuí sin quererlo, un instrumento de sus mezquinas pasiones. (...) me aplaudieron por malquerencia hacia ellos (a mis paisanos)”.

Unamuno hil zela 60 urte bete dira. Baina hilabete batzuk lehenago hil zuten Unamunok mindutakoak eta zapuztutakoak bizipozten saiatu zen Aitzol. Unamunoren txalojoleek hil zuten. Euskara eta euskal kultura hiltzen ere saiatu ziren, jakina. Ez dira denak aldatu. Badira demokrazia mozorroturik bizi direnak.

(1997-I-8)

“REVISTA EUSKARA”

Euskara izeneko aldizkaria berrargitaratu du Eusko Ikaskuntzak sei liburukitan. *Nafarroaco-Euscarazco Elcargoa*-ren edo erdarazko izenez ezagunagoa den *Asociación Euskara de Navarra*-ren aldizkari hau 1878tik 1883ra argitaratu zen, euskaraz eta erdaraz.

Bigarren Gerra Karlista amaitu eta berehala sortu zen Elkargo hau, bere aldizkari eta guzti, adierazpen askatasunaren kontrako lege zorrotz eta estuei gogor eginaz, Iturralderen eta Kanpionen zuzendaritzapean eta ardurapean. Luis Luziano Bonaparte Printzeak, Vinson, Trueba, Ortiz de Zarate, Manterola, Felipe Arrese Beitia eta abarrek idatzi zuten bertan.

Oraingo idazkerara aldatuak, hauek ziren Euskarazko Elkargo honen asmoak: “gordetzea, galtzera utzi gabe, eta hedatzea al daiteken guzian euskarazko mintzaira; ongi ezagutzea gure aurrekoek hizkuntza eder honekin erran eta egin dituzten gauza on guztiak”.

Laurak bat aldarrikatzen zuten. Foruen berreskuratzea eta euskara zaintzea elkarrekin uztartzen zituzten. Foruak eta euskara elkarrengandik banaezinak ziren haien ustez.

Hego Euskal Herriko mugimendua, bai lau lurraldeen aldeko batasuna eta bai euskararen aldeko sua, Sanz eta konpainiak jakin dezaten, Nafarroatik abiatu zen. Abadiak antolatu ohi zituen euskal jaietan ere Elizondokoak izan ziren hego aldeko lehenengoetakoak, 1880an hain zuzen. Geroztikakoak dira Donostiako *Euskal-Esnalea*, *Euskalherriaren alde* eta *Euskalherria* aldizkariak.

Miguel Sanzek besterik uste badu ere, euskarari deitu izan zaio “nafarren hizkuntza”. Hizkuntza horren lehenengo garrasiak ere Nafarroan entzuten dira: “euskaldunak garenok galtzera utziko dugu? Lotsagarria izango litzateke guretzat honelako bidegabea. Nafarroako Euskarazko Elkargoak eginahal guztiak paratuko ditu holakorik gertatu ez daienagatik, eta al badaiteke behintzat, gero eta gehiago zabaldu daienagatik”.

Probintzianorik ibiliko da Nafarroan, jakina. Baita hangorik ere hemen. Zoritxarreko ezbeharrean Bilbon balaz zauritutako bietatik bat nafarra baitzen, agi denez. Halaxe ibili izan gara beti, batean eta bestean. Izan ere, lurralde desberdinetakoak izanik ere, senidetzat jo izan baititugu geuron buruak batzuek eta besteek. Sanz bezalako ezjakin eta itsuek nahi dizkigute senide lokarriak ukatu eta eten, euskararen eta batasunaren aldeko edozein ekimen kanpotartzat arbuiaurik.

Baina senidetasun eta euskaltzaletasun mugimendu hori Nafarroatik abiatu zen. Irakur beza *Revista Euskara*, orain bederen, oso eskueran izango du eta. Nafarroatik abiatu zen mugimendu hark baditu, jakina, gaur ere nafarren artean sustriak. Sanzek ez beza pentsa, beraz, ikastolak, Nafarroa-Oinez eta abar auzotik eramanak dituenik.

Orain dela ehun urte eta gehiagoko aldizkari hori irakurtzen badu, ikasiko du euskal historiarik, hegoaldekoa ez ezik, baita Zuberoa, Nafarroa-Behere eta Lapurdikoa ere. Eta ikasiko du, adibidez, nolako elkarkidetzak erakusten dien 1878an Kantauri itsasoan ito zirenen etxekoei. Eta ez Goizuetakoek bakarrik, baita Kaskante, Piedramillera, Torrano, Mañeru eta abarretakoek ere.

Altxor ederra da *Revista Euskara* beste guztiontzat ere.
Eskueran dugu orain, zorionez.

(1997-II-26)

BASERRITIK UNIBERTSITATERAINO

Zakur zaunkaren antzeko zerbait zen euskara kanpotar batzuentzat. Bertako askorentzat ere baserritarren hizkuntza zen, gehienez ere. Jakintza gaietarako balio ez zuena beste gehienen ustez.

“Ikasteko balio ote du euskarak?” zen ikastolako guraso askoren kezka. Eta sinetsi egin behar izan zuten baietz ziotenen hitza. Emaitzak ikusi gabe sinetsi zuten. Seme-alaben etorkizuna baldintza zezakeen zerbaitetan sinetsi ere. Ez dute meritu makala!

Erronka hari erantzuteko edo ekin zitzaion, 1973an, Udako Euskal Unibertsitateari Donibane Lohizunen. Ezer haundirik ikasteko baino gehiago balio zuen, jakina, hango eta hemengo euskaltzaleok elkar ezagutzeko eta iheslari batzuekin harremanak izateko. Belaunaldi desberdinek elkarrekin topo egiteko ere balio zuen, noski. Telesforo Monzon, behintzat, ongi saiatu zen: “arbola beraren hostoak gara”, “ibai bereko urak gara”.

Emaitza horien gaintik eta azpitik, berriz, euskarazko irakaskuntzaren eta euskarazko unibertsitatearen ametsa

zebilen txistuka. Bazen, jakina, euskara maila eta alor horietarako gai zenik sinesten ez zuenik. Gogoratzen naiz nolako erasoak jo zidan euskaltzale jakintsu batek, kafeska bat hartzera gonbidaturik: “euskara eguneroko bizitzarako duk, ez unibertsitaterako”.

Uzkurrei eta sineskorrei jaramonik egin gabe aurrera jo zen jakintzarako hiztegiak eginaz, jakintza gaiko testuak eta liburuak argitaratuz. Eta Koldo Mitxelenak geroxeago salatu zuenez, orga idien aurrean jarrita ibili gara askotan, jakina. Euskarak presa zuen eta presaka ibili ginen. Ez zen beste erremediorik. Baina Unamuno berriak ugari sortzen direnez, Adolfo Suarezek ere Parisen esan baitzuen, “euskara ez da fisika irakasteko gai”, gai zela erakutsi nahi genion mundu guztiari, usu demonio.

Eta presaka ibiltze horretan egin dugu okerrik, noski. Gaztelaniaren eredura, gaztelania kalkatuz, egin dugu euskara askotan. Eguneroko bizitzari eta hizkuntzari lotuagoak dauden gaiak baino gehiago landu ditugu, agian, euskararentzat hainbeste garrantzi ez duten fisika, kimika eta abar. Eta zientziaz euskaraz mintzatzeko gai den gazte horietako askok ez daki, onenean, euskaraz maitatzen, euskaraz jolasten, euskaraz musean jokatzeko eta xelebrekeriak esaten.

Dena den, “euskañol” aldi horretatik, nahitaez, igaro behar du euskarak. Haur eta gazte askok ez dute etxean euskara ikasteko aukerarik. Herrian eta norbere inguruan ere ezer gutxi entzuten du horietako askok. Euskaldundu behar izan den irakasle askok ere nola-hala hitz egiten du euskaraz. Denbora

behar da euskalduntzeko eta denbora behar da euskara egoki mintzatzeko ere.

Horretarako, jakina, euskaraz ongi idatzitako goren mailako literatura, euskaraz ongi idatzitako komunikabideak eta euskaraz ongi egiten duten irrati-telebistak ezinbestekoak dira. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da itxurazko maila duen euskarazko Unibertsitatea.

Horretan, berriz, inork uste baino urrats haundiagoak egin dira. Ezkor horietako bati irakurtzen nion, orain dela denbora gutxi: “euskarazko unibertsitatea eraikitzeke moduan gaude”. Iaz bertan 18 doktore tesi burutu ziren euskaraz. 1990etik hona, berriz, laurogei. UEUri ekin zitzaionean inork ez zuen horrelakorik uste.

(1997-IV-23)

HIZKUNTZENTZAT EZ DA MUSEORIK

Gizon-emakumeak hiltzen dituzten herri honetan, hildako baten odola bero dagoen unean, hozkia ere ematen du beste edozertaz hitz egiteak. Baina ETA ezin daiteke arazo guztien estalki bihurtu. Ezta hizkuntzei buruzkoena ere. Jokabide arriskutsuak azaltzen ari direnean, gutxiago.

Hizkuntzak guztion ondasun direna edonork onartu ohi du gaur egun. Inor ez da ausartzen hizkuntza bati zuzenean erasotzera. Baina asko dira museoan gordeko luketenak. Jakina,

zaharkin, bitxi, artelan eta abar museoetan gordetzen badira ere, hizkuntzak ez daitezke museo eta erreserbetan gorde, askok nahiko lukeen bezala.

Liburuak, koadroak, irudiak, bitxiak, zenbat eta gutxiago ikutu, orduan eta gutxiago hondatzen dira. Hizkuntzei alde-rantziz gertatzen zaie. Zenbat eta gutxiago erabili orduan eta zaharrago, elbarriago eta ezinduago bihurtzen dira. Erabiltzen ez den hizkuntzarentzat ez da museorik, zerraldoa baizik.

Unamuno ederki ohartu zen horretaz. Euskara, berea gutxiago, ez zen jakintzarako gai. Eta hain erabilera mugatua zuenez gero, hileta on bat besterik ez zion opa. Sabino Aranak ere garbi ikusi zuen euskara baserritar eta artzaintzat bakarrik uzten bagenuen, hortxe, mendian, hilko zela ehun urte baino lehen.

Baina Aranarentzat, Unamunorentzat ez bezala, hori ez da euskararen ezina, euskaldunon errua baizik. Izan ere, Sabi-noren ustez, euskara ez da hilko lantokietarako, jakintzarako, administraziorako, irakaskuntzarako, komunikabideetarako eta abarretarako gai eta beharrezko egiten badugu.

Horretan dihardugu euskara ofizialkide bihurtu den le-kuetan. Baina, agi denez, ez daude guztiak horretarako prest. UPN, PP eta beroriekin gero eta adosago dauden sozialistek museoan, mendialdeko baserrietan bakarrik, gorde nahi dute euskara. “Ez gaude euskararen kontra” errepikatu arren, euskarari heriotza goxoa besterik ez diote opa bere horretan gorde nahi dutenek. Hizkuntzen museoa zerraldo bilakatzen baita, nahitaez.

(2000)

EUSKALTZALEEN BILTZARRA

Euskara galtzear ote zegoen eta galdu beharrekoa ere ba ote zen kezkarik eta eztabaidarik bazen orain ehun urte. Felipe Arrese-Beitia eta Unamuno ditugu, besteak beste, joera horien hiletaririk ozenenak.

Elizondoko Lore Jokoetara aurkeztu zuen “Ama euskaria-ri azken agurra” olerkian aldarrikatu zuen Arrese-Beitiak euskararen heriotza. Eta heriotza hori oharkabean gerta ez zedin, ekaitz, uholde, tximist-trumoiak, deitu zituen hiletara.

Unamunok Bilboko Lore Jokoetan iragarri zituen euskararen hiletak. Haren ustez, ankerkeria makurra zen hain zaharra eta ezindua zegoen hizkuntzari bizia luzaraztea. “Ez da bere heriotza eragotziko duen giza indarririk. Ehortz dezagun hileta duinez”.

Baina bada negarrez urtu nahi ez duenik eta hiltzen utzi nahi ez dionik, ez baitu uste berezko heriotzara beharturik dagoenik. Bada etsi nahi ez duenik. Bada berpiztu nahi duenik.

Hor ari dira Bonaparte Printzea, Abadia eta beste euskara suspertu nahian beren Lore Jokoen bidez. Ekion diote Nafarroan ere Arturo Kanpion eta bere lagunek, “Euskara” elkar-tearen eta aldizkariaren bidez. Donostian ere talde indartsua sortu da: “Euskal-Erria”.

Hendaian biltzea erabaki dute 1901eko irailaren 16an, hego eta ipar aldeko, Euskal Herri osoko euskaltzale eta idazleek. Euskaltzaleen Biltzar hartara agertzen den Sabino Arana euskaltzaleak berotzera, adoretzera eta euskararen alde lanean jartzera. Baina ez ditu hitz sutsuz bakarrik berotu nahi, eus-

karari buruzko burubide eta egitasmo argi eta zehatzez baizik. Eta gaur ehun urte Sabino Aranak eskainitako mezuak zutik dirau orain ere.

Bi burubide argi eskaini zituen Hendaian gaur ehun urte: euskara arlo guztietarako gai egin behar da; aldi berean, euskara beharrezko bihurtu behar da bizitzarako.

Arlo guztietarako gai izango bada ortografia, gramatika, hiztegia, eskola eta abar antolatu behar dira. Beharrezkoa egiteko, berriz, lan mundura, administraziora, bulegoetara eta abarretara sartu behar da.

(2001-IX-16)

EUSKAL PRENTSAREN ARTIZARRA

Kaputxinoen etxean eta eskutik berpiztu zen gerra ondoan “Zeruko Argia”. Gerra aurreko izen berberaz berpiztu bazen ere, ordea, sekulan berpiztu ez zen gerra aurreko “Argia” izan nahi zuen izatez. Izanari izena egokitu zitzaion gerora, horretarako erregistratu baitzen “Argia” izena 1974 aldera, gerra aurreko astekariaren baimenez.

1919an jaio zen aldizkaria, gerra ondoko isilaldi luzearen eta 1954ko agerraldi laburraren ondotik, 1963an berpizturik, 2000. alera iritsi da dotore, beste edozein astekari bezain interesgarri. Euskarazko prentsan lehiakideak dituen bakarra da,

gainera. Eta oso itxurazko lehiakideak baditu ere, “Argia” da txapeldun, nire ustez.

Kulturako aldizkari gisa berpiztu bazen ere, langile eta abertzale arazoak ez beste gaiak erabiltzeko baimen berezia zuen, zentsura zorrotzaren begiradapean jakina. Baimenik gabe ezin zitekeen ale bat bera ere kaleratu. Baimenarekin kaleratu arren, ondoko egunetan noiznahi bahitu zezaketen. Isunik eta auzirik jasan behar izan zuen, beraz, behin baino gehiagotan. Informazio orokorreko bihurtu zenean ere jasan zuen estuasun larririk.

Informazioko astekari bat baino zerbait gehiago zen “Argia”: irakurle eta idazle eskola, euskaltzaleen eta abertzaleen topaleku, euskalgintzaren bultzatzaile eta abar. Laurogei urteko Manuel Lekuona bezalako ospetsuak eta Joseba Sarrionaindia eta Patxi Baztarrika bezalako mutiko ausartek idatzi ohi zuten ale berean. Hantxe hasi ziren Joan Antonio Letamendia eta Edorta Kortadiren ondotik Antton Olariaga eta Jon Zabaleta artistak ere, musu truk, astekaria itxuraz hobetu nahian.

Geroztik izan zituen “Argia”k bere gorabeherak eta ahulaldiak, astekari eta egunkari elebidunen eraginez, batez ere. Santu berria janzteko zaharra larrugorri utzi behar baitzen. Baina larrialdietatik aurrera atera duten langile saiatuak izan dituelako iritsi da heldu den gailurrera euskal prentsaren artizarra. Zorionak.

(2005-VII-10)

ANDEREÑOAK

Zor zitzaien aitorra eta ordaina eskaini zaizkie ikastolen hasierako andereñoi. Gizarte segurantzarik gabe, soldata urriz eta baliabide urriagoz egin behar izan zuten lan, eragozpenak eragozpen eta arriskuak arrisku, euskarazko irakaskuntza debekaturik zen garai hartan. Merezia dute, beraz, aitorpena, esker ona eta, ahal den neurrian, diru ordaina.

Estatuaren zorra zen. Baina PPK nekez aitortzen ditu Francoren garaiko kalteak, are nekezago ordainak. Estatuak egin beharrekoa Eusko Jaurlaritzak egin du, beraz, bere autonomi erkidegoan. Eta hitzezko esker ona baino zer bait gehiago eman nahi denean ez da erraza izan ohi legearen arabeko konponbidea.

Hemen ere sortuko ziren gorabeherak, jakina. Eta ez dakit zein legeren maratilak behartu dituen muga 1968an jartzera. “Normalizazio juridikoa” hor gertatu zelako, irakurri dut. Hor hasi zitekeen, agian. Baina bide luzea eta malkartsua izan zuen ikastolen legeztatzea 1970ean, OHO legearekin, hasi zen, batez ere. Batzuek besteek baino lehenago lortu zuten legearen babesa, noski. “Normalizazio juridikoak” ez zuen berekin batera “normalizazio laborala” ekarri, ordea. 1978 inguru arte iraun zuen arazo horrek. 68-78 bitarte horretako irakasle askok izan dezake zahar-pagan okerra, beraz, baita aurreko urteen ordaina hartu dutenen artean ere.

Beharrezkoa zen urrats bat egin da, baina, aurrerago jotzen ez bada, orain pozgarria gertatu dena mingarria gerta daiteke gero beste batzuentzat. Eta frankismoaren garaian egindako lan

eskerga aitortzen ari garenez, Elbira Zipitriari zerbait egiteko garaia da. Haren jaiotzaren mendeurrena egokia litzateke, noski. Hiru urte falta dira. Hizkuntza Politikako Sailburuordeak badu “Bidegileak” bildumako ale bat eskaintzeko asmorik. Baina zerbait gehiago ere egin beharko litzateke.

Eta Zipitriari eskainiko litzaiokeen oroigarri eta omenaldiarekin batera, gizarte segurantzarik gabe jardun zuten irakasleen arazoari ere bukaera eman beharko litzaioke, nola edo hala.

(2003)

ELEBITASUN MOTA ASKO

Deabruak ez zuela euskararik ikasi, entzuna nuen. Zeru-lurretako hizkuntza guztien jabeak ez dakienik, ez nuen aditu. Ibarretzek Jainkoari ulertzen ez duen euskaran zin egin diolako haserre dira Maria San Gil filologo hiruhizkuntzaduna eta inperioko hiribururainoko guztiak. Beldur dira, nonbait, Jainkoak ulertu ez dion zina lehendakariak ez ote duen beteko. Joseba Egibarrek Eusko Legebiltzarreko jardunaldiak erabat euskaraz egin zituelako ez dira haserretu. “Zenbat eta ikus-entzule gutxiagok ulertu, euretzat okerrago eta guretzat mesede”, pentsatu dute, noski.

Jende horrentzat, euskaraz esaten den guztia erdaraz errepikatzea da elebitasuna. Ez alderantziz. Erdaraz esaten

dutena ez baitute euskaraz laburtu beharrik ere izaten. Horrela, elebitasun mota asko daude: aspergarriak, gutxiesgarriak, lasaigarriak, alfertzaileak, inozoak.

Euskaraz esandako guztia erdaraz errepikatzen denean, erdaraz ere badakien euskaldunarentzat aspergarri eta nekagarri gertatzen da. Erdaldunentzat, berriz, lasaigarri eta alfertzaile, euskara ikasi beharrik izan ez dezaten erdarara itzuliko baitiete. Bada elebitasun gutxiesgarririk ere: huskeriak, euskaraz; funtsezkoak, erdaraz; meza, hitzaldi, bilera eta komunikabide elebidun izenekoetan gertatu ohi denez. Eta bada erdaldunak tontotzat hartzen dituenik ere: “egun on/ buenos días”, “Jaun-andreok/ señoras y señores”, “Materola kalea/ calle Manterola” eta abar.

Gizartean ezezik, ospakizun eta ekitaldi ofizialetan nagusi den herri honetan ez al daitezke, tontoenak ere ulertzen dituen gauzatxo batzuk, bederen, euskaraz bakarrik egin? Ezta agurrak, diosalak, seinaleak, kale izenak, zinak eta abar ere?

Bi hizkuntzak ofizialak diren herrian nahi duenak euskaraz eta nahi duenak erdaraz hitz egiteko eskubidea ezezik aukera ere beharko luke. Euskaraz ez dakienak behartzen gaitu erdaraz hitz egitera. Hala ere, beti erdaraz bakarrik ari direnek jarduten dute inoiz euskaraz mintzo direnei bazterketa eta zapalketa egozten. Elebitasun lotsagabea.

(2005-VII-03)

ETORKINENTZAT EUSKALTEGIAK

Euskaltegietako ikasleak urritzen ari omen. Ez da harritzekoa. Sekulan “agur” bat edo “egunon” bat entzun ez dioguna ere hasi zaigu soltatzen eta. Ibarretzek behartu du “ETA kanpora” esatera. Baina bere kabuz asmatu du “Batasuna aurrera”. Honelako aurrerakuntzekin ez da harritzekoa euskaltegien gainbehera.

Arrazoi sendoagorik eta pozgarriagorik ere bada, noski. Hezkuntza euskaldundu ahala, urritu egin da euskara ikasi beharreko zenbait heldu. Euskaldundu beharreko irakasle eta funtzionario askok ere ikasia du euskara, bestalde.

Nik baino gogoeta sakonagorik egingo zuten, honezkero, euskaltegietako arduradunek, beren onagatik bederen. Beste irtenbide batzuen artean, etorkinei euskara eta gaztelania irakastekoa ere bururatuko zitzaien, seguraski.

Izan ere, gure herriaren etorkizunean zerikusi handia izango dute etorkinek. Beste eskumen asko baino garrantzitsuagoa luke, noski, eskumen hau Eusko Jaurlaritzak. Zer-nolako premietarako eta lanbideetarako behar ditugun erabakitzea geure esku beharko genuke. Eta behar ditugunez gero, hemengotzen, bertakotzen eta euskalduntzen lagundu beharko genieke. Eta ahalegin hori egin dutenak saritu egin beharko genituzke, horretaratu diren guztiei lana eta eusko hiritargoa eskainiz.

Etorkinekiko jokabideak zerikusi erabakigarria izango du gure herritasunean eta gure herriaren etorkizunean. Etorkinei buruzko eskumenekin batera etorkinak bertakotzeko baliabide guztiak bideratzea ere ezinbestekoa da, beraz. Euskal gizartean

txertatzeko, berriz, gaztelania eta euskara ikasteko aukera eman behar zaie, besteak beste. Euskaltegiek eskaini dezakete aukera hori, beharbada, beste ezer sortu beharrik gabe.

Ikastaroak dohan eskaini beharko litzaizkieke, jakina. Sei hilabeteko edo ikasturte osoko ikastaro trinkoa egin nahi duenari, berriz, soldata ere luzatu beharko litzaioke, irakasleekin eta egin ohi den bezala.

EUSKARAREN AURRERAKADA

EUSKARAZ hitzaldi mordoxka entzuteko aukera izan dut ekainaren hondarrean eta uztailaren hasieran: Joan Mari Lekuonari eta Patxi Altunari buruz Ana Toledori eta Miren Azkarateri, Donostian; Lardizabali buruz Mikel Zalbide, Beñat Oihartzabal, Andres Urrutia eta Joxe Joan Txabarriri, Zaldibian; Rikardo Arregi sarien irabazleei, Andoainen. Horiei entzundakoan gogoratu nintzen komunikabideetan eta abarretan edozertaz euskaraz egoki eta errax idazten edo hitz egiten duten guztiekin. Berebiziko aurrerakada egin du euskarak hedabideetan, literaturan, irakaskuntzan eta abarretan.

Rikardo Arregi sarien ekitaldia suertatu zitzaidan deigarriena. Ekitaldi horretara joan ohi zen adineko lagun mordoxkaren hutsunea nabaritu nuen. Bizitzaren legeak ez du barkatzen. Aldi berean, ordea, euskaraz gogotsu diharduten gazteak ikusi nituen. Oro har, lehengo maila erraz gainditzen

dutenak; kopuruz, berriz, lehen konta ahalak ziren alorrean ehunka ditugu orain. 30 urteotan egin den aurrerakada ederki islatzen du ikasle batzuek burutu duten “Gu gara euskal prentsa” DVDak. Jauzi harrigarria egin dute kazetaritzak eta euskal komunikabideek.

Jauzi bera egin ote dute irakurleek, entzuleek eta hiztunek? Hor koxka. Egia da, zenbait lekutan lehen baino euskara gehiago entzuten da, euskaraz jakitea eta hitz egitea ez da lehen bezain gutxiesgarri. Baina euskaraz eskolatutako gehiegik jotzen du erdarara lagunartean. Ez dute dakiten guztiak erabiltzen. Eta belaunaldi honen jokabideak zerikusi handia izango du etorkizunean. Berari dagokio euskara gizarteratzea. Euskaltzaleen aurreko belaunaldiak euskara eskolara, komunikabideetara eta abarretara eramaten saiatu dira; gizarteratzea dagokie oraingoei.

Imanol Uria sarituak gogoan izan zituen lan xumea egiten duten kazetariak. Horiek gabe ez litzateke egunkaririk kalera-tuko. Orobat, herritarrek erabiltzen ez badute euskarak ez du aurrera egingo.

(2006-VII-9)

LANA EUSKARAZ

BELARRIAK erne jarri zizkion “Lanhitz” egitasmoak “Kontseilua”ri, agidanez. Orain, «Elebide» hasi da “Behatokia” aztoratzen. “Zoritxarreko bikoizketaren” beldurrez? Ala besteren sailean sartzen delako? Euskal esparru ttiki honetan lehiakiderik gabeko monopolioak nahi direlako?

Mundua norberarekin hasten dela uste izaten da. Hala uste izan zuen Aitzolen belaunaldi euskaltzaleak. Gerraondoko belaunaldiak ere gurekin hasi zirela euskal literatura, ikastolak eta kazetaritza, uste izan genuen. Kontseiluak ere lan mundua euskalduntzea berak asmatua dela uste du. Ehun urte lehenago ohartarazi gintuen horretaz Sabino Aranak, Hendaian 1901ean egin zuen hitzaldian. Euskal eskolen, literaturaren, kazetaritzaren eta abarren alde zen, jakina. Baina horrek guztiak ezer gutxi balio zuen Aranarentzat, industria, ekonomia eta abar euskalduntzen ez baziren. Zertarako euskaraz ikasi gero ezertarako ez badu balio, galdetzen zuen. Eusko Jaurlaritza «25 urteko atzerapenez» ohartu omen da horretaz. Urteak dira Hizkuntza Politika eta Euskararen Aholku Batzordea lan mundua euskaldundu beharraz ohartu zirela. Aprobak ere egin ziren enpresa batzuetan.

Beharrezkoak dira legeak, egitasmoak, laguntzak, “ziurtagiriak”. Baina horiek ez dituzte gure zabarkeriak, ganoragabekeriak, erosokeriak eta ezinak konpontzen. Gurasoek bere hizkuntza irakatsi ohi diete beren seme-alabei. Ez denek, zoritxarrez. Eta izan dira kalea, eskola eta giroa erdaldunak

izan arren, etxean euskara irakatsi dieten gurasoak. Debekuak debeku, euskara lantzen ahaleginduak ere badira.

Ikastolan ikasitako lankide mordoxka izan dut inguruan. Nirekin euskaraz eta beraien artean erdaraz mintzatu ohi ziren. Haserretuta etorri zitzaidan lagun bat Oiartzungo “Kilometroak” egunean: “gazte talde batekin joan nauk trenean, nirekin euskaraz eta beraien artean erdaraz hitz egiten ziaten”. Borondate hutsa ez da aski, jakina, baina ezinbestekoa da.

(2006-X-8)

II EUSKALTZALEAK

LAZKAO-TXIKI

Joxemiel Iztueta “Lazkao-Txiki” rekin geratuko da betiko. Goierriko “txoria” eta “sorgina” ere deitu izan zaio behin baino gehiagotan. Baina jatorriak eta gorputzaren neurriak emandako izen-deituraz gogoratuko du jendeak beti.

“Jaio Lazkaon, hazi inon ez” erantzuten zuen Joxemiel Iztueta nor eta zer den Jon Sarasuak esan du hitz bitan: “genio bat”. Ezer bada, horixe baita. Usterik gutxienean, harri eta zur utzi ohi duen artistaren kolpeak eta argialdiak ditu.

Hala ere, hain sentibera eta minbera den Joxemiel Iztueta bere mina eta tristura gorde eta jendeari barre eragitea suertatu zaion pailazoaren antzera gogoratuko da. Bilintxen baino Fernando Amezketarraren antz handiagoa izango du jendearen oroimenean, seguruenik. Inork gutxik gogoratuko ditu Lazkao-Txikiren bertso erromantiko, liriko eta hunkigariak. Haren txisteak, pasadizoak, ateraldiak eta xelebrekeriak

jasoko dituzten gogoan gehienek. Arantza horrekin bizi zen eta arantza horrekin itzali da.

Nahi ez zuena izatera behartu du bizitzak Lazkao-Txiki. Eta heriotzak ere ez du haren gogorik beteko. Fedea ezkututzen ez zuen fededunak, bertsotan ere, otoitz egiten zion Jainkoari: “bihotz barnetik eskatzen dizut osasuna ta bizia, hala komeni ez baldin bada ondo hiltzeko grazia”. Eta ordu larri hori iristen zitzaionean ezaguera osoz aurkitzea eskatzen zuen. Ohean lotan zegoela esnatu zuten hil-kanpaiak zituen hiru bertsotarako gai. Hala hasi eta hala bukatu zuen hirugarren bertsoa 39 urteko Lazkao-Txiki gazteak: “Kanpantorreko kanpai zakarra, batere ez zaitut maite,(...) arren, kanpanik ez zazula jo ni lotan nagon bitarte”.

Lokartu eta gehiago ez esnatzeko beldurra zuen gure bertsolariak. Eta kezka hori agertzen dio kirolanoko medikuari: “zuk lokartuko nauzu, baina nork jarriko dit despertadorea?”.

Lazkao-Txikik, 1965ean, Euskal Herriko txapeldunorde suertatu zenean erakutsi zuen nor zen: bertsolari handia edozeinentzat; txapeldun-gai, goierriarrentzat. Eta halexe etorri ziren, samaldan eta bero, txapelaren bila Anoetara, 1967an. Eta Basarri, Uztapide eta Xalbadorren mailako bertsolari berri bat jaio zen egun eta plaza hartan bertan hustu zuen bere barrua ere, lau oinak emanda lehen bertsoa kantatzerakoan:

*Enaiz mutil haundiya ta
ezta're lizuna,
txiki xamarrra bainan
ez oso illuna,*

*gixen xamarra eta
gainera leguna,
orain falta zaitana
neguan laguna.*

Umore puntuarekin batera, bere txiki izatea eta bakardadea etengabeko heldulekuak ditu. Eta bertsolari lagun erasoei eta gaijartzaileen zirikadei erantzuten ere izan ohi zuen lanik. “Lazkao-Txiki fina dalako Lazkanok hartzen du pena, frasko txikitan gorde oi ditek koloniarik onena”, erantzun behar izan zion Lazkanori, orain dela hiru urte. Eta “konforme bizi al zera?” zirikatu zuen gaijartzaileari, berriz, bertso hau eskaini zion, 1988an:

*Bakardadean berri ez daki
norbaitek probatu ezik,
horregatikan bakardadean
nola biziko naiz pozik?
Koartoa ez det lagunik eta
sukaldea ere hutsik,
badakizute inun ez dala
arantz gabeko larrosik.*

Baserriari, arbolari, txoriari, haurrari, euskarari, lagunari, kantatutako bertso hunkigarriak ahazturik geratuko dira, norbaitek libururen batean argitaratzen ez baditu behintzat. Eta bere bakardadearen tristura isiltzearen, kantatu zituenak izango ditugu gogoan. Hala ere, “penetan nago hazirik utzi ez detalako munduan” abestu zuen Joxemielek izango du,

geroxeago ere, jarraitzailerik, maitalerik eta mireslerik bertsozaleen artean.

(1993-IV)

EUSEBIO ERKIAGA

Eusebio Erkiaga hil da, bizi izan den bezalaxe zaratarik eta espanturik gabe hil ere. Gerra aurretik eta gerra garaian, oso gazterik hasita, bere bizitza osoa eman dio euskarari. Zoritarrez ez nuen gehiegi ezagutzeko aukerarik izan. Inoiz elkar doi-doi agurtzeko adina abagune izan dugu. Izan ere, gure belaunaldiak ez du bere aurrekoa ezagutzeko paradarik izan, gerrak zukutua eta isil arazia eta ondorengoen berri-haixek ukatua izan baita.

Hala ere, Eusebio Erkiagak bere argiz egin du distiz idazleen ortzean, etengabe aritu baita olerki, antzerki eta eleberrigintzan. Txukun aritu ere. Han eta hemen irabazitako sariak dira lekukorik eta goraipekin hoberenak. Merezimendu osoz lortu zuen, jakina, *euskaltzain oso* izendatua izatea ere.

Koldo Mitxelenak aitortzen hau egin zion 1958ko *Arranegi* ohitura-nobela argitaratu zuenean: “Hizkuntzaren aldetik, goi-mailakoa dugu beti Erkiaga, eta gero eta goragokoa: hiztun atsegina, leuna, ugari-ugaria. Eta haurretandik menderatzen duen hizkuntzaz jabetu ahala, jabetzen ere dijoa eleberraren tajuaz eta teknikaz”.

Eusebio Erkiaga, ordea, ez da literaturgile txukun eta ugaria bakarrik izan. Kazetari ere izan da, egunkari, astekari eta aldizkari askotan argitaratu baitzituen bere lanak. Bera izan zen, gainera, *Eguna* egunkariaren zutabeetako bat.

Elizgizonen esku izan da euskara, nagusiki. Hortik kanpora euskaldun eskolatu gutxi baitzen. Eskolatu apurrek, berriz, euskarari muzin egiteko ohitura zuten. Gaurregun unibertsi-tatean ikasitako jendea ari da, zorionez, euskara ikertzen eta euskaraz idazten. Bertsolaritzan bertan ere mordoska ari da. Baina lehengo berririk ez dugulako, erabat oraingo kontua dela iruditzen zaigu. Eta ez da egia.

Peritu merkantila zen Eusebio Erkiaga. Eta ez da bere garaiko kalegizon bakarra. Jon Oñatibia legegizona zen; Jose Basterretxea *Oskillaso*, matematika eta fisikako lizentziatua eta irakaslea; Ambrosio Zatarain, injinerua; Jose Estornes, merkatal irakaslea eta administraritzan lizentziatua. Eta horien artean, beren buruen maisu izan diren Ziriako Andonegi, Balendin Aurre-Apraiz, Sabin Muniategi, Basarri, Uzturre, Zubikarai eta abar ikus ditzakegu olerkigintzan, bertsolaritzan, kazetaritzan eta abarretan.

Nik, besteak beste, kazetaritzako merezimenduak azpimarratu nahi nizkioke Erkiagari, bonba eta tiro artean, esperientzi eta baliabide haundirik gabe egunkari bat egiteko adorea eta gogoia izan baitzuten. Aitormen haundirik gabe joan zitzaigun zuzendari izan zen Manuel Ziarsolo *Abeletxe*. Honelaxe ari zaigu *Eguna* euskarazko lehen egunkari hartako taldea itzaltzen: Lehen, Arizmendiarrjeta; orain, Erkiaga. Zorionez, bizi dira oraindik Uzturre, Mendizabal, Basarri, Zubikarai eta abar.

Horiek dira gure dekanook, noski, nahiz eta askotan errazegi ahaztu.

“Kazetari narrugorri” dekanook, alegia, euskal kazetaritza borondate haundiz eta baliabide urriz sortu eta berpiztu baita. Honela kontatzen digu bere esperientzia Eusebio Erkiagak: “Kazetari narrugorri gengoan. Zaletu soilak besterik ez ginan. Izan be, *Eguna* ez zan egunkari normala izan. Kazetarikumak, gudari auxiliarrak, osasunez erdi makal edo ikusmenean akatsak zituenak, 21-24 urteko gazteak inprobisazino moldakatxera behartuak. Goizetik gauera periodista bihurtuak. Giroa latza, mingarriena. Eguneko eta gaueko ordu luzeetan lan eta lan. Plantilla motxa: kaleko lanetarako ia inor ez: guda-oinetara joateko, are ezago. Erbesteetan ez geunkan korrespontsalik. Intuizinoz egindako lana”.

Ordaitzaile hoberik aurki dezatela gure dekanoo izan diren kazetariok.

(1993-VI-02)

UZZURRE

Uzzurre aipatu gabe ezin ninteke gera. Nik baino hobeto eza-gutzen zuen jendeak eta ni baino ospetsuagoek egin dituzte Jesus Insausti tolosarrari buruzko aipamenak eta gorai puak. Izan ere Jesus Insausti norbait izan da EAJren eta ELAren bizitzan. Espainiako hamarren bat espetxetan ordaindu behar izan

zituen politikagintzako eta sindikalgintzako lanak. 1951tik 80ra bitarteko txangoa, berriz, atzerrian nozitu behar izan zuen.

Hego Euskadira itzulirik, zor zitzaizkion atsedena eta bakea dastatzeko ordez, alderdiaren haserre petrala eta zatiketa mingarria jasan behar izan zituen, hain zuzen ere bera EBBko buru zen aldian.

Gaztetan EAJn alderdikidetzeko *Aberri* eta *Comuni3n* elkartu zain egon zen tolosarrak ez zuen alderdiaren batasunari eusteko modurik izak zahartzaroan. Eta zatiketa hori kartze-laldi eta azterriko urte guztiak baino gogorragoa eta saminagoa gertatu zitzaion, ezpairik gabe.

Baina Jesus Insaustiri buruz idazteko egokiagoak badienez, izen-abizenak baino ezagunagoa gertatzen den *Uzturre* izengotiaz aritu nahi nuke. Izan ere, Jesus Insausti politikoa eta sindikalista baino ezagunagoa gertatu zaigu askori *Uzturre* kazetaria, idazlea.

Tolosarra izaki, Lopez Mendizabal, Antonio Maria Labaien, Lizardi, Orixe, Aitzol eta abarren lagunarteak euskaltzaleturik eta kulturtzaleturik heldu zen politikara eta sindikalgintzara, noski. Tolosarrek ohitura haundia izan dute elkarrengana bildu eta elkarrekin, kontu-kontari, kulturari, politikari eta abarri buruz etengabeko hitzaspertuak egiteko. Etxeko sagardotegiak ere aukera ona eskaintzen zion horretarako, jakina. Herritarrek ezezik, Txirrita eta astelehenetako feriaren aitzakian biltzen ziren beste zenbait bertsolari ere hantxe ezagutu zituen.

Baina jakintsuen arteko ahozko kultur jardunaldiek euskara eta abertzaletasuna lantzeko grina erne zioten gure gazteari.

Lanera joan aurretik, euskara lantzeraz joaten zen Iruarrizaga frailearengana, goizeko 7etatik 8etara. Eta ikasi ahala, laneko orduetatik kanpora, kazetaritzari lotu zitzaion. Hain zuzen ere, *El Día*-ra bidaltzen zituen Tolosako berriak. Lehendik ere, 17 urterekin, Primo de Rivera-ren diktadurapean kalean paperak zabaltzeagatik herritik kanporatuko zuten mehatxurik jasana, Ondarretako kartzelan sartu zuten 1935ean, alkate karlistaren kontra idatzi zuelako. Orduko ohiturari jarraituz, bere herriko Uzturre mendiak eskaini zion bere idatzietako izengoitia eta horretxek egin du ezaguna euskaltzaleon artean.

Kazetaritza grina hau ez zuen galdu, jakina, ez Parisen, Jose Antonio Agirre lehendakariari laguntzen aritu zenean, ez Bruselan CISC eta CMT sindikatuetan lan egin zuenean. Euskadirako eta Ameriketarako irratsaioak moldatu zituen *Radio Paris*-tik. Munduko sindikalgintzari eskainitako 20 urteetan, berriz, txosten asko burutu behar izan zuen Ameriketako, Asiako eta Afrikako langileen eskubide eta askatasun ezaz.

Izaeraz, azpildurik gabea eta gardena, idazle ofizioak zehatza eta argia izatera behartu zuen. Gizon zabala, jende desberdinekin harremanetan ohitua, ez zen esan behar zuena esateko zurikerian eta itzul-inguruka ibiltzen, egia borobila umorez eta ateraldi egokiz gozatzen baitzuen.

EAJri eta ELAri leial, munduko herri txiki eta zapalduekin kezkatu, Sabino Arana Elkargoko lehendakariatzatik eskaini dizkio euskarari, euskal kultura eta politikari bere azken urteak *Uzturre* abertzale eta euskaltzale sutsuak. Izar berri batek argituko du gaurtik aurrera abertzale ortzea.

(1993-VII-8)

“UMANDI” NIRE MAISUA

Umandi, Andoni Urrestarazu Landazabal, hil da Gasteizen. Araian, bere jaioterrian, ehortzi zuten atzo. Gaur egingo zaizkio hileta-elizkizunak, Gasteizen, arratsaldeko 8etan.

Laurogeita hamaika urteko bizitza luzea euskarari, Euskadiri eta abertzaletasunari eskaini zizkionaren heriotzaren berri eskelaren bidez jakin dugu. Horixe izan baita biharamoneko kronika bakarra. Herri eta hizkuntza ttiketako langileak ezezagunak izan ohi dira. Zaharturik hiltzen bada, berriz, ezta bere umeek ere ez dute ezagutzen. Nik, ordea, ez dut saltzeko, Umandiri esker ikasi bainuen euskarazko gramatika apur bat.

Nire irakaslerik onenak neure etxea eta neure herria izan dira, jakina. Baina euskara idatzira heltzeko bidea bi Andonik erraztu zidaten: Andoni Basterretxea ondarrutarrak eta Andoni Urrestarazu araiarrak. Lehenengoak, kantu, bertso eta abar euskaltzaletu ninduen Saturraranen, 1945 aldera, galtza luzeak jantzi berriak nituenean. Baina nire eskuetara heldu zen euskarazko gramatika bakarra Umandik 1955ean argitaratu zuen *Gramática Vasca* izan zen.

Gaur egun irakasle eta gramatikari asko da, gehiegi beharbada, euskaraz idazten eta gozatzen irakasteko ordez, arau-zamaz nekatzen eta aspertzen baitituzte ikasleak. Gramatika gora eta gramatika behera ari dira OHOTik hasi eta COURaino. Guk ez dugu gramatika, liburu eta irakasle asko izan, euskara debekatua zen garaian haziak baikara. Baina hitzerdi bat eta oharño batzuk aski izan genituen euskaltzaletzeko eta euskara

zerbait lantzeko. Nik neuk, jakina, lehen aipatu ditudan bi horiei zor dizkiet euskara idatzian egindako lehen urratsak. Eta zor hori bizitza osoan eskertuko diet.

“Umandi” izengoitiaz ezaguna egin zen Andoni Urrestarazu Landazabal euskaldunberri horietakoa genuen, euskara galdua zuen Arabako Araian jaio baitzen 1902an. Oso gazterik ohartu zen, ordea, bere euskal sustraiez. Eta gazterik ekin zion Araba berreuskalduntzeari ere, Manuel eta Martin Lekuona anaiak, Txomin Jakakortaxarena eta abarrek bezalaxe. Larleriaren erasoari ihesi, atzerrian bizi izan zen aldi luzean ere euskarari atxikirik aritu zen. Ameriketara eta Parisen argitaratzen ziren aldizkari guztietan idatzi zuen. Eta bera izan zen atzerriaritutako Eusko Jaurlaritzaren babesean 1962an sortu zen *Euskal Kulturaren Alde* elkarteko idazkari ere.

Nikolas Ormaetxea Orixe idazleari *Jainkoaren billa* liburuagatik eman zioten sariaren banaketan ezagutu nuen Umandi, Baionan, 72 inguru horretan. Sari-banaketara gonbidaturik zen Joxemari Aranaldere txofer joan nintzen. Orduantxe ezagutu nituen Eli Etxeberria, Muñoak Donostiak eraiki zuen lehen ikastolaren zuzendari izana, eta Ildefonso Gurrutxaga historialaria. Orduantxe Jesus Mari Leizaola ere. Orixeri eskaintako saria zela eta elkartu ginen Baionan. Gure lehendakari zaharra trenez heldu zen Paristik, bakar-bakarrik, ez bizkartzain, ez idazkari, ez ezer, “ecce homo” bat eginik. Euskadi irakiten zegoen aldi hartan, euskal literaturaz, Orixe-ren prosaz eta olerkiaz mintzatu zitzaigun.

“Ekintza” miresten eta kultura gutxiesten eta erdeinatzen zen garaia genuen. Zahar haiek, egoera hartan, kulturaz eta

euskal literaturaz kezkatzea motza iruditu zitzaigun. Orixeren obra aztertzeko gai zena Lehendakari izateari ez genion eskerrik eman. Politikaz ez zirela arduratzen egozten genien orduan. Gure hizkuntzaz eta kulturaz ez zirela arduratu leporatzen diegu, orain, aurrekoez ezer gutxi dakigunok eta ez politikaz eta ez hizkuntzaz arduratzen diren teknikoek mende gaudenok.

(1993-XI-23)

PEDRO ZELAI

Pedro Zelaiak 30 urte eta nik 20 izango genituen, 51-52 ikasurtean elkarrekin topo egin genuenean. Filosofiako lehen urtea hasi nuenean etorri zen Gasteizko seminariora. Urte betez izan zen gure begirale, nik uste.

Denboraldi labur samarra da harreman sakonak izateko, barnetegiko bizitzan ere. Baina bizitza guztian “Don Pedro” deitzeko adina. Denboraldi labur horretan ere beste zenbaitekin baino harreman ugariagoak izan nituen, noski, xumea, bihoztia, oso kideko eta hurbileko gertatzen baitzitzaidan. Oroitzapen on asko berri ditut bere hiletetan, bederen.

Garai gogorak ziren. Alderdiak, sindikatuak eta norbere iritziak agertzea ezezik, hizkuntza bera ere debekatua zen. Euskara debekatua bazen, euskaltzale agertzea are eta gehiago. Bazan tartean ixpia eta salataririk ere. Irakasleek ere guk bezain kontu haundiz ibili behar izaten zuten orduan. Hala ere,

berehalaxe ohartzen ginen nork zuen euskara gorrotatzen eta nork ez. Alde zenari ere igertzen zitzaion, nola edo hala. Don Pedrokekin, bakarka, beti euskaraz egiten nuen. Irakurtzeko zerbait ere eman zidan inoiz, “badaezpada ere koltxoipean gorde, mesedez”, agindu eta guzti. Izan ere, orduan euskarazko edozer zen arriskutsua.

Pedro Zelaia 1922ko ekainaren 22an jaio zen Eibarren, Joan San Martin baino egun bat lehenago. Bata elizgizon sutua izan da. Besteak ataritik begiratu izan du Elizaren barrura, errespetoz. Biak ere, bakoitza bere erara, ararteko izan dira: gizon-emakumeen eta Jainkoaren artekoa bata; Administrazioaren eta herritarren artekoa bestea. Biak, euskaltzale. Eta Joanitori Euskaltzaindian entzundako kontuen arabera, Gabriel Manterola zeanuritarrak eta Polikarpo Larraña plaentxiarrak badute zerikusirik bien euskaltzaletasunean, noski. Bi abade euskaltzale hauekin egin zuten topo biek mutikotan, gerra aurrean. Euskaltzale izateaz gainera, gizarte arazoetan erabat murgildu zen Poli Larrañaga, bestalde, ELAren bidez.

Don Pedro bizitza osoan izan da euskaltzale eta besteren arazoeekin kezkatu. San Andres elizara azken agurra egitera hurbildu zitzaion jendetza da lekuko. *Kitto* euskaltzaleen elkarteak egin zion omenaldia ere haren euskaltzaletasunaren aitortpen garbia da.

Dena den, Pedro Zelaia 12 urterekin hasi zen *Argia* astekarian Eibarko berriak idazten. Geroztik, bizitza osoan izan ditu oso aintzakotzat komunikabideak. Berak sortua da *Eibar* aldizkaria. Sarri idazten zuen *Goi-Argi* emakumeen aldizkarian eta *Zeruko Argia* astekarian ere. Bere izen-deituraz gainera,

Kepa, P. Arrate eta Arrajola izengoitiak erabiltzen zituen. Misioen ardura izan duen azken aldi honetan ere, egunkari, irrati eta telebistaz baliatzen ahalegindu da. Hain zuzen ere, kazetaritza aldi honetan izan dut harremanik gehien, “oportune ete importune” hurbiltzen baitzitzaidan, laguntza eske.

Eibartar peto-petoa zen Don Pedro. Bere sorterriko historia, gorabeherak, bizitza, lana, ipuinak, txisteak eta abar atsegin zitzaizkion. Liburu bat baino gehiago ere badu argitaraturik gai horietaz. Pedro Zelaiaren eredu, ordea, aita Romualdo Galdos jesulaguna izan zen, agian, berorren bizitza izan baita idatzi duen liburuetako bat. Erromako irakasle eta 12 hizkuntzen jabe, euskara zuen bihotzean eibartar horrek.

Don Pedro ere horixe izan da, bere herrian erabat sustraitutako eibartarra, azken 44 urteak ere hortxe egin baititu, mundura bihotza zabalik. Misioen ardurak sarri hegarazi zuen mundura: Hego Ameriketara, Japoniara, Txinara eta abarretara. Norbere txokoa maitatzen dakienak bakarrik maita baitezake mundua.

(1994-IV-8)

ANTONIO MARIA LABAIEN

Labaien hil da. Hobeto esan, itzali egin da. Bizitza luzearen luzez, kandela bezala, urtu da, azken uneraino argi eginaz urtu ere, Joxemiel Barandiaran, Manuel Lekuona eta abarren antzera.

Euskaltzaindiak bere diamantezko ezteiak bere 24 kideak osorik zituela ospatu zain egon dela dirudi Antonio Maria Labaienek. Hutsuneren bat noiznahi izan ohi da adineko jendez osatutako elkarteetan. Euskaltzaindiak ere askotan izan ohi ditu hutsuneak. Oraingoan, ordea, urtemuga seinalatuegia zuen. Eta Antonio Maria Labaienek ez zion hutsegin nahi, nonbait. Diamantezko ezteiak ospatutakoan utzi dio lekua gazteagoren bati.

Bere azken urteotan euskararen batasunaren inguruan sortutako auzi-mauziek zuten kezkatuak. Haserreak goxatu eta bakea egin nahian idatzi zuen euskararen garapenari eta batasunari buruzko liburua, orain hamarren bat urte. Izan zuen, noski, eraginik ere, mindurik zeuden bere lagunak bihotzetan.

Oso gazterik agertu zen Antonio Maria euskararen etorkizunaz kezkatua. Hogeitaz urterako hasi zen euskaraz idazten orduko egunkari eta aldizkarietan. Hogeita bi urterako hasi zen sariak irabazten. Baina ez zen euskara lantzerak bakarrik mugatu. Besteetara zabaltzea ere nahi zuen. Eta euskara zabaltzeko eta hedatzeko antzerkia jo zuen tresnarik egokiena, orduan ez baitzen telebistarik, euskarazko zinea eta irratia egiteko aukera haundirik ere ez, noski.

Orduan zegoen hedabiderik bakarrenetakoari lotu zitzaion, beraz, Labaien: antzerkiari. Hogeitaka antzerki idatzi eta argitaratu zituen. Eta *Antzerti* aldizkaria ere berak sortu zuen 1932an. Antonio Maria Labaienen antzerkiren bat eman ez den herri asko ez da izango. Ezagunak egin ziren, jakina, *Ostegun gizen*, *Mateo Txistu*, *Jostuna*, *Jokua ez da errenta*, *Malentxo alargun* eta abar.

Labaienen belaunaldia oparoa izan da Tolosan: Aitzol, Lizardi, Orixe, Juxto Mokoroa, Ixaka Lopez Mendizabal, Doroteo Ziaurriz, Pepe Eizagirre, Juan Antonio Irazusta, Jesus Insausti *Uzturre* eta abar. Euskaltzale purrukatuak denak. Baina politikagintzari, herrigintzari eta gizartegintzari ukorik egiten ez zien euskaltzaleak. Alderdi bateko buruzagi izateari ere muzinik egin ez zion jendea: Lizardi, Uzturre, Irazusta, Ziaurriz, Eizagirre eta abar.

Antonio Maria Labaien Toledok, berriz, Tolosako alkatezari heldu behar izan zion, 33-36 bitarteko urte zailetan, bere enpresa aurrera ateratzeak ere galtzak bete lan ematen zion garaian. Ordaindu ere larrutik ordaindu zuen beste bere lagunek bezalaxe, Lapurdiko Saran izkutatu behar izan baitzuen 8-10 bat urtetan.

Profesio bihurtu da gaur egun politika. Bidezkoa da atsegina zaionak bakarrik heltzea lanbide horri. Baina oraingo euskaltzalea, oro har, ordukoa baino uzkurxeago azaltzen da politikarekiko. Fidakaitz ere bada politikoeekin. Politika zerbait zikintzat jotzeko joera ere badu zenbaitek. Ongi da alderdi politiko bati lotu gabe lan egin nahi izatea euskalgintzan eta herrigintzan. Baina gaurko esukaltzale askok aingeru azaldu

nahi du, onaren eta gaizkiaren gainetik. Zenbait, zoritxarrez, berriketari eta marmarlari huts bilakatu da, gainera.

Beharrezkoa da, jakina, gizarteak bere ekinbideak izatea eta bere kabuzko lanak burutzea. Dena ez dugu politika bihurtu behar, alderdiko politika gutxiago. Gizarteak bere bideak bilatu behar ditu etengabe, dena politikoen eta administrazioaren esku utzi gabe. Baina politikagintzan eta alderdi politikoetan eragina nahi duena ezin daiteke kanpotik begira bakarrik egon.

(1994-X-14)

JON BILBAO

Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*-ren aita, hil da. Lan gehiago ere baditu, jakina. Baina aipatu dugun horixe bakarrik aski litzateke gizon bati bizitza guztiko zorra izateko. Euskaldunoi eta euskarari buruz zer argitaratu den jakin nahi duenak hortxe aurkituko du guztia: liburu, liburuska eta artikulu. *Eusko Bibliographia* izan da euskal kulturaren historiaz egin den egitasmorik haundiena, noski.

Renon ezagutu nuen Jon Bilbao. Gizon apaina, dotorea, argia, atsegina, adeitsua eta jendekina iruditu zitzaidan. Eta geroztik, ikusi dudan guztian, iritzi hori sendotu egin zait. Izaera zuen halakoxea, noski. Une zakarrak eta gogorak bizi beharra izan bazuen ere, erre puntturik gabea sumatu nuen.

Jende eta herrialde desberdinen artean bizi izanak sendarazi zizkion, agian, une garratzetako zauri guztiak.

Puerto Ricoko Cayey herrian 1914an jaioa, Bilbon egin zuen batxilergoa. Eta Madrilen Filosofia eta Letrak ikasten ari zela harrapatu zuen 36ko gerrateak. Eusko Gudarosteko ofiziala, Bilbo etsaien mende jausi zenean, Puerto Ricora itzuli zen. Handik Columbiara joan zen lizentziatura egitera. Berehalaxe ekin zion Idahon euskaldunei buruzko ikerketari. Ipar Ameriketako zenbait Unibertsitatetan ere irakatsi zuen. Ipar Euskadiko Saran 47tik 50era egin zuen txangoa *Eusko Jakintza* aldizkariaren idazkari izan zen. Kuban egin zuen aldian, berriz, hango euskaldunei buruzko lana argitaratu zuen. Baina Jon Bilbao Azkarretaren lanik haundiena Renon, Nevadako Unibertsitatean, 1968an hasi zuen *Eusko Bibliographia* izan da.

Bizitza osoa eskaini die Jon Bilbaok euskal gaiei. Baita Ameriketako euskaldunei ere. Hain zuzen ere, Amerikari buruz Gasteizen egiten ari diren biltzarrean zuen egitekoa atzo bere hitzaldia. Eta Euskal Herriko Unibertsitateak ere *Doctor Honoris Causa* izendatzea erabakia zeukan. 80 urteko bizitza ere laburregia gertatu zaio azkenean. Baina bere lan eskerga eta bere jokabidea hortxe geratuko dira betiko.

Izan ere, honelako gizonek jasotzen dute herri bat, inurriak bezala geratu gabe, lan egiten dutenek. Geuk ezagutu ditugunak eta kulturaren alorrekoak bakarrik aipatzeko, Azkue, Joxemiel Barandiaran, Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Manuel Lekuona, Antonio Zabala, Jon Bilbao bezalako gizonek egiten dute herria. Honelako ereduak eta maisuak behar ditugu arlo guztietan: irakaskuntzan, politikan, sindikalgintzan, indus-

trigintzan eta abarretan. Bakoitzak bere esparruan egin behar du ahalegina, askoren eta era askotako lanez jasotzen baita herria.

Oihu ozen eta haserreek bakarrik ez dute herririk jasotzen. Erru guztiak besteri egotziz ere ez da herririk aurreratzen. Ezta diru eta baliabideen urriaz arrenkuratuz bakarrik ere. Guk baino urte zailagoetan eta modu gutxiagoz egin izan dute lan gure aurrekoek, isil-isilik, inurriek bezala. Eroso eta guri hazitako belaunaldia gara, nonbait, aurrekoen nekeak hartzeko. Erraz nekatzen gara. Erraz egozten dizkiogu besteri erru eta erantzunkizun guztiak.

Erraz etsitzen duen jendearekin ez dago herririk jasotzerik, ordea. Are gutxiago, harrapatzen duten guztia txikitu beste konturik ez daukatenekin. Herioa eta beldurra eraginez ez da herririk eraikitzen. Bonbak jarriz eta enpresarioei mehatxu eginaz ez da herria altxatzen. Euskal Herritik dirua, enpresak eta jendea uxatuz ez da ekonomia zuzpertzeko. Gure herri honi Europako ateak ixten ari dira. Lagunak eta laguntzaileak ugaltzeko ordez, nonahi etsaiak sortzen. Hori ez da gure aurrekoek erakutsi digutena.

(1994-V-25)

JUSTO GARATE

Oso gutxi ezagutu nuen euskaltzale eta abertzaleen belaunaldia joan zaigu oraintxe. Justo Garate Arriola zen geratzen zen azken aztarnetako bat. 36ko gerrateak uxatu zuen Argentinara. Hantxe, Mendozako hirian hil da 94 urte betetzeko hilabetete falta zitzaiola. Bere bizitza luzearen ia bi heren atzerrian egin baditu ere, sekulan ez zuen Euskal Herriarekiko atxikimendurik galdu. Merezimendu osoz eskaini zion, beraz, Euskal Herriko Unibertsitateak “Doctor Honoris Causa” titulua, 1982an. Eta merezimendu osoz izendatu zuen Euskaltzaindiak ere Euskaltzain Ohorezko, urtetan “urgazle” izan zena.

Justo Garate Arriola Bergaran jaio zen 1900eko abuztuaren 5ean. Medikuntza ikasi zuen Madrilgo Unibertsitatean. Friburgo, Paris, Berlin eta Heidelberg-en osatu zituen ikasketak. Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorrekoa izan zen, Medikuntza sailetik aukeraturik 1932an. Euskal Unibertsitatea sortu nahian lan haundia egin zuen. Jesus Maria Leizaola sailburuarekin batera Medikuntza Fakultatearen sortzaile izan zen 1936an. Argentinara heldu bezain azkar La Platako Unibertsitatean balioetsi zuen mediku karrera, 1947tik aurrera Mendozako Unibertsitatean izan zen irakasle.

Euzkadi egunkarian hasi zen bere lanak euskaraz argitaratzen Justo Garate, gerra aurrean. *RIEV*, *Eusko Jakintza*, *Munibe*, *Gernika*, *Fontes* eta abarretan idatzi izan zuen. *Eneko*, *Eneko Mitxelena*, *Eneko Zilueta*, *Elo*, *Elorregi*, *Txeru Arriola* dira idazterakoan erabiltzen zituen izengoitirik ezagunenak.

Euskal lexikoaz ere badu burututako lanik. Gillermo Humboldt, Pablo Astarloa eta Juan Antonio Mogel ere ikertu zituen. Euskal historiaz eta karlismoaz ere badu argitaratutako lanik, jakina. Euskal kulturak atzerrian zuen gizonik ospetsu-
netako bat joan zaigu, beraz.

Gerra aurrekoen eta gerra ondokoan artean egin zen leizea izugarria da. Seme-alabok ez genituen gure gurasoak ezagutu, nola ezagutuko dituzte bilobek beren aiton-amonak? Hutsune hori ez dute ikastolek eta euskal eskolek ere bete. Izan ere, belaunaldi hura zer zen ez dakien irakasleak nola beteko du, bada, hutsune hori? Eskoletarako egiten diren liburuetan ere ez dut hutsune hori bete dezakeen ezer haundirik sumatu.

Belaunaldi hartaz zertxobait, bederen, arakutzen saiatuko bagina, harriturik geratuko ginateke. Politikagintzan buru-belarri sarturik zenbat idazle eta euskaltzale dabilen ez da sinestekoa. Zenbat jeltzale Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, ikastolak, prentsa eta abar sortzen!

Justo Garatek ere ezin politikari iskintxo egin. Errepublikar-sozialisten zerrendan aurkeztu zen, 1932an, ANVtik.

Belaunaldi hura ez genuen ezagutu. Ezagutu gabe baztertzeko joera izan genuen. Mindu eta zapuztu ere egin genituen. Euskararen zuzia geuretzat bakarrik nahi baikenuan. Euskara iraultzarako eta borrokarako tresnatzat bakarrik nahi zuenik ere izan zen. Belaunaldien artean gerrak eta frankismoak etenik sortu ez balu bezala, are eta eten haundiagoa sortzen ahalegin-
du da zenbait gazte. Eta garai bateko euskaltzale prestu haiek izuturik eta noraezean utzi genituen.

Baina belaunaldi hari asko zor dogu. Zikindu beldurragatik ez zion politikari ere ukorik egin. Euskararekiko eta Euskal Herriarekiko atxikimendurik ere ez zuen sekulan galdu, nahiz kartzelan nahiz atzerrian bizi behar izan. Euskaldun izatearen ohorea eta harrotasuna erakutsi zuen munduko edozein bazterretan.

(1994-VII-8)

PIO MONTOIA

Beste norbaitek, nik baino gehiago dakin norbaitek, idatziko zuelakoan egon naiz. Baina ez da inor agertu. Pio Montoia Arizmendiren aipamentxoren bat egitera behartua naiz, beraz, besterik ezean.

Zozo-mikotetan hil zen Pio Montoia apaiza Donostian, 90 urterekin. Alegin, bere sorterrian, ehortzi zuten, hileta elizkizunaren ondotik. Jose Maria Setien gotzainak eta hogeita hamarren bat apaizek eman zuten meza, jendez betetako Alegiko elizan, martxoaren azken egunean.

Jose Ariztimuño *Aitzol*-en adiskide eta lankide mina izan zen Pio Montoia. Biak ere auzoak, apaizak eta burubide eta ekimen haundikoak, gainera. Aitzol ezezik, Pio Montoia ere buruz oso jantzia eta euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa menderatzen zituen jakintsua zen. Diruduna, gainera, familiaz.

Horregatik sortu ahal izan zuten alderdi bati lotu gabeko *El Día*, egunkari abertzalea, 1930ean.

Hutsune eta zulo haundi bat bete zuen *El Día* egunkariak Errepublikara garaietan. Huraxe izan baitzen Gipuzkoako euskaltzaleen eta abertzaleen plazarik maiteenetakoa. Baita eusko langileena ere, ELAren eragileetakoak zirenez biak ere.

Aitzolek baino adur hobea izan zuen, hala ere, Montoiak. Donibane Lohizunetik Bilbora itsasoz zihoala atxilotu zuten Aitzol frankistek, torturatu eta Hernaniko kanposantu ondoan afusilatzeko. Lagun minaren atxiloketa eta heriotza bozkarioz kontatu zituen *Diario Vasco* horregatik ezin zuen ikusi don Piok.

Hamar urte egin zituen Kanbon, jaioterrira itzultzeko askatasunik gabe. Frankismoaren eta faxismoaren kontra borrokatu zen apaiza izan baita Pio Montoia. Don Mateo Muxika gotzainarengan ere eragin handia izan zuena, gainera. Familia oso karlista eta integristako semea izanik, oso hartua baitzuen apezpikuak, nahiz eta etika ikasten ari zela zeharo euskaltzale-tua eta abertzaletua izan Pio Montoia. Barandiaranek ezezik, Montoiak ere asko lagundu zion don Mateo Muxikari begiak argitzen eta okerrak zuzentzen.

Egiz euskal apaizen berri-paperean sortzaileetako izan zen 1948an. Buru-belarri jardun zuen 339 apaizek 1960an Franco-ren larderiaren kontra idatzitako agiria bideratzen eta munduan barrena barreiatzen. Izan ere, kanpotik berri bila etortzen ziren kazetariak nekez aurki zezaketen hobeto informatutako eta frantsesez eta ingelesez ere bazekien gizonik.

Euskal Herriaren historia gogotik arakatu zuen Pio Montoiak. Batez ere, euskal apaizena. Libururik ere bazuen 1820-23ko istiluetan euskal apaizek izan zuten jokabideaz. Eta ezer ongi ezagutzen bazuen euskal abertzaletasuna ezagutzen zuen. Irakurri besterik ez dago Eugenio Ibartzabalek 1978an egin zion elkarrizketa luze hura, “50 años de Nacionalismo” izenburuaz argitaratua.

Bizitza luzea izan badu ere oso osasun berakoa izan da beti Montoia. Horrek behartzen zuen, noski, etxe barruko bizitzara. Eta horrek berak ezezagunagoa bihurtu zuen gerrak lehendik ere nahiko urrun arazi zuen apaiza.

Demokraziaren eta askatasunaren aldekoa, bero gaitzetsi ohi zuen gure arteko bortizkeria ere Euskal Herriaren egoeraz eta etorkizunaz oso kezkatua zen Pio Montoiak. Bere herriaren alde leial jokatu zuen belaunaldi hartako azkenetako lekuko bat galdu dugu, beraz. Agur eta ohore, on Pio.

(1995-IV-7)

JOSU OREGI

Egun alaitsuetan, jai eta opor egunetan, ez da albiste tristerik nahi izaten. Aberri Egunekeo kontuak buruan ditudala itzuli naiz lanera, horietaz zerbait idatzi beharrean. Baina betiko txokora itzuli orduko berri samin bat irakurri dut: Josu Oregi Aranbururen heriotzaren berri tristea.

Eta ustekabeen harrapatu nauen honixe heldu nahi nioke, esnatu orduko izan ditudan burutazioak alde batera utzirik. Aberri Eguna garrantzitsua da. Esan direnak ere garrantzitsuak dira. Baina jai haundi guztiek beren zortziurrena izan ohi dutenez, aste osoa dut gai horiek aipatzeko. Gaurkoa, beraz, Josu adiskideari eskainiko diot. Merezi baitu.

Zeruko Argia astekarian lan egiten nuenean ezagutu nuen Josu Oregi. Hiztegegintzari buruzko lan bat ekarri zidan argitaratzeko. Orduan ezagutu nuen aurpegiz, nahiz eta lehendik ere entzuterik banuen. Gizon jakintsuaren eta abertzalearen sona baitzuen. Hala ere, harriturik utzi ninduen. Kaleko gizon batek hainbeste euskara jakitea harritzekoa ere bazen eta orduan.

Handik urte batzuetara elkarrekin lan egiteko eta elkar hobeto ezagutzeko aukera izan genuen *Deia* egunkarian. Gairik bitxienak eta zailenak euskaratzeko gai zen. Horrek harritzen ninduen gehien. Gero, Eusko Jaurlaritzara joan zen itzulpen lanen arduradun. Are eta gai arrotzagoak euskaratu beharrean gertatu zen hor, jakina. Baina kafea eta zigarroa lagun, han ariko zen etsi gabe. Geroztik oso bakanka egiten genuen topo, beti adeitsu eta lagun.

Josu Oregi Aranburu Bergaran jaio zen 1919an. Hamazazpi urterekin harrapatu zuen gerrak. Familia oso kristaua izan arren, bost erlijioso eman baitzizkion Elizari, Zenon Aranburu Txinako gotzain misiolaria besteak beste, gogor astindu zuen “gerra santuak”. Izan ere, 17 urteko bat afusilatuzioten, Arrasateko beste hiru apaizekin batera. Eta Josuk ere Belgikako Liegen amaitu behar izan zuen injineru karrera.

Josu Oregi, etxe oneko semea, ehungintza edo oihaingintza lantokiko nagusi izan zen. Hala ere, beti aurkitu ohi zuen aberriaren eta euskararen alde lan egiteko astirik eta modurik. Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan ere izan zuela izkutuko ardurarik, dirudi, 1960 aldera, Jaime Font Andreu Donostiako gotzainari idatzi zion gutunean sumatzen denez.

Josu Oregik, ordea, ekintzarako baino burulanerako, liburuetarako eta ikasketarako joara haundiagoa zuen. *Jakin*, *Zeruko Argia*, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko aldizkarian eta abarretan argitaratu zituen bere lanak. *Osirantxu* eta *Zubiarte* izengoitiz argitaratu ohi zituen askotan. Euskarazko ikastaroak ere eman zizkien Josu Oregik alfabetatu nahi zuten taldeei. Matematikako irakasle ere izan zen Bergarako Lanbide Eskolan.

Errege Mintegia izeneko eskola famatuak izan zuen eraginik, noski, Josu Oregiren zientzizaletasunean. Izango zuen, jakina, Elhuyar anaien entzuterik. Eta ongi ezagutzeko aukera izan zuen Telesforo Aranzadi antropologoarekiko miresmena ez zen nolana hikoia Oregi gaztearen bihotzean. Giro horrek guztiak lerratu zuen, ezpairik gabe, jakintzara.

Urte zailetan egin behar izan zuten aberriaren eta euskararen alde lan. Hobeak ezagutzeko zoria ere izan du, jakina, erein zuten haziari esker. Jaso beza, beraz, gure esker ona.

(1995-IV-18)

XANTI ONAINDIA

Aita Xanti Onaindia karmeldarra hil zaigunetik aingeru bat gutxiagorekin geratu gara munduan. Ez nuen harreman haundirik izan. Baina azkar ezagutu zitekeen gizona iruditzen zitzaidan beti: azpildurarik gabea, xaloa, alaia; aingeru bat.

Amorotoko herrian jaioa, Larrean egin zuen kabi goxoa ia bizitza guztirako. Gaindegian jaioa, ez zen zulo ilun eta tristen zale. Hala ere, gerra bortitzak harrapatu zuen apaiz egin berrian. Eta Xanti Onaindak garbi zuen zeren eta noren alde jokatu behar zuen: bere apaiz zerbitzua gudariei eskaini baitzien. Hiru urteko espetxea eta hamar urteko erbestea jasan behar izan zituen horregatik.

Baina Xanti Onaindiaren bihotza ez zen kokildu, ez zen ozpindu. Larreako komentura itzuli bezain azkar ekin zion berriro euskararen aldeko lanari, bere euskara erraz eta gozoan herriz herri sermoiak eginaz eta aldizkariak eta liburuak argitaratuz. Besteak beste, *Karmel*, *Olerti* eta *Aurrera* zor dizkiogu. Hain zuzen ere, *Olerti* izan da euskal poeta askoren plaza.

Xanti Onaindiak, jakina, gerra aurretik hasita idatzi izan du euskal aldizkari eta egunkari guztietan. Baina liburu mardulik ere eskaini izan digu, bertsolaritzari, Kepa Enbeita *Urretxindorra* bertsolariari, Sabino Arana olerkariari, euskal literaturari eta abarri buruz. Itzuli ere itzuli dizkikigu Tagore. Virgilio, Santa Teresa, Dante Goethe, Homero, Baroja eta abarren obrak ere.

Mututzen ez den txori kantaria izan da Xanti Onaindia, edertasuna eta alaitasuna maite baitzituen. Gorriak ikusi bazi-

tuen ere, ez zuen irribarrerik eta itxaropenik sekulan galdu. Ez zen hiletak jotzeko jaioa. Euskararen, euskaltzaleen eta aber-tzaleen artean ezagutu dituen zatiketa eta haserreak gorabehera, itxaropentsu Euskal Herriaren etorkizunaz ere. *Oroi txinpartak* bere azken liburua irakurriz ongi jabetuko gara Onaindiaren xalotasunaz, baikortasunaz eta itxaropenaz.

Baina gure belaunaldiak gehien eskertuko dion lana 1954an argitaratu zuen: *Millla euskal olerki eder*, hain zuzen ere. Dena debekatua zegoen gure gaztaroan huraxe izan baitzen euskarazko olerkiarekin harremanetan jarri gintuen lehen liburua.

Badiogu bai zorrik aita Onaindiari. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Aldundiak, Bertsolari Elkarteak eta abarrek eskaini dizkiote omenaldiak, esker onez. Bere hiletetan ere garbi ikusi da Xanti Onaindia nor eta zer izan den. Eta Santa Teresaren Egoitzetan barrena abiatu den une honetan mila euskal olerki eder kantatuz egin diezaiotela ongi etorri aingeruek eta kide eta lagun izan zituen guztiek.

(1996-II-13)

GOTZON ETXEBARRIA

“Lan isilari txalo” jo nahi diote gaurtik aurrera Euskal Telebistan Arantxa Arza eta Asier Odriozolak. Esker eta burrunba haundirik gabe, inurriak bezala, lan egiten duen jendea omendu nahi dute, agi denez. Nik, berriz, gogoari, borondateari, iraupe-nari, saiamenari, egin nahi nioke omen, Jon Gotzon Etxebarria lagun zaharraren ohoretan.

Gasteizko seminarioan ezagutu genuen elkar 1950ean. Hura Juan Angel eta ni Miguel ginen orduan. Hark ez zekien euskararik, nik ozta-ozta nekien erdara: hura santurtziarra izaki; ni, berriz, urnietarra. Baina lagun haundiak egin ginen elkarrekin igaro genituen hiru urte haietan. Gasteizko elizbarrutia Francoren aginduz zatitu zutelako sakabanatu gintuzten.

Geroztik urteak egin genituen elkarren berririk gabe. Euskaltzaindiaren batzar horietako batean egin genuen topo berriro, ordurako biok ere burusoil samarrak: hura Jon Gotzon bihurturik; ni, berriz, Mikel: hura, euskaldunberri; ni, euskaldunzahar.

Hizkuntzetarako zaletasun haundia zuen. Nik baino hobeto ikasi zituen grekera eta latina. Horiek ikasteko irakaslerik ere izan zuen, jakina. Baina euskara, bere gisa, maisurik gabe, ikasi behar izan zuen. Ikasi ere ongi ikasi. Noiznahi ekarri ohi zizkidan San Agustin, Platon, Kikero eta abarren obrak euskaraturik. Euskarazko itzulpenarekin batera, baita latinez idatzitakoak ere. Besteak beste, beretzat eredu ziren Kladio Gallastegi bezalako apaiz euskaldunen bizitzak eskaini zizkigun *De vita exemplariorum presbyterorum vasconum* liburuan.

Igandean egin zitzaizkion hiletak Jon Gotzon Etxebarriari Gernikako Andra Mariaren elizan. Gorpua, berriz, Errigoitiko hilerrian ehortzi zuten. Andrea eta alabatxo bat eta euskarazko lanak utzi dizkigu Jon Gotzonek. Besteak beste, *Gurutz bidea*, *Maitale galdua*, *Euskal iztegi laburra*, *Charles Perrault-en ipuinak*, *Phedroren alegiak*, *Bakarantuak*, *Esopo-ren alegiak* eta *Catalunya-ko olerkariak*.

Institutuko irakasle Bermeon eta Gernikan, euskarari eman dizkio ahal zituen ordu guztiak, burrunba eta zaratarik gabe, apal eta sotil bezain zimel. Laguntzarik onena, debekurik eta zigorrik eza, izan zuen belaunaldikoa da Gotzon Etxebarria. Euskaraz idazteko, liburuak argitaratzeko, jaialdi bat antolatzeko, ikastolak eraikitzeko, ez genuen laguntzarik eta dirurik eskatzen. Aski genuen ez debekatzea eta ez zigortzea.

Orain, berriz, ez da ezer egin nahi borondate hutsez. Dirua eskatzen da edozertarako. Dena administrazioak ordaindu behar digu, gainera. Zerbitzu eta lan askok beharrezkoa du, jakina, administrazioaren laguntza. Horren aitzakian edozer subentzionatzea nahi duenik ere bada. Beste dirubide batzuei, etekinari, kalitateari eta baliogarritasunari begiratzeko ordua ere iritsi zaigu, ordea.

Euskarak beharrezkoak ditu aldeko legeak, neurriak eta laguntzak. Gotzon Etxebarria ere asko mintzen zuen agintarien zabarkeriak. Baina are eta gehiago, elkarrekin erdaraz ari ziren euskaldunen jokabideak. Alferrik baitira aldeko neurri guztiak gutako bakoitzak arretarik ez badu.

(1996-II-21)

JOSE ANTONIO ARKOTXA ATXUKALE

Aitzol jaio zela ehun urte bete ziren egun berean egin zitzaizkion Jose Antonio Arkotxa *Atxukale* idazleari hiletak, Mutriku bere jaioterrian.

Antzerki idazlea izan da Arkotxa, batez ere. Dozenerdi bat gutxienez idatzi zituen. Baina irratirako gidoirik ere ondu zuen. Nik neuk Ondarroako berri-emaile izan nuen *Zeruko Argia* astekarian.

Euskara batuaren puria zen. Goizetik gauera egin behar zen, ahozko hizkuntza, hizkuntza bizia, euskalkiak, kontuan hartu gabe. Ez ginen iritzi horretakoak: euskaldunek egiten zuten hizkuntza oso kontuan izan behar zela uste baikenuen. Zientzi eta teknika mailako argitalpenetako eta komunikabi-deetako euskara ere ezin zitekeela berdina izan pentsatzen genuen.

Jose Antonio Arkotxak hirurogei urteak beteak zituen ordurako. Beste idazkera batera ohitua zen. Batez ere herri-hizkerara, antzerkiak berak horretara behartzen zuenez. Ez gerra ondoko erasoek, ez euskararen inguruko orduko gorabe-hererek, etsiarazi zuten Atxukale. Eta adinean aurrera joan arren, Ondarroako berriak idazteari ekin zion. Ez genuen batuko arauak betetzera behartu. Are gehiago, bertako hizkeran idazten uzten genion. Zoragarria gertatzen zitzaigun hizkera hura.

Zabaltasun arekin jokatu arren, Euskaltzaindiak baturako emandako arau eta gomendioak erabat betetzera heldu ginen dozenerdi bat urteren bururako. 1976tik aurrera dena baturako arauetan argitaratzen baitzen *Zeruko Argia*, hasi eta buka. Eta

Atxukaleren antzeko euskaltzaleak gehiegi ez mintzea eta ez zapuztea lortu genuen, presaren presaz eta zirt-zart egin beharraz, “zaharrei” kupidarik gabe eraso zitzaien garai hartan. Herri bakoitzeko paperetan eta aldizkarietan bertako euskara aintzakotzat hartzen erakutsi zigun Atxukalek har beza gure esker ona.

(1996-III-19)

JOSEBA JAKA

Pena eman dit. Ez nuen harreman haundirik eta berezirik. Ofizioari esker izan nituen gehienak. Hala ere, beti atseginak. Atsegin eta adeitsuaz gainera, langile porrokatua eta borrokatua ere suertatzen zitzaidan Joseba Jaka.

Harremanetarako egokia zen eta euskarak ezinbestekoa duen saileko langile bat galdu dugu. Are gehiago, euskararentzat garrantzizkoa eta indartsua bihurtu den enpresa bateko zutabe bat. Pena izatekoa da, beraz.

Garai batean idazleak berak argitaratu behar izaten zuen bere liburua, bere patrikatik dirua aurreratuz. Argatalpenaz ezezik, banaketaz eta salmentaz ere norberak arduratu behar izaten zuen. Baita galerez ere.

Hori zen abelera. Erdarazkoek bezala euskarazko liburu eta diskoek ere azpiegitura on bat behar zuten argitaratzeko, banatzeko eta saltzeko. Ez zuen, beste askok bezala, argitaletxea

sortuz bakarrik etsi: argitaletxeaz gainera –horixe baita *Elkar*, Euskal Liburu eta Kantuen Argitaletxea–, liburudendak eta banaketa-sarea eraiki zituen, bere anaiekin. Izan ere, enpresa gizona zen Joseba Jaka. Hala izan behar ere euskalgintzako enpresario izateko.

Hamasei urterako, etxez etxe, liburuak saltzen ohitua, bere euskaltzaletasunak, euskarazko liburuen eta diskoen enpresa eraikitzaera bultzatu zuen Joseba Jaka.

Edozein arlotako enpresak du prakak bete lan. Inork baino jenero hobea eta merkeagoa eskaintzea ez baita berriketa. Josebak, berriz, sailik gogorrenetakoari heldu zion: merkatu urriko jeneroari; euskarazko ekoizpen eta salmentari.

Lanbide zaila aukeratu zuen Joseba Jakak, beraz. erronka latza zen horrelako enpresa bat aurerra ateratzea. Langile porrokatuak, ordurik gabe lan egiten dakienak, eta larre motxean bizitzeko prest dagoenak bakarrik atera zezakeen aurrera. Halaxe dira Jakatarrak, harri artean ere bizimodua aterako luketenak. Aspaldi esan nion Josebari: “laster zarete jaun eta jabe”.

Eta Euskal Liburu eta Kantuen Argitaletxeak leku askotara zabaldu ditu bere zainak: ikastoletara, Euskaldunon Egunkariara, Eusenor, Harluxet Fundaziora eta abarretara. Euskarazko ekoizpen guztia bakar baten esku geratuko ote zen beldurrik ere sortzen zion bati baino gehiagori, jakina.

Joseba Jaka ez nuen sumatu, mundu horretan ohi samarrekoa den bezala, negarra eta hiletak jotzen, eskean, eta ematen ez dutelako mamarrean eta gaizkiesaka. Bere kabuz, bere lanetik, bere etekinetatik biziko zen enpresa aurrera atera

nahian sumatu nuen beti. Horregatik saiatu zen elkalanerako prest zeuden langile saiatuz inguratzen.

Hori da, agian, Joseba Jakak ematen digun jarraibiderik onena: bidegarriak diren enpresak eraikitzen saiatu behar dela. Negarti, hiletari eta eskaleekin jai du euskarak; langile porrokatuak eta enpresario azkarrak behar ditu.

(1996-IV-18)

XABIER AZURMENDI

Lagun zaharra nuen Xabier Azurmendi. Umore haundikoa, irudimen haundikoa, ateraldi haundietakoa zen ezagutu nuenean. “Chateaubriand” deitzen genion. Ez dakit zergatik. Idazle sena nabarmentzen geiolako? Ileje bihurriarengatik? Ez dakit.

Baina asmatu genuen. Urte asko baino lehen eskaini zigun “Izatearen malura” poema liburua. 1969an onduak ditu gehienak. Eta *Agora* saria merezi izan zuten 1970ean. Urte bete geroago, *Etor* sortu berriak argitaratu zituen.

Geroztik, Santa Kruz apaizari, Orixeri, Aitzoli eta abarri buruzko lanetan saiatu da, beste lankide batzuekin batera. Azken aldi honetan, Zegama aldeko ipuin eta ixtorioak bildu eta *Egan* aldizkarian argitaratu ditu.

Hernani aldera etorri zenetik sarri samar bisitatu ohi ninduen, Bergaran lagun min suertatu zitzaion Serafin

Esnaolarekin batera. Baina ez zen lehengoa, buruko perlesi haize batek utzi zuen moteldua. “Puxikako garatxak kendu behar zizkideatek”, agurtu ninduen azkeneko aldian. Ez dut hil aurretik ikustera joateko balorerik izan.

Baina hil berria jaso bezain azkar “Izatearen malura” irakurtzeari lotu natzaio. Eta hortxe iragarri zidala bere heriotza gogorarazi dit. Izan ere, liburuaren azalean dioen bezala, “olerki guziak hari bati josiak datoz: senda-ezineko gaitz bel-durgarria aurkitzen diote apaiz bati; ta honi bizitza egunetara etorria daukala aditzera ematen dio sendagileak. Egoera lazgarri honek sortzen dizkion lehenengo gogoetak hitz-lauz ematen ditu; egiati, aberats eta aukerako”.

Eta *Plaxentxi* izeneko “erdi alper, erdi filosofo eta oso boemio bati” egindako bizpahiru poema motzetatik aparte, “ezerezaren” kontra dabil burruka bizian, “nihilismoaren uretan eta erreken kontra”.

Barne-barnetik intziri egiten du: “Gure mundu onek ez du ezer balio, hor dijoa hiltzera. Eon triste hau ikatz eginik ikusiko duzute laister. Materia suak erreko du, izarrak berriz danbolin-neko gaztainak bezala lehertuko dira. Itsasoa ere sikatuko da, pinudiko ixtinga zuloa bezala. Gauza hauek gertatzen diren arte, Oianederraren (Unai Oianederra baitu apaizak izena) arnasa, gizonik gizon ibiliko da baziloak bezala, giza-barnetan bere indarrak ugarituaz. Eta berriro errekek agortzean eta mendiak amerau hautsien gisa erortzean, Unai poeta ederrak lurraren edertasun berriak gizonei kantako dizkie. Izan ere ezaren uekoan, Jaungoikoak neurrigabea sortuko bai du”.

Baina lotsa ere ematen do, apaiz izanik, heriotzaren aurrean hain koldar agertzeak: “Badakit malko hauek eta larritasun hau heriotzaren aurrean gauza umilgarri direla piztueraren zain bizi den kristau dirijente batentzat. Fedea horrela da, gauzarik ederrena ontzi pobre batean”.

Horrelaxe zen gure *Chateaubriand* poeta: urduria, kezkatia, maitakorra, bihotz leial eta bigunekoa. *Plaxentxi* bezala, “erdi filosofo, erdi bertsolari, oso bohemio” zen gure zegamarrara. Eta bere gorabehera guztietan, ezpairik gabeko abertzale eta euskaltzalea.

Gozatu ederrak hartua eta emana da Xabier, lagunartean. Sufritu ere sufritu izan du, bere bakardadean. Eta berak zioen bezala, “horrela irten da gure etxetik, hezurak eta bertsoak utzita”. Baina, berak besterik bazioen ere, “bere oroitza” ez da “laster galduko, erreka-lainoa bezala, gizona Jainkoaren aurrean sikatzen dijoan malko bat” baino gehiago baita.

(1996-XI-28)

ALFONSO IRIGOIEN

Askotan aipatu ditut gure aurrekoen lanak. Orain neure belau-naldiko batena dagokit goraiatzeari: Alfonso Irigoienena.

Euskaltzaindiaren itzalean antolatu ziren 1960 aldeko Bertsolari Txapelketa haietan ezagutu nuen. Orduan geratu zitzaidan belarrian betiko Alfonso Irigoienek bertsolari bakoi-tzari gaia ematerakoan errepikatu ohi zuen “berriz diot” hura. Eta neuk ere berriz diot: Alfonso Irigoienek lanek merezi dute aitoren onik,

Hasteko, oraingoa ez bezala, 14 urterako lanari eta bizi-moduari heldu ondoren karrera egin duen belaunaldikoa da. Orduan familia gutxitan zen seme-alabei karrera emateko modurik. Gainera, Filosofia eta Letrak ikastera kanpora joan behar izan zuen belaunaldikoa da. Eta kostata ikasitakoari esker lortu zuen Deustuko Unibertsitatean euskal filologiako katedra.

Azken urteotan, jakina, bere ikerketei eta bere irakasle eta euskaltzain lanei emana zen. Baina bere sasoian ekintzaile saiaria izan zen: ikastolak sortzen, euskaltzaletasuna zabaltzen, bertsolarien txapelketak antolatzen eta abarretan.

Batez ere, 1958-68 aldi horretan lan haundia egin zuen bertsolaritza indartzen. Bizkaian hasi zen aurrena. Gipuzkoan bazebiltzan Basarri eta Uztapide. Bizkaian, ordea, erabat izkutatua zegoen bertsolaritza. Eta Bilboko Arenalean antolatu zuen lehen txapelketa. Berak bilatu eta aurkitu behar izan zituen epaimahaikoak, berak deitu bertsolariak, berak bidali telefonogidan helbidea aurkitu zuen herriko tabernara kartelak,

berak asmatu eta jarri gaiak. Bizkaiko bigarren txapelketa, ber-
rizz, eskualdeka antolatu zuen. Orduan azaldu ziren Balentin
Enbeitaz gainera, Azpillaga, Lopategi eta Mugartegi.

Eta Bizkaiko errautsak harrotu zirenean, Iparraldekoak
Henandorenak harrotuak baitzituen, Gipuzkoako txapelketari
ekin zitzaion Eibarren, 1959an, Mogelen omenez. Besterik
gabe, nahiko giro bazen 1960an Euskal Herriko Txapelketa
Nagusia jokatzeko. Geroztik, beste lau antolatu ziren, bi urte-
tik behin, aurrez lurraldekakoak eta eskualdekakoak jokatzen
baitziren. Hori guztiaren buru eta belarri, Alfonso Irigoien!

Euskaltzaindiko idazkari ere izan. Euskarazko aldizka-
rietan ere sarri idazten zuen. Hala ere, poesia egiteko eta ma-
rrazteko astia geratzen zitzaion. Edozein txolartez baliatzen
zen karikaturak egiteko. 80 inguruko Txapelketa Nagusian
epamahaiko zelarik, bertsolariak marrazten aritzen zelako
haserretutakorik izan zuen. Neuk ere badut, estimu haundiz,
kuadroan sartua. Euskarari buruzko eztabaida baten ondo-
ren egin zidan, Euskaltzaindiko bileran aurrez-aurre topatu
ginenean.

Latinetik eta grekotik hartutako maileguak jatorrizko
tankeran idaztearen aldeko itsua zen. Horretan ez zuen amo-
rerik eman, ez erraztasunaren eta ez gehiengoaren izenean.
Amore ematea saldukeria iruditzen zitzaion.

Baina hor daude Alfonsoren lanak, adore, neke eta zehaz-
tasun haundiz burutuak. “Berriz diot”: gogoan izango ditugu
Alfonso Irigoien eta bere lanak.

(1996-XII-18)

ANASTASIO ALBISU

Gizon gordina, ederra eta dotorea zen nik Azkoitian ezagutu nuenean. Geroztik ia berrogei urte joan dira. Eta laurogeita bi urte bete berriekin utzi gaitu, ustekabean, Anastasio Albisu Lazkaoko seme azkoitiartuak.

Beste asko bezala, Don Manuel Lekuonaren eskutik abiatu zen Anastasio Albisu Aierdi euskara idatziaren bidetik Gas-teizko apaiztegian, Agustin Kardaberazen garrasiari jarraituz. Geroztik etengabe aritu da idazten. Eujenio Arozenak aitortu didanez, orain 15 egun bidali zion azkeneko lana.

Euskal literaturaren zerura ez zen bakarrik jaio Anastasio Albisu, 1915ean jaio baitziren Koldo Mitxelena, Mariano Izeta, Eugenio Goienetxe, Pierre Lartzabal eta Gotzon Goenaga ere. Adinean, abertzaletasunean eta euskaltzaletasunean ez ezik, sufrimenduan ere kideko gertatu zitzaizkion, jakina. Inork bada eta, belaunaldi honek jasan behar izan baitu zoritxarra. Gerra ondoan luzaz iraun behar izan zuen mutu. Euskaraz idazteko askatasun apur bat iritsi orduko, berriz, idazteko arauen aldaketek harrapatu zituen.

Hala ere, 1954rako hasi zen Anastasio Albisu bere lanak argitaratzen. *Karmel*, *Egan* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan idazten zuen. Antzerkirik ere argitaratu zuen bere kontura, urte zail samarretan: *Sortzez garbia*, *Mesederik aundiena*, *Ni ez neskazar*, *Trabenan*, *On egitean dago zorientasuna*, *Garoa*, *Pernando Amezketarra* eta abar. 1954tik 1962ra bitartekoak dira horiek. Baina azkenaldi honetan ere etengabe aritu da. Horretan egindako lanagatik egin zitzaion omenaldia Azpeitiko X. Euskal Antzerki Topaketan, 1992ko abenduaren 17an.

Neuk ere badiot zorrik, jakina. 1962an idatzi eta 1993an argitaratu zuen *Auritz* bidali zidan opari, eraberriturik. Esker-rak eman aurretik hil zait. Ni baino nagiagorik ez baita inori erantzuteko.

Baina Anastasio Albisu txolartetan izan da idazle, elizako lanak ondo betetakoan. Arabatik bueltan, Serafin Esnaolaren lagun izan zen Trintxerpen, 40tik 43ra. Geroztikako urteak Azkoitian egin ditu. Eliz-lanetan egokia eta arduratsua zen: elizkizunetan, eliz-elkarteetan, gaixoei eta zaharrei laguntzen eta abarretan. Xabier Munibe ikastola sortzerakoan ere ez zen atzean gelditu. Ezta ikastolako umeen hezkuntzan ere. “Herriko seme” izendatzea ez da harritzekoa, beraz.

Atzoko hiletetan ederki erakutsi zion Azkoitiko herriak maitasun hori. Herriko eliza haundia gainezka beterik baitzegoen, elizkizuna hasi baino ordu erdi lehenago. Azkoitiko udalak, esker onez, argitaratu dion eskelako bertsoak adierazten du ongien zenbat zor zion eta maite zuen. Bertso horrekin eskertu eta agurtu nahi nuke neuk ere Anastasio euskaltzale fina.

*Euskaltzale fin, kulturgile,
bide-lagun eta maisu,
hainbat maitasun zuen bihotzak
“nekatu naiz” esan dizu.
Zeuk zerbitzatu duzun herria
gaur negarrez ari zaizu,
Jainkoak berriz bilduko gaitu,
Don Anastasio Albisu.*

(1997-IV-17)

MARIA DOLORES AGIRRE

Oraingoan Maria Dolores Agirrek utzi gaitu, bere 94 urte estreinatu berriekin. Zoritxarrez, aspaldi utzi gintuzten irratiko bere ahots, hitz eta algara gozo haiek. Norbaiten ezineramanak isil arazi zituen denbora baino lehen: “ken hortik euskara zahar hori” esan baitzion zuzendariari norbaitek, lotsagabe.

Gerra ondoan irratitik entzuten hasi ginen euskarazko lehen irratsaioak Maria Dolores Agirre, Iñaki Eizmendi *Basari*, Manu Oñatibia *Don Antonio*, Endrike Zurutuza *Joxemiel*, Joxemari Etxebeste eta abarrenak ziren. Entzun eta aditu egiten genituen, jakina. Izan ere, haiek entzulegoaren arreta adi jartzen zuten. Hitz zaparrada eta hitz burrunba baino zerbait gehiago eskaintzen baitzuten.

Halaxe zen Maria Dolores Agirre, hiztun argia, garbia, egokia eta dotorea. Lanak utzita egon ohi zen euskaldun jendea irratian, adi-adi, hari entzuten, aditzen eta gozatzen. Irratian ez ezik, antzerkian eta euskara irakasten ere lan eskerga egin zuen.

Abelino Barriola Donostiako zinegotzi jeltzaleak sortu zuen *Euskal Izkeria eta Iztunde Ikastolan* hasi zen lanean, Toribio Alzagaren gidaritzapean. Eskola horretako irakasle plaza 1933ko azterketa-lehiaketan irabazi zuen. Gerra ondoan, ordea, ez zuen 1953 arte lantegi horretara itzultzerik izan. Baina itzuli zenetik, urtero urtero, eskaini zigun antzerkiren bat San Tomas inguruan, 1981 arte, erretiratu zen arte. Gozatu ederrik eta euskaltzaletasunean berotu ederrik hartu ohi

genuen egun hartan. Banakak baitziren horrelako jaialdiak eta bilkurak orduan.

Alzaga, Barriola, Soroa, Lekuona, Monzon eta Lartzabalen antzerkiak aski ez eta, berak idatzi zituen *Bear-bearra* eta *Au dek maltzurkeria*. Itzuli ere egin zituen Tagoreren *Amal*, Casonaren *Txalupak jaberik ez*, Garcia Lorcaren *Iturri leor* eta beste. Guztira 33bat antzerki eta 100en bat emanaldi eskaini zituen.

Baina bere eguneroko lana euskara irakastea izan zen. Donostiar askok ikasi zuen euskara Maria Doloresen euskaltegi hartan. Agur eta ohore, beraz, euskararen alde hainbeste lan egin zenuen, Maria Dolores Agirre. Gogoan zaitugu.

(1997-VII-29)

BALENTIN ZAMORA

Don Balentin aipatuko ez banu ez lidateke lagun zaharrek barkatuko. Izan ere, don Balentin bat bakarra zen munduan, san Balentinek baino bikote gehiago elkartua, gainera. Eta bakarra zelako bildu ginen Donostiako Antiguako elizan egin zitzaizkion hiletara era guztietako hainbeste jende bazter guztietatik: gotzain, apaiz, baserritar, bertsolari, kooperatibazale, kargundun eta abar.

Soldaduska egin, Gipuzkoako Aldundiko lana utzi, eta apaiz egitea erabaki zuen Luistarren buru eta lapiko guztietako

burruntzali zen Igeldoko Leku-Eder tabernako maiorazgoak. Tabernako umea, oso gogokoak zituen Balentin Zamora Arri-llagak lagunartea, kontu-kontaritzea, bertso eta kontu zaharretarako zaletasuna, pelota, apustu giroko jokoak eta abar.

Azkeneko hitz egin nuenean bertsolaritzaz jardun zitzaidan, kezkatu. Txirrita, Uztapide eta horrelakoak zituen gogoko. Bertso zahar asko zekien. Gai zen bertsoak bat-batean kantatzeko ere. Baina kezkatu zen oraingo bertsolaritzarekin.

Berea zuen pelota ere. Ez zen indar haundikoa, zimela eta saiataua bai ordea. Eskuzkoa utzi arren, geroxeago ere jokatzen zuen paletaz. Azkena ez bazuen, azkenenetako partidua izango zuen. Gogoan izaten zuen nolako egurra eman genien bere bi lagun mini. Ez genien bazkari garestirik kendu, baina geroxeago ere pena zuten Joxemari Aizpitartek eta Xabier Agirrek gure kontra galdu izana.

Eta bere bertsolari izaera zirikatzaile eta pelotari izaera saiatu hori nabarmendu zitzaizkion don Balentini lan eta lanbide guztietan. Batez ere, bizimodu gogorreko baserritarren ogibidea hobetzeko ahaleginetan. Baserritarra ez da arrisku zalea. Kosta egiten zaio ohituraz aldatzea. Ondo neurtuta egiten ditu pausoak. Don Balentinek, ordea, ez zuen zirikatu gabe utziko. Zirikatu, eta laguntza eskaini, jakina. Diputazioko eta Kutxako txokoak ongi ezagutzen zituenez, diru laguntzak eta kredituak lortzen lagunduko zien, kooperatibetan ekartzen, beren zerbitzuko elkarteak sortzen eta abarretan. Lan horren ispilu eta lekuko da hain ezaguna den *Lurgintza*.

Baserritarren bizimoduaren hobekuntzaz bakarrik ez zen arduratu, jakina. Baserriko umeen eskolaz, hezkuntzaz eta

etorkizunaz ere arduratu zen *Baserri Gaztedi* mugimendua sortuz eta gidatuz.

Don Balentin ez zen hizlari ospetsua, etorri haundiko hiztuna eta kontu-kontari zirikatzailea baizik. Egia, maitasuna, zuzentasuna bezalako hitz ederrak berehalaxe lotzen zizkion eguneroko bizitzari. Eta bizitza osoa baserritarren bizimodua hobetzeari eskaini bazion ere, neurri bateraino bakarrik hobetu nahi izaten zuen. Berak aurrera ateratako bati baino gehiagori kontuak eskatu ohi zizkion, bere iritziz, gehiegi irabazten edo soldata haundiegia zuelako.

Gizarteko arazokiko kezkarik ez izateak ematen zion min. Horren kezkarik ez izatea ez zien barkatzen elizgizonei eta kristauei. Batek baino gehiagok entzungo zion pasadizo hau. Esne greba egin zuten baserritarrek, 1970 aldera, beren esne guztiak Donostiako kalean isuriz. Barre egin zion, esne eta esneki faltarik gabe, bapo gosaltzen ari zen apaiz lagunak.

Jainkoa gutxiago aipatzen zuen apaizik ez omen zen. Baina Jainkoa eta gizakiaren geroa ere hizpide izan ohi zituen don Balentinek. Seguru nago, bere lagunentzat txokoren bat egiten aztarrika hasia izango da honez gero.

(1998-II-II)

JON ETXAIDE

Jon Etxaide Itharte hil zen atzo Donostian, 78 urterekin. Gizon apala, isila, tristea eta izua bezain indartsua, adoretsua eta idazle oparoa eta errukarria eta harrigarria bezain miresgarria suertatzen zitzaidan.

Euskaltzaindiko bileretan trukatu genituen hitz bakane-tatik baino gehiago bere liburu eta idatzietatik ezagutu nuen Jon Etxaide. Ikaragarritzko zirrara egin zidan, gazte samarrik, 1956 aldera, irakurri nion *Joanak joan* eleberriak. Hasi eta buka irakurri dudan horietakoa izan zen, gainera.

Inazio Mari Etxaide Lizasoain injineru eta Telefonikako zuzendari euskaltzale integristaren semea *Argia* astekariak eta *El Día* egunkariak euskaltzaletu eta abertzaletu zuten betiko. Eta gerra ondoan euskaraz idazten eta argitaratzen hasi zen lehenengoetakoa dugu. Euskararen kontrako debekuentzat zirikituak aurkiturik *Alostorrea* eta *Purra*, *purra*-rekin plazaratu zen. Ondoren, *Joanak joan* eta *Pernando Plaentxiarra* argitaratu zituen. Geroztik, etengabea izan zen bere emana: *Markesaren alaba*, *Hamasei seme Euskalerriko*, *Itxasoan laño dago*, *Gorrotoa lege*, *Begia begi truk*, *Etxahunen bertsoak gipuzkeraz* eta abar.

Ongi taxutu eta landutako eleberriak eta liburuak argitaratu izan ditu Jon Etxaidek, euskara jori, aberats, egoki eta txukunean. Argitalpen batetik bestera ere zuzenketa asko eginaz. Euskal eleberrigintzan aitzindari eta maisu izan dugu Usurbilgo Aginagako Galardi-Azpi baserrian etxeko euskara mottela zorroztu zuen donostiarra. Eta literaturarekin zerikusirik ez zuen lanetik bizitzera behartua izan zen eta bizitzeko

pozik ez zuen gizon batengan, meritua ez ezik, miraria ere bada hori.

Joseba Etxarriri garrantz aitortu zion *Deia*-ko *Eguna* gehigarrian egin zion elkarrizketan: “Ni neu beti bizitzeko gogorik eta alimorik gabeko gizona izan naiz. Sekula ez dut bizia maite izan. Bizitza kastigu izugarri bat bezala kontsideratu izan dut beti eta gorrotatu izan dut. (...) Ameslari bat izanik, delineante eta saltzaile bezala atera behar izan nuen bizia, nire denboretan ez baitzegoen euskararen lepotik bizitzerik”.

Egoera horretan horrelako lan eskergea egitea miraria ere bada. Berak aitortzen zuen bezala, kristautasunak, Jesukristorenganako sinesmenak, Euskal Herriarenganako eta Euskararenganako maitasunak egindako miraria, noski. Eskerrik asko, Jon Etxaide.

(1998-VI-30)

FEDERIKO KRUTWIG

Krutwig Sagredo Federiko hil da. Euskaltzaindiak, Euskal Herriak, euskaltzaletasunak, euskarak eta abertzaletasunak bazion zorrik 1921ean Getxon jaio zen euskaldunberri honi.

Ez nuen ikusi zaharra, bostekoa emateko adinaxe denbora besterik egin ez banuen ere elkarrekin. Geroztik, *Euskal Herritarrak*-en aurkezpen ekitaldiko argazki eta irudietan

ikusi dut. Irakurri, berriz, Aznar astinduz DEIA egunkarian idatzitako artikulua irakurri diot, berriki.

Gizon oso adeitsua izan da nirekin beti, latin eta greko apurren bat banezkielakoan edo. Nik uste, guztiekin zela adeitsua. Itxura guztien kontra, noski. Izan ere, izenak bezain bereziak zituen euskaldun batentzat Krutwigek jatorria eta izana: aita alemana; ama, berriz, veneziar jatorriko bizkaitarra. Alemanen harrokeriaz kutsatua, nonbait, arlotekeria, erdipurdikeria, artaldekeria eta “txusmakeria” gorrotatzen zituen eta gizon ikasiak, jakintsuak eta kultura haundikoak ederresten.

Hizkuntza mordoskaren jabe zen. Edozertaz zekien asko. Baita filosofia eta politikako ideologiez eta jokabideez ere: faxismoaz, marxismoaz, anarkismoaz eta abarrez. ETaren ideolgo izatera heldu zen, gainera. Berak esan ohi zuen bezala, “aita izpirituala” izatera. Baina, gorputzaren aitak ez bezala, Txillardegik ez bezala alegia, izpirituarenak bere umea uzteko askatasuna ere izan ohi zuela, kontatu ohi zuen, bortitzengandik urrundu zela adierazterakoan.

Unibertsala, europarra eta jakintsua izateak, Krutwigi ez zizkion jaio zen herrikoa izatea eta herri horren hizkuntza ikastea eragotzi. Euskara ikasi eta Azkueren lagun eta laguntzaile egin zen, Frankoren larderiak erabat itzalia zeukan Euskaltzaindia piska bat zuzpertzeko. Berehalaxe, 1943an, izendatu zuten euskaltzain oso.

Bera izan zen euskara batzearen alde gehien nabarmendu zen gerraondoko euskaltzaina. Krutwigek, ordea, ahozko hizkuntza bazterturik, Lapurdiko literatura tradizioan nahi zuen oinarritu batasuna. Hala ere, Leizarraga zuen eredurik

miretsiena. Horregatik ez zegoen batere ados euskara batuak hartu duen jitearekin. Hizkuntza landuetako hitzak, gerke-razkoak bereziki, euskararako onartzea ere, Federikori zor zaio, gehienbat.

Euskara hizkuntza landua izatea nahi zuen. Eta idatzi zuena, ez gutxi gainera, landuaren eredu izan zitekeen euskaran idazten saiatu zen. Euskara landurako eta baturako asmo, joera eta ahaleginek asko zor diote Krutwig euskaltzainari. Izan zorioneko, Federiko, hizkuntza guztiak mintzo diren erresuman.

(1998-XI-17)

FELIPE LIZASO

Gauak erdi esna eta egunak erdi lo igarotzen diren adin honetan ez da jakiten, argi eta garbi, egia edo ametsa den. Ez dakit Felipe Lizasorekin amets egin dudan edo benetan berarekin gogoratu naizen bart arratsean. Aspaldian ez dudala ikusi, aspaldian ez dudala haren berririk, eta Robertori galdetu behar diodala, ea ezer badakien, izan da nire burutapena, ametzezkoa edo zinezkoa.

Ez dut inori galdetu beharrik izan. *Deia* irakurtzen hasi orduko jakin dut berri txar eta tristea: “Felipe Lizaso Eizmendi jauna atzo hil zen, 90 urterekin, Eliza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren”.

Orion jaio eta Erreterian hazi zen Felipe oso gazterik hasi zen euskaraz idazten *El Día* eta *Euzkadi* egunkarietan eta *Argia* astekarian, *Lieizpe* eta *Muskilarri* izengoitiez. Gogotik saiatu zen Erreteriko batzokian euskara irakasten ere. Gerra galdurik, espetxean sartu zutenean ere, gogotik saiatu zen euskara lantzen eta irakasten, Ander Arzelus *Luzear* idazlearekin batera. Koldo Mitxelena lotsarik gabe aitortzen zuen hauekiko zorra, horretarako aukera zuen bakoitzean: bata aditzaren eta besteak euskara idatziaren berri eman baitzioten.

Hantxe hasi zen, *Espetxean* izeneko izkutuko aldizkarian, bere *Hitz gurutzatuak* argitaratzen ere. Geroztik asko argitaratu zituen *Zeruko Argia* eta abarretan. *Deia* egunkari honetan, berriz, milaka. Eta denak, musu truk.

Bere kazetari lanengatik Andoaingo udalak omendu zuen, *Rikardo Arregi Kazetari Saria* banatzeko ekitaldian, 1997an. Horretaz gainera, arrain hiztegiarik eta antzerkiarik ere ondu zuen Orion jaiotako erreteriarrik: *Itzalpean sendotasuna*.

Felipe Lizaso euskaraz bizi zen: gutunak, alderdiko txostenak, ebazpenak, bilerak, dena, euskaraz egiten zuen. Buruzagiren bat hasten bazen erdaraz “Felipe Lizasoren baimenarekin”, laster erantzungo zion: “ez duzu Feliperen baimenik”.

Baina euskara ez zen Feliperentzat gordeleku bat, ihes-pide bat. Oso gazterik egin zen EAJko kide. Eta demokrazia, askatasuna eta Euskadi aldeztu behar zirenean ere aitzakiarik gabe hartu zituen armak. *Itxarkundia* gudarosteko komandante erantzukizunari ere ez zion ukorik egin. Ondorengo saria: espetxea, heriotz-zigorra eta urtetako atzerrialdia.

Berak esan ohi zuen bezain irmo eta ozen egin nahi nuke oihu gaur Feliperen omenez eta esker onez: “Gora Euskadi askatuta”.

(1999-I-18)

IÑAKI EIZMENDI BASARRI

Paper zaharrak arakatzen ari nintzela, Basarri bertsolariaren argazki batekin egin nuen topo herenegun: Jon Lopategiri 1989ko Txapelketa Nagusian txapela jantzi eta bertsoa kantatzen ari da Basarri. “Honezkero ez diagu denbora askorako” pentsatu nuen nirekiko. Eta 24 ordu baino lehen eman didate berri tristea: “hil da Basarri”.

Geroztik, hamar urteotan kantatu zuen, han edo hemen, bertsoaren bat edo beste. Txarrik batere ez, ez lehen eta ez gero. Txapelketakoa 62an galdu bazuen ere, bizitza osoan eutsi baitzion buruan txapelari, itzalari eta ospari.

“Garai guztietako bertsolaririk onena” aitortu zion Sebastian Lizasok txapela irabazi zuenean. Norbaiten omenaldia edo zerbaiten ospakizuna zenean, hitzaldia egiteko ohitura zuen Basarrik. Hitzegiten hasi orduko isiltzen zen jendea. Amuriza txapeldun berriari hala esan zion Joxe Lizasok: “Kostako zak bizitza osoan honek bezala txapelari eta itzalari eusten”. Txapela, jakina, ez du edonork irabazten. Baina herriz herri, saioz sasio, txapeldunari dagokion mailari are gutxiagok eus-

ten. Belodromoan, orain hamar urte, Lopategiri txapela jantzi zionean ere ederki eutsi zion errezildarrak.

*Ekarri naute garaileari
txapel eder bat jaztera,
betsolariok jarrai gogotsu
herri batetik bestera,
gure lurrean guk ez daukagu
zertan egon buruz bera,
une honetan aitor dezagun
bagera edo ez gera,
bertsolaritza bizi dan arte
biziko baita euskera.*

Egokia zen hizketan, kontu-kontari, hizlaur nahiz bertsoz hitzaldiak mamitzen, bertsoa moldatzen eta kantatzen. Egunkarietan idazten, irratieta hitzegiten edo plazetan kantatzen zuenean ez zen badaezpada jarduten: “bagera edo ez gera”.

Hor ditugu lekuko egunkari eta aldizkarietan idatzitako lanak. Hor, bere liburuak: *Atano III, bere edestia bertsoan, Basarriren bertso sorta, Kantari nator, Laugarren txinpartak, Sortu zaizkidanak, Kezka-giroan, Bertsolaritzari buruz, Nere Bordatxotik* eta abar.

Hamaika hitzaspertu eginak gara biok Donostiako Oken-do kalean, *Zeruko Argia* astekariaren bulegoan, astero etortzen baitzen bere lana ekartzera. Sekulan ez zait ahaztuko bere diosala: “Jainkoak eta Basarrik egunon”. Izan dezazula zeuk ere, Basarri, gure eskerrik beroenaz batera betiko Egunon.

(1999-XI-5)

MANUEL MATXAIN

Manuel Matxain lagun zaharra joan zaigu, 83 urterekin. Donostia aldean ezagunik bazen Manuel zen. Lantoki bateko mandataria, edozein kale ertzetan egingo zenuen topo aietear argi, alai, hiztun eta baketsu honekin. Lagunartea, bertsoa eta herri kirolak biziro maite zituen. Are eta biziroago, adiskidetasuna eta bakea.

Zeruko Argia astekarian lan egiten nuenean ezagutu nuen, batez ere. Behar bezala bere lana eskertu ez zaion Iñaki Ugarteburu bisitatzera etorri ohi zen, umoretsu eta alai. Frankisten kontrarioa, euskaltzale eta abertzale fina, txarkeriarik eta gorrotorik gabeko gizona, hamaika hitzaspertu egin genuen elkarrekin.

Tokan eta bolan zen txapeldun. Etxea bete kopa, oroigarri eta txapel bazuen irabazirik. Txapeldun zelako japoniara ere joan zen herri-joko horiek erakustera.

Iñaki Eizmendi *Basarri* zenaren lagun handia, bertsoak paperean jartzen berandu samar hasi bazen ere, erraxtasun handia zuen bat-batean kantatzeko. Erdaraz ere euskaraz bezalaxe kantatu ohi zituen, ongi neurtuak eta errimatuak. Bakarra zela, uste dut, horretan.

Xenpelar Bertso-paperak Saria Euskaltzaindia antolatzen hasi zenean ekin zion bertsoak idazteari, apustu bat medio. Apustu hori irabazteko aurkeztu zituen 1963an “Arantzazuko Amari jarriak”. Geroztik, ia urtero aurkeztu ohi zituen. 1966an eta 1968an lehen saria irabazi zuen Salvatore Mitxelenari eta Che Guevarari jarritako bertsoekin. 1969an eta 1970ean,

berriz, bigarren sariaren jabe egin zen. 1973an ere, bigarrenaren jabe, Segundo Kalonjerekin batera.

Manuel Matxainek, ordea, ez zituen sariketarako bakarrik bertsoak paratzen. Pilpilean zegoen edozein gai astintzen zuen bertsoan: erlijiozkoak, euskararen ingurukoak, bakearen aldekoak, gizarteko auzi-mauziak eta abar. Eritegietan ere askotan egon behar izan duenez, hango erizain eta medikuak ere ez dira eskerroneko bertsoak gabe geratu.

Azken urteotan izkutatu samarra genuen gizartetik. Baina atzoko hiletan erakutsi genion ez genuela erabat ahaztua. Aieteko eliza txikiegia da horrelako gizonentzat, nahiz eta lagun asko aurretik joanak izan.

Mezak euskaraz ematen hasi zirenean egin zuen ametsa eta kantatu zuen bertsoa egia gerta bekio: “Bart arratseko amets eder bat ez det barruan gordeko,/ aingeru batek esan dit neri bere berri emateko./ Gure hizkuntza berdingabe hau nola ez degu maiteko,/ zeruan ere agindu dute euskeraz hitzegiteko”.

(1999-XII-20)

XALBADOR ZAPIRAIN ATAÑO

Ataño kaputxino idazlea eta zapiraindarren azken habea galdu dugu. 87 urteko bizitza harrigarria izan badu ere, erregearen amaren sonarik gabe joan zaigu, noski, Hondrrabiko komentuan.

Joxe eta Joan Kruz bertsolari haundien seme eta iloba zen Xalbador Zapirain *Ataño* errenteriarra. *Zapirain anaiak* izeneko liburuan argitaratu zituen Antonio Zabalak haien bertso asko. Joan Kruzek, gainera, Manuel Lekuonak eta Joxemiel Barandiaranek ikertu zuten *Santa Jenobebaren bizitza* idatzi zuen bertsotan.

Bederatzi seme izan zituen Joxe Zapirainek, nahiz eta oso gazterik alargundu. Seigarrena zen Xalbador. Auzoko andreak Donostiatik noiz itzuliko zain egoten ziren txikienak, bidegurutzean, bularra nork emango. Egoera larri horretan hazitako mutilak gerrak harrapatu zituen, bete-betea. Bi seme hil ziren gerran, beste bat laneko istripuz. Ataño bera ere, espetzez espetze ibili zuten: Ondarreta, San Kristobal, Urduña.

Ataño, apaizgai izana, gerra ondoko urte goibel haietan, jota utzi zuen harrobiko leherketak hil zuen anaiaren heriotzak. Eta bake eta zorion bila frantziskotarretara biltzea erabaki zuen. Baina, halabeharrez, kaputxinoen komentuan jo zuen atea Donostiako Okendo kalean, Atotxako frantziskotarretan jotzeko orde. “Gu ere San Frantziskoren semeak gara” argitu zizkion begiak fraile bizardunak Arantzazukoen ordenakoa izan nahi zuen gazteari. Eta San Frantziskoren semeen artean izandako haserre, ñabardura eta txatxukeriei begiratu gabe, kaputxino

bizardunen zerbitzuan geratu zen bizitza guztirako. Hainbeste zatiketa dugunontzat ez da ispilu txarra gure Ataña.

Ez zen garai ederrean fraile sartu, noski, komentuetako bakea ere gogor astindu baitzuen gerrateak, kaputxinoenak ez gutxien. Hala ere, hortxe aurkitu zituen Atañok bere barruko bakea eta euskaltasuna ere.

Zeruko Argia astekarian eta Basarriren *Bordatxo* sailean hasi zen Ataña bertsoak argitaratzen. Eta laster inguratu zitzaion Antonio Zabala, Hondarrabiko komentuan zeukan altxorraz jabeturik. Ez zen esku hutsik etxera itzuli, ordurako idatzia baitzeukan *Txantxangorri kantaria*, Joxe Zapirain aitaren bizitza harrigarriaz.

Geroztik etengabea izan da Atañoren emana, baratzerako girorik edo argirik ez zenean idazteari ekiten baitzion. *Txori*, *Espetxeko negarrak*, *Zigorpean*, *Eltzaorra*, *Odol-kutsua* eta abar izan dira Xalbador Zapirainen fruitu umotuak. Har bitza gure agur beroa eta esker ona.

(2000-I-4)

JESUS LETE IBAI-ERTZ

Hizjario haundikoa bazen ere, isildu da betiko Jesus Lete Sarasola *Ibai-ertz* bertsolari, bertsojartzaile, idazle eta berriketaria. Oinetatik elbarria, mihian herdoirik gabea, bere ingurura biltzen zitzaionari ez ezik, kontu, galdera eta ziri, berehalakoan alde egiten utziko. Atzo egin zitzaizkion hiletak Itsasondoko elizan.

Kalean, Herriko Etxean, 1921ean jaioa, zazpi urterekin bertsolariei entzuteko aukera izan zuen, 1936ko Aberri Egunean. Hain zuzen, Zepai, Txapel eta Artxanberriri entzuteko abagunea. Hurrengo egunean baita gogotik saiatu ere bere gisa bertsoak osatzen.

Geroztik, bertsoa non, Jesus Lete han, Mari Karmen emaztea lagun: txapelketetan kantatzen, gaiak jartzen, epaimahaian, omenaldietan, bertsoak jartzen eta abarretan.

Xenpelar Bertso-paper Saria irabazi zuen behin baino gehiagotan. Euskaltzaindiak, 1962an, antolatu zuen lehenengo urtean, lehen saria irabazi zuen *Pepitari* eskainitako bertsoekin. Ondorengoetan, behin eta berriz, irabazi zituen bigarren eta hirugarren sariak. *Zeruko Argia* astekarian eta Basarri zenaren *Bordatxotik* sailean argitaratu ohi zituen *Zurrutari*, *Astoari* eta abarri jarritako bertsoak.

Txapelketak antolatzen, gai jartzen, bertsoak idazten, epaimahaian eta abarretan egin zuen lanagatik 1994ko Bertsolari Egunean omendu zuen Bertsolari Elkarteak, beste bertso-jartzaile batzuekin batera.

Baina hitz lauz ere badu hamaika kontu idatzirik, Txomin Garmendia, Manuel Lasarte, Inozentzio Olea eta abarren ondoan. *Horrela ziran gauzak* liburuan argitaratu zizkion Aita Zabalak *Auspoa* sortan.

Irratian ere sumatu izan dut behin baino gehiagotan kontu-kontari. Jai haundi baterako gorderik zeukan oparituko botila Coñac hobetu edo txartu zitzaion jakin nahi zuen, azkena entzun nion solasaldian. Agian, probatzeko astirik gabe joana izango da.

Ez dakit beste munduan mintzorik baden edo ez, baina honezkero kontu bat baino gehiago kontatu die Lazkao-Txiki, Basarri, Uztapide, Manuel Matxain, Gabiria eta bere lagun zaharrei. Bakarren bati adar-jotzeren bat ere egingo zion, noski.

Urte zailetan euskara eta bertsolaritza bultzatzen saiatu zen Jesus Letek izan dezala lagun zaharrek inozentzia gozatzeko grazia. Eta har beza hemengoon esker ona.

(2000-I-20)

ASINTXIO ELUSTONDO

Ostegun Santuz joan zaigu, bat-batean, Axintxio Elustondo apaiza. Ibarra, Donostiako Santa Maria, Eibar, Usurbil eta Zumaia izan ditu bere ardurapean. Baina zerbitzari leial zenez, herri askotan egin zituen hitzaldiak.

Maitagarria benetan, agur beroa egin zitzaion Zumaiaiko elizan Egun Haundirarte.

Hamaika afalondo gozo igaroa naiz Axintxio Elustondo-
rekin, ni apopillo nengoen nagusi-etxeoandreen etxean egiten
baitzituen otorduak, Usurbilgo erretore zenean. Argia, asko-
jakina, kontuesalea, alaia, ona eta laguntzailea zen Asintxio.
Zenbat kontu, ipuin, bertso, solas, irizpide eta aholku jator eta
baikor Gillermoren eta Joanitaren sukaldean!

Zumaiako erretore izan da azken hamasei urteotan. Ibilian
ibilian, Artadi, Oikia eta Aizarnazabalgo parroketako ardura
ere bere gain jarri zion gotzainak. Elizako lan ugarietz gainera,
euskaraz idazteko denborarik ere ateratzen zuen, ordea. Bere
sorterri zen Bidaniako eta erretore zegoen Usurbilgo historiak
argitaratu zituen *Gaztedi Berria* liburuaz geroztik. Eta liburu
batean berrargitaratzea mereziko luketen artikulua asko idatzi
zituen egunkarietan ere.

Lagun horrek alde egin digu, usterik gutxienean, adiorik
ere esan gabe. Hutsune haundi bat utzi digu Asintxiok lagu-
noi. Baina seguru gaude zerua ere ederragoa eta alaiagoa dela
hemendik aurrera. “Etxe onak aldaba ona behar dik” erantzun
ohi zuen sudur kontuak aipatzen zitzaizkionean. Zalantzarik
gabe, aldaba on bat dugu zeruan Asintxioren lagunok.

(2000-IV-30)

MARIA ARIZMENDI

Maria Arizmendi Isasa zen. Baina *Maria Kaxeta* deitzen zioten Urnietan. Trenbideko pasabidearen ondoan zen kaxetan bizituak baitziren bere aitona-amonak. Horregatik deitzen zitzaion *Maria Kaxeta*. Eta *Kaxetakoak* ziren, jakina, beste senide guztiak ere.

Sei senide ziren. Maria, bosgarrena. Espaloian kontu-kontari zegoela auto batek jo ez balu, ehun urtera aise iritsi zitekeen 92 urteko emakume gordin, lirain, argia. Eta Maria Arizmendirekin batera Urnietako XX mendeko artxibo bizi bat galdu dugu. Eta eredu bat. Eta ekintzaile haundi bat. Baina hor geratuko dira urnietarren oroitzapenean Mariaren nortasuna, umorea eta lanak, Hor, Mariak herriaren nortasunari eta euskaltasunari eman diona. Asko eman baitio.

Aurrekoengatik *Kaxeta* izenez ezagutzen genuen Idiazabal kaleko eta kamio ondoko etxe hartan neska askok ikasi zuten josten Mariarekin. Eta zenbat kontu, ixtorio, ipuin eta kantut! Kontalaria aparta ezezik, kantaria ere aparta baitzen Maria. Jarraitu ere horrelaxe jarraitu du hil arte, etengabe, elizan, zaharren ibilaldietan, lagunarteko jardunetan eta abarretan.

Oso gaztetatik abertzale eta euskaltzale, euskararen inguruko ekitaldi guztietan hartzen zuen parte; *Egape* ikastolaren sorreran bezalaxe, beste edozertan ere. Baina antzerkigintzan egin zuen lan eskerga da, agian, herritik kanpora ezagunena. Donostiako Kurasaaleko *Saski-Naski* aretoan ere eskaini ohi zituzten beren antzerkiak gerra aurrean. Ondoren, zigorrik ere jasan zuen, jakina. Baina giroa zerbait baretu orduko heldu

zion Mariak berriro antzerkigintzari. Gerora ezaguna suertatu zen *Egi-bila* antzerki talde hura.

Bere lan horrengatik Azpeitiko Antzerki Topaketetan omendu zuten 1994an, Ondarroako Miren Nekane Arri-zabalaga eta Donapauleko Janamari Malharinekin batera. Urnietako udalak ere urte horretan egin zion gorazarre. Baina omenaldirik beroen eta hunkigarriena asteartean egin genion berak hainbeste maite zuen elizan. Urnietan luzaroan izango da gogoan Maria Arizmendi.

(2001-VIII-19)

ELI ETXEBERRIA

Elias Etxeberria Otaola zenari, ETAk Bilbo birrin zezakeen egun berean, egin zitzaizkion hiletak Tolosan. ETA prest baitago frankistek Gernikan egin zuten berbera Bilbon egiteko. Alde ederra dago, geratzen ziren herritarrek hondamendia nozi ez zezaten, gerra bizian ere, zubiak, industriak eta abar zutik uzten saiatu ziren jeltzale haien jokabidearen ondoan. ETA ez izaki, inolaz ere, EAJren umea!

Eli Etxeberria maisu karrera amaitu bezain azkar etorri zen Zegamatik Donostiara, Migel Muñoak, 1914an, eraiki zuen ikastolara, dena euskaraz irakasten zen lehen euskal eskolara. Eli Etxeberria heldu zenerako, adin bereko Elbira Zipitriarekin bateratsu heldu ere, bazituen Muñoak bere diruz mantentzen zuen Koruko Andre Mariaren Ikastetxean berrehun bat ikasle.

1928tik aurrera, helduentzat gau-eskolak ere ematen zituen, gainera. Eusko Ikaskuntzako jendearentzat ere ikastola hori zen eredu. Horko arrakastak bultzatu zituen elebitasunari buruzko ikerketak eta herrietan eta auzoetan euskal eskolak zabaltzeko ahaleginak. Eli Etxeberria bera Hezkuntza batzordeko kide bilakatu baitzen.

Baina, belaunaldi hartako beste gazte askok bezalaxe, Elik ere, bere eginbidea hezkuntzara bakarrik mugatu gabe, politikagintzari ere heldu zion. Berehalaxe dugu GBBko kide. 1936ko trantze larri hartan, gainera, gerra zeren alde eta noren kontra egin erabaki behar izan zuen. Jakina, demokraziaren, Errepublikaren, askatasunaren eta Euskadiren alde eta faxismoaren kontra egitea erabaki zuen.

Ondorioz, frankisten erasori ihesi, iparraldean babestu zen. Eta hemendik joandako neska-mutikoen ardua izan zuen. Hegoaldera itzulitakoan, berriz, azpilanean jarraitu zuen Juan Ajuriagerrarekin batera, atxiloketa baten arriskuz berriro iparraldera ihes egin behar izan bazuen ere.

Orain gutxi, Gipuzkoako Diputazioak egin zion omen, lehen andereñoekin batera. Euskarazko irakaskuntzak eta euskarak egin duten aurrerabidearekin pozik agertu zen omenaldi hartan ikastolako lehen maisua. Agur eta zorion, beraz, Eli, esker onez.

JESUS MARI ALKAIN

Jesus Mari Alkainen izaera bi hitzetan adierazi beharko banu bi hitz hauek erabiliko nituzke: zuzena eta zintzoa. Bazituen, jakina, dohain gehiago ere: langilea, euskaltzalea, abertzalea, kristaua, adeitsua, hitzekoa eta gizabide eta itzal haundikoa. Baina jokabide horiek guztiak bere zuzentasunean eta zintzotasunean oinarrituta zeuden, nik uste.

Iritzi eta sentimendu sendoetako gizona, aldi berean, besteren pentsaera, sentimendu eta jokabideekiko errespetu haundikoa. Neuk ikusia. Oiartzunen zen. Gipuzkoako Bartzar nagusien bilera zen udaletxean. Demokraziaren joko eta arauetara ohitu gabeak geunden. EEko juntero batek idatzi bat irakurri nahi zuen. Jeltzale batek eragotzi egin nahi zion, egun hartako egitarauari ez omen zegokiolako. Alkainek hitza eskatu zuen. “Ez nago nire alderdikidearekin ados. EEk eskubide osoa du nahi duena irakurtzeko. Irakurritakoan ikusiko dugu onartu ala arbuiatu behar dugun”. Hor ikusten da Alkainen demokrazia sena, besteren iritzi eta eskubideekiko errespetua. Bere hiletetara azaldu zen era guztietako jendetza da horren lekuko eta isla.

Ekintzailea zen Jesus Mari. “Luistarrak” hitza arrotza zaie gaurko gazteei. Baina dena debekaturik zegoen gerra ondo hartan, elizatik kanpora ere, mutil gazteetan eragin haundia zuen elkartearen: kirolak, hitzaldiak, helduen eskolak eta abar. Eta hantxe jardun zuen Alkain gazteak, buru-belarri.

Baserritarren esnari etekin hobea eta erosoagoa ateratzeko “Gurelesa” sortu zenean ere, Jesus Mari Alkain enpresa

gizonaren beharra izan zuten hura bideratzeko eta aurrera egiteko.

Franco hil zenean, harritzekoa al zen Eusko Alderdi Jeltzaleak Alkainengana jotzea Donostiako alkatetzarako? Iraultza gorrian geunden. Felix Soto nahi zuten alkate HBk eta Onaindiaren EEk, elkaturik. Ez ziren urte gozoak. Kanean ezezik, udal batzarretan ere, bazen istilurik, irainik eta mehatxurik. Esperantza adina beldur, premiak haundi, dirua urri, itsaso zakar hartan kapitain zintzo izan zen Alkaini agur eta ohore, esker onez.

SERAFIN ESNAOLA

Don Serafin esanda, dena esan da. Esnaola Bidaurreta abizenak ipinita inor gutxiri gehituko genioke Trintxerpeko eta Bergarako apaizarekiko ezaupidea. Apaiz egin berria, Trintxerpera ekarri zuten, gerra ondo latzean, aita mediku eta ama maistra zigorturik eta urrundurik zituen don Serafin. Espainiako 400 herritatik etorritako 4.000 biztanleko auzo hark ez zuen biziro fama ona. CNT zen indartsu. Gainera, Felipe Goena Pasai San Pedroko erretorea hil zuten. Baina ordainak ere ez ziren berriketakoak izan. Etxe gehienetan bazen fusilaturen bat, espetxeraturen bat, atzerriraturen bat, zigorturen bat.

Jende pila mindu hori maitatu, elkartu eta herri bihurtu zuen don Serafinek, katekesia, elizkizun, musika, txistulari,

dantzari, antzerki, zine, pelota eta futbol txapelketa, eliz mugimendu eta abarren bidez. Eliza ere eraiki zuen. Eta, parrokia bihurturik, alkatearen eta gobernadorearen eragozpenagatik, gotzainak bertako erretore izendatu ez zuelako, asaldatu egin ziren trintxerpetarrak. Asaldapen harengatik eliza itxi eta 50 kilometrotara urrun arazi zuen Bereziartua gotzainak.

Lehen maitea bazen, are eta maiteago bihurtu zen beren apaiza. Ikustekoa zen handik 25 urtera egin zioten omenaldia. Don Serafinentzat ere halaxe suertatu zen Trintxerpe. Liburu bat idatzi zuen jubilatutakoan, 1997an, trintxerpetarrei dago-kien fama ona itzultzeko.

Hainbeste maite zuen eta hainbeste maite zuten Trintxerpetik Bergarako San Antonio auzora zigortu zuen gotzainak. Hor ere berehalaxe egin zen bertako, katekesia, mendizaleak, danborrada edo festak zirela. Ospakizun guztietan hartzen zuen parte. Maitatu zituen eta maitatu zuten. Nolako ongi etorri egiten zioten bergarrek topo egindakoa!

Baina nolatan hain ezaguna bi herri horietatik kanpora ere? Azpilanean ziharduten euskaltzale, sindikalista eta politikoeekin harreman haundiak zituen apaiz euskaltzale eta abertzale kezkatia zelako. Giza eskubideak eta askatasun oro zapaltzen zituen frankismoaren kontra ziharduen. Eta horren babes zen Elizak herritarrengan eta kristauengan sortzen zuen eskantaluaren kontra. Diktadorearen eta haren zerbitzuko Elizaren kontrako ekinbidearen buru eta eragileetako zen. 1960an 339 apaizek egindako salaketa hartan eta aurreko eta ondoko beste askotan gogor saiatu zen don Serafin.

Eta paper guztiak jasotzen zituenez, 75 urterekin ordenadorea erosi eta idazteari ekin zion. Gaurko gazteek ezagutzen ez duten historia bat eskaini nahi izan zigun. Eta hor ditugu *El clero vasco en la clandestinidad. 1940-1968* eta *Trintxerpe. El Cierre de una Iglesia*. Historialariren batek arakatu eta ikertu nahi baditu, berriz, Lazkaoko beneditarretan utzi zituen paper guztiak.

Giza eskubideekin eta Euskal Herriarekin arduratu zen eta galtzaile eta kaltetuekin bat egin zuen apaiz zuzen, zintzo, burrukari eta argia izan da don Serafin. Horregatik eskaini zitzaion *Sabino Arana Saria*. Gaur ere merezitako omenaldia egingo zaio Amarako Errosario parrokiako hiletan. Agur eta ohore, don Serafin.

(2002-XI-5)

JOSE MARI SATRUSTEGI

Euskaltzaindiko bileretan ezagutu nuen. Hitzaldirik ere entzun nion, han eta hemen. Ezagutu nuen Urdiaingo bere sukalde goxoko harrera beroa. Dastatua naiz Arruazuko bere etxean mokadu eta edari goxorik. Erakutsiak dizkit handik eta hemendik bildutako artelanak eta bere liburutegi zoragarria. Oparitu ere egin dizkit liburu bat baino gehiago.

Lan eske joan ohi nintzaion gehienetan: Olentzero, Egu-berri, Urteberri, Santa Ageda bezalako ohiturei buruz. Azken

aldi honetan, ordea, *Bidegileak* bildumarako eskatzen nizkion. Bereak dira *Frantzisko Aizkibel*, *Alexander Tapia*, *Perpetua Saragueta* eta *Jose Agerre*. Idatzirik utzi dizkit 2003rako *Norbert Tauer* eta *Aita Murieta*. Gaixotu baino bi egun lehenago hitzegin nuen telefonoz, Jose Mari Jimeno Jurio artaxoarrari buruzkoa egin zezan eskatzeko. Lan hau ere gogotsu hartu zidan, bada.

Eskuartean zituen lan batzuk bukatzeko astirik gabe joan zaigu, zoritxarrez. Baina utzi digun altxorra ere ez da nolana-hikoa: 24 liburu, mila bat artikulu, ezin kontahala hitzaldi. Batek baino gehiagok eskertuko dio bere euskarazko izena ere, bere *Euskal Izendegia* liburuskari esker jarri baitzioten gurasoek. Hor daude bere eraginez sortu diren *Fontes Linguae Vasconum*, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*. *Principe de Viana* aldizkaria eta abar.

Urte zailetan Aingeru Irigarai, Pedro Diez de Ulzurrun, Migel Urmeneta eta abarrekin lan egiten eta Nafarroako erakundeez baliatzen jakin zuen. Gezurra badirudi ere, oraingo agintarietan baina harrera hobea aurkitu zuen, agian. Satrustegik zubi izaten jakin du lehengo eta oraingo euskaltzaleen artean, erakundeen eta herri ekimenen artean. Bere itzalaz eta Euskaltzaindiaren babesaz baliaturik, noski.

Gizon ezaguna Euskal Herri osoan eta Nafarroako euskararen azken berrogeita hamar urteotako historian oso garrantzitsua izan da Jose Mari Satrustegi. Euskal ohiturak, ipuinak, pentsaera, jokabideak eta abar ikertu ditu. Euskara, ikastolak, euskaduntze-alfabetatzea, euskalgintza eta beste bultzatu ditu. Bortizkeria, bidegabekeriak, euskararen eta

euskaldunon kontrako erasoak salatu ditu. Giza eskubideen, askatasunaren, bakearen eta demokraziaren alde nabarmendu da. Eta, jakina, apaiz lanak egin ditu zintzo eta arretaz beti. Beste lanen gainetik baitzeukan apaiz eginkizuna.

Gogoan izango ditugu beti, eskerronez, Joxe Mari Satrustegi eta beren lan oparoa.

(2003-III-28)

ETIENNE SALABERRI

Sabino Arana hil zen urte berean, 1903an, jaio zen Etienne Salaberri. Euskaldun hazi zen Heletan, abandoarraren eta abertzaletasunaren berririk gabe. Frantses hezi zuten eskolan. Hizkuntza, kultura, literatura, historia eta nazio frantsesak irakatsi zizkioten. Etiennek baita ikasi, bere-bereak egin eta maitatu ere. Hain zuzen, Frantziaren alde eta alemanen kontra gerran zebilela jabetu zen euskaldun zela. Hala aitortzen du berak: “Gerla aintzinean ez nakien Euskalduna nintzala. Euskal Herriari zorretan nere izaitearen itxura bereziaz”.

Eta gerrak eta presondegiak irakatsi diote Salaberri apaiz eta filosofiako irakasleari, Europak duen batasun beharra. “Esperantza europeanoa da” aldarrikatzen du. Euskal Herriaren etorkizuna ezezik, munduko bakea ere, batasun horretan begitantzen du: “Europako batasunak ditu elkarretaratuko Rusia eta Amerika”.

Iparraldeko gazte askorengan du eragina Salaberriren filosofiak eta pentsamend politikoak. Hala aitortzen dio J. L. Davant ikasle euskaltzainak: “Niretzat ez da dudarik: XX. mendeko euskaldun handienetatik izan da, ekintzaren bultzatzaile bizkorra Iparraldean belaunaldi oso batez. Etor-kizun hobe bati itzulia, pentsakeraren brankan ari izan da beti adi-adi, lau haizeetara begira: ‘kapitaina, kontuz eskuinetik, kasu ezkerretik, jo aitzina’. Halaber egitera bultzatu nahi gaitu. Haren mezua baliagarri zait oraino, alor batzuetan profeta batena baita. Bai, gizon eta kristau handia, politiko bikaina ere zentzu hoberenean. Horren mailako hautetsirik ez dugu eduki mende honetan Iparraldean.

Merezi du eta, urrian egingo zaio omen Heletan. Horretarako “Egan” aldizkariak ale berezia eskaini dio Davant, Pako Sudupe eta Joxe Azurmendiren lanekin. Pako Sudupek Salaberriren artikuluekin paratutako liburua ere argitaratu du. Baita helatarraren pentsamenduaz Azurmendik egindakoa ere, “Bidegileak” bildumak eskaini dio berea.

(2003)

SABINO ARANA

Sabino Arana hil zela ehun urte datorren igandean beteko dira. Hala ere, ez da oraindik itzali haren kontrako eta aldeko sua. Jarraitzaileek dioten maitasunak ezezik etsaiek dioten gorrotoak berak ere norbait handia izan zela adierazten du. Etsaiek, jakina, abandoarraren arrazakeria dute aitzakitzat, haren garaiko espainolena eta frantsesena berdina edo handiagoa ez balitz bezala.

Baina Euskal Herriari eta euskarari egiten dien aitortpena eta biziberritzeko eskaintzen dizkien ekinbide eta egitasmoak gertatzen zaizkie mingarri. Izan ere, Sabino Arana ez zuten bere arrazakeriagatik espetxeratu. Ez zizkioten bere aldizkariak eta bere batzokia horregatik itxi, ezta Bilboko bere zinegotziak ere horregatik kargugabetu. Haren ekinbide eta ekitasmo politikoak eta kulturalak herritarrengan hezurmamitzen eta indartzen ari zirelako baizik.

Orain ere, horregatik erasotzen dute abertzaletasuna, herrigintzan eta euskalgintzan duen eraginagatik. Amesten eta bultzatzen duten gartzelaniazko Estatu uniformearentzat eragozpen delako, hain zuzen.

Sabino Arana ez da ameslari eroa. Euskal lurralde bakoitzak duen nortasunaz eta historiaz jabeturik konfederakuntzaz mintzo da. Hauteskundeetara aurkezten. Hitzarmenak egiten ditu beste alderdiekin. Ez da Euskal Herriaren burujabetzaz bakarrik arduratzen. Euskal historian, euskal kulturen eta euskal hizkuntzan oinarritzen du bere ekinbide politikoa. Ez da euskal kultura eta hizkuntza arrotz zaizkion abertzalea. Eus-

kara ikasi eta landu egiten du. Euskara arlo eta garai berrietara egokitu eta gizarteratzeko burubideak eskaintzen ditu. Hego eta iparreko euskaltzaleekin ditu harremanak.

Edozein abertzalek eta abertzaleen buru eta gidarik oso gogoan izan beharko lukeen alderdi hori aztertzeko hitzaldiak antolatu dituzte Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Kultur Elkargoak datorren ostegunerako. Beharrezkoa zen horrelako gogoeta.

(2003-XI-24)

AUGUSTIN ZUBIKARAI

Beste asko bezala, euskararen bolondresa izan da Augustin Zubikarai. Euskara ez baita ogibide izan ia oraintsu arte. Are okerrago, zigorbide, Zubikarai bezalako askorentzat.

Euskarak ez duela erasorik izan ukatzen digute lotsagaldu batzuek. Euskara bakarrik ez zen eskoletan eta hedabideetan debekatua izan, euskarazko lanbideak ere zigortuak eta eragotziak izan baitziren. Funtzionario, irakasle eta kazetari asko, baita bestelako lanbideetan ere, lanik gabe geratu zen. Zubikarai eta bere belaunaldia lekuko. Gerra aurrekoetan Iñaki Eizmendi *Basarri* bakarrik izango da kazetaritzatik bizi izan zen bakarra. Atzerria eta espetxea jasan ondoren, beste lanbideren bati heldu behar izan zioten.

Ez da kalte bakarra, noski. Ondorengook ere hutsetik abiatu behar izan baikenuen aurrekoen lana ezagutzeko aukerarik izan ez genuelako. Ezeri eta inori ez zitzaion, jakina, egindako kalterik ordaindu. Erasotzailea nor, hala gaitzesten edo saritzen baitira erasotuak hemen.

Hala ere, Zubikaraik ez zuen etsi, ez zuen gizatasunik, umorerik eta euskaltzaletasunik galdu. Eta, bulegoko lanaldia-
ren ondoren, euskaraz idazten eta euskaltzaletasuna zabaltzen jarraitu zuen. XX. mendean argitaratu ziren euskal aldizkari, astekari eta egunkari guztietan eta euskarazko orriak eta emanaldiak zituzten egunkari eta irrati gehienetan idatzi eta hitz egin du Augustinek. Bolondres, beti. Kazetaritzaz gainera, ipuinak, eleberriak, olerkiak, antzerkiak, bertsoak, historiak eta abar idatzi ditu, irabazpiderik gabeko euskalgintzan.

Zubikaraik ez zien herriaren aldeko eginkizun politikoei ere muzinik egin. Ez herriko zinegotzitzari ez Batzar Nagusietako karguari eta ez herriko beste ekinbideei.

Errexago etsitzen eta zapuzten garenontzat eta dirurik gabe ezer gutxi egiten den gizarte honetarako eredu da Zubikarai. Euskaratik bizi den asko da gaur egun, zorionez, tamalgarrria bada ere euskaratik bizi diren batzuk euskaraz ez bizitzea. Euskara lanbide eta bizibide bihurtu den garai honetan ere beharrezkoak dira, ordea, zaletasun eta borondate hutsez euskalgintzan dihardutenak. Eta hara Zubikarai, bolondres lanetan, gure maisu eta eredu.

(2004-VII-13)

MARTIN UGALDE

Martin Ugaldere aditzera izan nuenerako, biok auzo herrikoak izan arren, andoaindarrak bazituen 40 urte eta urnietar honek banituen 29. Hain zuzen, *Iltzalleak* argitaratu zuenean entzun nuen haren izena lehendabizikoz. Norbait oso ospetsua bailitzan entzun ere. Hark Venezuelen argitaratutako liburuak eta ezkutuko aldizkarietan idatzitako artikulak diktaduraren sare zabal zulo estukoan trabatuta geratzen baitziren, usoak Etxalarko sareetan baino areago.

Handik hamar bat urtera egin nuen topo *Zeruko Argia* astekarian. Venezuelako bizimodu eroso eta ospetsua utzi eta Euskadiko bizimodu zailera etorri zen, 1969an, 48 urterekin, bere emazte eta seme-alaba gaxte samarrekin. Bere guraso eta senideekin elkartzeko Caracasera joan zenak hantxe utzi zituen bere aita eta anaia, sortu zituen seme-alabak euskaldun hazitzea nahi zuelako eta Euskal Herriari eta euskarari bere onenak eman nahi zizkielako.

Ezagunak dira Martin Ugaldere liburuak eta idatziak, lanak eta karguak. Kazetari eta idazle euskaldun, euskaltzale eta abertzalea izan da Martin. Alderdigintzari eta alderdi bateko eginkizunei muzinik egin ez zien idazlea, alderdikide izateak alderdikieriaz jokatzera behartu ez zuen politikoa eta gerrak, diktadurak eta atzerriak zazpuztu eta etsi ez zuten gizona, gainera.

Baina nik Martin Ugaldere alderdi bat bakarrik azpimarratu nahi nuke: zubigintza. Bere izaerak, euskaltzaletasunak eta abertzaltasunak zubigile izatera behartu zuten.

Frankistek, hemen eta han, ereiten zuten hazi txarrari kontra egiteko Euskal Herriaren eta euskaldunen berri ematen saiatu zen, Venezuelan eta Euskadira etorritakoan. Euskaldunei buruzko iritzia erdaldunen artean eta munduan zehar bere one-
ra ekartzea bakarrik ez zen aski, ordea. Elkarrengandik arroz-
tuak eta sakabanatuak geunden euskaldunok Martin Ugalde, 1969an, Euskadiratu zenean. Aurrekoen berririk gabe hazi ginen belaunaldioi gerra aurreko belaunaldiaren berri eman zigun, bi belaunaldiok lotu nahian. Euskararen idazkera zela eta, euskaltzaleen artean piztu ziren haserreak goxatzen saiatu zen, joerak hurbiltze arren. Bortizkeriaren kontra argi eta garbi azaldurik ere, alderdi abertzaleen arteko etenak konpondu nahi izan zituen, behin eta berriz.

Martin Ugalderekin izandako harreman horietako batean, Donibane Lohizuneko etxean, ezagutu nuen Lezo Urreiztieta *Aberri*-ko abertzalea, gerra garaian Eusko Gudarostearentzat armak eskuratzen ibili zen gudaria. Hain zuzen, Sarako Herriko Etxean ezkondu zen egunean. Oso oker ez banago bizialarguna zen Lezo. Horregatik ezin zen elizaz ezkondu. Baina nahigabez kontatzen zuen egun handi hartarako Añoveros Bilboko gotzain bihozperari eskatu zion onespeneraren ordezt hitz samur batzuk bederen ez bidaltzea. Eta Martinek ere min zuen, jakina, bere bitartekotzak ez baitzion ezertarako balio izan.

Martin Ugalderekin bidez elkarrizketatu nuen Donibane hotelean Jesus Mari Leizaola lehendakari zaharra ere. Eta Donibane Lohizuneko etxe horretara eraman nion Juan Carlos Printzearen lagun bat. Martinek karguak baitzituen Leizaolaren Jaurlaritzan eta Eusko Alderdi Jeltzalean. Ordurako,

agian, errege zen Juan Carlos. Dena den, Martin Ugaldek Juan Carlosena iritsi nahi zuen, frankisten inguruko politikoeekin harremanik ez zutenez. Eta bazekien Donostian nire eta haren irakasle izan zen Jose Maria Galarraga, Azkoitiko erretorea, adiskide handia zela. Gustora bixitatu zuen Galarragak Martin eta gustora eraman zizkion erregeari Martinek emandako mezuak.

Zubigintza hori, jakina, ez da nekerik eta saminik gabe egiten. *Deia* egunkarira jeltzale ez ginenok eta batua onartua genuenok eraman gintuenean ere izan zuen gorabeherarik, noski. Euskarazko egunkariaren inguruko, hasierako, tarteko eta azkeneko, jokabideetan ere izan zuen burukomin bat baino gehiago, seguraski.

Baina gorabehera guztien gainetik, Martin Ugalderi beti aitortuko eta eskertuko zaizkio bere guztizko euskaltzaleatsuna eta abertzaletasuna. Euskal Herriarekiko maitasunak ekarrarazi baitzuen Venezuelako bizimodu erosoagotik Euskadiko larre motxera eta euskaraganako maitasunak behartu erdal idazletza oparoagotik euskal idazletza neketsuagora. Esker onez, beti gogoan zu, Martin.

(2004-X-04)

JOSE MARI LARRARTE

Jose Mari Larrarte pasiotarra hil zen herenegun Urretxuko komentuan. Gizon zaildua gaitz txar batek menderatu du. Larrarte Bidanian jaio zen 1926ko urtarrilaren 4an. Eta bizitza osoan landu eta irakatsi du etxean eta herrian ikasitako euskara. Komentura mutikotan joan zen bidaniarrak euskara baztertu gabe ikasi baitzituen gaztelania, latina, grekoa, frantsesa eta ingelesa.

Hain zuzen, hizkuntza horietako irakasle izan zen Gabirian eta Zornotzan. Bere ikasle izanak ditu, besteak beste, euskal munduan ezagunak diren Joxeauxtin Orbegozo, Rikardo Badiola, Joxemari Iriondo, Xabier Mendiguren Bereziartu eta Joxe Lizarralde. Eta Larrartek sortu eta bultzatu zituen *Bidez* eta *Laiaketan* izan zuten euskarazko lehen idazlanak argitaratzeko aukera. Urretxuko ikastolan ere euskara irakatsi zuen.

Hizkuntzetako eta euskararekiko zaletasunak bultzata, Deustuko Unibertsitatean sakondu zituen hizkuntza erromanikoak; Euskal Filologia, berriz, Gasteizko Fakultatean egin zuen. *Bait Tartasen Ontsa Hiltzeko Bidea*-n tesina ondu zuen 1983an, Koldo Mitxelena zuzendaritzapean.

Franco hil eta gutxira, Nafarroako Hizkuntza Eskolen sustatzaile eta euskarazko tituluen prestatzaile izan zen Iruñean. Diputazioak alfabetatzeko eta euskalduntzeko sortutako Udako Ikastaroen zuzendari izan zen, gainera.

Iruñetik Gasteiza aldatu zen itzultzaile lanetara. 1980tik 1985ra Eusko Legebiltzarreko bat-bateko itzultzaile izan zen. Hasieran batez ere, izerdi patsetan aritu zen lan zail horretan.

Gerora, 1985etik 1990era, Lgebiltzarreko testuen zuzentzailetzan egin zuen lan.

Horretaz gainera, Euskaltzaindian, Gramatika Batzordean, egin du lan Jose Mari Larrartek. *Euskera bizitik, Izen sintagma mugagabea Tartas-en, Ontsa hiltzekoa bidean eta Eratorpenaz* dira bere lanik ezagunenak. *Euskera* aldizkariaren zuzentzaile ere izan da. Eta 1987tik euskaltzain urgazle zena ohorezko kide egin zuen Euskaltzaindiak 2002an.

Euskaltzaindiaren batzarretan eta euskararen inguruko jardunaldietan ikusi eta ezagutu dugu Jose Mari Larrarte. Bere begi argi eta biziak bere adimen zorrotzaren eta jakinduria sakonaren ispilu ziren. Eta zinezko jakintsu asko bezala apala eta hantusterik gabea zen.

Euskara debekatua eta baztertua zen urte zailetan egin zuen lan, lehenik; gero, berriz, legez onartua zen garaietan, euskararen arlo zailetan. Jaso beza Jose Mari Larrartek euskaldunon esker ona.

(2004-X-24)

SABIN UNZURRUNZAGA

Hileta hunkigarriak eta jendetsuak egin zitzaizkion Zarautzen aitaren etxea eta "Itxaropena" zaintzen bizia eman duen Sabin Unzurrunzaga euskaltzale eta abertzale leialari. Senide guztiak dira euskarari eta euskal kulturari atxikiak, bakoitza bere lanbidean. Eta bakoitzak bere ikasketen araberako lanbidea du,

noski. Baina Sabin geratu zen aitaren etxea zaintzen. Eta ez du jan. Gogotik eutsi dio zutik. Eta semearen eskuetan utzia du, gainera, belaunaldiz belaunaldi iraun dezan.

Moldiztegi eta argitalpen lanak ez dira gaur bezain erosoak izan. Idazleek ere ez zituzten gaurrengoen baliabideak. Eskuz idatzitako edo makina xahar batean akatsez betetako paperak iritsi ohi ziren Unzurrunzagaren eskuetara, euskarazkoak batez ere. Baina gustoko tokian aldaparik ez denez, gogotsu jarduen zuen Sabinekin lan horretan. Gezurra badirudi ere, argitaratzeko baimena lortzea zen neketsuena eta arriskuetsuena, zentsura zorrotza gainditzea alegia. “Itxaropena” izan da urte zail horietan euskarazko liburu askoren sorleku. Eta nork ez du “Kulixka sorta” ezagutzen?

Baina Sabin Unzurrunzagaren eragina ez zen liburugintzara bakarrik mugatzen. Idazle bat baino gehiago bultzatu zuen idaztera. Gerra ondoan uzkur zegoen Luis Jauregi “Jautarkol” ere Sabinekin jarri zuen berriro lanean... Bultzada horri esker euskaratu zuen Jautarkolek Camilo Jose Celaren “Paskual Duarte”.

Euskaltzale eta euskal idazle askorekin zituen harremanak Unzurrunzagak. Hala ere, beste lan askotarako ateratzen zuen denbora. Salvatore Mitxelena ikastolaren sortzaileetakoa eta Batzordeko lehendakari izan zen. Gipuzkoako Talde Bateragilean ere egin zuen lan. EAJK 1977an Iruñean egin zuen batzarrerako kulturari buruzko txostena moldatu behar izan zuen. Frankismoaren ondoko lehen hauteskundeetan zinegotzi aukeratua izan zen, Imanol Murua alkate zela.

Zarautzek ezezik, euskarak, euskal kulturak eta euskal literaturak ere zor handia die Itxaropenari eta Patxi eta Sabin Unzurrunzaga aita-semeei. Euskaltzale eta abertzaleon esker ona izan beza Sabinekin betikotasun guztian.

(2005-III-17)

JOAN SAN MARTIN

Hiletak ditugu topaleku behin urte batzuk ezker. Eta denetara iristerik ere ez dugu izaten, zoritxarrez. Hori gertatu zitzaidan joan den asteartean, ez baitut denbora berean bi lekutan izateko dohainik, oraingo. Hondarribira joatea erabaki nuen, Joan San Martini azken agurra egitera. Baina penaz geratu nintzen Balentin Aldalur “Zialtzeta” trikitilariaren hiletara Usurbila azaltzerik izan ez nuelako.

Ez dakit Joan San Martinek eta Balentin Aldalurrek mundu honetan elkar ezagutu zuten. Baina seguru nago Zialtzetaren trikitixarekin dantzan joan zirela biak izarretan barrena.

Balentin umorea jartzen saiatu zen bere bizitzan. Hamaika jai arratsalde eder pasa zuten garai bateko gazteek soinuujolei esker. Hamaikatxok ere aurkitu zuen erromeria horietan bere bizitzako laguna. Zialtzetak ere, Primi Erostarbe panderojole eta konplari zuela, gozatu ederrik eman zien orduko neska-mutilei. Ez zen orain aina festa aukera eta musika tresna,

baina jai arratsalde alaiagoak eta zoriontsuagoak bizitzen ote zituzten deritzat.

Joan San Martinek euskarari, euskal kulturari, euskal literaturari eta Euskal Herriaren aztarnak eta sustrai zaharrak aurkitzeari eskaini zion bere bizitza. Horretan gozatu zuen, noski. Baina gozamen hori ez zuen beretzat bakarrik gorde, besteren jakinmina asetzen saiatu baitzen. Zenbati ez oten zizkion edozein alorretan ikerketarako aztarnak erakutsi. Etenik gabeko formakuntza egin zuen gure eibartarrak. Baina ez zen ikasketa eta ikerketa hutsean geratu, ekinbide askotan hartu baitzuen parte: Euskaltzaindiaren antolaketan, bertsolarien txapelketetan, artean, euskalduntze-alfabetatze ekimenean, itzultzaile eskolan, herri erakundeen alde, Eusko Autonomi Erkidegoko arartekotzan eta abarretan.

Bidegabekeriak, bortizkeriak, gorrotatzen zituen, ez beste ezer, besteren iritziekiko begirune handia zuenez. Ez zituen ertzak eta koskak maite, haitzetan igotzeko eta leizeak arakatzeko izan ezik.

(2005-VI-12)

LAUAXETA KAZETARI MARTIRIA

Lauaxeta hil zutela atzo bete ziren 68 urte. Jaio zela, berriz, abuztuaren 3an beteko dira 100. Ospakizun eta ekitaldi asko antolatu da Estepan Urkiaga Basaraz “Lauaxeta” zenaren ome-
nez. Baina euskal kazetariok ez diogu behar bezalako eta bera-
riazko aitoren egin gure patroiz izan beharko lukeenari.

Batean eta bestean bizia galdu duten kazetariak badira orain ere. Baina Lauaxeta bezain nabarmen atxilotu, katibu eraman eta fusilatu dituztenak ez dira asko, noski. Euskal kazetarietan, gutxiago. Euskarazko sailaren ardura zuen Lauaxetak “Euzkadi” egunkarian. “Eguna” euskarazko lehen egunkariaren eragilea ere bera izan zen, Augustin Zubikarai ondarrutarraren ustez. “La Petite Gironde”ko kazetari frantse-
sari Gernika erraustua erakusten ari zela atxilotu zuten faxistek 1937ko apirilaren 30ean.

Olerki hunkigarriak idatzi zituen espetxean heriotzaren zain zegoen bitartean. Burruka gogorrean ditu bizitzaren indarra eta heriotzaren zoritxarra. Ekainaren 25ean hil zuten, “goiz eder honetan erail behar nabe” idatzi ondoren. Hilko duten bezperan gogoan ditu, jakina, mendian hil ala biziko gudan dabilzan lagunak: “gazte argi horreik, eutsi lur amari! (...) Zauritu horreik zut. (...) Anai maiteak eutsi burrukari inoiz hilgo eztan euzkoen Amari! (...) Gorputz honek bakean atsedean dagian herri askatuen Egun Haundi arte”. Eta abar.

Ezkerrek Jainkoarekiko gorrotoz hiltzen omen dutenez, Elizak santu eta martiritzat ohoratzen ditu ezkerrek hildako

elizgizonak, zapaltzaileen babes den erlijioarekiko gorrotoz hilak izan daitezkeenik kontuan hartu gabe. Eskuinek, berriz, “bestelako saltsetan sartzen direlako” hiltzen omen dituztenez, Elizak ez ditu martiritzat onartzen. Horixe gertatu zitzairen Lauaxetari eta beste euskal apaiz eta kristau askori ere. Baina zuzentasunaren eta askatasunaren alde burrukatu ondoren, “Josuren fedea besterik eztaukot. Beragan ditxarot” esanaz hiltzen denak, elizan ukatzen bazaio ere, aldarerik mereziko luke euskal kazetarien bihotzetan.

(2005-VI-26)

ARANTXA MENDIZABAL

OROITZAPEN HUNKIGARRIAK

Oroitzapen hunkigarriz betetako egunak izan ditugu, orain 40 urte inguruko kontuak berrituz. Zaharrok iragana luzea eta etorkizuna motza dugula egia baita, Donostiako Anoetan atletismoan dabiltzanak izan ezik. Oso maitea genuen Arantxa Mendizabal andereñoa hil zaigulako, ustekabean eta bat-batean, berritu ditugu kontu zaharrak, ikastolen sorrerakoak batez ere, eta Lasarte eta Usurbilgoak, bereziki.

Elbira Zipitriaren kuttunetako izan zen Arantxa Mendizabal. Eta “andereñoen andereñoari” buruz egin diren lanetan iturri aberatsa izan da Arantxa, hark egiten zuena paperean

idatzita jasotzeaz gainera, matematika irakasteko zuen metodoaren miresle baitzen.

Baina Zipitriak bere taldean nahi zuena Lasartera aldentu zitzaion ikastola sortzera, 1966an. Orduko gurasoek eta andereñoek izan zituzten adorea eta ausardia ulertzea ere zail gertatzen zaie gaurko gazteei. Eragozpenak, arriskuak eta era guztietako gabeziak handiak ziren. Horrek berak ere denak familia bat izatera eta elkarri laguntzera behartzen zituen, guraso, andereño eta haurrak. Eta horretan aparta suertatu zitzairen lasartereari Arantxa Mendizabal. Bere lehen ikasle izandakoek negar-malkotan gogoratu dute. Izan ere, haurrekin moldatzeko aparteko eskua zuen. Hori ongi dakite Lasarteko Landaberrin eta Usurbilgo Udarregin irakasle izan dutenek. Osasunean gorabeherak bazituen ere, antzaldatu egiten zen Arantxa bere gelan.

Ordu eta egun asko elkarrekin egin ditugunok badakigu zeinen argia, apala, goxoa eta eskuzabala zen Arantxa. Morentingo etxe hartan, Lizarrako kaleetan eta Iratxeko igeritegian egun zoragarriak gozatu genituen geuron haurrekin, behin eta berriz. Eta badakigu zeinen kezkatia zen Euskal Herriko beste arazoez ere. Azken urteotan, bakearen eta elkarbizitzaren alde ziharduen “Elkarri”rekin lankidetzan.

Gure esker ona azaldu nahi izan genion hiletan. Gaur ere halaxe agertu nahi diogu txoko honetan.

(2005-IX-04)

JOXEMARI ARANALDE

Gaitz erasokor batek eraman digu hain gazte, lerden eta sasoiko zegoen Joxemari Aranalde Olaondo apaiza, elizan ezezik, euskal munduan ere ezaguna eta maitea. Bihar arratsaldeko 6,30etan egingo zaizkio hiletak Gazteluko parrokian.

Orain 72 urte jaio zen Joxemari gazteluarrak Saturraran, Gasteiz eta Donostiako seminarioetan egin zituen ikasketak. 1958an Lurdesen apaizturik, Aramara bidali zuen gotzainak erretore. Eta arrebarekin bizitzen jarri zenez, Orixe idazlea hartu zuten etxean. Urterako Añorgako apaiz laguntzaile eta Zabalegi Nekazari Eskolako gazteen arduradun izendatu zuten. Hortxe hil zen Nikolas Ormaetxea “Orixe” idazlea ere. Ahaidetasunez iloba txikia zena benetako iloba bihurtu zen betiko.

Hamahiru urte egin zituen Añorgan apaiz lanetan. Donostiako Santo Tomas Lizeoko irakasletzak gero eta denbora gehiago eskatzen ziolako utzi zuen parrokiako lana. 29 urte egin zituen ikastolan gazteen hezkuntzari emana. Eta irakaskuntza utzi orduko Belauntzako eta Leaburuko erretore izendatu zuen gotzainak. Tolosako Jurramendi Zaharren Egoitzako kapilautza ere bere gain utzi zuten azkenerako.

Baina, elizan ezezik, herrian ere ezaguna suertatu da Joxemari Aranalde. Gazterik hasi zen poesia lantzen. Arantzazun antolatutako sariketa batera bidali zuen lehenengoa, 1956an. Tolosako Lizardi Sarian bigarren suertatu zen, 1961ean. Baita Orixe Sarian ere.

Euskaltzain urgazle, herri literatura batzordeko kide izan da. Eusko Jaurlearitzako Euskararen Aholku Batzordekoa ere izan zen. Baita Liturgia euskaratzeko batzordekoa ere. “Berbetan” izeneko saioa egin zuen Euskal Telebistan. DEIA egunkarian lau bat urtez jarduten zuen astero bertsolaritzari buruz idazten. “Bertso kontuak” liburuan argitaratu zituen haietako asko, Auspoa liburutegian. “Bihotzak dion hura” izenekoan berrargitaratu zituen beste zenbait bertso eta hitz lauzko lan.

Bertsozale, bertsogintzaren ikerle, gai-jartzaile, txapelketetan epaimahaiko, bertsolarien lagun, izan da Aranalde. Baina Orixe eta Xalbador miresten zituen bereziki. Orixerri buruz asko idatzi eta hitz egin zuen, han eta hemen. Xalbadorri buruz, berriz, bi liburu argitaratu zituen: “Xalbador pertsularia” eta “Xalbadorren barrua”. Eta badu haurrentzat irudiz eta margo apaindutako beste bat ere burutua.

Hizketan eta idazten ezezik, itzultzen ere egokia zen Aranalde. Liturgiakoez gainera, “Margo Ederdun Entziklopedian”, “Tintin” komikian eta abarretan aurki ditzakegu haren itzulpenak. Baina euskara hizkuntzaz bakarrik ez zen arduratzen Aranalde, baita Euskal Herriaren egoeraz eta etorkizunaz ere. Bakeaz, batez ere. Beste askok bezalaxe, bere haragian pairatzen baitzituen Joxemarik gatazkaren ondorio negargarriak.

(2005-IX-25)

HITZIK GABE UTZI NAUK, JOXEMAI

Lagun asko geratzen zaizkidak oraindik. Hik, berriz, Joxemai, erruz utzi dituk. Gu bion lotura adierazteko, ordea, ez diat hitzik. Hitzez ezin esan izan nuena aitortzeko bakarrik idazten diat, isilik egotea nahiago nukeen arren. Hik uste baino zulo handiagoa utzi baitidak.

Elkarrekin egin genizkian ikasketak, baina Seminarioko liburu eta irakasle guztiek baino gehiago irakatsi didak. Elkarrekin egin diagu barre eta algara, asko gainera, 60 urteotan. Elkarrekin, negar. Elkarrekin, otoitz. Lo ere egin izan diagu elkarrekin. Hire onespenez eta bedeinkapenez hartu nizkian bide berria eta lagun berria. Pilotan ere askotan jokatu diagu, eskuz eta paletan, eta ez txantxetan. Bahituen, Joxemari Aranalde, zakarraldiak ere. Horiek bakarrik jasan dituenak ez zekik hire lagun izatea zer zori den. Hik niri esana itzultzen diat, “adiskidez hintzen ordain ezina”.

Lerdena eta dotorea hintzen gorputzez, eta txukuna. Egokia, hizketan eta idazten. Egokia, lagunartean eta harremanetan. Baina kanpoko edertasunik ezin hik niri erantsi. Barrukoa, berriz, nik har nezakeen baino gehiago eman didak. Ebanjelioa hobeto ulertzen ikasi nian. Espanturik gabe bizi huen fedea, beti gazte eta gogotsu. Ezkongea izan arren, ez hintzen mutilzartu eta aparteko taxua huen neska-mutil gazteekin eta emakumeekin. Leiala eta zintzoa hintzen betebeharreran, baina, aldi berean, zabala eta begirune handikoa besteren jokabideekin. Esker oneko hartzailea hintzen. Gaitzaldian hire ondoan izan garenoi afari on bat eman arteko onik ez duk izan.

Baina emaile bezala hintzen eskuzabala. Guztia ematen huen. Ez hekien esku hutsik inora joaten.

Gaitzaldi guztian ikusi duk, Joxemai, hire senideek eta ilobak nola maite hauten. Ez haute segundo batean ere bakarrik utzi. Lotsa ematen zidak huskeria hau idatzi izana. Baina hau ere onartuko didak, orain arteko guztiak bezalaxe. Badakik nire gorabeheren berri. Nire ondoan nahi haut beti. Ez gatzetik heriotzak ere banatuko.

(2005-X-2)

JOAN MARI LEKUONA

IZAR EDER BAT DAGO HOR GOIKO LEKUAN

Julian Lekuonaren hiletan hitz egin nuen azkenekoz Joan Marirekin Oiartzunen. Moteltzen hasia zegoen ordurako. Inork ez zekien, zehatz, zer gaitz zuen. Joxemari Aranaldek eta biok askotan galdetzen genion elkarri: “zertan da Joan Mari?”. Ez genion izenari abizena erantsi beharrik izaten. Bagenekien izenarekin bakarrik ere noren galdera egiten genuen. Batari eta besteari entzundako berri txarren bat besterik ez genuen jakiten. Eta ez ginen bisitara joaten ere ausartzen. Hain gizon atsegin eta maitagarria hain egoera tristean ikusi beharrak eta aztoratuko ote genuen beldurrak atzeratzen gintuen.

Orain 55 urte ezagutu nuen Joan Mari, Gasteizen. Seminarioko eliza handian ikusiko nuen lehenengo aldiz, seguruenik.

Gero, futbol zelaian, beste talderen baten kontra, futbolari ona baitzen. Pilotari onaren fama bazuen ere ez genuen frontoian toporik egin. Aurpegiz eta urrutira ezagutu nuen, hura teologia ikasten ari baitzen eta ni artean latinarekin ezinean. Aurretik ere entzuterik banuen, jakina, nire kideko den Andoni haren anaiaren bidez. Eta banuen Manuel Lekuonaren berri ere. Ilobak emanda bakarrrik ez, baita tartean genituen beste oiartzuar batzuei entzunda ere. Norbere jaioterria baino hoberik ez da edonorentzat. Baina oiartzuarrek bezala bere herria maitatzen eta miresten duen gutxi izango da. Ondo ikasi genizkien, beraz, nor ziren aita Mendiburu, Manuel eta Martin Lekuona, aita Mauro Elizondo, Joxe Joakin Mitxelena.

Eta Joan Mari. Hain zuzen, ezagutu nuen urte hartan, 1950ean, lehen saria irabazi baitzuen Donostian *Izadia abestia* poesiarekin. Baita hurrengo egunean ere *Ama* izenekoarekin. Lehenaz gainera, miresgarri bihurtu ziguten Joan Mari oiartzuarren goraipeak.

Kazetari lanbideari eta euskarari esker izan ditut harremanik gehienak Joan Mari Lekuonarekin. Asko jasandako familiakoa zen. Bi osaba fusilatu zizkioten frankistek 1936an: Julian eta Martin apaiza. Gasteizko seminarioan irakasle zen Manuel osabak ere ezkutatuta bizi behar izan zuen. Bazuen, beraz, ozpin piska bat erakusteko adina arrazoi. Baina Joan Mariren bihotzean ez zen haserrearentzat eta gorrotoarentzat lekurik. Baketsua, alaia, irribarretsua, atsegina, gozoa eta adeitsua zen.

Unibertsitateko ikasleek ezezik, oso gogoan dute gerra ondoko ikastoletako andereñoek ere. Egoitza bat zabaldu zen

Donostian andereñoentzat. Euskal kulturaz, pedagogiaz eta abarrez jantzi behar ziren, eskolan ez baitzuten horrelako ezer ikasi. Federiko Zabalak euskal historia ematen zien. Kontxita Beitiak, berriz, euskal gramatika. Eta beste batzuen artean, Joan Mari Lekuona joaten zitzaien herri literaturaz, euskal kantagintzaz, bertsoez eta abarrez hitz egitera. Irakasle haiek denak dituzte oso gogoan orain ere. Baina bat bereiztekotan, Joan Mari bereiziko lukete.

Gasteizko seminariotik ezagunak zituen Jose Sebastian Laboa, Vatikanoko nuntzioa izango zena, Jose Maria Setien, Donostiako gotzain izango zena eta Jose Inazio Telletxea historialaria lagun handiak egiteko aukera izan zuen Erroman, doktoradutzako ikasketak egin zituenean. Gero, Joan XXIII.a izenarekin Aita Santu izango zen Roncalli kardinala ezagutzeko aukera ere izan zuen Laboaren bidez. Baina horregatik ez zen Joan Mari haixatu eta harrotu. Gizon apala eta baketsua izan zen beti.

Joan Marik ezagutu ditu beste herrietako hizkuntzak, kulturak, literaturak eta abar ere. Baina irekia izateak ez du berea baztertzerantz bultzatu. Alderantziz. Euskararen, euskal literaturaren, kulturaren eta Euskal Herriaren etorkizunaz kezkatzen eta arduratzen zen. Zuen onena ematen saiatu zen. Bazekien-eta nolabaiteko lanekin ezer gutxi aurreratuko genuela. Eta bazekien aurrera egiteko bakea ere beharrezkoa genuela. Gizon baketsua, bortizkeria zuen gorroto.

Herri honen egoeraz kezkaturik, elkarrekin agiri bat baino gehiago izenpetuak gara, noski. Bi, behintzat, baditugu. Francoren garaiko heriotza-zigorrak zirela eta, heriotza haien

kontrako agiria izenpetu genuen, arriskuak arrisku. Handik urte batzuetara, ETaren hilketen eta bortizkeriaren kontrakoa sinatu genuen, 1980an, Barandiaran, Mitxelena, Joan San Martin, Xabier Lete, Lekuona “zaharra”, Martin Ugalde, Iñaki Barriola eta abarrekin batera.

Joan Marik berak aitortu zidanez, bigarren agiri honek ekarri zion nahigaberik eta ingurukoen haserrerik. “Francok ezarri zituen heriotza-zigorren kontra agertu ninduan, nolatan isilduko nizkian, bada, ETarenak”, arintzen zuen ingurukoen haserreak eragiten zion atsekabea.

Errota zahar maiteak negar egiten du. Zotin sekoa dabil euskaldungoak. Baina Joan Marik xehetutako aleak geratu zaizkigu. “Izar eder bat dago hor goiko lekuan”, gure eredu eta bidegile.

(2005-II-06)

LURDES IRIONDO

Torreako Dama

Urte Berri On, irakurle. Eta zuri, Lurdes, sinesten zenuen Zeru Berri On. Joan den urtearen bukaera gogorra izan dugu. Joxemari Aranalde joan zitzaigun aurrena. Gero, Joan Mari Lekuona. Azkenik, Lurdes Iriondo. Eta Lurdesi ere berak uste baino maiteago genuela erakutsi genion hiletan.

Lurdes Iriondo kantari egin zen ospetsu. Aizarnan 1965ean musu truk kantatu zuen hartatik Urepelen Xalbadorren omenez azkenekoz-edo eskaini zuen kantaldi hartara zenbat aldiz abestu ote zuen musu truk? Horretarako, jakina, etxeko giroari, amaren kezkei, ordura arteko bere bizierari eta osasunik ezari egin behar izan zien aurre. Baina hain durunditsua izan ez den lana, ikastolan, parrokiari eta herrian, eskulanean, kantagintzan, antzerkian, dantzan eta abarretan egindako lana gogoratu nahi nuke nik.

Lurdes txikia zela etorri zen Iriondo-Mujika familia Urnietara gerra garaian suak erraustu zuen komentuari ondoan eraikitako etxera. 1896rako hilak ziren Torrea izeneko jauregiko bi azken damek, Mikaetala eta Tomasa Galardi ahizpek, neskontzat eskola eraikitzeko utzi zituzten jauregia eta lurrak. Baina auzolanean eraikitako komentura eta eskolara fraideak eta mutikoak etorri ziren 1903an, prest zegoen mojarik aurkitu ez zutelako.

Eta, badirudi, Torreako damen mendekuz erraustu zela komentu hura 1936ko gerratean, Lurdes bihur zedin Torreako dama eta herriko andereño. Aurrena, parrokiari hasi zen neska-mutikoekin lanean. Gero, ikastolan. Ondoren, herrian, bere “Buruntza azpi” antzerki eta dantza taldeekin. Azkenik, elizako koruan. Tartean, jakina, bazituen ipuin, antzerki eta abar idatziak. Osasun hain ahulekoak horrenbeste lan egiteko barne indar eta ekimen handikoa izan behar, nahitaez. Eta Xabier Lete bezalako laguna, ondoan.

Aspaldian ezkutatu samarra bizi zen Lurdes, ez baitzuen komunikabideetan agertzerik nahi izaten. Are gutxiago, ome-

naldirik. Hala ere, ez zegoen ahaztua. Jose Mari Setien gotzaina buru zela egin zitzaion hiletara etorri zen jendetza da lekuko.

(2006-I-8)

PATXI ALTUNA

ESKERRIK ASKO PATXI ALTUNA

Lotsa ere ematen zidak hitaz idazteak, Patxi. Izan ere, txikiak ez zezakek handia gorets ospetsua goraiatzean txikiak bere burua ohoratu gabe. Gutxienez, utzidak eskerrak ematen hainbeste ordu goxo igaro ditugulako Euskaren Aholku Batzordeko joan-etorrietan, EUTGko hire gelan, San Sebastian bezperako afa-rietan eta abarretan. Azken bi urteotan hire hutsunea sumatu diagu eta hitaz jardun gaituk luze. Eskerrak, jakina, Jainkoaren ohoretan Euskal Herriarengatik eta euskararengatik egindako lan guztiengatik eta jasandako nekeengatik ere. Barka, Patxi, hire gaitzaldian hik merezi bezala ez bisitatu izana.

Aspaldiko kontuak dira. Gogo jardunak egiten ari ginen Loiolan aita Gaztelumendirekin, euskaraz, 1961-63 aldera. Otorduetan, jangelako pulpitutik jesuita gazte batek irakurtzen zigun Orixeren “Jainkoaren billa”, ozen, zinez eta hitz guztiak garbi ahoskatuz irakurri ere.

Handik hamar bat urtera, Donostiako jesuiten elizan ozen, bero eta hitz guztiak garbi ahoskatuz mintzatzen zen jesuita

gazte hura berbera topatu nuen meza ematen, diktaduraren bi-degabekeriak salatzen eta presoen alde dirua eskatzen. Aita Patxi Altuna zen. Geroztik lagun izan gara. Eta berari esker egin ditut ezagun haren eskuetatik igaro diren zenbait euskalari gazte.

Deustuko Euskal Filologiako Fakultatean, Euskaltzaindian, euskal klasikoen ikerketan, begia atera beharrean irakurri beharreko paper zaharrak arakatzen eta argitaratzen eta abarretan Patxi Altunak egin duen lana ikaragarria izan da. Baina inork ez beza pentsa kalean baino errazagoa zenik komentuetan euskara lantzea. Orduan, kalean bezalaxe, komentuetan ere laguntzak baino ugariagoak ziren debekuak eta zigorrak.

Ikerle eta irakasle zehatza zen Patxi, “txorrotxa” zenbaiten ustez. Baina lagunez zen aparta, maitagarria, hantusterik eta arrandiarik gabea, adeitsua, laguntzailea. Eskerrik asko, Patxi.

(2006-I-29)

PLAZIDO MUXIKA

PL. MUXIKAREN MENDEURRENA

Plazido Muxika Berrondo jaio zela ehun urte beteko dira datorren igandean. Urnietako auzo zen Orian jaio zenez, “herriz urnietarra naiz ni” errepikatzen zuen, nahiz eta hamar urterekin Altzara bizitzera joan gurasoekin eta Loiolan, Kolonbian, Belgikan, Herbeheretan, Xabierren, Deustun, Oñan, Veruelan

eta abarretan bizi izan arren. Urnietako herriak gogoratu eta goraiatu egin nahi du, beraz, Plazido Muxika jesulagun idazle, itzultzaile eta hiztegegile erraldoia.

Plazido Muxikari buruzko liburuxka bat etxe guztietara banatuz eta aleman hizkuntzatik euskaratu zituen *Noni eta Mani* eta *Mendiko argia* batuan “Egan” en berrargitaratuz eta haren lan, eskuizkribu, liburu, argazki eta abarrez antolatutako erakusketarekin hasi ziren mendeurreneko ospakizunak. Datorren igandean, 1906ko apirilaren 16an jaio baitzen, meza nagusia emango da eta ondoren brontzezko irudia agertuko Muxikaren ohoretan eta gogoangarri, bere izeneko plaza ederrean. Plazidoren bizitza eta lana goraiatuz Euskaltzaindiak apirilaren 27an egingo duen batzarraz amaituko dira mendeurreneko ekitaldiak.

Plazido Muxikak lan eskerga egin zuen. Batez ere, hiztegegintzan egin zuen itzala. Euskararik ez dakiten ausarten eskuetan arriskutsua bada ere, ezinbestekoa izan da idazle, itzultzaile eta hiztegegileentzat. Erabili ere aitortu zaion baino gehiago erabili da, “Diccionario castellano.vasco” izeneko batik-bat.

Baina inork ez beza uste izan beste zereginik ez zuelako egin zuenik lan erraldoi hori. Plazidok beste edozein jesulagunek bezala eskola eman eta apaiz lanak egin behar izan zituen. Komentuetan ere, kalean bezalaxe, laguntza eta erraztasun gutxi izaten baitzen euskal lanetarako. Muxikak atsedenari, solasaldiei, loari eta otorduei denbora kenduz egin zituen hiztegi handia, itzulpenak eta euskarari buruzko ikerketak. Ongi

irabazitako esker ona agertuko diote, beraz, Plazido Muxikari Urnietako udalak eta Euskaltzaindiak.

(2006-IV-9)

ELBIRA ZIPITRIA

ELBIRA ZIPITRIA, AGUR ETA OHORE

Elbira Zipitria andereñoa jaio zela ehun urte beteko dira datorren igandean. Hil zela ia 24 urte badira ere, bizirik dirau oraindik askoren buru-bihotzetan, berak ereindako haziari esker. Libururik ere argitaratu da berari buruz: “Ilunetik argira” Resu Abasolo, Juana Lopez de Muniain eta Arantxa Urbek eta “Bidegileak” bilduman Mari Karmen Mitxelenak. Mendeurrena dela eta, bada ikerlanik egiten diharduenik ere. Bizitza guztia euskal irakaskuntzari eskaini zion “Emakume Abertzale Batza”ko euskaltzale eta abertzale hark badu-eta zer ikerturik eta zer eskerturik.

Eli Etxeberria zuzendari zen Migel Muñoaren ikastolan hasi zen lanean 1928an. Frankistei ihesi, iparraldean babestu zenean ere, euskal umeen andereño izan zen. Donostiara itzuli eta, 1942an ekin zion, isilka eta ezkutuka, talde txikietan euskaraz irakasteari. 1971n utzi zion, 43 urtez, gizarte segurantzarik gabe, burututako irakaskuntzari. Erretiroko pentsiorik ez zenez, lagunek emandako diruz bizi behar izan zuen azkeneko 11 urtetan.

Villar Palasi ministroaren OHO legea baino lehenagokoa da Elbira Zipitriaren lana. 9 urterekin hasten zen batxilergo-rako prestatu behar zituen neska-mutikoak. Ez dago, beraz, Elbirari gaur egungo curriculumarik eskatzerik, horren beharrik gabe ondo baino hobeto prestatzen baitzituen batxilerre-rako. Izan ere, beste maisu-maistrek baino hobeto ezagutzen zituen Frenet, Montessori, Piaget eta abar.

Irakaskuntzan aurreratutako lekuetara begiratzen zuen Zipitriak. Bere liburuen artean horregatik daude hainbeste frantsesez. Eta ikastoletarako ere andereño ikasiak eta trebatuak nahi izaten zituen. Andereño askoren trebakuntzan eta ikastolen pedagogia aurrerakoian zerikusi handia izan zuen, beraz.

Elbira Zipitriarik gabe nekezago helduko zitzaion gerra ondoan ikastolagintzari eta, demokrazia garairako ikastolak indartu ez balira, askoz ere geroago eta ahulago beste eskolak euskalduntzeari. Baina Zipitria ikastolagintzan bakarrik ez zen aurrelari izan, baita Down sindromedunak eskolatzen eta helduak alfabetatzen eta euskalduntzen ere. Ohore, beraz, Zipitria argi, langile eta trebeari.

(2006-V-21)

III

BORTXAZ ETA BAKEAZ

“GARAIZ GARA ORAINDIK”⁽²⁾

Euskal Herriaren etorkizuna erasotzen duten arrisku txarrek aztoraturik, gure hitza ateratzen dugu ozenki etxekoen eta kanpokoen aurrean, gure herriaren geroaz dugun kezkek bakarrik horretarako nor egiten gaituenez. Ez dugu ezer berririk esango, noski. Izan ere egun-argia baino argiago den

(2) Bortizkeriaren kontra gaur oso sutsu diren askok ez zuten 1980an gaitzes-ten. Komunikabideetan ere oso gutxi zabaldu zen agiri hau honoko hauek bakarrik izenpetu genuen: Joxemiel Barandiaran, Koldo Mitxelena, Julio Caro Baroja, Eduardo Txillida, Jose Antonio Ayestaran, Idoia Estornes, Pio Montoya, Juan Churruca, Juan San Martin, Xabier Lete, Edorta Kortadi, Eugenio Ibarzabal, Jose Ramon Scheifler, Gregorio Monreal, Julian Ajuriagerra, Jose Ramon Recalde, Jesus Altuna, Ignacio Tellechea Idigoras, Gabriel Celaya, Agustin Ibarrola, Juan Mari Lekuona, Amelia Baldeon, Mikel Atxaga, Manuel Lekuona, Jose Maria Satrustegi, Martin Ugalde, Nestor Basterretxea, Iñaki Barriola, Anton Artamendi, Miguel Castells Adriassens, Jose Maria Ibarrodo Agirregabiria, Jose Maria Lacarra eta Bernardo Estornes Lasa.

eta euskaldun gehienak larritzen dituen zerbait besterik ez dugu adierazten hemen.

Norberarentzat erosoak eta gizartearentzat kaltegarriak diren kilikotasun guztiei uko eginez, gure artean zainak bota eta, neurririk gabe, legezko erakundeak desegin zituen gerratearen eta 40 urteko diktaduraren ondorioz, zabaltzen ari dituen era guztietako bortizkeriak kezkatzen gaitu lehenik. Izan ere, hondakinetatik bizi den parasitoaren bizitza ez beste bizitza guztiak zapuzten baititu. Jakin, badakigu, gure haragian bizi baitugu etengabe, kanpotik gure gainera ezartzen den bortizkeriaren berri. Badakigu gure arazoak ulertzeko ere itsu direla eta zenbait aldiz, ero. Baina une honetan gure artean jaio eta indartzen ari den bortizkeriak kezkatzen gaitu, berorrek bakarrik bihur bai gintzake, egiaz, borrero anker, gaizkide lotsagarri edo zerbitzari leial.

Horretan dabiltzanek besterik uste badute ere, askatasunaren egunsenti hauskor eta ahulak eskaintzen duen erraztasunaz suspertu den bortizkeria honek, gainera, urtetan berriro pozik zapalduko gintuzketen etsaiak xaxatzen ditu azkenean.

XIX. mendearen azken aldeko eta XX. mende hasierako zenbait gertaerak, kriminalistak, soziologoak eta penalistak kezkatu zituzten gertaera haiek berberak sortu dira gure herrian, 1980an, orduan bezain basa: erdi ezkutuko elkarteak, heriotza ankerrak eta pertsonen kontrako amorru bizia, eta guztia, isiltasunez eta pozez onartua. Zerga-eskeak, mehatxuak, hanketara botatako tiro doilorrak bezalako zigorrak. Azken jokabide honetan, gainera, ez daki batek zer gehiago nabarmendu gertaera bera ala tiroaren jabe egiteko erabiltzen

den hitzontzikeria. Norbaiti hau guztia berria iruditzen bazaio ere, orain ehun urte gertatzen zenaren errepika eta leloa besterik ez da.

Geuron bururik ez dugu engainatu behar, beraz. Orain ehun urte sinetsi zitezkeen uste asko bilakatu da ustel eta hutsal gaurregun. “Egunsentiaren kantuetan” ez dezakegu sinets. Argi eta garbi esan behar da: askatasun eta demokrazi bidean atzera egiten den edozein pausok gure herriaren kontra sekulako txiki-zioa ekarriko luke. Gaurregungo errepresio teknikez jabeturik, egoera hau ez litzateke “ekintza-errepresioa” katearen hasiera izango, gure kultura, hizkuntza eta nortasuna hiltzorian ipiniko litzuzkeen agintaldi berri eta luze baten sorrera baizik.

Bada zerbait gehiago, ordea, atzerakako kolpe politiko baten ondorioez pentsatzea bakarrik ez baita aski; gure konponbide bakarra, euskal gizarte gehienaren ahalegin eta elkarlan iraupentsu eta burutsuan dago. Eta salbatzaile profesional hauek ezarritako nahikeria eta mesianismoa frenu besterik ez dira, gaindiezinezkoak, agian, gainera. Eta horrek larritzen gaitu.

Politika bidetik ez ezik medikuntza eta osasun bidetik ere erremedioak behar dituen patologiazko gertakizun ikaragarriak baditugula adierazi nahi diegu argi eta garbi agintari eta alderdi politikoen ordezkariari. Burugabekeriarekin batera, gizabidearen sentikortasunik eza eta gaiztakeria agertzen dituen jenderik bada, eta gizarte izurrite batek menderatu dituen susmoa sortzen du horrek, noski. Droga bigun edo gogorxeagoen kontrako kanpainarekin batera, gizon bortitz eta desorekatuak sortzen dituen eta ezaguera moteltzen eta itsumena eta artaldekeria

gehitzen dituen alkoholkeriaren kontrako ekinaldi eraginkor-
rrak burutu behar dira, beraz. Komunikabideei esker hazi eta
haunditu den burugabekeriaren olatuari ere irmo eutsi behar
zaio. Nonahi eta usterik gutxienean entzuten baitira astakeriak
ahoz-ahoz: eta ez kalean eta plazan bakarrik, baita udaletxe eta
parlamentuetan ere.

Askatasunez norbere iritzia agertzeko eskubidea iritzirik
traketsena eta astoena duenak duela dirudi, eta ez askata-
sunezko eta arrazoizko ihardespena eman nahi duenarena.
Herio-usaineko oihu eta leloen kirtinkeria eta manifestaldi
erasotzaileetako lerre-jarioa goraiatzeko eta graziazkotzat
hartzen da. Nagikeriagatik eta ahuleriagatik ez da ematen
erantzunik, edo okerrago dena, beldurragatik.

Maitasuna eta heriotza bereizten ez dituztelako noski,
maite dutela dioten batzuek hondamenera eta urkamendira
daramaten herri hau defendatzeko prest gaude, beraz, arrisku
guztien artean eta suma-ahalak gaizkiesanka egotziko dizki-
guten hitz potzoloen errosarioa jakinik ere.

Mintza gaitzen garbi. Denbora berdina izan da de-
nontzat. Bakezko bide antzuen ordainetan eskaintzen den
bortizkeria-zaletasunak poliziaren eta poliziordekoen eraso
gehitzerik besterik ez du lortu gaur arte.

Aingeru jokabidez ez da gaitzetsi behar bortizkeria. Bor-
tizkeria gaitzesteak haxe esan nahi du: bortizkeria zuritzen
duten edo arazoak konpontzeko zentzuzko eta bakezko beste
edozein bidek baino gehiago balio duela edo historiaren ardatz
dela aitortzen duten baieztapen eta ekintzei uko egitea. Aldake-
ta historikoak, nahitaez, odolbidez azkartzen eta zuzentzen

direnik ez dugu onartzen, beraz. Amnistia, noski, neurri ederra eta maitagarria da, baina amnistiak heriotzen katea etetea eskatzen du. Elkarkidetzeta hori gabe, broma beltza da amnistia.

Azkenik, lau aldiz eta bere gogoz erabaki du gure herriak bakezko bideetatik auziak konpontzea. Beste bideak eta modu bortitzak ezarri nahi dituztenek, erakunde zapaltzaileen aitzakian, beren jokabidea zuritu nahi izan arren, herriaren borondatearen kontra dihardute. Inork ez du, lehengo sindikatu bertikalak eta “Movimiento nacional”ak bezala, herriaren ordezkotza hartzeko eskubiderik, herriak baditu eta alderdikidez, ekintzailez eta botoz osatutako bere alderdi politikoak eta sindikatuak.

Gezurra badirudi ere, gure herria askatasunaren eta demokraziaren bidetik eraman nahi badugu, “salbatzaileetatik” babestu eta “laguntzaileetatik” salbatu behar dugu. Bestela, euskaldunok ez gara egoera honetatik onik aterako. “Garaiz gara oraindik ere”.

(1980-V-27)

EZEZAGUNEN HILETARA

Donostiako Santa Maria elizara bi ezezagunen hiletetara joan naiz. Orain 15 bat urte, Guardia Zibilek kontrol batean hil zuten gazte baten hiletara. Salegi deitzen zitzaiola uste dut. Hamabost urteren burura, beste ezezagun baten elizkizunera joan naiz, Jose Antonio Santamariarena, hain zuzen.

Zergatik joan naiz bi ezezagunen hiletetara? Bidegabekeriak hilak izan direlako. Bata, ez omen zelako kontrolean geratu, hil zuten. Bestea, droga-trafikaria omen zelako. Lehen eta orain bortizkeriaren eta heriotza-zigorraren kontra nagoela adierazteko joan naiz bi ezezagun hauen hiletetara.

Oraingoan, gainera, banituen beste arrazoi batzuk ere. Lehenik, besterik frogatzen ez den bitartean edozein ere errugabea dela aitortu nahi nuen. Ez dut onartzen “zerbaitengatik hilko zuten” pentsamendu txarrari lekuri ematerik. Bigarrenik, nik ez diodala ETari nire eta nireen bizia, osasuna eta ondasunak zaintzeko baimenik eman, ezta nire eta nireen erasotzaile izan daitezkeen epaile eta zigortzaile izateko eskubiderik ere, oiher egin nahi nuen ozenki. Hirugarrenik, heriotzaren nahigabeen ezezik, laidoaren saminean ere, bat egin nahi nuelako haren emazte eta seme-alabekin. Ez baitut ezerean errurik ez duten gaxte umezurtz horiek, lotsaz, buru-makur, ibiltzerik nahi egun batean ere.

Bizi dugun egoerak beste gogoetarik ere bururarazten dit. Ohartzen al da ETA eta bere ingurua besteren on-damuz, bekaizkeriaz, ezin-ikusiaz, asma eta zabal daitezkeen gezurren aldele izan daitekeela? Gorrotatzen dugun edo itzala egiten

digun norbait hondatzeko zenbait zurrumurru zabaltzea bezalakorik izan al daiteke egoera honetan? Gaizkilearen alde eta errurik gabe zikinduaren eta laidotuaren kontra joka dezake, behin baino gehiagotan, bere burua herriaren salbatzailetzat duenak.

Bada zerbait gehiago ere, jakina. Gizarteko ustelkeriak salatzeke dauden komunikabideak, zuzentasunak eskatzen duen bezala tentuz eta zuhur jokatzera ezezik, autozenezura egitera ere behartzen ditu egoera honek; gaizkile ustekoen eta gaizkileen izenak isiltzera alegia. Are okerrago, ikertu beharrekoak ikertzeko eta zigortu beharrekoak zigortzeko beldurrez izan daitezke epaileak, ondotik sekulakoren bat gerta dakiokelako ikertuari edo zigortuari.

Arinkeriak ezezik, bete beharreko eginkizuna betetzeak ere, uste, nahi eta behar ez bezalako ondorio ikaragarriak ekar ditzake. Inor seguru ez dagoen gizartean bizi gara, talde armatu batek bere burua epaile, zigortzaile eta justizia-egile bihurtu duelako.

Bortizkeriaren kontra nabarmenago jokatzeko garaia heldu zaio, beraz, gizarte honi. Ezin da heriotza bat bera ere zuritu, ezta gaizkilerik haundienarena ere. Ezin da mendekurik onartu. Ezin da justizia talde baten esku utzi. Gizarteak poliziaren esku utzi du gaizkileak harrapatzea. Epaitzea eta zigortzea, berriz, epaileen esku. Eta gaizkile omen den edonork bere burua aldezteko eta epai zuzena izateko eskubidea du.

(1993-II-23)

ETA-REN AITZAKIAN ETA BABESEAN

Euskadi askatzeko armatu zen taldeak egin dituen sarraskiak izugarriak izan dira. Eta ezagunak. Baina ETAREN izenean zenbat egin diren jakitea zailagoa da. Alde eta kontra edo alde ala kontra egin direnak jakitea ere gaitza da. Are eta zailagoa, ETAREN babesean egin direnak jakitea. Ezinezkoa, haren aitzakian egin diren bidegabekeria eta tranpa guztiak ezagutzea.

Borondaterik eta asmorik hoberenaz Euskadi askatzeko sortu zen mugimendu haren bilakaera negargarria izan da benetan. Europako eta Ameriketako jendeak ezezik Espainiako askok ere miresmenez begiratzen ziguten euskaldunoi, larderia-
ren kontrako borroka hartan. Orain, ordea, galdua dugu fama on guztia eta gorrotoz eta amorruez begiratzen digute, ETAK azken urteotan egin dituen sarraski eta basakerien erruz.

Gorroto gehiegi zabaltzen ari denez, presoak kaleratzeko ate guztiak ixten ari da. “Amnistia ez da negoziatzen” oihu harro eta ozenetik “presoak Euskadira” intziri mottel eta apalera heldu da urte gutxian. Denera berandu iritsi da. Presoak nola-hala kaleratzeko ere beranduegi ibiliko da, gero eta ozenagoa baita kaltetuen garrasia.

Beretzat beranduegi eta Euskadirentzat ere beranduegi, jakina. Abertzaletasun oro zipriztindu eta laidatu du. Eta kanpokoentzat bakarrik itxusitu balu, gaitzerdi. Euskal Herrian bizi den askorentzat zikindu du. Gero eta jende gehiago ari da euskal abertzaletasunaz hozten, etsitzen eta lotsatzen. Gero eta itsuagoa, haserreagoa eta fanatikoagoa den taldearen

ondoan euskal abertzaletasunaz arduratzen ez den gazteria ari zaigu jaiotzen, hazten eta zabaltzen.

Baina abertzaletasuna bakarrik ez du ziprztintzen, elkarbizitza osoa du gaiztotzen. Are okerrago, gizalegea eta gizabidea bera ditu erabat karraskatzen. Izan ere, giza jokabide zuzenerako behar den ezaguera guztia lausotzen eta iluntzen du honelako jarduera itsu eta ankerrak.

Are gehiago, “begia begi truk” legea indartzen du. ETA desegiteko edozer zilegi eta on dela uste duen jendea ugaltzen ari da. Edozer onartu nahiko ez lukeenak ere entzungor egiten dio zenbait garrasiri eta ezikusi zenbait bidegabekeriari. Ez dago sinesterik euskaldunok gizabidezko balio eta ondasunak zenbateraino galdu ditugun.

Eta ez dago sinesterik lapurrak eta aprobetxategiak nola ugaltzen diren edozein lurrikara, uholde, sute edo gerratan. ETAREN babesean eta aitzakian ere egin da honelako hamaikatxo Zenbat Roldan! Zenbat bidegabekeria, tranpa, saldukeria, kargu eta diru irabazte ez ote da egin ETAREN izenean eta aitzakian. Luis Roldan ez da ez gizendu den bakarra.

(1994-IV-28)

“APARTA, ZIPAIO”

Ajuria-enea, Lakua, Diputazioak eta abar zaintzen hasi zirenean barre egiten zitzairen ertzainei: “Hona apainduriarako bakarrik balio duten lorontziak”. Eta arma guztiak kenduta, esku hutsik utzi zituzten, lotsagarri, Gipuzkoako Diputazioaren atarian.

Bideak zaintzen hasi zirenean ere barre egiten zitzairen: “Txakurrentzat arriskutsuegiak diren kamio ertzetan jarri dituzte orain. Baina isunen bat edo beste ezartzeko adina eskubide eta ahalmen bakarrik izango dute. Beste guztia txakurren esku izango da beti”.

Istiluzaleak sakabanatzen hasi zirenean “la misma porquería” bilakatu ziren. ETAkoak atxilotzen hasi zirenean, berriz, “zipaioak”. Ertzaintzak, nonbait, poliziak eta guardia zibilak atxilotzen eta ETAkoak zaintzen lagundu beharko luke. ETAkoen bizkartzain izan beharko luke. Norbait hiltzen dutenean bideak zabalduko dizkion bidezaina. “Aparta, zipaio, aparta” esanaz eginkizun hori gogorarazi eta hala ere bidea ixten duenak ez du bizirik merezi, tiroz eraitxi behar da. Ez du bere burua defenditzeko eskubiderik, egiten duen tiroak erasotzailea hiltzen badu “asesino” baita.

Poliziarik eta indarkeriarik gabeko bake eta askatasun osoko mundua amesten duten ameslariak beti izango dira. Ez dirudi, ordea, honelako ameslari asko denik gure artean. Eta geure polizia irrikitzen genuen, Francoren zerbitzuko polizia basa, erasokor eta arrotz harekin ez baitzegoen bakerik. Eta lortu egin dugu amesten genuen euskal polizia, edozein poliziak

dituen eginkizun eta baliabideekin, era guztietako gaizkileak harrapatu eta atxilotu ditzan eta hiritar guztion eskubideak, ondasunak eta biziak zaindu.

Herriak berretsitako Estatutuaren ahalmenez, Eusko Legebiltzarrak kontrolatutako, herriak aukeratutako agintariak gidatutako eta herritarrik gehienek onartutako ertzaintzak hor dihardu bere lanean. Eta, besteak beste, ETArekin egin du topo. Zer egin beren buruak herriaren salbatzailetzat dituzten hauekin? Laguntzea gehiegitxo izango litzateke, agian, baina ezikusi egin beharko lukete, gutxienez. Hala uste du “aparta, zipaio, aparta” agintzen duenak behintzat.

Gehienok, ordea, hori egiten duen ertzaina ustela eta bi-laua dela uste dugu. Sarraskiak egiten ari den ETAKoa, edozein gaizkile bezalaxe, ertzaintzak atxilotu egin behar du. Eta hala egiten duelako ETAk ere topo egin du ertzaintzarekin.

Ez zuen uste, jakina, udal txistulariak eta aldundietako turutajoleak bezalaxe, apainduria hutsa zirela pentsatzen baitzuen. Orain dira kontuak. “Ertzaintzarik ez zen sortu behar, enfrentamendu zibila sortzen baitu”, entzun diot bati irratiz. Francoren garaiko diktadura eta polizia nahi lituzke horrek. Haiek bai urteak! Denok frankismoaren eta txakurren eta txapelokerren kontra. Baina orain geuk aukeratutako erakundeak, agintariak eta ertzainak ditugu. Horiei erasotzea herriari eta herritar gehien-gehienei erasotzea da.

Horixe ez dute ikusi nahi ETAk eta konpainiak. Eta buru-berotzen, odol eta mendeku eske jardun dute, samina gorroto bihurturik. Denok mehatxatu gaituzte. Sententzia harturik dugu. Gu gara hiltzaileak. Gu gara Irazabalbeitiaren heriotza-

ren errudunak. Ura bake eske zetorren. Airera botatako tiroek, deskuido, jo baitzuten Jesus Marzan Otero ertzaina.

(1994-XI-22)

“HILIK GERTATU ZEN”

Harrigarria da ETAk bere sarraskien erantzukizuna nola leuntzen eta besterenganatzen duen. Oraindik orain, “sei ekintza hartu ditu bere gain”. Baina ez da sei hildakoen jabe egin. Izan ere, “auto-bonbaz, armaz edo lehegailuz buruturiko ekintzen ondorioz gertatu ziren hilik”.

ETAk ez du inor hiltzen, bahitzen, zauritzen, elbarritzen. Istripuz, halabeharrez, gertatzen dira hilak, bahituak, zaurituak eta elbarrituak, trenean, kamioan, aldamioan, sutegian, dabilena dabilen bideak harrapatzen duen bezalaxe. ETAk ez du inolako erantzukizunik, ezta zeharkakorik ere; ez arduragabekeriarenik ez zabarkeriarenik ez arinkeriarenik. Ez du trenaren, kamioaren, aldamioaren edo suteegiaren arduradunak izan dezakeen erantzukizunik ere.

Baina beste guztiok “hiltzaileak” gara. Poliziak edo GALEk hil dituenak bakarrik ez ditugu hil. Bere buruaz beste egin dutenak, bomba eskuetan lehertu zaienak, tiroketa batean edo istripuz hil direnak eta gaitzak eraman dituenak ere guk hil ditugu. ETaren kideak, lagunak eta laguntzaileak ez dira ezeren “ondorioz hilik gertatzen”.

Ni, jakina, prest nago, dagokidan neurrian, egoeraren erantzukizunaren zatitxoa neure gain hartzeko. Baina ez naiz torturatzailea, ez naiz hiltzailea. Eta norbaitek horrelakorik egin badu, nire gogoaren kontra egin du. Eta epaitua eta zigortua izan dadin saiatuko naiz. Eta horrelakorik gehiago gerta ez dadin neurriak har ditzatela eskatuko dut.

Baina norbanakoak eginak norbanakoaren erantzukizun dira. Bahitzaileak, torturatzaileak, hiltzaileak, izen deitura jakinak ditu. Nahi den giroak eta egoerak baldintzatua, baina norbanakoa da erantzule. Gizartea, elkartea, alderdia, ez dira hiltzaile, tiro egiten eta lehergaia jartzen dituenak baizik. Tiro egin edo lehergaia ipini duenak ezin dezake bere burua zuritu, “ekintzaren ondorioz hilik gertatu zelako”.

Behar bezain zorrotz, arduratsu, arretaz, erne eta adi ez jokatuaren erantzukizuna denon artean banatzea bidezkoa da. Baita gertaera gogorraren zenbait ondorio ere. Baina ETAK eta enparauek ezin dituzte egoera gogorraren ondorio guztiak besteren gain ezarri. Bere burua hiltzen duenaren erantzukizun guztia ezin diezaioke besteri egotzi. Norbanakoari irtenbideak ixten mutila da ETA. Horren ondorioz bereganatu duen ezin eraman-ahaleko zama horren erantzukizuna ETArene da, beraz, nagusiki.

Norbere buruaz beste egitea ez da ez desohoragarri ez lotsagarri eta ez harrogarri, mingarri eta errespetagarri baizik. Bere norbaitek hori egitea, ordea, beste inorentzat baino kezka-garriago izan beharko luke ezker bortitzarentzat.

(1997-IV-8)

“ZAKURRAREN PARE”

Ortega Lararen inguruan era askotako mezuak, gomendioak, nahiak eta mehatxuak azaldu dira. Eta alderdi eta gizabarnako bakoitzaren barrunbea ikusteko balio dute adierazpen horiek.

Konponbiderako, presoan hurbilketarako, elkarrizketarako eta abarretarako deia egin dute batzuek. Guardia Zibilen beharra azpimarratu du zenbaitek. Garaipen kanpaiak jo dituenik ere bada: “ETA ez da menderaezina”. Bada, jakina, “mozkorraldiaren ondoko ajeaz” mehatxatu duenik ere.

Baina Ortega Lararen irudiek besterik ere salatu dute: ankerkeria, lehenik. Eta ezker bortitzaren egunkariak berak berretsi du, lehen orrian, ankerkeria hori: “Ortega vuelve a la cárcel”.

Orain arteko bahituek eman zitzaien tratua ona goraiatu eta eskertu izan dute, ez dakit zeren sindromea, gorabehera. “Zerraldoaren irudiko” zulo ttiki-estua izanik ere, denborapasako harreman eta tratua onaz mintzo ohi ziren. Alde horretatik, ongi samar geratu ohi zen ETA.

Ortega Lararen irudiak berak eta eman zaion tratua berriak jakin-ahala, ETaren ankerkeria, bihotzik eta gizatasunik eza nabarmentzen dute. “Zakurraren pareko tratua” deitu dio egunkari batek, lehen orrian. Gizon-emakumeak baino hobeto bizi diren zakurrak asko dira, jakina. Eta Arrasateko hau ere Ortega baino hobeto bizi zen: etxeok ikusiz eta kanpoan paseatuz bizi baitzen, Ortega ez bezala.

Ortegari tranpoletik botatzen zioten jana zulora, putzu bihurtu zen zulo ilun, ttiki estura, zakurrari baino jaramon gutxiago eginaz. Zakurrak, jakina, maitasunezko igurtziak ere hartzen zituen. Noiz hilko zuten beldurrez bizi zen Ortega: “akaba nazazue, behingoz”. Hala zioen Azkuna sailburu medikuak: “Inork ez ditu 23 kilo galtzen, ezta nahita ere. Hau tortura da”. Baina hitz horiek baino adierazgarriagoa zen Ortegaren beraren itxura. “Ecce homo” eginik ikusten baitzen, Kristorenak hartu balitu bezala.

Sekulan ez bezala agertu da ETA, lotsagarri, anker eta bilau. “Piztia bezala”, esan du Jaime Mayor Orejak. Edozein hilketa eta bahiketarekin baino areago, jakina. Oraingoan, 532 egunetan eduki baitu penatzen eta piskana-piskana akitzen eta hiltzen.

ETAk ez ditu gatibualdi luze bateko arriskuak kontuan izan. Harro jokatu du, bere indarretan fidaturik. Jauregi eder batean ere ez dago inor bahiturik edukitzerik. Are gutxiago, horrelako zulo xistrin batean. Alde ederrean geratuko zen, Garaikoetxeak dioen bezala, bere kabuz, garaiz, askatu balu, elkarrizketarako eta bakerako borondatea erakutsiz.

Baina ETA bakarrik ez da izan harroa. Baita Espainiako gobernua ere. Jaime Mayor Orejak aldiro esan du: “ETA piztia da”. Eta bazekien nolatsuko zuloan eduki zezakeen. Eta bazekien, osasuna ezezik, bizia bera ere galtzeko arriskuan zela Ortega. Halabeharrez eta zorionez, doi-doi bederen, bizirik askatu duelako, harro dabil orain, bidenabar azpiegitura bat eta komando bat desegin baititu, gainera. Baina gizon baten duintasuna, osasuna eta bizia arriska al daitezke horrenbeste?

Mayor Orejak ere ez du, ez, bihotz gehiegirik erakutsi. Eta dena den, jakin beharko luke zauritutako “piztia” utzi duela, zaurituari eskurik luzatu gabe, hain harro jokatzeko. “Mozkorraldiaren ondoko ajeaz” ez luke ahaztu beharko.

(1997-VII-3)

ZER DA ETA?

Denetatik entzun dugu. Guztiok irentsiko gaituen “mamua”, “herensugea”, “odol-xurgatzailea”, “hiltzeko makina”, “mafia”, “minbizia”, “izurritea” eta abar deitu izan zaio, bakoitzaren aldar-tearen, ahoberokeriaren, amorr-uaren eta irudimenaren arabera.

Edozein biraoren indar bera dute ahoberokeria horiek: ahuntzaren gaberdiko eztularen parekoa. Harri-jasa gaineratuko diguten hodei beltzetako trumoi-tximistei edo soroko landare guztiak jaten ari diren xomorroi konjuroka eta mehatxuka ari denaren parekoa. Gehienez ere, norbere lasaigarri eta belarrien gozagarri dira. Mezu drogoso eta engainagarria saltzeko bakarrik balio dute. Mamuak, herensugeak, minbizia, izurriteak, hil edo ezabatu beharreko zerbait dira. Orobat, ETA. Ez du beste konponbiderik, beste sendabiderik.

Baina gaitza asmatzen ez denean, sendagaia ere ez da asmatzen. Lege zorrotzak, epaile zorrotzak, kartzela gogorrak,

lehen ere baziren. Heriotza-zigorra ere bai. Baita GAL bezalako talde hiltzaileak ere.

ETA ez da herensugea, ez da minbizia, ez da izurritea. Gizon-emakumez osatutako talde eta organizazioa da, helburu batzuk lortzeko armak erabiltzen dituen, buruzagiak, antolamendua, dirua, baliabideak eta abar dituen. Zilegizkoa ez den organizazioa denez, ezkutukoa, iluna, arrea, ezagutzen zaila.

Izenaren arabera, Euskadiren askatasuna nahi du. Baina zer askatasun? Marxista-leninista, zenbaiten ustez. ETAk berak, ordea, ez du hain garbi erabakitzen. Izena eta izen-laguntzailea zein diren argitzen ez duen “ezker abertzalea” pean ezkututzen baita.

Baina zer nahi duten, armak uzteko prest dauden, jakiteko bide garbi eta erabakior bakarra da: beroriekin hitz egitea. Ezinbestekoak dira poliziaren lana, gizartearen muzina eta abar. Ez dira nahikoak, ordea. Gizartean horrelako oihartzuna duen organizazioarekin bukatzeko konponbideren bat behar-beharrezkoa da.

Ez dakigu konponbiderako gogorik baduen. Menia eta su-eten luzearekin bakarrik erakuts dezake ETAk bere borondate hori. Espainiako gobernuak ere orduantxe nabarmendu beharko luke. Eta horren beldur da. Su-etenik eskaini ez dezan ari da zirika, nola-halako atxiloketak eginaz. Ikaraz eta dardaraz jartzen da Mayor Oreja ETAk su-etena eskaini dezakeela pentsatze hutsarekin.

(1997-IX-3)

PRESOEN ARDURA

Presoak ez dira abertzaleen kontua, giza eskubideen, gizabi-dearen, besteren pairamenarekiko sentiberatasun eta erruki kontua baizik. Autodeterminazioa ere ez den bezala abertzaletasunaren kontua, demokraziarena baizik.

Geuron buruen jaun eta jabe izatea da abertzale baten helburua. Autodeterminazioa horretara gaitzakeen bide demokratikoa besterik ez da. Horretarako, ordea, herritar gehienen nahia irabazi behar da. Eta hori dauka irabazteke oraindik euskal abertzaletasunak. Horregatik jo zen, orain 20 urte, espainolisten jukutriatzat. Orain ere abertzale askok, demokrata delako, onartzen du autodeterminazioa, ez abertzale delako. Izan ere, abertzale batek bere herriaren burujabetza nahi du, askatasuna, inoren morroi eta maizter ez izatea.

Presoen kontua ere demokraziaren kontua da, giza eskubideen kontua, eta kristau baldin bada, kristautasunaren kontua. Abertzaletasunak berariazko zerikusi berezirik ez du gai honetan. Jakina, gizon-emakumeei dagokien beste edozein arazo bezalaxe, hau ere kontuan izan beharko du.

Eliza mirabe izaten ohitua den Espainiako eskuinak bere zerbitzuko gotzainak nahiko lituzke, zakur leialak, gutxienez mutuak. Ez dezatela gizarteko auzirik aipa. Gizartearekin zerikusirik ez duen fedean argibidera ditzatela eliztarrak nahi du Iturgaitzek. Horixe nahi du Ana Maria Vidal AVTko lehen-dakariak ere. Hobe omen lukete gotzainek behartsuen, bazter-tuen eta drogak menperatutakoen alde arduratuko balira.

Droga konturik ez du Ebanjelioan aurkituko, “ardoak bihotza pozten duelako” bihurtzen baitu, agian, ura ardo. Baina Ebanjelioko lehen orrietan aurkituko ditu presoak, behartsuekin eta baztertuekin batera. Are gehiago, Jesukristo berbera da preso bakoitza, Ebanjelioaren arabera.

Harrigarriagoa da sozialisten jarrera. Oro har, handikien eta aberatsen lagun eta behartsuen eta langileen etsai izan direlako gorrotatu izan dituzte gotzainak eta apaizak. Giza eskubideen kontrako zapalketa eta bidegabekeriak salatzen ez zituztelako. Gizarteko arazoez kezkatzen ez ziren kristauen kontura barre egiten zuten, gainera. Orain, berriz, gizon-emakumeekin zerikusirik ez duen zeruetan dagoen Jainko ikusezinaz ardura daitezela eskatzen diete gotzainei.

Harro agertu ohi dira Espainiako politikoak, giza eskubideei buruz munduko Konstituziorik eta legeriarik aurreratuen omen dugulako. Paperean oso aurreratua izan daiteke, jakina. Paperekoa egia balitz, inork ez luke, esate baterako, etxerik eta lanik gabe bizi beharko. Baina milioika bizi dira lanik eta etxerik gabe. Gotzainek eta apaizek ez al dute arazo horretaz arduratu behar beren sermoi eta zereginetan? Eta orduan ere, ez al dute gizartea zatitzen? Baina gai horiekin ez dira politikoak hain haserre agertzen, botoak galtzeko arriskua jokatuko bailukete.

Presoei buruz ere legeek aitzakia ttikia dute. Baina betetzen al dira? Ez beti. Jende hauxe da, hain zuzen, gizarteak ere errazen ahazten duena; askorentzat, batagatik edo besteagatik, jendilajea baita, higuingarria eta mendekua merezi duena. Batez ere, bortizkeriagatik eta bortxakeriagatik bada.

Hortxe, bada, inon bada eta, izan behar du arretatsua Ebanjelioaren jarraitzaile izan nahi duenak, politikoak, Pilotarengandik hasita, erraz erortzen baitira barrabaskerietan.

(1997-XI-18)

GIZA ESKUBIDEAK ETA EUSKALDUNAK

Giza eskubideen adierazpenak 50 urte bete ditu gaur. Gizon-emakumeek bizitzarako, askatasunerako, segurtasunerako, bakerako, zuzenbiderako, kulturarako, jakintzarako eta abarretarako dituzten eskubideak aitortzen dira adierazpen horretan.

Gizadiak bide luzea eta malkartsua egin behar izan du eskubide horietako asko onartuak izateko. Urtetako eta mendetako lana behar izan da heldutasun horretara heltzeko. Hala ere, 18 hilabete behar izan zituzten 40 estatutako ordezkariak horrelako adierazpen bat burutzeko. Hitzarmena erabat finkatzeko, berriz, beste 18 urte.

Joan den udan, munduko 140 estatuk onartzea lortu zen. Oraindik ere, ordea, leku askotan hankaperatzen dira. Bermatu eta ziurtatu beharko lituzketen agintariak hankaperatzen dituzte, gainera, askotan.

Bortizkeria dela eta, basapiztia fama zabaldu digute euskaldunoi. Ez gara santuak. Ankerkeria handiak egin dituztenak

ere badira gure artean. Baina giza eskubideen aldeko jokabideak eta iritziak inon baino lehenago zabaldu ziren euskaldunen artean. Ezagunak dira *Vitoria* izeneko Frantzisko Ganboa gasteiztarraren irakaspenak. Tratu txarrak ere beste inon baino lehenago eragotzi ziren Euskal Herrian. Inkisizioa bera ere, Inazio Telletxeak dioenez, beste lekuetan baino bigunagoa izan zen. Ezartzen ziren, jakina, onartezinak diren zigorrak. Zutik daude oraindik Gipuzkoako Alegin, Arabako Forondan eta Mendozan pikotak, harrizko zutabeak, gaizkileen zigortokiak. Euskarari, gainera, hezurmamiturik geratu dira “hoa pikutara”, “pikutara bidaliko haut” eta antzeko esaldiak.

Zuzenbiderako eta duintasunerako sena gehiago zen nonbait euskaldunen artean. Gaur 50 urte bete dituen “Giza eskubideen adierazpena” burutzen ere judu jatorriko euskaldun batek jardun zuen buru-belarri: René Cassin baionarrak. Judu jatorrikoa zenez ezezik, euskaldun zenez ere, bazekien, noski, ttikiaren kontrako erasoen berri: Gutxiespena, erdeinua eta zapalketa bere izaeraren, nortasunaren, kulturaren, hizkuntzaren eta abarren kontra.

“Giza eskubideen adierazpena” da edozein estatu eta herrikeri izan dezakeen konstituzioaren oinarriarik sendoena. Euskal gatazka konpontzeko ere hor da oinarriarik sendoena. Espainiako Konstituzioan ez bezala bermatzen baita bakoitzaren herritartasunerako eskubidea.

(1998-XII-10)

HERRIAGATIK BIZI

Poeta aspaldi iritsi zen ondoriora heldu gara euskaldunok, Baionako apezpikuaren ustez. Joxe Antonio Artzek, oso oker ez banago, honela idatzi zuen: “Ederra bada herriagatik hiltzea, ederragoa da herriagatik bizitzea”. Pierre Molerés apezpikuak, berriz: “Lizarra-Garaziko hitzarmenak hiltzea baino hobe dela bizitzea, erakusten digu”.

Frantziako eta Espainiako estatuek zatiturik eta zapaldu-rik eduki duten Euskal Herria hiltzeko zoriraino akitu dute. Estatuak beren konstituzio demokratikoak Euskal Herriari ezarri zizkietenetik, amore eman edo borroka egin beste bide-rik ez dugu izan euskaldunok. Batzuek, noski, gustura eman zioten amore aurrerabidearen izenean. Ez ote zen norbere au-rrerabidearen mesedetan, Euskal Herriaren onaren trikimailuz apainduta? Beste batzuek, berriz, euskaldunon askatasunaren, nortasunaren eta hizkuntzaren erasotzat hartu zituzten kons- tituzio horiek.

Geroztik ez gara geure onera etorri. Behin eta berriz ibili gara elkar jotzen eta hiltzen. Baina hiltzea baino bizitzea hobe dela oharturik, demokraziaren bidetik nahi dugu burujabetza lortu eta Europa Batuan geure lekua aurkitu. Bake bideari heldu diogun une honetan izango al dute Frantziak eta Espainiak orain arte izan ez duten ezaguera, baldinbaitere!

Hala ere, eskubete lan izango dugu geure arteko zauriak sendatzen. Borroka honetan asko sufritu du zenbaitek: bizia galdu dutenak, ihesi eta idiskotuan bizi behar izan dutenak, espetxean daudenak eta berorien guraso eta senideek.

Baina sufritu, sufriaraziz, hil, bestea hilez, min hartu, min emanaz, egin dute. Egoera larriak jasan arazi dizkiote askori. Ez duela barkaziorik eskatuko, Espainiak eskatu behar digula euskaldunoi, esan du ETAk. Ez dakit barkazio eske ibili behar denik. Baina jakin bezate, hildakoez eta berauen etxekoez gainera, ondoez handia sortu dutela, gogorkeria, ankerkeria eta mehatxu izugarritz jokatu baitute politiko eta herritar askoren kontra.

Denok ere gauza askori egin beharko diogu ahaztuzkoa. Baina gertatutakoaz inor ez gintezke harro agertu. Ezker abertzaleak ere ez beza uste izan dena hartzekoa duenik. Ez dezala uste izan irabazle gisa ager daitekeenik. Umil eta tentuz ibiltzeko garaia da hau.

(1998-XI-13)

ULSTER-ERAKO KONPONBIDEA

Ipar Irlandako bakearentzat eta etorkizunerako garrantzi handiko akordioa lortu dute John Major eta Albert Reynolds, Erresuma Batuko eta Irlandako agintari nagusiek. Ez da hitzarmen zehatza, borondate oneko adierazpena baizik. Baina punturik garrantzizkoena zehaztu eta argitu dute: demokrazi arauak: “Ipar Irlandako bizilagunek dute beren etorkizuna erabakitzeko eskubidea”. Eskubide hori onartzeko, Irlandak eta Erresuma Batuak, biek, eman dute amore. Izan ere, biek baitzeukaten Ipar Irlanda beren lur-zatitzat.

Armekin borrokan dabiltzanek onartuko duten ala ez ikuskizun da. Hiru mila hildakok uzten duten samina eta gorrotozko zauria handiegia da, gauetik goizera desegiteko. Ipar Irlanda Erresuma Batuko zati dela aldarrikatzen duen Ian Paisley-k “traidoretzat” jo du John Major. Eta IRAren txapel politikoa den Sinn Fein-ek onartuko duen segurantziarik ere ez da. Baina lehenxeago edo geroxeago bakea ekarriko duen bidea aurkitu da. Jenderik gehienek nahi dutena onartu, eta kito. Irlandaren zatia da iparraldea, lurrez. Baina Erresuma Batuari loturik dago legez eta gehienen bihotzetan. Oraingoz, Erresuma Batuari loturik jarraitu nahiko dute, beraz.

Jakina, 25 urtetako borroka armatuak ez du Ipar Irlanda Hegoari atxikitzerik lortu. Are okerrago, ez du gehiengoaren borondaterik eta pentsaerarik aldatu. Eta armaz lortu ez dena, ezta botoz ere, oraingoz. Alde horretatik, ezer gutxi aldatuko da Ipar Irlandako herriaren egoera. Baina bake, errespetu eta demokrazi bideetatik lan eginaz gehiengoaren borondatea irabazten badute, badakite, Erresuma Batuak, orain arte ez bezala, gehiengoaren erabakia onartuko duela. Alde horretatik, lasaitasun handia da, beraz, Irlandazaleentzat.

Gure artean ere ez da bakearentzat beste biderik. Bai Espainiako Estatuak eta bai ETAk euskaldunik gehienen borondatea onartzea. Estatuak ezin dezake derrigorrean eta armen mehatxupean herri bat bere mende eduki. Herri horretako gehiengoaren erabakia errespetatzeko prest dagoela aitortu beharko luke, gutxienez. Hori baita demokraziaren arau garbia. Estatuak hori aitortu arren, Euskal Herriak hementxe jarraituko luke, oraingo antzera. Gehiengoaren borondatea

errespetatuko dela aitortzeak ez baitu, besterik gabe, jendea iritziz eta jokabidez aldatzen.

Baina aldatzea gure erantzukizuna izango da. Inork ez liguke guztien buru-bihotzak irabazten indarrez eragotziko. Inorentzat ez da mugarik eta langarik. Nahi ditugun elkarteak eta komunikabideak sor ditzakegu, nahi ditugun bilerak eta biltzarrak egin, nahi ditugun iritziak eta jokabideak zabal. Herri honen barne indarrak eta elkarrekiko senidetasun lokarriak suspertzen ez baditugu ez gara herri bakar bat izango.

Mugak tarteko eta larderialdi luzeak noiznahi, ez dugu lan hori egiteko aukerarik izan, ia oraintsu arte. Orain, ordea, geure esku dago eginkizun hori. Eta lortu ere lortuko dugu iraupen handiz eta burubide argiz lan egiten badugu. Eta lasaitasun handia emango liguke gehiengoaren erabakia errespetatuko dela, aldez aurretik, ziurtatzeak eta jakiteak.

(1998-XII-17)

NAHIGABEA

Nahigabea sentitu dut. Tristura. 1998ko irailaren 17an sentitu nuen pozaren neurriko tristura. Sekulako poza eman zidan ETaren meniak. Izugarrizko nahigabea eman dit lehengora itzultzeko erabakiak.

Herritar gehien-gehien nahiaren kontra borroka armatuari, itsu eta setatsu, katramilaturik zen ETak irtenbide

duin eta egokia eskaini zion bere buruari: herriaren, herritarren, Euskal Herriko alderdien esku utziz euskal gatazkaren konponbidea.

Argia izan zuen egun hura. Bere zalantza guztiekin ere, bazirudien, argi hori ez zitzaiola itzaliko sekulan. Ez Aznar, Mayor Oreja eta enparauen harrokeriak eta zurrunkeriak, ez beste zenbaiten uzkurkeriak, ez aurrerabide nabarmenik ezak, ez ezerk, ez ziola atzera egin araziko zirudien.

Baina ez da hala gertatu. Sinesgogorreireta fidagaitzei eman die arrazoi, “tregua-trampa”koei alegia. ETA abertzale dela ukatzen dutenei. Marxista-leninista-espainolista dela diotenei. Abertzaletasuna barrutik usteldu beste helbururik ez duela pentsatzen dutenei. Hori pentsarazteko adina bide eman du bere historian, noski. Maoren maltzurkerietara joan beharrik ez da, ordea, alde bateko eta besteko muturrek elkar jotzen dutela jakiteko.

Ulertzen errazagoa den beste zerbait gertatzen zaio ETARI, nik uste. Batetik, ez du herri honen borondatean, ekinbidean eta indarretan sinesten. Eta ez du berak nahi bezalako erantzunik sumatzen. Herriak berez ezin lortu duen hori lortzeko eginkizuna horregatik hartzen du bere gain.

Zergatik gertatzen zaio hori? Euskal Herria ametsezko herri bihurtu duelako. Herri hau ez dago independentziaren alde su eta gar. ETAK uste baino lasaiago eta patxadagoan bizi da. ETAK uste baino ñabarragoa da herri hau. Euskal Herri osorako parlamentu bat sortzea eta lehendakari bat aukeratzea proposatzen duena ez da herri honetan bizi.

Eta herri hau berak uste bezalakoa agertzen ez delako akuilua astintzeari ekiten dio. Herri honek bere zailtasunak, bere abiada, bere pausajea dituelako, zirt-zart egitea erabakitzen du ETAk. Baina alferrik. Are okerrago, kalte egiteko, min emateko, zapuzteko eta kontra jartzeko.

Berriro okerrean hasi baino lehen argialdiren bat izango duen esperantzarik ez dugu galtzen. Dena herri honen eskuetan uzteko adina argi eta fede izango al du, baldinbaitere. Hala espero dugu.

(1999-XII-1)

TORTURA HOTS HANDIAK

Tortura hots handiak dira berriro. Gutxi-asko beti izan dira. Ez dira isildu, ezta demokrazialdian ere. Polizia mota guztiei egotzi ohi zaie jokabide anker hau, gainera. Bereziki, guardia zibilei.

Kuartelean edo komisaldegian gertatu dena argi eta garbi jakitea ez da erraza. Ez baita atxilotuaren aldeko lekukorik. Nori sinets? Ez da psikologian doktore izan beharrik nor ari den benetan eta nor alde-aldeko kontuak esaten antzemateko.

Euskaldunok sinesberak gara, agian, oso hurbiletik eza-gutu baitugu tortura. Izan ere, norberak jasan ez badu ere, etxekoren batek edo lagunaren batek jasan du. Hiltzerainokoak jasan ere zenbaitek.

Beste batzuk, ordea, sinesgogorrek dira. Ez dute guardia zibilen eta polizien jokabidea eta hitza zalantzan jartzerik onartzen. Gezurrezko salaketak egin daitezkeela poliziak zikintzeko? Noski. Baina erabat sinesgogorrek izateko azterna gehiegi da. Badira epaileak zigortutako torturatzailleak. Eta Amnesty International-ek ere urtero salatu ohi ditu Espainian egiten diren torturak. Dena den, demokraziarik eta zuzenbiderik den edonon, ikertu behar da salaketa bakoitza. “ETAko esku-liburua” aitzaki, agintari eta epaile demokratik ez daitezke salaketak aintzakotzat hartu gabe gera. Izan ere, tortura salatzen duenak adinaxe interes izan dezake ukatzen duenak.

Torturak, bere ankerrean ere, izan dezake arrazoibiderik, amorrazioarena edo efikaziarena bederen, atxilotuak poliziaren bat hil duelako edo sekulako informazio baliotsua eman dezakeelako. Baina burutik ondo dagoen inork pentsa al dezake *Egunkariakoek* inor hil dutenik edo ETAko zuloak, armak eta lagunak non dauden badakitenik? Bestela, hamaika ezerez eta alfer ari gara mantentzen.

Zer arrazoibide orduan? Euskarari, euskal kulturari eta euskaldunei dieten gorrotoa. Euskaltzale eta abertzale oro ezabatu beharrekotzat dutelako, 36ko gerra sutu eta zuritu zutenek bezalaxe.

ERASOTUAK ETA ERASOTZAILEAK

Erasotuak babestu eta erasotzaileak zigortu egin behar dira. Hori da zuzena. Zer da erasotua babestea? Bere ondoan eta bere alde agertzea, bere izen ona bermatzea, kaltea ordaintzea, behar dituen laguntzak eskaintzea, bere zauriak sendatzea eta gorroto itogarria gainditzen laguntzea eta erasotzaileari dago-kion zigorra ematea.

Hori da gizarteak eta erakundeek zor diotena. Beste kontu bat da beren egoeraz politika egiteko baliatzea edo konponbiderako erabaki politikoak erabat eragozte edo mendekuzko zigorrak eskatzea. Erasotuak horretaratzea ez da harritzekoa, baina ez dirudi horretan agintariak laguntzea oso bidezkoa denik. Are gutxiago, politikoak horretaz baliatzea. Dena den, politika jakin horren kontra dauden alderdiak kontra izango dituzte bide horretan. Elizgizonentzat ere ez dirudi ebanjelioarekin oso uztargarria denik mendekurako gorrotoa suspertzen laguntzea.

Erasotuak eta mehatxatuak, lehenengo. Eta horien egoera “gatazkarekin” zuritu nahi duenarekin inora ere ez. Argi eta garbi. Baina horiekin ez nahasteak ez du erasotzaile zigortuekin eta horien inguruan sortzen den minarekin zerikusirik ez dugunik adierazten. Kristaudentzat, gutxiago, Askatasun gabetuak, zigortuak, espetxeratuak, baditu bere eskubideak. Gaizkileak atxilotzeko, epaitzeko eta zigortzeko eskubidea Estatuaren esku utzi dugunok ez dezakegu mendekurik eta gainzigorrik onar.

Egia da, ETako presoek, besteek ez bezalako laguntza eta babesa dute etxekoen, lagunen eta herritar askoren aldetik.

Zerbait bereziaren seinale da, noski. Eta hori mingarri zaio askori. Eta horien eskubideen alde hitz erdi bat ateratzen duena biziak larrutzen badute ere, ezin isil gaitezke.

Erasotzaileen inguruan ere min eta nahigabe handiak sortzen dira: zigortuaren egoerak, etorkizunak, endredoak, gastuak, ibiliak dakartzanak. Semearen edo alabaren jokabide horren kontra daudenetan ez txikiagoak, noski.

ERAGOZPENIK HANDIENA ETA DA

ETA erakundeak ez omen du gatazkaren konponbidean oztoporik jarriko. Hala errepikatu ohi du Arnaldo Otegi. Itsu, koldar edo bilau izan behar da hori esateko. Euskotarrok dugun gatazketako bat, mingarriena noski, ETA bera baita. Euskadik, abertzaleok bederen, Espainiarekin dugun gatazkaren konponbidea ere berak katramilatzen baitu, lehenaz gainera.

Gizon-emakumeen biziari, bakeari, elkarbizitzari, aurreabideari eta abarri erasaten die ETAk. Baita abertzaletasun demokratikoari, EAJri eta ezker abertzaleari ere. Abertzaletasun oro zikintzen eta ahultzen du. Abertzale sozialisten alderdirik indartzen ere ez du uzten. Non da EAJ ordezkatu behar zuen ezker abertzalea? Non, PSEri tokia jan behar zion sozialista abertzalea?

Ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez omen. Menia ondoko Otegi ere ez du ikusi nahi. Izan ere, begi-bistakoari ezikusi ez balio egingo, etxera erretiratu beharko luke.

ETAk, lehengoak eta oraingoak, edozein militarrek bezala, bera dela uste du egiazko abertzalea: Euskadi benetan maite duen eta bere alde bizia emateko prest dagoen bakarra. Beste guztiak ondo bizi nahi duten koldar, ustel eta salduak dira, baita Batasunakoak ere.

Ez dakit herriaren ekimenean inoiz sinetsi duen. Bere ekintzak herri horrek nola hartzen zituen, behintzat, arduratzen zen. Ekintza bakoitzaren ondoren arrazoiak ematen saiatzen zen, pedagogikoki. “ETAk ez du herritarrik beldurtzen”, zuritzen zuen HBk, gainera. Salbuespenak salbuespen, egia zen. Orduan, berdeek eta grisek beldurtzen gintuzten. Orain, ETAk beldurtzen gaitu gehienok.

Bost axola, ordea, herritarren iritzia eta onarpena. Badaki, gehien-gehienak kontra dituela, Badaki, hobe beharrez edo, alde zituen askok ere muzin egin diotela, Azkeneko hauteskundeak lekuko. Badaki, Batasuna bera ere arriskuan jartzen duela. Eta zer axola Batasunagatik? A ze pagotxa eragotziko balute, pentsatzen du ETAk. Espainiako gobernuak politika bideak itxiko balizkio, armak hartuko lituzketenak eta hiltzen jarraitzeko arrazoiak ugaltu egingo bailitzaizkioke, bere ustez.

ZER EGIN DUT? ZER EZ DUT EGIN?

Joseba Butron Jauregik bezala, “neuk ere badut min sakon bat. Ez dakit zer egin dudan edo zer egin ez dudan existitu gabe bizitzeko. Zeren eta ni ez naiz inoiz existitu. Euskalduna naiz, baina nire paper guztiak begiratu eta ez dut inon aurkitzen horren egiaztapenik. Denek esaten dute espainiarra naizela”.

Baina zer da nire min hau hiltzailea atzetik segika dutenen larriaren ondoan? Nire mina aipatze hutsak ere lotsa ematen dit. Hain dira min desberdinak! Paper guztiak gorabehera, ni euskalduna naiz, euskaraz bizi naiz, lasai eta ondo bizi ere. Eta euskaldun izatea eta euskaraz hitz egitea debekatuko balidate ere, hiltzea baino bizitzea nahiago.

“Zer egin duzu, bada, zuk ni ez bezala bizitzeko, edo zer ez duzu egin? Zer ez duzu, bada, egin zuk bizkartzainik merezi gabe bizi ahal izateko?” galdetzen didak, Ramon. Ezer ez. Ez egin eta ez egin gabe utzi. Hori armadun harro eta apetatsuen erabaki anker bat besterik ez duk.

Min ematen zidak, jakina, hil ez duan merezimenduren bat edo utzikeriaren bat egin ote dudan pentsatze hutsak. Eta min, noski, zuen minarekiko eta biziera beldurgarriarekiko nire minaren zinezkotasuna zalantzan jartzeak. Itxura hutsa egiten dugula pentsatzeak, alegia. ETA desagertzerik ez ote dugun nahi, alegia.

Baina zer dira nire min hauek denak hiltzailearen errainua segika duenaren minaren ondoan?

Munduan badira, noski, hemengoa baino borroka odoltsuagoak. Baina aldrebesagorik ba ote? Izan ere, aberriaren

eta herriaren izenean aberkideak eta herritarrak hiltzen dituen borroka baino burugabeagorik ba ote?

ETA, jakina, “begi oker eta begi bakar” ezezik, buru oker eta bihotz oker eta itsu eta gor ere bada. Herritarrik gehien-gehienek, abertzale gehienek, eskatzen diote ETArin inor ez hiltzeko, ez erasotzeko, ez mehatxatzeko. Baina ez du herritarren garrasirik entzuten. Ez du herritarren negarrik ikusten. Eta hiltzen eta bizia barkatzen jarraitzeko asmoak agertu dizkigu berriro, harro eta apetatsu. Hala eta guzti, aukera handirik ematen ez badu ere, egoera larri hori konponbideren bat aurkitzen saiatu beharko genuke. Edo ez?

NEURRIKO TXAPELA

Euskal Herriak sei edo zazpi herrialde dituela jabetzeko hogeita hamar urte behar izan ditu delako ezker abertzale horrek. «Aturritik Ebroraino herri bat gara» aldarrikatzen bakarrik jakin du. Esloganetan ibili da. Ahoa izan du neurri. Eta Iparraldea, Nafarroa eta Eusko Autonomi Erkidegoa ez daudela egoera berdinean ohartzeko 30 urte behar izan ditu. Eta sekulako aurkikuntza egin duelakoan plazaratu zaigu. Beste inork orain arte aurkitu ez duen zerbait bailitzan aurkeztu digu, gainera.

Kataluñako Estatut berria ere berebizikoa iruditu zaio. Oraindik ez dut ulertu zergatik idazten den «Katalunia». Katalanek delako «ñ» adierazteko «ny» idazten baitute. Katalanera

errespetatuz «Catalunya» idatzi beharko genuke. Euskaraz idatzi nahi badugu, berriz, «Kataluña», tokiko izenen arabera. Edo «Kataluina». Sekulan ez «Katalunia».

Dena den, Estatut berria genuen hizpide, ezker abertzalearen txaloak jaso dituenek. Hostaje eta adarje ederrekoa izan daiteke. Baina gurearen enborra nahiko lukete: kontzertu ekonomikoa. Norbere poltsarik gabe ez baita burujabetzarik. Eta eskubete lan izango dute poltsa lortzen. Gureari «Baskongadoa» delako muzin egin zioten. Non ditu Kataluñako Estatut berriak País Valenciá, Illes Balears eta Perpinyá? Non geratzen da Països Catalans delakoaren batasuna? Hala ere, hango estatut oso ona da eta hemengo hutsaren hurrengoa. Hemen hain punttalakurlo eta ahobero den ezker abertzalea ezagueraz betea agertzen zaigu han. Aturritik Ebroraino oihu egindakoan hain lasai geratzen zara! Baina mutur batetik bestera oinez abiatzen zarenean dira kontuak. Barandiaranek antropologia, etnografia eta abarrerako zioena erabili behar baita politikan ere, hankak, ez teoria politikak eta aurreiritziak. Monzonek esan ohi zuen bezala, ez da txapelarentzat buru bila ibili behar, buruarentzat txapel bila baizik. Buruak, berriz, diren bezalakoak direnez, txapela egin behar zaie neurrira.

(2005-X-16)

“DISKREZIOA”

“DISKREZIOA” hitza puri-purian jarri zuten gure pailazo zaharrek. Aldrebeskeria, xelebrekera eta txorakeria bakoitzaren ondoren eskatzen zioten elkarri. Barre eginarazteko erabiltzen zuten, jakina.

Orain, zein baino zein berritsuago ari diren politikoeak jarri digute puri-purian. Elkarrizketak herriko plazan, mundu guztiaren aurrean, egin behar zirela aldarrikatzen zutenek ere “diskrezioa” eskatzen digute, orain. Lehen, gerrarako turuta jo zitzaizen kazetariei ere bakerako deia egin zaie, orain. Lehen, gerragintzan gizendu zen bat baino gehiago gizenduko da orain bakegintzan.

Betiko gauza gutxi da gaur egun, etxearen hipotekaz gainera. Beldur zaie bizitza guztirako erabakiei. Hala ere, badira hartu beharrekoak. Eta, beldurrak beldur, ETA ere beharturik da berak bakarrik har dezakeen eta hartu behar duen betiko erabakia hartzera, beste inoren eta ezeren zain egon gabe. Nik ez dut uste Euskal Herriko gehienak zentral termikoen kontra daudenik. Eroak ere badaki, ordea, gehien-gehienak ETAREN kontra daudela. Eta borroka armatua bertan behera uzten ez duen bitartean, zergatik katramilatu “buru” ala “burukide” hautsi-mautsietan, bata ala bestea aukeran, eskueran eta moko-mokoan bagenitu bezala? Hori bai, alderdi batek garbi izan behar du eta garbi adierazi beti bere azken helburua. Bidea luzea eta aldapatsua dela jakinik ere, beharrezkoak ditugu helmugara iritsiko garen ustea eta itxaropena. Baina helmugari buruzko katramilan ez

gaitezen hara iristeko egin behar ditugun urratsak egin gabe gera. Eztabaida eta argi ditzagun gure gorabeherak. Ez gaitzela irudikortu eta zapuztu.

Bortizkeriak zikindu omen dituelako ukatzen zaizkigu erabakimena eta geuron buruen jabe izateko eskubidea. Hildakoak berriro hiltzea omen litzateke hori onartzea. Zenbat ergelkeria eta trikimailu! Demokrazian zilegi al da, bada, erabaki politikoak herriak aukeratu ez dituenen esku uztea?

(2005-IX-9)

ERREFERENDUMAK

Erreferenduma da ahotan darabilgun hitza. Batzuek kezka eta beldurrez aipatzen dute; besteek, itxaropenez. Euskaldunok horretarako izan dezakegun eskubidea ukatzeko aipatzen du zenbaitek. Gutxiesteko aipatzen duenik ere bada, diktaduraren trikimailua besterik ez dela baitetsiz. Akordioak berresteko bakarrik dela dioenik ere bada.

Diktadurak ez dira erreferendum zaleak, baina demokrata itxura egin behar denean ez diote beldur handirik ere, alderdi politiko guztiak debekaturik eta mututurik baititu eta hedabide guztiak bere zerbitzu leialan. Demokraziak beldur gehixeago dio, noski, ez baititzake kontrarioak isilarazi. Egia da, gainera, demagogoen pagotxa ere bihur daitekeela.

Dena den, erreferenduma ez da diktaduraren tresna, demokraziarena baizik. Ez da nahitaez akordioak berresteko bakarrik ere. Zeinen akordioz egin zen frankismoaren ondorengo aldaketa onartzeko erreferenduma? Euskadiko indar politiko askok ez zuen parterik hartu. Euskal indarren zer adostasuneko konstituzioari buruzko erreferenduma egin zen Euskal Herrian? Ez parte hartzea edo ezezkoa ematea erabaki zuten alderdi abertzaleek. Europako konstituzioak ezezko borobila jaso du estatu batzuetan.

Herritarrek proposamen bat, lege bat, onar edo arbuia dezaten egin daiteke erreferenduma. Buruzagien artean adostasunik ez dagoenean, erabakia herritarren esku uzteko ere egin daiteke erreferenduma. Baita politikoen katramilak egin duen zulotik ateratzeko ere. Felipe Gonzalezek bere katramilatik ateratzeko egin zuen OTANekoa. Batzuetan erabakia hartzeko egin daiteke; besteetan, herritarren iritzia jakiteko bakarrik.

Lege, egitasmo eta erabaki batzuk teknikoegiak dira, agian, herritar soilen erabakimenerako. Hala ere, erreferenduma, tresna egokia ezezik, ezinbestekoa ere bada herritarren iritzia jakiteko. Nolanahi ere, erreferenduma demokraziaren asmakizun eta baliabide da, nahiz eta diktadurek ere baliatu izan diren.

(2005-IX-11)

BAKEAREN IRRIKA

Garaipena eta mendekua nahi dituenak ez du onez oneko bakerik nahi. Eta onez oneko bakerik nahi ez duenak ez du bake girorik nahi. Hori da PPri gertatzen zaiona: bere hitzetan eta ekintzetan argi eta garbi aldarrikatzen duena. Beste zenbaitetik ez ditu, jakina, ekintzak hitzak bezain ederrak. Hala ere, bakerako gogorik badutela, dirudi, oraingoan.

Herri honen bake nahia handia da. Itxaropenik ere biztu da. Baina girorik ez da sendotzen, urratsik egiten ez delako. Joan Mari Uriarte gotzainak hori guztia zuen hizpide Arantzazun. Besteak beste, bake giroa sendotzeko urratsak eskatzen zituen. Kale borrokak, mehatxuek eta abarrek desagertu egin behar dute bake giroan. Eta hona hemen gotzainaren bekatu larria: presoen eta berorien etxeko eskubideak ere zaindu behar dira. Bakoitzari dagozkion eskubideak aldarrikatzea erasotzaileak eta erasotuak, kaltegileak eta kaltetuak, hiltzaileak eta hilak berdintzea al da?

Estatu mendekatia eraiki nahi dutenentzat bakarrik. Inork ez du gaizkileak atxilotu, epaitu eta zigortu behar ez direnik esaten. Erruduna bakarrik zigortu behar dela, ez errudun us-tekoa. Eta gaizkilerik handienak ere badituela bere eskubideak, alegia. Eta gaizkilea okerrera bultza dezakeen nolabaiteko giro hori aldatzen ere saiatu behar dela. Demokraziaren eskakizunak dira. Ebanjelioarenak, areago.

Kaltetuak, jakina, “begia begi truk” nahiko luke. Hain zuzen, mendekua gizartetik baztertzeko eman zaio estatuari zuzen eta neurritz zigortzeko eskubidea eta erantzukizuna. Bai-

na PPk estatu mendekatia nahi du. Konstituzioak debekatzen duelako ez du heriotza-zigorrik eskatzen. Izan ere, presoen eskubideen errespetua eskatzea erasotuentzat iraingarri baldin bada, hiltzailea ez hiltzea ez al da alargunei eta umezurtzei irain egitea? Heriotza-zigorra ez ezartzea hiltzailea eta eraila berdintzea al da? Bolbora errez festa egin nahi duenak bere eskubidea emakume langabetu, jipoitu eta bortxatuen eskubideekin berdintzen al du?

(2005-IX-18)

DAMUA PATRIKAN

Azkoitian piztu da sua. Birgizarteratzeko eskubidea eskatzen dute batzuek; damua eta kalteen ordaina, besteek. Eta biek dute arrazoi. Baina ez mina borroka bide bihurtzeko. ETAK gogorkeriari eta PPk mendeku jarrerari uko egiten ez badie elkarbizitza are eta gaiztotuagoa bilakatuko da.

Zuzen ustean egin zenaz ez daiteke damurik izan, noski. Bere ustez, herriaren gudari eta salbatzaile zenak nola onartuko du, bada, gaizkile madarikatu bat izan zela? Herritar bat hiltzea kontzientziak nola onar dezakeen ulertzea ez da erraza. Baina herriaren izenean zuzenetsi duenak ere, ekintza hark sortu zuen minaz eta kalteaz beharko luke damua, patrikan bederen. Horretaratu bitartean, berriz, ahal duelarik behintzat, alargundu, umezurtz edo elbarrituarengandik urrun samar bizitzen

ahalegindu beharko luke, nahiz eta zigorra bete duenak nahi duen tokian bizitzeko eskubidea izan.

Borroka egiten duenak ere baditu bere zauriak. Baina eragin dituenak ez dira gutxiago eta arinagoak. Eta hilketen ondoriorik jasan ez duen beste askok ere mehatxu eta beldur asko pairatu du. Gerra eta gerra ondoa kendurik, “frankismoan ere ez genuen herritarrengandik horrenbeste eraso eta beldur jasan”, entzuten diot bati baino gehiagori. Izan ere, armen babesak ematen duen lainezaz jokatu du zenbaitek. Alde horretatik, besteren bizia ezezik berea ere arriskatu duen ETakoari errazago barkatuko zaio, agian, ezer arriskatu gabe harro eta mehatxari jardun duenari baino. “Herriak ez du barkatuko” aldarria norbere buruaren gainera eror daiteke, beraz.

Istorio triste eta anker hau gehiegi luzatu da elkarbizitza bat-batean goxatzeko. Eta zenbat eta gehiago luzatu are eta nekezago ekarriko dugu bere onera. Mendeku egarria xaxatzen bada, nekezago. PPK jakin beharko luke gerraren eta diktaduraren erasoagatik senperak ikusitako jende askok barkatu zuela ordainetan ezer eskatu gabe. Buruzagiak ez daitezke su pizten ibili.

(2006-II-5)

AMORRAGARRIA

Batzuentzat etsigarria izan da ETaren agiria. Niretzat amorragarria. Jasangaitza gertatzen zait nik zer egin behar dudan armadunek agintzea. ETA jaiotzerako banekien nik Euskal Herria bazela, Aranaren aurretik ere “Zazpiak bat” aldarrikatzen zutela, gudari askok eman zutela bizia Euskadi aske eta burujabearen alde. Nik ez dut Euskadik duen erabakimena eta bere buruaren jabe izateko duen eskubidea aldarrikatzeko ETAk agindu beharrik. Amorrua eta sua ematen dizkirate horretaratu nahi nauten edo hori guztia ukatu nahi didaten armadunek.

Español asko harro agertzen da Espainiaren batasuna defenditzeko duen ejerzitoarekin. Ezker abertzale batzuk ere harro sumatzen ditut abertzale eskakizun eta egitasmoei ETAk ematen omen dien babesarekin. Niri, berriz, amorrua ematen dit. Eta abertzaletasuna eta euskal ekinbide guztiak zikintzen dituztela jakinik, odol gaizto ere egiten nau.

Nik, jakina, ez diet, ETAk dena zikintzen duelako, euskarari, euskaldunon erabakimenari eta burujabetzari muzinik egingo. Inork ukorik egin al die Espainiari eta gaztelaniari Francok Espainiagatik eta gaztelaniagatik milaka eta milaka hil zituelako? ETA sagardozale aterako balitz sagardotegi guztiak itxi beharko al genituzke? Horixe eskatzen digute ETAk erasotutako batzuek eta horien minaz baliatu nahi duten itsumutilek.

Bukaera elkarrizketatua nahi dut, ahalik eta minik eta zauririk gutxien eta arinenak utziko dituen. Baina ez dut ETAk alderdien mahaian muturrik sartzerik nahi. Eta ez dut irabazle

itxuran ateratzerik ere nahi. Aspaldi eman baitzion bizkar euskal gizarteak, alderdiek hauteskundeetan eta demokraziaren plazan jokatzearabaki zuten egun hartatik hasita. Eta harro izan behar lukete une zail haietan urrats hura egin zuten alderdiek, jeltzaleek bereziki. Orduan galdu baitzuen ETAk bere jokoa. Geroztik hor dihardu gero eta bakarrago eta baztertuago. Demokraziara itzultzeko aukera ematen zaio berriro. Aukera alferrik galduko ote du?

(2006-II-26)

KALEAN ZAKAR GATAZKAN GOXO

BAKEA betiko abertzale bortitz horrek bakarrik nahi duela sinestarazi nahi digu Arnaldo Otegik. Besteok beldur omen diogu bakeari. Horregatik jartzen omen dizkiogu trabak. Arnaldo Otegik ez du hitz erdi bat ere bazterrak txikitzen eta mehatxatzen dabilzanentzat. Hori bai, legea betetzera eta betearaztera beharturik dauden Balza eta ertzaintza larrutu egiten ditu. Bonbek bakea dakarte, nonbait. Ertzaintzaren gomazko pilotek, berriz, bonbek dakarten bake hori lehertzen dute. Kalean zakar eta gatazkan goxo. Bertan goxo. Hala dirudi, behintzat.

Zoritxarrez, bi hildako gertatu dira. Nola gertatu diren, zehatz-mehatz, argi eta garbi, ikertu beharrekoak, gainera. Nolanahi ere, mingarriak beren maite, etxeko eta lagunentzat.

Eta badute, noski, beren hilak bakean eta doluminez hilobiratzeko eskubiderik. Hala baderitzete, baita joko politikorako baliaraztekoa ere. Mutilak dira horretan HB eta PP. Baina minaz politikarako baliatu nahi duenari kontra egitea ere zilegi da, noski. Minaz eta bortizkeriaz baliatu nahi duenari, areago. Arnaldo Otegi alferrik ariko da besteri erru guztia egozten. Bakerik nahi ez omen duen eta su-pizle omen den EAJ lotsagarri uzteko modu erraza dauka Otegi: egurrik ez bota sutara, mehatxuak, erasoak, txikizioak eta jokabide mafiosoak salatu, gaitzetsi eta eragotzi. EAJk mahaitik kalera atera omen du gatazka. Noiz ezkutatu ote zen kaletik? Noiz utzi ote zaio enpresariak mehatxatzeari, lantokiak eta alderdien egoitzak txikitzeari?

Hilketa guztiak gaitzesten ez dituenak ez du inoren heriotzagatik kontuak eskatzeko sinesgarritasunik. Txanpainarekin ospatzen dituenak ez du sagardoarekin ospatzen dituenari eragozteko lotsarik. Orain 30 urte Gasteizen poliziak hil zituen haiek ahazten dituzten alderdi eta biktimen elkarteek ere ez dute itzalik. Giza eskubideak oinperatzen ari denak ez du bere eskubideen aldarrikapena egiteko ahalmenik. Bestea zapaltzen duenak ez du beretzat errespetua eskatzeko merezimendurik. Planta eta azala galantak.

(2006-III-12)

NI ERE GORKA NAIZ

Alderdi eta sindikatuek ezkutuan ziharduten. Ez zuten elkar ezagutzeko aukerarik eta agintzen zeudenek ere ez zuten ezkutuoen ezaupiderik. Eta harremanak izatea komeni zitzaienean ez zekiten norengana jo. Poliziak hildakoarengatik sortzen zen asaldura zela, ikurriña zela, euskara zela eta abar, ministroren batek euskal munduko norbaitekin hitz egin nahi zuenean “Zeruko Argia”ra jo ohi zuen Manuel Escudero diputatuak. Hemen zein indar nagusituko zen jakin nahian zebiltzan Estatu Batuetakoek ere guregana jo zuten.

Alderantziz ere berdin gertatzen zen. EAJren ardura zuen Martin Ugaldek ere Erregearengana iritsi nahi zuen. Bazekien Azkoitiko erretorea Juan Carlosen irakasle izan zela. Pozik egin zuen Galarragak Martinek Erregearentzat eman zion mandatua.

Laguntza eskatutako enpresariorik ere izan zen. Amnistiaren aurreko bitartekotza izan zela esan behar diot, badaezpada ere, Marlaskari. ETAk milioi batzuk eskatuz papertxo bat bidaltzen duenean ez da larrituko ez denik. Norengana jo dakienak ere lagun bat nahi du alboan. Norengana jo ez dakienak, berriz, elkarrizketatzeko modua egitea nahi du. Baina argi ez bazabiltza sarean erortzeko punttuan aurki zintezke. «Esaiozu zure lagun horri beste bueltatxo bat egiteko», iritsi zitzaidan agindua handik urtebetera. «Ni ez naiz ETaren mandataria. ETAk mehatxatutakoari bakarrik laguntzen diot nik. Ez diot zuen izenean inori mandaturik emango», baztertu nuen sarea.

Behin bakarrik izan naiz elkarrizketaren lekuko. Motza eta lehorra izan zen arrazoibidea: «Guk behar dugu. Zuk badaukazu. Onean ematen ez baduzu txarrean kenduko dizugu». Hala ere, ez zen nire laguna kokildu. «Ez dizuet sosik emango», aurre egin zien.

Estu eta larri dagoen mehatxatuari laguntzeagatik espetxera zaitzakete. Baita osasuna eta bizia ez galtzeagatik amore eman duzulako ere. ETA itotze arren horrelako legeak ezarri zituzten PPK eta PSOEK epaileen esku. Horien lorea da Marlaska.

(2006-VII-2)

BAKEAREN ZAURIAK

Gerrak bakarrik ez ditu zauriak eragiten, baita bakea egiteak ere. Gehienen ona aurkitzeak beti ekarri ohi baitio norbaiti kaltea. Ez kaltegile guztientzat eta ez kaltetun guztientzat dira berdinak bakerako bideak eta neurriak. Eta hori horrela delako urratsik egin nahi ez izatea hutsegite handia da politikan. Are eta makurragoa horretaz baliatuz urratsak eragozteak. Eragozteko zauriak harramazkatzea.

Borroka armatua ezinbestekotzat jo eta arma hilgarriak erabili dituenari alferrik eskatuko zaio on beharrez egingdakoaren damua. Baina eragin duen kalteaz eta minaz ohartu

eta eskatu beharko luke barkamena. Gauza bat da epaileak ez onartzea, borroka armatuaren zilegitasuna ez gaitzestea, eta oso besterik, semea hil dioten amaren mina aintzakotzat ez hartzea eta amaren zotinari entzungor eta irri egitea. Eta horretan hozkia ematen duten jarrera eta jokabide harroxoegiak eta makurregiak ikusi ditugu oraindik orain.

Herria Estatuaren aurka jaiki zedin erabaki zuen ETAK alde guztietara oinazea zabaltzea. Horretarako, berriz, ezinbestekotzat jo zuen lasaiegi zeuden herritarrak aztoratzea eta asaldatzea. Baina norbaiti erasotzen zion bakoitzean bere kontrako enbata zurrunbilotsua harrotzen zitzaion. Eta estatuari edozer neurri hartzeko bidea zabaldu zion, ikaratutako herritarrak mendeku eske hasi baitziren eta nazkatutakoak eta etsitakoak ezikusi egiten. Nolabaiteko legeak, atxiloketak, zigorrak onartu dira eta onartu ez badira ere isildu. Blanco, Mugica, Korta eta horrelakoak bakarrik ez dira izan, Lasa eta Zabala bezalakoak ere izan dira.

Borroka ez da minik eragin gabe egin. Bakea ere ez da inori minik eman gabe egingo. Kontrako neurri bereziak hartu diren bakoitzean aitortu zaio ETARI bere berezitasuna. Bakea egiterakoan ere onartu beharko zaio. Gogorra da eraso zaurgarriak eta hilgarriak pairatu dituztenentzat. Baina inork gehiago mehatxurik eta heriotzarik jasan ez dezan eskatzen den ahalegina da.

(2006-VII-23)

HIRU PAILAZO ARITXULEGIN

Miresgarri suertatu zen askorentzat diktadura garaian. Bel-durgarri eta gorrotagarri bilakatu azken aldian. Barregarri bihurtzen ari da, orain, mozerro zuriz eta txapela beltzez estalia agertzen hasi zenetik. Aritxulegikoez, hiru gudari ez, hiru pailazo baitziruditen. ETA eta bere txalogileak ez baitira denboraz eta lekuz kanpora daudenik ohartu, antza denez.

Politika egin nahi omen duen Batasunak, berriz, isilik dirau indarkeriaren aurrean. Ezin du ETArri loturik daukan zilborresterik eten. Bake prozesu honetan urratsak ematen bera bakarrik ari dela aldarrikatzen digu behin eta berriz. Egia, etengabeko adierazpen, txosten, prentsaurreko eta jendaurreko agerraldi egiten ditu. Gehien-gehienok eskatzen diogun urrats bakar hori ez du egiten, ordea: armekin eta kale borrokarekin mehatxatzen gaituen indarkeria ez du salatzen. Egia da, presoekiko jarrera, epaileen zenbait jokabide, lege batzuen bidegabekeria eta abar aldatu beharra dago. Hori guztia salatzen otso den Batasuna, ordea, zakur leial eta isila da kale borrokaren eta armen mehatxuaren aurrean.

«Kale borrokak zer mesede dakarkio bake prozesuari?» galdetzen zuen Miren Azkaratek Eusko Jaurlaritzaren izenean. Zeri eta nori egiten dio mesede? Euskal Herriaren burujabetzari? Ekonomiari? Ekologiari? Abertzaletasunari? Ezker abertzaleari? Autobusak, diru kutzak, etxeak eta kiskaltzen dituzten tresnak egiten, konpontzen eta saltzen dituztenei, agian. Beste ezeri eta inori ez dio mesederik egiten. Hala ere, berean setatsu, euskal herritar gehienek nahiaren kontra.

Ez baita egia abertzale gehienontzat Euskal Herriak Estatu-ekin duen gatazka bakarrik denik hemengo anormaltasuna. ETA sortu aurretik ere badugula Espainiarekin moldatu ezin bat eta arazo hori konpondu arte ez dugula elkarbizitza onik izango esateak ez du indarkeriak sortzen duen anormaltasuna isiltzen. Abertzale gehienontzat ere indarkeria baita anormaltasunik larrienetakoa.

(2006-X-1)

IV OROTARIKOAK

ABERTZALETASUN EKOLOGIKOA

Abertzaletasun “itsu, asaldagarri eta baztertzaileak” buruko mina egiten omen dio Felipe Gonzalezi. Errege Katolikoei, Napoleon, Hitler, Stalin, Franco, Le Pen, Zdravko Zecevic buruzagi serbiarrari-edo erantzunez esan balu, onartuko genioke. Baina Iñaki Anasagasti jeltzaleari erantzunez ahoskatuak direnez, Felipe Gonzalezen “espainol sentimendua”, berak uste baino “nacionalismo exacerbado y excluyente” agoa da.

Besteren begiko makarra ikusten duenak ez du bere begiko habea ikusten, nonbait. Jeltzaleak eta beste abertzale asko ez dira, une honetan, bere txanpona, bere mugak eta bere armada dituen estatu berri bat egin nahian ari. Are gutxiago, inor baztertuz eta ezabatuz.

Herri zahar honek bere nortasuna, bere kultura, bere hizkuntza, bere herritasuna, gorde eta indartu ditzan batasuna, erakundeak, baliabideak eta aginpidea nahi ditu. Eraiki nahi

den Europa horretan lekua, hitza eta erabakimena nahi ditu, baztertua, irentsia eta ezabatua izan ez dadin.

Gure abertzaletasuna ekologikoa eta, gainera, demokratikoa da. Guk ez dugu demokraziaren gainetik ezer jartzen. Felipe Gonzalezek eta abarrek Jon Miranderen berri balekite, ongi jakingo lukete, jeltzaleek bederen, abertzaletasunaren aurretik dutela demokrazia. Eta ez zutela demokraziaren eta Errepublikaren alde borroka egiteko lotsarik izan.

Gure abertzaletasuna demokrazian oinarritzen da. Euskal Herriak bere kabuz eta ekimenez erabaki eta burutu ditzakeenak bere gain izatea demokraziaren eskakizuna da. Bere etorkizuna erabakitzeko adina burujabetza izatea ere halaxe da.

Demokratak garelako gara abertzaleak. Guk ez dugu demokraziaren kontra herririk eraiki nahi. Eta eraiki nahi dugun herri hori ez dugu inoren kontra eraiki nahi. Gure abertzaletasuna ez da erasokorra, ez da suntsitzailea, ekologikoa baizik. Ahal delarik, guztien oniritziz, eta ezinbestean, gehiengoaren onarpenez nahi dugu herri hau batu, eraiki, euskaldu eta burujabetu. Ez dugu herri bakarti, berekoi eta isolaturik egin nahi, europar eta mundutar gisa ditugun lokarri, eginkizun eta erantzukizunei muzin eginaz. Gure gainetik dauden eta guri ere erasaten diguten arazoak, ingurukoekin, Europarekin eta munduarekin batera nahi ditugu konpondu, elkartasunean eta elkarlanean.

(1993-II-23)

“BATAIO ZIBILA”

Aldiro sortu behar dira hitz berriak edozein hizkuntzatan, aurrerapen, gauza eta egoera berriak sortzen direlako. Lehengoren bat egokitu, beste hizkuntzaren batetik hartu edo berria sortu, ez da beste biderik. Gauza berria da homosexualen ezkontza. Berriagoa, haur jaioberriari Herriko Etxean ongi etorri egitea. Bidezko al da batari «matrimonio» eta besteari «bataio» deitzea? Nahasbidea sortzen dutela deritzat.

Gauza bat da homosexualek elkar maitatzeko, elkarrekin ezkontzeko eta gizonezko eta emakumezko bikoteen pareko eskubideak gozatzeko eskubide izatea; besterik, izen berdinez deitzea, ezkontza hitzak, euskaraz eta beste hizkuntza askotan ez bezala, latinez, gaztelaniaz, italiarrez, katalanez, gailegoz eta portugesez ñabardura eta ezaugarri berezia dituenean. «Matrimonium» hitzak ama eginkizuna adierazten du. Ar-amerik gabe ez baita fruiturik. Naturak ugalden dohaina ukatzen dien bikoteentzat egokiagoak lirateke, nik uste, gaztelaniaz eta beste hizkuntza askotan erabiltzen diren «casamiento» eta «maridaje».

«Bataio zibila» are eta desegokiagoa da, jakina. Bidezko, egoki eta zuzen da, noski, haur baten jaiotza ospatzea. Harri-garria da, zinez, gizakia Jainkoaren antz eta irudira egina dela sinesten dugun kristauok nola ez dugun jaiotza ospatzen. Haur bat baino ederragorik eta pozgarriagorik, zer? Bataioak ez luke haur jaioberriaren edertasunik eta pozik itzali behar. Haur jaioberri horri gizarteak, Herriko Etxeak, ongi etorri alaia egitea ere egokia da. Baina harrera horri «bataioa» deitzea, nahasbide

ezezirik, astakeria ere bada. Bataioa garbikuntzako sakramentua da. Kristau berria Elizako kide egiten duen sakramentua. Herritar, ordea, jaiotzak berak egiten du, bizitza guztirako. Eta herritar delako ezartzen da herriko liburuetan. Herriko seme edo alaba dela ofizialki onartzen den unea ospatzea bidezkoa da, beraz. Baina horri «bataioa» deitzeak orban txar eta zikinen bat garbitzera eramán dugula haur jaioberria Herriko Etxera adierazten du.

(2004-XI-14)

BADA BESTE ELIZA BAT

Bada beste eliza bat, tokian tokiko eta garaian garaiko kulturaren txertatu eta mintzatu nahi duena, gaixoei, presoei, hiesa dutenei, drogak menperatuei, behartsuei eta baztertuei emana. Zenbat gizon eta emakume ote da, han eta hemen, gizarteak baztertuak dauzkan horiei maitasunez laguntzen. Abendu osoan jardun du, Eguberriei begira, mezu hori aldarrikatzen apaiz askok. Baina Rouko kardinalak, Martinez Camino idazkaria eta Cope lagun, gidatzen duen Elizak estaltzen, itsusten eta ahultzen duen mezua da. Aski da Martinez Caminok sexuaren inguruko jokabideez ahoa zabaltzea, dena pikutara botatzeko.

Jakina, Jainkoaren, segurtasun osoaren eta maitasun gardenaren izenean zabaltzen du ahoa. Txertoen eragina ez

da seguru-segurua, badaezpada ere ordea, hartu egiten ditugu gaitzetik babesteko. Ez jatea bezalakorik ez da janak kalterik ez egiteko. Baina ijitoaren astoari gertatu omen zitzaiona gertatuko litzaiguke. Eta jaten dugunean finetik eta zapore guztiak dastatuz eta gozatuz jatea litzateke onena. Gehienoi, ordea, tripa betetzeak ematen digu nahikoa lan.

Sexu bidezko gaitzez ez kutsatzeko sexu-baraua baino seguruagorik ez da, jakina. Baina barau egitea inozokeriatzat eta kaltegarritzat jotzen duen gizarte honetan aholku hori ematea babesgarririk gabe jokatzera bultzatzea da. Ezeren babesik gabe, arin eta zabar jokutzen dutenei, behar diren neurri guztiak hartzeko esateko ordez, neurri horiek hutsaren hurrengo direla baiestea, arinkeria ezezik, bilaukeria ere bada.

Sexuaren gehiegikeriaz itsuturik diren gotzainek hobe lukete sexutasun osoaren aurkikuntzaz eta kultura berriaz jabetzen eta sexu indarkerian (66 hildako aurten) elizaren pentsaera eta jokabideek zerikusirik baduten aztertzen saiatuko balira. Gaurko gizartetik eta kulturatik at bizi dira gotzain asko. Dena den, era guztietako baztertu, gaixo, behartsu, mehatxatu, torturatu eta abarren egoeraz gehiago kezkatzen diren elizgizonek itzal handiagoa izango lukete firin-faranak salatzerakoan ere.

(2004-XII-19)

GURUTZEA ALA OSPEA?

Eredugarria, santua eta martiria da askorentzat Aita Santu hau. Beste askorentzat, berriz, errukarria, etsigarria eta eskandalagarria ere bada bere karguari hain setati eusten dion gizonaren jokabidea. Horrelako gaixo eta ezindu bat hain duintasun gutxiarekin tratatzea ez da onargarria. Eskandalua izango litzateke beste norbait horrela erabiliko balitz. Eta jendea gizajotzat jotzea ere bada, jakina, egoera horretan dagoenak Eliza gidatzen duela baiestea. Eman nahi zaigun mezua ere eskandalagarria da askorentzat: «Jesus ez zen gurutzetik jaitsi eta ni ere ez naiz jaitsiko».

Badirudi Jesusen esku zegoela gurutzetik jaitea. Ilitze handietatik zintzilik egon arren, minik sentitu gabe ere egon zitekeen, beraz? Itxura hutsa, iruzur, egin ote zigan, bada? Jesusek ez zuen gurutzean hiltzea erabaki. Sufrimendua sufrimenduagatik ergelkeria hutsa baita. Besterik da, jakina, zigorraren beldurrez norbere eginkizunari uko egitea. Eta horixe ez zuen Jesusek egin, nahiz eta zer zigor etor zekioken susmatzen zuen. Behartsuen, gaixoen, baztertuen, bekatarien eta jendilajearen aldeko jokabideak eraman zuen gurutzeko heriotzara, bidegabekeriazko gizarte bateko agintariek, apaizek eta jauntxoek hala erabaki zutelako. Ez zen Jesusen esku ez gurutzea bizkarreratzea eta ez gurutzetik jaitea.

Karol Wojtyla ezindua ez du Jainkoak ez kargua eta ez karga eramatera behartzen. Edonor ere, oharkabean bederen, ez ote da, karguaren kargaren aitzakian, karguaren distiraz eta ospeaz errazegi itsutzen. Karol Wojtylarentzat ez ote litzateke

gurutze astunagoa, gaixo xume eta apal bihurturik, baxter batean bizitzea? Baina nahiago du karguak ematen duen ospean segi. Eta nahiago du gurutzearen ospetik errieta egin, zaku berean sartuz babesgarriak, antisorgailuak, homosexualak, abortua eta eutanasia. Ondo legoke, jakina, bizitzaren misteriora kontu handiz hurbiltzeko, apalki, eskatzea. Baina hori gehiegi eskatzea litzateke adin horretako ezindu bati.

(2005-III-6)

“KAROL WOJTYLA MUNDUKO ARGIA”

“Karol munduko argia” kantatu dute lurberako agintariek, elizgizonek eta komunikabideek. Izan ere, Joan Paulo IIak izan duen eragina ezin da ukatu. Bolada baterako eragina, gainera. Karol Wojtyla hil bada ere, Joan Paulok bizirik iraungo baitu berak izendatu dituen kardinal eta gotzainetan eta indartu dituen erlijio taldeetan. Joan XXIII.ak eta Vatikanoko Bigarrenak Eliza egurasteko eta berritzeko zabalduzako leihotatik haize arrotz, hotz eta zalantzakorrak sartzen ari ote ziren iruditurik, bide seguruetara eta Vatikanoko aurreko joeretara bildu nahi izan du Eliza, teologo eta moralista irekiak isilaraziz eta bide berriak bilatzeko askatasuna murriztuz.

Oraingo beroarena eta zuriarena denborak kentzen dizkionean etorriko da bere neurrira Aita Santu honen agintaldia, bere argi eta itzalekin, bere aurrerapauso eta atzerapausoekin, bere

on eta gaitzekin. Nik gauzatxo bat bakarrik nabarmendu nahi nuke. Ez ditu ezkutatu bere zahardadea, bere ezinak, bere gaitz eta gaixotasunak. Lanean, kiroletan, kalean eta erakundeetan tokia eskatzen duten elbarri eta gutxituentzat eredu izan da. Baina bere kargutik ez erretiratzea ez da eredugarri jubilazioa onartua den gizartean. Apaizak eta gotzainak erretiratzera beharturik dauden Elizan denen buru bihurtu den Erromako gotzainak ere, are eta arrazoi handiagoz, erretiratu beharko luke. Erretore berria eta ohia eta gotzain berria eta ohia bizi diren parrokia eta elizbarrutietan ez bada ezeren arazorik sortzen, zergatik sortu behar du Aita Santu berriaren eta ohiaren artean? Ohiak ez ote luke sinetsiko berriak dituela aginpidea eta Espiritua?

Zahardadeari, gaixotasunari eta heriotzari ez dago ihes egiterik, baina horiek larriagotzen dituzten egoerak arintzen eta goxatzen saiatu behar da. Kargua itxurantzean betetzeko gai ez denean, behintzat, kargua uzten jakin behar da. Eta hori ez daiteke «gurutzearen teologia» aizunaz zuritu. Nire ustez, Wojtyla ezindua ez dute bere ingurukoek duintasunez tratatu, ezta heriotzako orduan ere.

(2005-IV-10)

JABEAK ETA MAIZTERRAK

Ipar Irlandak hartuko omen luke guk dugun aginpidea. Munduan ez omen beste herrialderik guk adina ahalbide eta eskumen dituenik. Inork ez diola erantzungo jakinik, “munduan inor bada” erronka jotzea bezalatsu da hori. Mundua neurri jartzen duenak ahoa du neurri, baiesten duenak ezer frogatu beharrik ez duen aldi honetan.

Baserri jabea baino hobeto bizi den maizterrik ezagutu dugu; sail handiagoak, erosoagoak eta emankorragoak dituenak. Baina ez dezake nagusiaren baimenik gabe zuhaiztia belardi edo soro bihurtu, ezta belazea edo alorra pagadi ere. Etxean ez dezake baimenik gabe ezeren aldaketarik, konponketarik eta hobekuntzarik egin. Errenta ordaintzez gainera, beti baimen eske eta zurikerian jardun behar du, nagusirik onenarekin ere. Itxurazko prezioan salduko balio pozik erosiko lioke, baserri kaxkarragokoen jabeek bezalaxe nahi duen sailean nahi duena ereiteko edo aldatzeko eta etxean nahi dituen obrak egiteko. Dena den, lasaiago biziko litzateke egunen batean, bere modu batean, erosteko aukera izango duela ziurtatua baleuka.

Ipar Irlandan baino ahalbide gehiago ditugu, oraingoz bederen. Baina ez dugu hark duen erabakitzeko ahalmenik: nahi badu bere buruaren jaun eta jabe izateko, Irlandarekin batzeko edo Ingalaterrarekin jarraitzeko. Hain zuzen, Ipar Irlandari aitortzen zaion erabakimen hori ukatzen zaio Euskal Herriari.

Ondo bizi gara, munduko estatu asko baino hobeto, jakina. Baina nahi duguna erabakitzeko aukera ukatzen zaigu. Hor,

koxka. Jaun eta jabe izan ala maizter. Nagusi izan ala morroi. Maizterrek eta morroiek jabeak eta nagusiak agindutakoa egin behar dute. Ez dute beren kabuz erabaki beharrik. Jabeak eta nagusiak, berriz, erabaki egin behar dute, non, zer, noiz, nola, zergatik, zertarako eta abar. Erabakia hartzerakoan zalantzak izan ohi dira. Asmatuko ote dut? Arriskua jokutzen du. Hala ere, nork izan nahi du askatasunik eta erantzukizunik gabeko maizter edo morroi? Jabe eta nagusi izan nahi dugu denok.

(2005-VIII-7)

SERMOI BERA

Eskuratutako agiri guztiak irakurri izan dizkiot ETari. Zerbait berria ikasiko niolakoan irakurtzen nizkion. Baina etsi dut. Ez du ezer berririk esaten. Ez dizkiot irakurtzen. Han eta hemen argitaratu omen duenaren burrunba entzuten dut. Eta kitto. Ez diot lerro bat ere sekula gehiago irakurriko. Inoren baimenik gabe astintzen dituen arma horiek lurperatu eta esku hutsik demokraziaren plazara azaltzen denean hasiko natzaio berriro irakurtzen.

Baina ez da “eundem sermonem dicens”, toki guztietan sermoi bera eginaz, dabilen bakarra. Hutsa, beste hura bezala bazter guztietan behartsuen, ahulen, ttikien, baztertuen, gaixoen eta zapalduen aldeko mezua errepikatzen jardungo

bagenu. Nik, sikiera, “zirrikitu” batean eta zerrendatxo batean errepikatzen dut nire sermoitxoak. Beste batzuek orri osoa behar izaten dute, bariazio batzuk gorabehera, beti gauza bera idazteko. Zenbat eta luzeago idatzi orduan eta diru gehiago ordaintzen baitute, agidanez, nazionalismoaren kontra idazten bada behintzat. Unibertsitatean ikasitako jendea da, uste handikoa, intelektual kerakoa. Hala ere, zenbaiten titulurik handiena “ex” izatea da. Luze eta ilun idatzi ohi dute sakonak direla adierazteko. Lurrik eta zainik ez duen landareak alferrik ditu, ordea, hesola guztiak. Zutik irauteko zuztarrik ez duen arrazoiak ere alferrik ditu apainduria guztiak. Irakurlea inozoa balitz bakarrik luzituko lukete. Baina irakurleak ez du idatzitakoa bakarrik ulertzen. Idazlearen hitz bakoitzaren atzean dagoen mina, zaputza, seta eta porrota ere ongi usnatzen ditu.

Dena den, intelektual kerako mordoskari ez diot jadanik irakurtzen. Eta hori zuhaitz gizenari gertatzen bazaio, ni bezalako iharrari zer ez ote zaio gertatuko? Irakurle guztiak aspertu baino lehen “erretira hadi” esaten diot neure buruari, beraz, maiz. Bezperan idatzitakoa ahazten zaigulako zaharra berri iruditzen zaigu biharamunean. Zaharra berri, irakurleen amorragarri.

(2005-XII-4)

“EUSKAL ZENTSURA”

Olatuen aparra urtu denean ausartu naiz Bertsolari Txapelketako ingurumariak aipatzera. Xipri Arbelbideren arabera, «euskaldunek beste euskaldunei jasan arazten dieten zentsura bestea baino kaltegarriagoa» denez, aurrera egitera ausartu naiz.

Arratsaldekoa bakarrik entzun nuen eta, adituek gorengotzat jo bazuten ere, niri mottela iruditu zitzaidan, ez ordea Jon Maiaren amonari bezala, «hileta». Agian, jendearen berotasun hori falta zitzaidan. Dena den, ez zitzaidan bertso gogoangarrikeria geratu. Oraingo bertsolariak eta entzuleak, lehengoak ez bezala, karreradun eta kaletar direla azpimarratzen bada ere, «behiak jezteko aulki txikia» izan da gogoangarria, alajaina.

Dena den, bertso berean ezin daiteke «espetxeen suntsiketia» eta «Galindo kartzelan usteltzea» eskatu. Hori baino pototo handiagorik ez dela esango zukeen Uztapidek. Presoen aldeko aldarriari ondo irizten diot, jakina. Baina egun berean eztanda egin duen lehergailua inork ez gaitzesteak zer adierazten du? Xiprik salatzen duen euskal zentsura?

Kiroldegietako ikuslegoaren portaerak nagusitu omen ziren BECko entzuleetan. Baina epaileei eta kirolari baldar eta alferrei jo ohi zaizkie txistuak kiroldegietan, ez gonbidatuei eta babesleei. Izan ere, behin joko litzaizkieke. Txistuak zuritu dituenik ere izan da, jakina, kulturari eta euskarari gutxi laguntzen omen dietelako. Hartu behar duenarentzat sekulan ez da gehiegi izaten. Baina bertsolaritzari gutxi laguntzen dietenik nekez esango da, noski. Dena den, gutxi ala asko,

Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan onartzen dira aurrekontuak.

Nik dakidala bakarra izan da txistu horiek salatu dituenena. «Joera intolerante eta bazterketa joeraz» gaitzetsi ditu, «jendea zatitzen eta euskara eta bertsolaritza politizatzen dituztelako». Nire txoko honetan idazten duen beste batek «plastada etarroi-dea» deituko lioke. Beste arrazoi askoren artean, horrek ere ez ote du bertsolaritzatik zenbait jende atzendu/erakarri azken urteotan?

(2006-I-15)

EUSKAL HERRIA ETA EUSKADI

Euskadi hitzari Euskal Herria hitzak ari dio tokia eta ospea jaten. Harrigarria, Euskadi hitza debekatzen zutenen ondorengoak ari dira Euskal Herria debekatzen eta Euskadi askatzeko jaio zirenek Euskadi baztertzen. Euskaldunok, nonahikook eta edozein iritzitakook Euskal Herria deitu diogu gure herriari. Frankismoak Euskadi debekatzen eta zigortzen zuen, ez Euskal Herria. Abertzaleok Euskadi hitzaz gainera Euskal Herria ere beti erabili dugu.

Euskal Herria euskaldunok bakarrik erabili ohi dugu. Erdaraz, vasconia, cántabros, vizcainos erabili zituzten. Orain, País Vasco gailendu da, nahiz eta, Euskadi bezalaxe, Eusko Autonomi Erkidegoari dagokion izena izan.

Dena den, Euskadi euskaraz eta erdaraz erabili ohi den hitza da. Eta, legez Eusko Autonomi Erkidegoaren izena baldin bada ere, askoz ere adiera zabalagoa eta sakonagoa du, Euskal Herriak duen baino sakonagoa. Batak, euskaraz mintzo den herria dela bakarrik adierazten du; besteak, berriz, herri horrek, nahiz eta guztiak ez diren euskaldunak, askea eta burujabea izateko eskubidea ere baduela. Guztiak euskaldunak ez izan arren, “Euskadi euskotarren aberria” baita, hau da, herri horretan bizi direnen aberria. Euskararen herrian guztiak ez zirela euskaldunak ohartu zen Sabino Arana. Egoera horri erantzuteko sortu zituen Euskadi eta euskotarra hitzak. Euskal Herria burujabea eta euskalduna ez den bitartean inolaz ere bazter ez ditzakegun hitzak, “vasco” guztiari euskaldun eta euskal deitzen ari nahi ez badugu, «euskal oiloa, “euskal sukaldaritza” bezalako astakeriak esan nahi ez baditugu, behintzat.

Euskal Herria euskararen herria da, euskaldunon herria. Euskadi, berriz, euskotarren herria, euskaraz dakitenen eta ez dakitenen aberria. Euskal Herria euskalduna, elkartua, askea eta burujabea bihurtu nahi du Euskadik. Eta horixe aldarrikatzen dugu Aberri Egun guztietan. Euskal Herria eta Euskadi nahi ditugu. Biak, ez bata ala bestea. Beste batzuek, ez bata eta ez bestea, noski.

(2006-IV-16)

BENETAKO GREBALARIA

Gose greba arin gehiegi egin izan du ETAk. Inork ez zizkion aintzakotzat hartzen. Baina Juana Chaos ez zen itxura egiten ari. Bi hilabeteko gose greba ez da berriketakoa. Osasuna eta bizia ari zen jokutzen. Eta hiltzeko prest dagoen gose grebalariai zukurutza eragiten dio estatuari. Erremediorik gabeko egoerara iritsi baino lehen neurriak hartzea ez da harritzekoa, beraz. Estatuak ez baitezake bere gain horrelako heriotzarik har. Gainera, bake prozesu guztia bidali zezakeen pikutara.

Lasaitu ederra hartu dute, noski, etxekoek, lagunak eta agintariak ezezik, baita bake prozesuak aurrera egitea nahi duten guztiek ere. Inor gutxi poztuko du inoren heriotzak, baina ondorioek poztu zezakeen bat baino gehiago, bake eta normalizazio bideen kontra dagoen bat baino gehiago, seguru-eruenik.

Bake prozesuaren alde dagoen gobernu batek, ordea, Juana Chaosek jarri duen trantzera eta ataka estura heldu zain egon behar al du presoek eskubideak betetzeko? Presoak Euskal Herrira inguratzea eta gaitz hilgarria dutenak eta zigorra beteta daukatenak kanporatzea ez da ETArri amore ematea, estatu demokratikoaren legeriari amore ematea baizik. Zergatik ez du gobernuak bere legeria betetzen? Zergatik egiten die entzungor Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren eskabideei? Badirudi, Batasunaren garaipen eta lorpen izatea nahi duela, ETArri ordainetan eskaintzen dion opari suerta dadin.

Joko arriskutsua, noski, bidea zailtzeaz gainera okertu ere egin baitezake. Horrelako ezer gertatuko ez balitz ere, jendea

hozten eta uzkuratzen duen jokabidea bada. Bestela ere ez da jendea orain 30 urte bezala berotuko. Inork ez beza, orduan bezala, herriko plaza bete jende espero. Ez baitira diktaduraren kontra borrokatuak demokraziaren alde apustu egin zutenen kontra baizik. Jendeak bakea eta normalizazioa nahi dituzenez, kalean nahi ditu presoak ere. Baina herritar gehiegi dago mindurik kaleratzen direnean ohore eta aitorten handiegia eskaintzeko.

(2006-X-15)

AGUR ETA ADIO ENE IRAKURLE

Ordurako baginen hamar etxean: aita eta ama, amona eta izeba eta sei neba-arreba. Eta dozena osatzeko bikiak jaio ziren, bi neska. Otsaila izaki, amona marrantatua zebilen. Medikua amarengana etorri zenez, eztula arinduko zion zerbait eskatu zion don Meliton medikuari. Sekoko erremedioa eman zion: “tokia utzi behar zaie jaioberriei”. Ez genuen gela bana. Ezta ohe bana ere. Baina moldatzen ginen. Amonari min eman zion mediku zakarraren erantzunak. Sekulan gehiago ez zion ezertarako deitu. Hala ere, laurogeita hamalau urte arte bizi izan zen, biloben zorionerako, buru argi eta bihotz oneko gure amona Pantxika.

Inork ez dit txoko hau libre uzteko eskatu. Baina hobea-
rentzat eta gazteagoarentzat libre uztea erabaki dut. Denok

ditugu geure apetak. Eta, apetarik gabe ere, asko idazten duenak errepikatu ere asko errepikatzen du. Banuen oso gogokoa nuen euskal idazle bat. Egunero irakurtzen nion. Zahartuta ere idazten baitzuen, azkenerako buruz nekizkien haren esamoldeak eta gogoetak. Ez zen bakarra. Orain ere badaude, pentsalari sakon ustekoak gainera, burubide eta iritzi berberak errepikatzen dituzten apetatsuak. Lehenengo hitzetik igartzen diet zertaz ari diren. Horiekin niri gertatzen zaidana gertatuko zaie nirekin ere besteei.

Urte askoan jardun dut. Irakurle eta lagun bat baino gehiago joan zait urteotan. Geratzen zaizkidanak ez nituzke erabat aspertu eta gogaitu nahi. Honezkero izango da irakurtzeko nekerik ere hartzen ez duenik, gain begiradarik ere egiten ez dionik. Mindutakorik ere utziko nuen, noski. Dena den, ahora etorri ahala jardun ohi zuten bertsolari adarjole eta zirikatzaileen antzera konpondu nahi ditut nik ere nire okerrak: gazki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu.

Eskerrik asko ia 30 urteotan euskaraz idazteko aukera eman didan DEIAri. Eskerrik asko irakurle leial izan zaitudan horri. Urteberri oparoa, baketsua, osasuntsua eta zoriontsua opa dizuet guztioi. Izan ongi.

(2006-XII-31)

Zigarro kearen albainuz
Hainbat gogoeta, Mikel Atxaga bidegilearen omenez



ANJEL LERTXUNDI

OROITZAPENAK

Aizarnan ezagutu nuen, artean apaiza zela, euskarari buruzko bilerara erdi klandestino batzuetan. Urte batzuk geroago, *Zeruko Argian* elkarrekin lana egiteko aukera izan genuen, bertako zuzendari Miren Jone Azurza zenean. ESEIn ere egin genuen topo, Mikel Atxagak eta biok lagunak genituen beste hainbaten konpainian. Hona dakardan laugarren oroitzapena, *Deia* egunkaritik pasatu behar izaten nueneko, *Muga* aldizkarirako idazten nituen lanak eramatera.

Oroitzapen guztion albainu lana zigarroen keak egiten du. Nik *Ducados* erretzen nuen zigarroak biltzeko pazientziarik ez nuelako, eta elkar ikusten genuen aldiro Mikelek biltzen eta prestatzen zizkidan *Idealesak* erretzen nituen. Zeremonia moduko bat zen, eta zigarroari zigarro, hitz aspertutxoak egiten genituen. Sasoiko kontuak izaten genituen hizpide, euskararen eta kazetaritzaren bueltakoak batez ere.

Euskal eskola, euskal kazetaritza, euskal nobelagintza, euskal zernahi inauguratzen ari ginela uste genuen Adantxoen kasta ugarikoa nintzen ni. Orain pentsatzen dut hala moduz ikusiko ninduela Mikelek bere eraman oneko patxadaren talaiaitik. Ez gara belaunaldi berekoak; ez dut eta ez nuen berak bezala idazten; nik berak baino egonarri estuagoa dut hainbat gorabeheren

aurrean. Sekula ez ninduen, ordea, deseroso sentiarazi. Jakitez, ez dakit zenbat kontutan etortzen ginen bat, baina ez dut gogoan desadostasun handiko gorabeherarik. Egongo zela, kontu segurua da, baina gure solasen helburua ez zen *dema* (horra Mikeli asko gustatu izan zaion metafora herrikoi horietako bat), elkarrekin kontu kontari egoteko aukera baliatzea baizik, eta enkontru atsegin patxadatsu batzuen moduan oroitzen ditut nik *Ideales* batzuen ketan izaten genituen solas haiek.

Urte asko pasatu dira ordutik, bizitzaren bideek ez gaituzte askoz gehiagotan elkartu, baina atseginak ditut oroitzapenok eta albainua, eta segidan datozenak ez badira ere orduko kontuak, badira orduko oroitzapenen keak ekarri dizkidan hausnarrerako hariak.

BIDEKO ITURRIAK

Mikelen hizkeraren eta Mikelen kazetaritzaren nondik norakoak ez zeuden euskal kazetaritzak gero jorratu dituen norabide berberetan. Euskara batuaren eta euskara estandarren alde egonagatik ere, Mikelek ez du urrutiratu nahi izan bere ezpainetako eta bere hurbilekoen jardunetako eredu bizi-bizitik. Mikelen kazetaritzako hizkerak oso aintzat hartu du ahozkotasuna, horrek dituen abantaila eta arrisku guztiekin. Abantailen artean, irakurlearen eta testuaren arteko hurbiltasuna kontabilizatu behar da, bai hizkeraren aldetik, baita jorratu izan dituen gaiei dagokienez ere. Hor daude, halaber, freskotasuna, abiadura, *berez* doan irakurketa baten jarioa ere. Arriskuen artean, berriz, *plazako* aire nabarmenaren goranahi apaleko jarduna

Kazetaritzako hizkera ez da, oro har, Mikel Atxagaren bitetik joan, baina ez haren ispilu-lanak ez duelako zer irakatsirik. Kazetaritzan, beste hainbat jardun profesionaletan bezala, eredu astun beti berdintsua –gazi-gozo gutxikoa– nagusitu da. Kode zurruna da, oso bizkor urrundu dena kaleko jendearen jardunetik. Bestalde, kazetaritzak hedabide-mota guztietara eta albistearen eremu guztietara egokitu behar izan du, eta hizkerak –presaren presak eragindako halabeharrez, argi dago– ez du sendotzeko eta ugaritzeko astirik izan. Ezin da hizkera berarekin eman baserri baten erreketa eta burtsetako akzio-jarioen nora eza, herrietako aldizkari eta egunerokoak ezin dira aldizkari jasoen hizkera berarekin idatzi.

TOPIKOAK

Oso azkar eraiki behar izana du ezaugarri nagusi gure errealitate begi-bistako askok. Horietako bat, *euskal prentsa* deitzen hasi ginenarena da. Baina azkar eraikitako errealitatei ere azkar eransten zaizkie topikoak. Horietako bat, adanismoarena: dena norberarekin hasi dela uste duena, ez dakiena atzera eta alboetara begiratzen. Baina euskal kazetaritza ez da gaur goizekoa, eta irakurleak ere ez daude norabide bakarrean.

HIZKERA

Hizkera burokratizatua, laua, indarrik gabea darabilen kazetari batek albisteak burokratizatzen ditu, lautzen, indarrik gabeak bihurtzen. Gramatika menderatzea ez da aski. Komunikazioari

begiratu behar dio kazetariak, albistearen nolakotasunari, hizkeraren zehaztasunari, baina baita funtzionaltasunari ere; zuzentasunari, baina baita erritmoari ere...

Kazetaritzak hizkera propioa zaindu behar du, deontologia zaindu behar duen era berean zaindu ere. Areago: ez dago deontologia zaintzerik hizkera ere zaindu gabe.

USTELTZEN BADIGU, USTELTZEN GAITU

Borgesesen bertso ezagun batek dio:

“Arrosaren letretan dago arrosa, Nilo hitzean kabitzen da Nilo osoa”. Izena duen oro da (*Nomen est omen* esaten zuten klasikoek), eta izenak dioen hori da errealitatea. Babari *angula* deituagatik, baba jango duzu.

Ederki, halaxe da, baina antzerkia egin dezakegu, angulak jaten ari garela sinestarazi. Horretarako oso proposak dira hitz eta gai tabuak. Ezin dugu honetaz edo hartaz hitz egin. Edo errespetu izugarri batez mintzatzeko gara etxeko gorabeheraz; libere (arinkeria?) handiz, kanpokoek. Etxeko trapu zikinen auzia, alegia. Tabuek gainera, egokiak dira eufemismoak ere. Eta *disfemismoak* dauzkagu, pertsonak, gauzak edo gertakariak izendatzeko modu gaitzesleak.

Freudek esaten zuen hitzei garrantzirik ez ematetik hasten dela gertakariari ere garrantzirik ez ematea. Hizkuntza ez da errealitatea interpretatzen laguntzen duen tresna edo bitartekari huts bat: hizkuntza errealitatearen parte bat da. Errealitateak, ulertua eta jaso izan dadin, hizkuntzazko izaera bat du. Esaten duenak,

egin ere egiten du. *Txantaje* hitzaren ordez *zerga iraultzailea* erabiltzen duenak badauki errealtatea aldatzen ari dela. Ez, noski, izendatzen ari den ekintza horretan (dirua bortxaz lortzeko bidegabekeria izaten segitzen du ekintzak), ekintzari *zerga iraultzailea* deitzen dionaren juzku moralean baizik.

Hitzaren ahalmen artistiko zein terapeutikoak azpimarratu izan ditugu hizkuntza eder baten izenean, hitzaren inguruko intsentsu sakratua usaintzen eta aurkitzen dugu literaturaren orrialde ederrenetan. Eta hala da. Baina hitza da krimenaren estolderietan sartzeko giltza ere. Hitza gaiztoa da, hitzak baliatzen ditugu hurkoa zapaltzeko, hitzaren bidez zuritzen ditugu gerrak eta bidegabekeriak.

Hitz gaiztoen bidez eragindako basakerien kronika da, neurri handi batean, historia.

PLATON ADISKIDE DUT, BAINA ADISKIDEAGO EGIA

Alda ezazu Aristotelesek esan omen zuen esaldiko lehendabiziko hitza –*Platon*–, eta jarri horren ordez, beste hitz edo espresio hauetakoren bat: Nire alderdia, nire soldata, nire familia, nire erosotasun soziala, nik lan egiten dudana komunikabidea eta bertako jabeak, nire irakurleak, politikoki zuzena, ortodoxia...

Demagun kazetari batek dioela:

—Nire komunikabideko jabeak adiskide ditut, baina adiskideago dut egia.

Berehala esango diote:

—Izan hadi errealista!

Psikiatrarenera eramaten ez badute, gaitz erdi.

“Arriskua dagoen tokian, han dago salbamena ere”, idatzi zuen Hölderlinek, eta erotuta bukatu zuen.

ERREALITATEA

Kazetaritzak eta nobelak errealitatea islatu nahi dute, baina errealitatea ez da gauza bera bi diziplinentzat. Kazetaritzak errealitate erreala nahi du, eta begiak eta belarriak ditu bertara hurbiltzeko modu behinenak. Nobelarentzat, aldiz, izan litekeena ere errealitatea da, eta izan litekeen errealitate fikzioso horretara heltzeko irudimena du bertara hurbiltzeko modu nagusia. Kazetariak, bestalde, leiala izan behar du errealitatearekin, irakurleekin eta bere buruarekin. Nobelagilea, ordea, bere buruarekin leiala den neurrian baino ez da izango leiala irakurleekin, bere buruarekin. Hizkera ere ez dute guztiz berdina, baina horretaz geroxeago arituko naiz.

KAZETARITZA, HIL ZORIAN

Azken bolada luzean nobelaren heriotza bezala, orain kazetaritzarena ari dira iragartzen. Baina oker daude edo, gutxienez, ez dute zehaztasun askorik erakusten: iragartzen ari direna ez da kazetaritzaren heriotza, gaur ezagutzen dugun kazetaritza ereduarena baizik. Paperezkoa; erredakzio batean egina, kate baten gisa, baina oso modu hierarkizatuan antolatua; onura ekonomikoak zerbitzu sozialaren gainetik jartzen dituen...

NEURRIA ERE KONTUAN HARTZEKO A BAITA

Une honetan eskuetan hartu dudan *Berriaren* aleak 56 orrialde ditu. Kopuru horri eusten saiatzen da egunero. Baina, Sánchez Ferlosiok galdetzen zuen bezala, egun guztiek ematen al du 56 orri betetzeko adina albiste? Bihar zergatik ez 8 eta hurrengo batean 120? Gaur askotan praktikatzen den orriak bete beharrari –neurriaren diktadurari– erantzun beharrean, albistearen eta espazioaren arteko dinamika askoz ere malguagoa ekarriko du –ekartzen ari da– sarea. Ez naiz horrek dakarren alde ekonomiko begi-bistakoaz ari, informatu beharraren muinaz baizik; informazioen eta euskarriaren arteko orekaz eta albistearen garrantziaren araberako mailaketaz, alegia.

ALDAKETAK

Informazioa esku gutxitan biltzeko tendentziaren aurrean, informazio-iturriak eta ahotsak dibertsifikatzeko moduak esperimentatzen ari da sarea.

Bestalde, sarea dagoenetik, idazkuntza eta irakurketa aldatzen ari da. Idazteko prozesuari dagokionez, lehen ideiak eta perpausak eta paragrafoak buruan erdi antolatuak izaten genituen idazten hasi aurretik. Testuen estrategiak, luzerak, ordenamendua aldatzen ari dira eta ohitzen ari gara irakurtzeko beste sistema azkarrago batera; oiloa artaleak jaten aritzen den bezalako jardun batera.

IDATZIA ETA IRUDIA

Letra idatziaren presentzia ez da orain arte bezalakoa izango: sareko ibiltari gehienen kultura bisuala da, eta hitzaren eta irudiaren arteko harremana aspaldi inbertitu zen: irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela esaten dugu nire belaunaldikoek ere, egia da, baina, praktikan, irudiak hitza ilustratzeko balio izan digu, nire belaunaldiaren kultur ikuspegiarentzat hitzean baitago dena edo ia dena. Guztiz alderantzizkoa da oraingo joera: hitzak irudia ilustratzeko balio du, tendentzia baita irudian dagoela dena edo ia dena. Nolanahi ere, bi joerok ez dira elkarren kontrakoak: bata bestearen ondoan bizi dira sarean, harmonia onean eta elkarri enbarazurik egin gabe. Lehen nobelagatik esan dudana gertatzen da sarean ere: guztia hartzen duen zaku hondorik gabe bat da Internet.

ETA IRAKURLEA?

Informatu, formatu, entretenitu, aukeratu, zentsuratu, iritzia eman, albiste bat hautatu eta beste bat baztertu, epaitu, parte hartu, polemika bultzatu, debatitu, iragarri, inoren aldeko postura hartu, eragin, iritzi publikoa manipulatu, joera ez gustukoak desmobilizatu, tendentziak markatu eta linea jakin bat gauzatu, komeni denean jendea baretu eta komeni denean sua piztu, aldeko joera sozialak babestu, erantzun, ekin, interpretatu, seduzitu...

Zer ez du egiten hedabide batek?

Kazetari tradizionalarentzat, irakurlea subjektu pasiboa da, ematen zaiona jasotzen du, eta irakurle gizajoari geratzen zaion ia

aukera bakarra, zuzendariari protesta-gutun bat bidaltzea da... argitaratuko dioten esperantzarekin. Hortik aurrera, egunkaria erostearen edo erosteari uztearen arteko dilemari erantzutea da bere ekintzarik askeena.

Hona, ordea, etor daitekeena (etortzen ari dena): sareari esker, irakurleak bere egunkaria osatu ahal izango du nahi duen aldiro; berri-multzo pertsonalizatu bat, bere neurrira osatutako *Urlia's News* moduko albistegi bat. Erraza du, aski baitzaio albiste batetik bestera eta hizkuntza batetik bestera salto egitea; interesatzen zaizkion kontuak hauta ditzake, eta besteak baztertu; atsegin dituen izenen biblioteka moduko bat osatu...

PAPERAREN PAPEREA

Paperezko kazetaritza desagertu egingo da? Ez dut uste. Oraindik ez, behintzat, baina hona seinale txar bat: prentsak oso auto-estimu handia izan du tradizionalki, harrokeria handikoa, eta bitartekari berriak hasi zirenean, mesfidantzaz eta goitik behera begiratzen zien aukera berriei. Hedabide tradizionalak oso berandu eta gogoz kontra bezala igo dira sarearen amaraunera, eta igo badira ere, ez dira bitarteko tradizionalak izan sareko kazetaritza sustatu dutenak, gurditik tiratu dutenak, ekimen alternatiboak baizik. Paperean idatzitakoa sarera igotzea ondo dago, baina denok dakigu hori ez dela aski. Beraz, ikusteko dago zer gertatuko den datozen urteetan. Interesgarria izango da ikuskizuna, emozioz bete.

KAZETARIA

Aspaldi lurrundu eta desagertu zen informazio ahalik objektibo-nari bizitza eskaintzeko prest zegoen kazetari ausart, zintzo eta prestu, eros ezin, printzipiodun baten irudia.

Gaur, kalean galdetuko bagenu kazetariei buruz, inork ez liguke haien zintzotasuna laudatuko: ustelkeriarekin lotuko lituzkete; posizio politikoen mende jartzen dutela informazioa; gai direla printzipioak baztertzeko ale gehiago saltzeagatik... (Orain bi urte Espainiako CISEk egin zuen inkestan, abokatuak eta kazetariak ziren Espainian balorazio txikien –desprestigio handien– izan zuten lanbideak. Aurten, berriz, kazetariak eta, azken postuan, militarrek).

Hori guztia klixer hutsa balitz ere: kazetariaren irudia guztiz aldatu da. Kazetari asko –gehienak?– ez dira jada informaziotik bizi. Kazetari asko enpresen, politikarien, pertsona publikoen irudigileak dira. Beste askok publizitatean egiten du lan. Askok eta asko telebistetan eta ekoizpen etxeetan ari da entretenimendua lantzen, eta, gero eta sarriago, entretenimendua sustatzeko aitzakiaz, kazetaritzaren irudia doilortzen. Hor ikusten ari gara kazetari batzuk egunero-egunero jendearen sentimenduak manipulatzeko eta sen basatienak gizentzen. Hor ari dira kazetariak putetxe bateko harremanen itxura guztizkoa duten programak gidatzen. Eta den-dena, kazetaritzaren izenean.

OBJEKTIBOTASUNA, KUTXA BATEAN

Martin Ugaldek kutxa batekin konparatzen zuen bere lanbidea. Sei alde ditu kutxa batek, baina guk zenbat ikusten ditugu? Osorik, bi bakarrik: begien parez pare duguna eta gainekoa.

Ezker-eskuinekoak, apenas ikusten ditugun. Atzekoa eta azpikoa, batere ez. Non kokatuta gauden, halakoa da errealitatearen pertzepzioa. Pertzepzio hori da errealitatea, gure begiradak –edo gure sentiberatasunak, edo gure ideologiak, edo gure aurreiritziek– harrapatzen dutenari deitzen diogu hala? Ez, jakina, baina kazetaritza dogmatikoak beti izan du egia eta norberaren ikuspegia berdintzeko arriskua: ni naiz objektibotasunaren neurria eta ardatza, nire begiradaren arabera da mundua –bidenabar esanda: kazetaritza dogmatikoa *contradictio in terminis* bat da; oximoron bat; baina existitu, existitzen da.

ISTRIPU BAT KALEAN

Demagun istripu bat kalean. Amona bat zebrabidean doa. Mutil batek, motor batean datorrela, amona harrapatu du. Istripuaren lekukoak: lehendabizi, amona bera eta mutila. Han ziren baita ere epaile bat, ertzaina, jogging egiten ari zen mutil bat, amonaren semea, mutilaren ama, herriko apaiza, harakina, motor konpontzailea... Istripuaren zein bertsio emango du haietariko bakoitzak? Nork nabarmenduko du semaforoa gorrian zegoela? Nork esango du amona burua galtzen hasita dagoela, edo seme-alabek abandonatu izanaren traumapean dagoela? Nork seinalatuko ditu eta zein asmoz mutilaren txima luzea, txupa beltza, motorraren potentzia, aurpegiko arrasto arabiarrak? Nork salatuko du zorua labaina zegoela bezperan eroritako olio inork jaso ez duelako? Istripuaren zer-nolako bertsioa emango luke lekukoetako bakoitzak?

Demagun, halaber, nobelagile bat pasatu dela bertatik: lekukoak adina bertsio eman ditzake. Berriak asmatu ere bai. Edo

bertsioen arteko jokoaren egin. Literaturak askotarako balio du: baita errealtateari bizkarra erakusteko ere.

Demagun kazetari bat pasatu dela bertatik: nola jokatu luke, zenbat eragingo liokete dituen aurreiritziek, han dauzkan lekuko maila sozialak, albistea jasoko duen hedabideko ideologiaren arabera auto-zentsurak?

EGUNKARIAK ESAN DU!

Juan José Millás idazleari asko gustatzen zaio anekdota polit bat kontatzea, Argentinan entzun omen zuen kazetaritzari buruzkoa. Sumendi baten erupzioaren berri ematen ari dira teletipoak. Ordezkaritza-lanen bat egiten ari den mutil bekadun batek ez daki sumendiaren izena hatxeaz edo hatxerik gabe idazten den. Erredakziokoren bati galde diezaioke, baina, hala egingo balu, erredakziokoen ziriak eta algarak jasan beharko lituzke. Horregatik, amari deitzea erabaki du, baina amatxo maiteak ere ez daki sumendiaren izena hatxez ala hatxerik gabe idazten den. Bekadunak pentsatzen du: “Ehuneko berrogeita hamar aukera ditiat izena asmatzeko”. Arriskatu egin da, erabakia hartu du. Biharamunean, amak deitu dio esateko sumendiaren izena hatxez idazten dela:

–Zure egunkari horretan hala irakurri dut.

LIBURU HAU
2009KO MARTXOAREN 27AN INPRIMATUA DA.
GARAMOND, HORLEY ETA **BIRCH**
LETRA MOTAK ERABILI DIRA.

